



Gazteen
Euskal Behatokia
Observatorio Vasco
de la Juventud

Gazteen adierazleak 2011

EGP  PJE
Euskadiko Gazteen
Panoramika Panóramica
de la Juventud de Euskadi



EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA





Gazteen
Euskal Behatokia
Observatorio Vasco
de la Juventud

Gazteen adierazleak 2011

EGP  PJE
Euskadiko Gazteen Panoramika
Panorámica de la Juventud de Euskadi



EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Gazteria eta Gizarte Ekintza
Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Dirección de Juventud y Acción
Comunitaria

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2012

Lan honen bibliografia-erregistroa Eusko Jaurlaritzako Liburutegi Nagusiaren katalogoan aurki daiteke: <http://www.bibliotekak.euskadi.net/WebOpac>

Argitaraldia:	1.a, 2012ko azaroa
©	Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa Kultura Saila
Argitaratzailea:	Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco Donostia-San Sebastián, 1 – 01010 Vitoria-Gasteiz
Internet:	www.euskadi.net
Egilea:	Elías Trabada Crende Emic-Etic, S.L. aholkularitza-enpresa
Koordinazioa:	Nieves Corcuera Bilbao
Itzulpena:	
Diseinua eta diagramazioa:	Canaldirecto • www.canal-directo.com

Aurkibidea

AURKEZPENA 7

01. BIZTANLERIAREN BILAKAERA ETA DENTSITATEA 9

1. Euskal Autonomia Erkidegoa eta Espainia 12
2. Lurralde historikoak 16
3. Eskualdeak 20
4. Ondorioak 27

02. ADIN-TALDE HANDIEN ETA SEXUAREN ARABERAKO EGITURA 29

1. Euskal Autonomia Erkidegoa eta Espainia 32
2. Lurralde historikoak 37
3. Eskualdeak 42
4. Ondorioak 48

03. 15 ETA 29 URTE BITARTEKO GAZTEAK 51

1. Euskal Autonomia Erkidegoa eta Espainia 54
2. Lurralde historikoak 62
3. Eskualdeak 70
4. Ondorioak 76

04. EZKONTZAK ETA EZKONTZA-DESEGITEAK 79

1. Euskal Autonomia Erkidegoa eta Espainia 83
 2. Lurralde historikoak 92
 3. Eskualdeak 98
 4. Ondorioak 99
- Bibliografia 100

05. JAIOTZAK ETA UGALKORTASUNA 101

1. Euskal Autonomia Erkidegoa eta Espainia 104
 2. Lurralde historikoak 116
 3. Eskualdeak 122
 4. Ondorioak 126
- Bibliografia 128

06. OSASUNA 131

1. Kontsulta medikoak 134
 2. Drogazaletasunaren tratamenduen hasierak 138
 3. GIB infekzio berriak 143
 4. Haurdunaldiaren borondatezko etendurak 149
 5. Ondorioak 154
- Bibliografia 155

07. HERIOTZAK 157

1. Euskal Autonomia Erkidegoa
eta Espainia 160
 2. Lurralde historikoak 169
 3. Ondorioak 177
- Bibliografia 177

08. HEZKUNTZA ETA EUSKARA 179

1. Hezkuntza 182
 2. Euskara 200
 3. Ondorioak 205
- Bibliografia 207

09. JARDUERA, ENPLEGUA ETA LANGABEZIA 209

1. Euskal Autonomia Erkidegoa
eta Espainia 212
 2. Lurralde historikoak 222
 3. Ondorioak 224
- Bibliografia 225



Aurkezpena

Euskadiko Gazteen Panoramika izeneko bilduma 2007an abiarazi zuen Gazteen Euskal Behatokiak, aldian-aldian gazteei buruzko datu estatistikoak jasoko dituen argitalpen baten premiari erantzunik.

Txosten honek, bildumaren laugarrenak, bi aldaketa dakartza aurrekoekin alderatuta: bate-tik, urterokoa izan beharrean, 2009ra arte bezala, hemendik aurrera bi urtean behingoa izango da; bestetik, argitalpen elektroniko bi-lakatuta dator, paperezko argitalpena alde ba-tera utzita.

Esku artean duzun azterlana 2011n burutu zen, eta gazteek bizi duten egoerari buruzko informa-zio gaurkotua ematen du hainbat gaitan. Hasie-rako kapituluetan demografia-gaiak aztertu eta gero, honako gai hauei buruzko adierazlerik esanguratsuenak lantzen ditu: ezkontzak eta ezkontza-desegiteak, jaiotzak eta ugalkortasuna, osasuna, hezkuntza eta euskara eta, amaitzeko, Euskadiko gazteen lan-egoera.

Ikerketa soziologiko honek deskribapenezko ha-maika datu interesgarri biltzen ditu. Datuak nag-u-siki kuantitatiboak dira, bigarren mailako askota-

riko iturrietakoak, bai eta batzuetan Gazteen Euskal Behatokiaren ikerketetakoak ere.

EAEko gazteei buruzko informazioa Espainiako gazteenarekin erkatzen da, bai eta, ahal den guztie-tan, Euskadi osatzen duten lurralde historikoetako eta hogeit eskualdeetakoekin ere. Analisisian kontuan izan dira gizon eta emakumeen arteko al-deak, bai eta adinaren araberrakoak ere, zehazki bost urteka banatutako hiru talderen araberrakoak: 15 eta 19, 20 eta 24 eta 25 eta 29 urte bitartekoak.

Gazteen adierazleak 2011 argitalpen honek, gaine-ra, adierazle gehienetan 15 urteko tartea hartzen du, 1996tik 2010era doana. Tarte zabal horri esker, 1990eko hamarkadaren amaieratik 2007 arteko urte oparotako bilakaeraren ikuspegi oso samarra ematen dute adierazleek, eta azken urteotako kri-sialdiak gazteei nola eragin dien ere ikus daiteke.

Espero dugu ikuspegi soziologiko honetako datuak eta analisiak interesgarriak eta erabilgarriak izatea EAEko erakunde publikoetan gazte-politiken ardu-ra dutenentzat, bai gazteen egoera aztertzen dihar-dutenentzat, bai eta gazteekin lanean ari direnen-tzat ere; eta espero dugu, azken batean, gazteen egoera hobetzeko baliagarriak izatea.

BLANCA URGELL LÁZARO

EUSKO JAURLARITZAKO KULTURA SAILBURUA



Biztanleriaren bilakaera eta dentsitatea 01



EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA





Lehen kapituluan, biztanleriak 1996ko maiatzaren 1etik 2010eko urtarrilaren 1era bitarte izandako bilakaera ikusiko dugu, EAEko udal-erolden arabera. Aldi horretan, 2001eko, 2008ko eta 2009ko urtarrilaren 1eko errolda-azterketak ere hartuko dira kontuan. Guztizko biztanleriaz gain, herritartasunaren arabeko bilakaera demografikoa ere aztertuko dugu (Espainiakoa eta atzerrikoa), atzerritarrek guztizko biztanlerian duten ehunekoa eta kontinenteen zein herrialdeen arabeko banaketa kalkulatu-ta. Azkenik, gure arreta erroldatutako biztanleriaren dentsitatean eta lurraldearen arabeko banaketan jarriko dugu.

Lurralde-ikuspegian, Euskadiko datuak aztertuko ditugu, Espainiakoeekin konparatuta eta, jarraian, hiru lurralde historikoen azterketa konparatiboari ekingo diogu. Azkenik, hoge eskualdeei dagozkien datuei buruzko epigrafearekin amaituko dugu.

1. Euskal Autonomia Erkidegoa eta Espainia

2010eko urtarilaren 1ean, Euskal Autonomia Erkidegoko udal-erroldek 2.178.339 pertsona biltzen zituzten. Hori % 3,8ko gehikuntza da 1996ko maiatzaren 1ean erroldatutako biztanleriari dagokionez; guztira, 80.284 pertsona gehiago dira. Aipatzekoa da hazkunde erlatibo hori oso txikia izan dela, Espainia osoan izandakoarekin konparatuta; bertan errol-datutako biztanleriaren gehikuntza bost aldiz handiagoa izan zen: % 18,5, hain zuzen ere. Horregatik, Euskadin errol-datutako biztanleriak garrantzia galdu du Estatuaren barnean: 1996ko maiatzean, % 5,3 adierazten bazuen, 2010. urtearen hasieran, bere garrantzia Espainiako guztiz-koaren % 4,6ra murriztu zen —ikus 1. taula—.

Nabarmen txikiagoa den hazkunde demografikorako joera hori egungo krisi ekonomikoak markatutako al-dian ere adierazten da: horrela, 2008/1/1 eta 2010/1/1 artean, Euskadiren hazkundea Espainiakoaren erdia dela ikus dezakegu (% 1 eta % 1,9,

hurrenez hurren); datu hori azken urte arteko bilakae-ran ere agertzen da; hau da, 2009ko urtariletik 2010era bitarte (% 0,3 eta % 0,6, hurrenez hurren).

Orokorrean, biztanleriaren gehikuntza edo murrizke-ta lau fluxu-faktoreen elkarrekintzaren ondorioa da: sartzeko noranzkoa duten bi (jaiotza-tasa eta immi-grazio-tasa), eta irteteko noranzkoa duten beste bi (heriotza-tasa eta emigrazio-tasa). Berezko hazkun-dea jaiotza-tasaren eta heriotza-tasaren arteko aldea da: emaitza positiboa bada, hazkuntzari eragiten dio; negatiboa bada, beheraldi demografikoari eragiten dio. 1996tik 2009ra bitarteko aldian, EAEko udale-rrietan amagandik bizirik jaiotakoen batukaria 259.691 gizabanakoetara iritsi zen. Aldi berean, eus-kal udalerrietan errol-datutako hildakoen batukaria 261.291 izan zen; ondorioz, berezko hazkundea ne-gatiboa izan zen, 1.600 pertsonako aldearekin. Be-raz, Euskadin, 1996ko maiatzetik eta 2010eko urta-rrilera, errol-datutako biztanleriaren hazkundearen

(+80.284 gizabanako) fluxu-faktore nagusia ez zen jaiotza-tasa izan, immigrazio-fluxua baizik: zehaz-ki, migrazio saldo positiboek 29.424 pertsonaren ira-bazia eragin zuten (370.830 immigrante – 272.406 emigrante)¹; kopuru horrek euskal demografiak izan-dako hazkunde osoa argitzen du.

Espainian, berezko hazkundeak hazkunde demo-grafikoari lagundu zion, baina laguntza hori haz-kunde absolutuaren % 8,6 izan zen soilik. Baina populazioaren hazkundearen arrazoi nagusia immi-grazio-fluxua izan da: 1996tik 2009ra, migrazio sal-doa positiboa izan zen, 5.472.775 pertsonarekin (6.657.071 immigrante – 1.184.296 emigrante)²; hitz batez, migrazio saldo positibo horrek Espainiako biztanleriak izandako % 74,4ko hazkunde absolutua argitzen digu, gutxienez.

Labur esanda, jaiotza-tasa txikiko egoera demogra-fikoan, immigrazioa da biztanleriaren hazkundearen

¹ EAErako datuak iturri estatistikoetatik atera dira: a) jaiotzak eta heriotzak «Populazioaren Mugimendu Naturala, EIN» dokumentutik; b) immigranteak eta emigranteak «Migrazio Mugimenduen Estatistika, Datu Bankua, EUSTAT» dokumentutik.

² Espainiarako datuak iturri estatistikoetatik atera dira: a) jaiotzak eta heriotzak «Populazioaren Mugimendu Naturala, EIN» dokumentutik; b) immigranteak eta emigranteak «Migrazioak, Egoitza Aldakuntzen Estatistika, EIN» dokumentutik. Iturri horiek ez du kanpo emigrazioei buruzko informaziorik 1996rako eta 1998rako (Espainiako zein atzerriko pertsonenak). Edozer kasutan, atzerriako emigranteen kopurua murriztu egin zen, arrazoi horregatik 1997an eta 1999an erregis-tratutako 313 eta 208 errolda-bajak kontuan baditugu.

faktore nagusia, EAEn zein Espainian. Alde horretatik, 1996. eta 2010. urteen artean, biztanle atzerritar berriek Euskadiko eta Espainiako demografia aldatu dute goitik behera, hiru zentzutan:

- a) Batetik, hazkundea sustatuta, gizabanako berriak ekarrita.
- b) Bestetik, adinen egitura gaztetuta, zahartze prozesuak asko eragin baitio.
- c) Eta, azkenik, jaiotza-tasaren gorakadari lagunduta, atzerritarren ugalkortasun handiagoari esker (batez ere, garapen bideko herrialdeetako atzerritarrek³).

Hori esanda, ezagutu dezagun Euskadiko eta Espainiako udalerrietan erroldatutako pertsona kopuruen bilakaera. 1996ko maiatzaren 1etik 2010eko urtarrilaren 1era bitarte, pertsona kopurua antzeko proportzioan hazi zen EAEn zein Espainian: % 954 eta % 960, hurrenez hurren. Hazkunde garrantzitsu horren ondoren, Euskadiko udal-erroldek 139.369 atzerritar erregistratu dituzte guztira, Estatuko udalerrietan erroldatutako atzerritar guztien % 2,4, hain zuzen ere (5.747.734 pertsona) —ikus 2. taula—.

³ Garapen bidean, azpigaratuak eta garatu gabeak edo herrialde behartsuak.

1. taula. Biztanleriaren bilakaera EAEn eta Espainian (1996-2010): kopuru absolutuak eta portzentajeazko aldakuntzak

Lurralde-esparrua	1996	2001	2008	2009	2010	▲% 2010/1996
EAE	2.098.055	2.101.478	2.157.112	2.172.175	2.178.339	3,83
Espainia	39.669.392	41.116.842	46.157.822	46.745.807	47.021.031	18,53
(%) EAEn / Espainian	5,29	5,11	4,67	4,65	4,63	

Iturria: 1996/5/1eko Biztanleen Udal Erroldaren Berritzea; 2001/1/1ean, 2008/1/1ean, 2009/1/1ean eta 2010/1/1ean egindako Udal Erroldaren Azterketak, Estatistikako Institutu Nazionala (INE).

2. taula. EAEn eta Espainian erroldatutako populazio atzerritarren bilakaera (1996-2010): kopuru absolutuak eta portzentajeazko aldakuntzak

Lurralde-esparrua	1996	2001	2008	2009	2010	▲% 2010/1996
EAE	13.220	27.438	117.337	132.865	139.369	954,2
Espainia	542.314	1.370.657	5.268.762	5.648.671	5.747.734	959,9
Populazio atzerritarra (%) EAEn / Espainian	2,4	2,0	2,2	2,4	2,4	

Iturria: 1996/5/1eko Biztanleen Udal Erroldaren Berritzea; 2001/1/1ean, 2008/1/1ean, 2009/1/1ean eta 2010/1/1ean egindako Udal Erroldaren Azterketak, INE.

Zer ehuneko adierazten dute atzerritarrek, erroldatutako guztizko populazioari dagokionez? 2010. urtearen hasieran, euskal biztanleriaren % 0,4 adierazten zuten, tasa 1996ko maiatzekoa baino askoz handiagoa izanik; izan ere, orduan, kolektiboak presentzia kuantitatibo marjinala zuen (% 0,6). Edozer kasutan, 2010eko urtarrilaren 1ean, Espainiako Estatuko atzerritar tasa EAEn tasaren ia bikoitza da: % 12,2 eta % 6,4, hurrenez hurren. Horrek atzerriko immigrazioaren fenomenoak euskal udalerrietan inpaktu txikiagoa izan duela adierazten digu; aztertutako aldi osoan

agertzen den eragin txikiagoa, hain zuzen ere, 3. taulan ikus daitekeen bezala.

Erroldatutako atzerritarren jatorrizko kontinenteari dagokionez, 2010eko urtarrilaren 1ean, adierazi beharreko bi desberdintasun ikusten ditugu: Euskadin, Hego Amerikako herrialdeetako atzerritarrak dira nagusi (% 37,9 eta Estatuan % 26,7); Espainiako Estatuan, aldiz, Europar Batasuneko herritarrak gailentzen dira (% 40,9, eta EAEn % 25,7)—ikus 5. taula—.

Jarraian, biztanleen dentsitatea aztertuko dugu. 1996ko maiatzetik 2010eko urtarrilera, Euskadi 11

pertsonatan hazi zen km² bakoitzeko (289tik 301era), Espainiako goranzko aldakuntza baino hiru pertsona gutxiago (14,5). Nolanahi ere, adierazle horren balioa askoz handiagoa da EAEn; izan ere, Espainiako balioaren hirukoitza da: 301 pertsona km² bakoitzeko, 93 pertsonaren aurrean —ikus 4. taula—.

Euskadik Estatuko batez bestekoak baino askoz biztanle gehiago ditu: 2010eko urtarrilaren 1ean, Euskadiren azalera Espainiaren % 1,5 adierazten du, baina bertako populazioa Espainiako guztizko biztanleriaren % 4,6 da.

3. taula. Atzeritarren tasak* EAEn eta Espainian izandako bilakaera (1996-2010)

Lurralde-esparrua	1996	2001	2008	2010	Aldera 2010 – 1996
EAE	0,6	1,3	5,4	6,4	5,8
Espainia	1,4	3,3	11,4	12,2	10,9

(*) Atzeritarren tasa = atzeritarren ehuneko biztanleria osoarekiko.

Iturria: 1996/5/1eko Biztanleen Udal Erroldaren Berritzea; 2001/1/1ean, 2008/1/1ean, 2009/1/1ean eta 2010/1/1ean egindako Udal Erroldaren Azterketak, INE.

4. taula. Biztanleriaren dentsitatearen (biztanleak km² bakoitzeko) bilakaera EAEn eta Espainian (1996-2010)

Lurralde-esparrua	Azalera km ² -tan	Dentsitatea 1996an	Dentsitatea 2010ean	Aldera 2010 – 1996
EAE	7.235,1	289,0	301,1	11,1
Espainia	505.938,1	78,4	92,9	14,5

Iturria: Lurralde Azalera, 1996/5/1eko Biztanleen Udal Erroldaren Berritzea, eta 2010/1/1ean egindako Udal Erroldaren Azterketa, INE.

5. taula. EAEn eta Espainian 2010eko urtarilaren 1ean errolatutako biztanle atzerritarrak, jatorrizko kontinentearen arabera

Kontinenteak	EAĒ	EAĒko guztizkoaren gaineko %	Espainia	Espainiako guztizkoaren gaineko %	Aldea EAĒ – Espainia
Europa	39.857	28,6	2.578.971	44,9	-16,3
Europar Batasuna	35.755	25,7	2.350.172	40,9	-15,2
Erkidegokoa ez den Europa	4.102	2,9	228.799	4,0	-1,0
Afrika	29.191	21,0	1.059.369	18,4	2,5
Amerika	62.412	44,8	1.788.680	31,1	13,7
Erdialdeko Amerika eta Karibe	7.801	5,6	201.374	3,5	2,1
Ipar Amerika	1.753	1,3	54.099	0,9	0,3
Hego Amerika	52.858	37,9	1.533.207	26,7	11,3
Asia	7.778	5,6	317.646	5,5	0,1
Ozeania	105	0,1	2.535	0,0	0,0
Aberrigabeak	26	0,0	533	0,0	0,0
GUZTIRA	139.369	100,0	5.747.734	100,0	0,0

Iturria: 2010/1/1eko Udako Erroldaren Azterketa, INE.

2. Lurralde historikoak

Hasteko, modu berdintsuan banatzen al da euskal biztanleria bertako hiru lurralde historikoen artean? Erantzuna 'ez' da, eta lurralde desberdintasun horrek azaleraren eta biztanleriaren arteko erlazioaren berri ematen digu: Arabak Euskadiko azaleraren % 42 hartzen du baina, 2010. urtearen hasieran, Euskadiko udalerrietan errolatutako biztanleriaren % 14,6 hartzen du bakarrik. Erlazio hori alderantzikatu egiten da Bizkaian; izan ere, euskal biztanleriaren % 53 bizi da EAEko azaleraren % 30,7an. Gipuzkoan, berriz, azaleraren eta populazioaren arteko erlazioa orekatuagoa da: euskal azaleraren eta biztanleriaren % 27,4 eta % 32,5 hartzen ditu, hurrenez hurren —ikus 6. taula—.

1996ko maiatzaren 1etik 2010eko urtarrilaren 1era, hiru lurralde historikoek bilakaera demografiko positiboa izan zuten, nahiz eta desberdina izan intentsitateari dagokionez: Bizkaian pixka bat hazi zen (% 1,2), Gipuzkoako hazkuntza neurritsua izan zen (% 4,6) eta, Araban, populazioaren ehunekoaren hazkuntza garrantzitsua izan zen (% 12,6). Joera hori egungo krisi ekonomikoaren aldiari gertatu da: 2008ko urtariletik 2010era, behe-muga Bizkaian duen (% 0,6) eta goi-muga Araban duen (% 2,5) portzentajezko bitartea zehaztu zen —ikus 7. taula—.

6. taula. EAEko azaleraren eta biztanleriaren banaketa ehunekotan 2010eko urtarrilaren 1ean, lurralde historikoen arabera

Lurralde historikoak	Azalera km ² -tan	Lurralde historikoetako azalera, EAEkiko (%)	Biztanleria 2010	Lurralde historikoetako biztanleria, EAEkiko (%)	Biztanleriaren % / azaleraren %
Araba	3.037,5	42,0	317.352	14,6	0,4
Bizkaia	2.217,3	30,7	1.153.724	53,0	1,7
Gipuzkoa	1.980,3	27,4	707.263	32,5	1,2
EAE	7.235,1	100,0	2.178.339	100,0	1,0

Iturria: Lurralde Azalera, 1996/5/1eko Biztanleen Udal Erroldaren Berritzea, eta 2010/1/1ean egindako Udal Erroldaren Azterketa, INE.

7. taula. Biztanleriaren bilakaera lurralde historikoetan (1996-2010): kopuru absolutuak eta portzentajezko aldakuntzak

Lurralde historikoak	1996	2001	2008	2009	2010	▲% 2010/1996
Araba	281.821	288.793	309.635	313.819	317.352	12,6
Bizkaia	1.140.026	1.132.616	1.146.421	1.152.658	1.153.724	1,2
Gipuzkoa	676.208	680.069	701.056	705.698	707.263	4,6

Iturria: 1996/5/1eko Biztanleen Udal Erroldaren Berritzea; 2001/1/1ean, 2008/1/1ean, 2009/1/1ean eta 2010/1/1ean egindako Udal Erroldaren Azterketak, INE.

Atzerriko immigrazioa hazkuntza demografikoaren eta lurralde historikoen arteko intentsitate desberdintasunen faktore nagusia da. 1996tik 2010era, atzeritarren kolektiboa %1.403 hazi zen Araban, % 952 Bizkaian, eta % 782 Gipuzkoan. Ondorioz, jadanik ezagutzen dugu Arabako populazioaren hazkunde erlatibo handiagoaren arrazoia: erlatiboki handiagoa den immigrante atzeritarren ekarpena. Era berean, aipatzekoa da atzerriko immigrazioak jarduten jarraitu duela egungo krisi ekonomikoan, hiru lurralde historikoetan, 2008ko urtarritetik 2010era ikus daitekeen bezala. Horrek intentsitate handiagoa izan du Araban (% 23,5), Gipuzkoan (% 18,1) eta Bizkaian (% 17,3) baino —ikus 8. taula—.

Lurralde historikoetan populazioa hazteko immigrazio atzeritarren beharra argi eta garbi ikusten da 9. taulan: 1996ko maiatzetik 2010eko urtarrilera, Bizkaiko eta Gipuzkoako demografiak txikitu egingo ziren atzeritarren ekarpenik gabe; izan ere, Espainiako herritarren kopurua jaitsi egin zen (–% 4,3 eta –% 1, hurrenez hurren). Araba da salbuespena: hazkunde nahikoa izango zen Espainiako herritarren ekarpen soilarekin (% 3,3).

Orduan, nola banatzen dira euskal udalerrietan erroldatutako atzeritarrak hiru lurralde historikoetan? Aipatzekoa da, 1996ko maiatzaren 1etik 2010eko urtarrilaren 1era, Gipuzkoako populazio atzeritarrak portzentajezko garrantzia galdu zuela Araban bizi ziren atzeritarren alde; bitartean,

8. taula. Biztanleria atzeritarren bilakaera lurralde historikoetan (1996-2010): kopuru absolutuak eta portzentajezko aldakuntzak

Lurralde historikoak	1996	2001	2008	2009	2010	▲% 2010/1996
Araba	1.877	5.462	22.840	26.021	28.210	1.402,9
Bizkaia	6.533	13.120	58.562	65.985	68.710	951,7
Gipuzkoa	4.810	8.856	35.935	40.859	42.449	782,5

Iturria: 1996/5/1eko Biztanleen Udal Erroldaren Berritzea; 2001/1/1ean, 2008/1/1ean, 2009/1/1ean eta 2010/1/1ean egindako Udal Erroldaren Azterketak, INE.

9. taula. Biztanleriaren bilakaera lurralde historikoetan, herritartasunaren arabera (1996-2010): kopuru absolutuak eta portzentajezko aldakuntzak

Lurralde historikoak eta herritartasuna	1996	2010	▲% 2010/1996
Espainiako herritartasuna			
Araba	279.944	289.142	3,3
Bizkaia	1.133.493	1.085.014	–4,3
Gipuzkoa	671.398	664.814	–1,0
Atzerriko herritartasuna			
Araba	1.877	28.210	1.402,9
Bizkaia	6.533	68.710	951,7
Gipuzkoa	4.810	42.449	782,5
GUZTIRA			
Araba	281.821	317.352	12,6
Bizkaia	1.140.026	1.153.724	1,2
Gipuzkoa	676.208	707.263	4,6

Iturria: 1996/5/1eko Biztanleen Udal Erroldaren Berritzea eta 2010/1/1ean egindako Udal Erroldaren Azterketa, INE.

Gazteen adierazleak 2011

Bizkaikoak bere garrantziari eutsi zion Euskadiko guztizko populazio atzeritarraren barnean. Arabako lurralderako bilakaera mesedegarri horrekin ere, komeni da kontuan izatea Bizkaia dela oraindik erroldatutako atzeritar gehien hartzen dituen lurralde historikoa. Araba, berriz, gutxien hartzen dituen da: 2010eko urtarilaren hasieran, 68.710 atzeritar (% 49,3) zenbaitu ziren Bizkaian, 28.210 Araban (% 20,2) eta gainontzeko 42.449 atzeritarrak (EAEko guztizko biztanleria atzeritarraren % 30,5) Gipuzkoako udalerrietan bizi ziren —ikus 10. taula—.

1996tik 2010era, atzeritarren tasa nabarmen hazi da hiru lurralde historikoetan. 2010ean, populazio

atzeritarrak garrantzi erlatibo handiagoa du Araban (izan ere, guztizko biztanleriaren % 8,9 dira), Bizkaian eta Gipuzkoan baino (% 6 bietan) —ikus 11. taula—.

2010eko urtarilaren 1ean erroldatutako biztanleria atzeritarraren jatorriari dagokionez, hiru herrialde historikoetan Hego Amerikako herritarrak direla nagusi nabaritu dugu. Bizkaian horien proportzioa nabarmenagoa bada ere (% 44,9), Araban eta Gipuzkoan, horien banaketa ezberdina goa edo pluralagoa da. Nolanahi ere, aipatzekoa da afrikarrak ohikoagoak direla Araban (% 32,9), eta Europar Batasunekoak (% 31,9) zein Erdial-

deko Amerikakoak eta Karibekoak (gustizko biztanleria atzeritarraren % 11,1), berriz, Gipuzkoan —ikus 12. taula—.

Dentsitate demografikoaren bilakaerari dagokionez, guztizko populazioa kontuan hartuta (hau da, jatorria kontuan izan gabe): Gipuzkoa eta Araba, ondoren, hazkuntza handienak izateagatik nabarmentzen dira. Hala ere, 2010. urtearen hasieran, Bizkaia da oraindik populazio dentsitate handieneko lurralde historikoa (520 biztanle km² bakoitzeko); Araba, berriz, kontrakoarengatik nabarmentzen da (104 biztanle km² bakoitzeko) —ikus 13. taula—.

10. taula. EAEko erroldatutako atzeritarren banaketaren bilakaera, lurralde historikoen arabera (1996-2010)

Lurralde historikoak	1996	1996 (EAEko %)	2010	2010 (EAEko %)	Aldea (%) 2010 – 1996
Araba	1.877	14,20	28.210	20,24	6,04
Bizkaia	6.533	49,42	68.710	49,30	-0,12
Gipuzkoa	4.810	36,38	42.449	30,46	-5,93
EAE	13.220	100,00	139.369	100,00	0,00

Iturria: 1996/5/1eko Biztanleen Udal Erroldaren Berritzea eta 2010/1/1ean egindako Udal Erroldaren Azterketa, INE.

11. taula. Atzeritarren tasak lurralde historikoetan izandako bilakaera (1996-2010)

Lurralde historikoak	1996	2001	2008	2009	2010	Aldea 2010 – 1996
Araba	0,67	1,89	7,38	8,29	8,89	8,22
Bizkaia	0,57	1,16	5,11	5,72	5,96	5,38
Gipuzkoa	0,71	1,30	5,13	5,79	6,00	5,29

Iturria: 1996/5/1eko Biztanleen Udal Erroldaren Berritzea; 2001/1/1ean, 2008/1/1ean, 2009/1/1ean eta 2010/1/1ean egindako Udal Erroldaren Azterketak, INE.

12. taula. 2010eko urtarilaren 1ean lurralde historikoetan errolatutako populazio atzeritarra, jatorrizko kontinentearen arabera

Kontinenteak	Araba	Arabako biztanleria osoarekiko %	Bizkaia	Bizkaiko biztanleria osoarekiko %	Gipuzkoa	Gipuzkoako biztanleria osoarekiko %
Europa	7.139	25,31	17.373	25,28	15.345	36,15
Europar Batasuna	6.047	21,44	16.150	23,50	13.558	31,94
Erkidegokoa ez den Europa	1.092	3,87	1.223	1,78	1.787	4,21
Afrika	9.281	32,90	13.501	19,65	6.409	15,10
Amerika	10.243	36,31	33.845	49,26	18.324	43,17
Erdialdeko Amerika eta Karibe	979	3,47	2.126	3,09	4.696	11,06
Ipar Amerika	222	0,79	836	1,22	695	1,64
Hego Amerika	9.042	32,05	30.883	44,95	12.933	30,47
Asia	1.528	5,42	3.926	5,71	2.324	5,47
Ozeania	2	0,01	60	0,09	43	0,10
Aberrigabeak	17	0,06	5	0,01	4	0,01
Guztira	28.210	100,00	68.710	100,00	42.449	100,00

Iturria: 2010/1/1eko Udal Errolaren Azterketa, INE.

13. taula. Biztanleriaren dentsitatearen (biztanleak km² bakoitzeko) bilakaera lurralde historikoetan (1996-2010)

Lurralde historikoak	Azalera km ² -tan	Dentsitatea 1996an	Dentsitatea 2010ean	Aldea 2010 – 1996
Araba	3.037,52	92,78	104,48	11,70
Bizkaia	2.217,28	514,16	520,33	6,18
Gipuzkoa	1.980,34	341,46	357,14	15,68

Iturria: Lurralde Azalera, 1996/5/1eko Biztanleen Udal Errolaren Berritzea, eta 2010/1/1ean egindako Udal Errolaren Azterketa, INE.

3. Eskualdeak

EAEko hoge eskualdeetako hamazazpitan, errol-datutako populazioa hazi egin zen 1996ko maiatzetik 2010eko urtarrilera; hala ere, hazkundearen tamaina era askotakoa izan zen. Zehazki, Gorbeialdea (% 41,8) eta Arabako Ibarak (% 39,2) nabarmen-tzen dira euren hazkunde erlatibo aipagarriengatik. Horien atzetik, Plentzia-Mungia (% 22,6), Markina-Ondarroa (% 17,8), Arabako Errioxa (% 17,6), Urola Kosta eta Arabako Lautada (biak % 13rekin) ditugu. Kontrako aldean, hau da, atzera egiten, hiru eskualde ditugu soilik: Debabarrena (–% 3,3), Debagoiena (–% 2,7) eta Bilbo Handia (–% 1,4). Ondorioz, badirudi 1996-2010 aldian populazioaren deskontzentrazio eta zabalkunde joerak izan direla Euskadiko eskualdeetan, Arabako ia eskualde guztien alde, Arabako Mendialdean izan ezik; Bilboko hirialdean, joerek Bilbo Handiko kanpoaldearen alde jardun dute eta, Gipuzkoan, populazioaren hazkunde biziagoa izan da Donostiaren inguruko eskualdeetan. —ikus 14. taula—.

Bestalde, 2008ko urtariletik 2010era arteko al-dian kontzentratzen bagara, egungo krisi ekonomikoan, bilakaera positiboa nabarmena izan da oraindik bost eskualdetan; izan ere, horietan, erroldatutako biztanleriak autonomiako hazkunde bikoiztu du, gutxienez (% 1): Urola Kosta (% 2), Arabako Lautada (% 2,7), Gorbeialdea (% 3,5), Plentzia-Mungia (% 3,9) eta Arabako Ibarak (% 4,6). Nolanahi ere, bilakaera ez da negati-

14. taula. Biztanleriaren bilakaera eskualdeetan (1996-2010): kopuru absolutuak eta portzentajeak aldakuntzak

Eskualdeak	1996	2001	2008	2009	2010	▲% 2010/1996
Arabako Kantaurialdea	33.742	33.135	33.853	34.071	34.231	1,5
Gorbeialdea	6.000	6.850	8.220	8.377	8.507	41,8
Arabako Lautada	225.147	230.891	247.604	251.339	254.322	13,0
Arabako Mendialdea	3.140	3.129	3.175	3.184	3.179	1,2
Arabako Errioxa	9.658	10.058	11.283	11.287	11.360	17,6
Arabako Ibarak	4.134	4.730	5.500	5.561	5.753	39,2
Arratia Nerbioi	21.128	21.254	22.910	23.169	23.322	10,4
Enkarterria	29.791	29.586	30.944	31.228	31.474	5,7
Bilbo Handia	887.977	875.975	873.005	876.430	875.801	–1,4
Plentzia-Mungia	43.946	44.457	51.866	52.907	53.863	22,6
Gernika-Bermeo	44.402	44.251	45.651	45.871	46.056	3,7
Markina-Ondarroa	22.550	26.234	26.527	26.680	26.566	17,8
Durangaldea	90.232	90.859	95.518	96.373	96.642	7,1
Goierrri	64.566	63.830	67.216	67.690	67.948	5,2
Debagoiena	63.562	62.391	61.711	61.922	61.862	–2,7
Debabarrena	56.857	54.945	54.792	54.923	55.007	–3,3
Urola Kosta	64.173	66.366	71.112	72.121	72.531	13,0
Tolosa	44.289	44.689	46.649	47.140	47.405	7,0
Donostialdea	313.093	316.172	322.347	324.493	325.108	3,8
Bidasoa Beherea	69.668	71.675	77.229	77.409	77.402	11,1
EAE	2.098.055	2.101.478	2.157.112	2.172.175	2.178.339	3,8

Iturria: 1996/5/1eko Biztanleen Udal Erroldaren Berritzea; 2001/1/1ean, 2008/1/1ean, 2009/1/1ean eta 2010/1/1ean egindako Udal Erroldaren Azterketak, INE.

boa gainontzeko eskualdeetan, baina hogeitakotako bederatzitan mantso hazi zen, hau da, % 1 baino gutxiago.

Populazio atzeritarraren fenomenoari dagokionez, modu garrantzitsuan hazi zen eskualde guztietan 1996ko maiatzetik 2010eko urtarilerera. Beraz, hau dugu eskualdeetako populazioaren azken hazkuntzaren arrazoi nagusietako bat. Hala ere, aldakuntza zenbaki absolututan aztertuz gero, hazkunde handienak lurralde historikoen hiriburuak hartzen dituzten hiru eskualdeetan izan ziren: Bilbo Handia (+47.453), Arabako Lautada (+22.868) eta Donostialdea (+16.261 atzeritar). Aipatzekoa da hiriburuak hartzen dituzten hiru eskualdeen batuketak populazio atzeritarrek Euskadin izandako hazkunde absolutuaren % 68,6 adierazten duela (+126.149), 1996ko maiatzetik 2010eko urtarilerera —ikusi 15. taula—.

Jadanik aipatu dugu immigrazio atzeritarra eskualdeetako populazioaren hazkundearen arrazoi nagusietako bat izan dela, baina norainokoa izan den ikusiko dugu. Hurrengo taulan, Espainiako herritartasuna duen populazioaren bilakaera jaso dugu, 1996ko maiatzaren 1etik 2010eko urtarilaren 1era arteko aldiari. Kolektibo demografiko hori txikitu egin zen zortzi eskualdetan, eta atzerakada handienak Debararrenan (–% 8,1), Debagoienan (–% 6,8) eta Bilbo Handian (–% 6,8) izan ziren. Gogoratu dezagun, herritartasuna desberdindu gabe, guztizko populazioaz ari garenean, hiru eskualde horiek 1996ko maiatzetik 2010eko urtarilerera bitarte biztanleak galdu zituzten bakarrak izateagatik nabarmendu zirela; ondorioz, hiru esparru horietan,

15. taula. Erroldatutako populazio atzeritarraren bilakaera eskualdeetan (1996-2010): kopuru absolutuak eta portzentajezko aldakuntzak

Eskualdeak	1996	2010	Aldea 2010 – 1996	▲% 2010/1996
Arabako Kantaurialdea	79	1.643	1.564	1.979,75
Gorbeialdea	49	467	418	853,06
Arabako Lautada	1.708	24.576	22.868	1.338,88
Arabako Mendialdea	5	185	180	3.600,00
Arabako Errioxa	17	971	954	5.611,76
Arabako Ibarrek	18	368	350	1.944,44
Arratia Nerbioi	47	1.293	1.246	2.651,06
Enkarterria	91	1.649	1.558	1.712,09
Bilbo Handia	4.974	52.427	47.453	954,02
Plentzia-Mungia	360	2.872	2.512	697,78
Gernika-Bermeo	226	2.865	2.639	1.167,70
Markina-Ondarroa	300	1.804	1.504	501,33
Durangaldea	534	5.800	5.266	986,14
Goierri	259	4.948	4.689	1.810,42
Debagoiena	231	2.856	2.625	1.136,36
Debarrena	336	3.050	2.714	807,74
Urola Kosta	286	4.250	3.964	1.386,01
Tolosa	205	2.292	2.087	1.018,05
Donostialdea	2.944	19.205	16.261	552,34
Bidasoa Beherea	547	5.848	5.301	969,10
CAPV	13.220	139.369	126.149	954,23

Iturria: 1996/5/1eko Biztanleen Udako Erroldaren Berritzea eta 2010/1/1ean egindako Udako Erroldaren Azterketa, INE.

atzerriko immigrazioaren fluxua ez zen nahikoa izan joera erregresiboari aurre egiteko. Baina Espainiako herritartasuneko populazioa txikitu zen gainontzeko bost eskualdeetan, atzeritar berrien ekarpena joera erregresibo hori konpentsatzeko gai izan zen, bai eta gainditzeko ere; izan ere, populazio globala handitzeko gai izan zen: Arabako Kantaurialdeaz, Arabako Mendialdeaz, Gernika-Bermeoz, Goierri eta Donostialdeaz ari gara —ikus 16. taula—.

Jarraian, atzeritarrek errolatutako guztizko populazioan duten garrantzia ezagutuko dugu. Jarraitu aurretik, aipatu beharra dago eskualdeetako atzeritarren tasak nabarmen hazi zirela; izan ere, 1996ko maiatzaren hasieran, eskualdeetako tasa handienak nekez gainditzen zuen unitatearen balioa (% 1,3 Markina-Ondarroan), baina 2010eko urtarriaren hasieran, tasa handiena ia % 10era iristen zen (Arabako Lautada), eta atzeritarren tasa txikienak eskualdeetako guztizko populazioaren % 4,6 adierazten zuen (Debagoiena). 2010eko urtarileko errolda-azterketan oinarrituta, Arabako Lautadarekin batera, Arabako Errioxa (% 8,6), Bidasoa Beherea (%7,6) eta Goierri (%7,3) nabarmentzen dira, argi eta garbi, Autonomia Erkidegoaren tasaren gainetik (% 6,4) —ikus 17. taula—.

Nola banatzen dira 20 eskualdeetan Euskadiko udalerrietan errolatutako atzeritarrak? 2010eko urtarriaren 1ean, hamarretik ia lau (% 37,6) Bilbo Handian daude finkatuta, jarraian, Arabako Lautadan (% 17,6) eta Donostialdean (% 13,8) bizi direnak nabarmenduta, nahiz eta askoz gutxiago izan. Guztira, hiriburuak hartzen dituzten hiru eskualdeek errolatutako atzeritar guztien % 69 hartzen dute.

16. taula. Espainiako herritartasuneko biztanleriaren bilakaera eskualdeetan (1996-2010): kopuru absolutuak eta portzentajezko aldea


Eskualdeak	1996	2010	Aldea 2010 – 1996	▲% 2010/1996
Arabako Kantaurialdea	33.663	32.588	-1.075	-3,19
Gorbeialdea	5.951	8.040	2.089	35,10
Arabako Lautada	223.439	229.746	6.307	2,82
Arabako Mendialdea	3.135	2.994	-141	-4,50
Arabako Errioxa	9.641	10.389	748	7,76
Arabako Ibarrek	4.116	5.385	1.269	30,83
Arratia Nerbioi	21.081	22.029	948	4,50
Enkarterria	29.700	29.825	125	0,42
Bilbo Handia	883.003	823.374	-59.629	-6,75
Plentzia-Mungia	43.586	50.991	7.405	16,99
Gernika-Bermeo	44.176	43.191	-985	-2,23
Markina-Ondarroa	22.250	24.762	2.512	11,29
Durangaldea	89.698	90.842	1.144	1,28
Goierri	64.307	63.000	-1.307	-2,03
Debagoiena	63.331	59.006	-4.325	-6,83
Debabarrena	56.521	51.957	-4.564	-8,07
Urola Kosta	63.887	68.281	4.394	6,88
Tolosa	44.084	45.113	1.029	2,33
Donostialdea	310.149	305.903	-4.246	-1,37
Bidasoa Beherea	69.121	71.554	2.433	3,52
EAE	2.084.835	2.038.970	-45.865	-2,20

Iturria: 1996/5/1eko Biztanleen Udal Erroldaren Berritzea eta 2010/1/1ean egindako Udal Erroldaren Azterketa, INE.

17. taula. Atzeritarren tasak eskualdeetan izandako bilakaera
(1996-2010)

Eskualdeak	1996	2010	Aldea 2010 – 1996
Arabako Kantaurialdea	0,23	4,80	4,57
Gorbeialdea	0,82	5,49	4,67
Arabako Lautada	0,76	9,66	8,90
Arabako Mendialdea	0,16	5,82	5,66
Arabako Errioxa	0,18	8,55	8,37
Arabako Ibarrek	0,44	6,40	5,96
Arratia Nerbioi	0,22	5,54	5,32
Enkarterria	0,31	5,24	4,93
Bilbo Handia	0,56	5,99	5,43
Plentzia-Mungia	0,82	5,33	4,51
Gernika-Bermeo	0,51	6,22	5,71
Markina-Ondarroa	1,33	6,79	5,46
Durangaldea	0,59	6,00	5,41
Goierri	0,40	7,28	6,88
Debagoiena	0,36	4,62	4,25
Debabarrena	0,59	5,54	4,95
Urola Kosta	0,45	5,86	5,41
Tolosa	0,46	4,83	4,37
Donostialdea	0,94	5,91	4,97
Bidasoa Beherea	0,79	7,56	6,77
EAE	0,63	6,40	5,77

Iturria: 1996/5/1eko Biztanleen Udal Erroldaren Berritzea eta 2010/1/1ean egindako Udal Erroldaren Azterketa, INE.



Aipatzekoa da, 1996ko maiatzaren 1ari dagokionez, bi eskualde bakarrik hazi zirela puntu bat baino gehiago Autonomia Erkidego osoan, Arabako Lautada (+4,7 puntu) eta Goierri (+1,6), Donostialdearen kalterako; izan ere, horrek garrantzia galdu zuen (−8,5 puntu) eskualdeen panoraman —ikus 18. taula—.

Orain, aztertu dezagun 2010eko urtarrilaren 1eko populazio-dentsitatearen adierazlea. Sei eskualdek EAEko batez besteko balioa gainditzen dute (301 biztanle, km² bakoitzeko). Horien artean, Bilbo Handia nabarmentzen da (2.470 bizt/km²); izan ere, bertako dentsitateak erosotasunez bikoizten du Bidasoa Beherekoa (1.090 bizt/km²) eta Donostialdekoa (1.064 bizt. km² bakoitzeko). Horiek dira Euskadiko eskualde populatuena. Kontrako aldean, Arabako hiru landa-eskualde ditugu: Gorbeialdea (21 biztanle km² bakoitzeko), Arabako Ibarrek (10) eta Arabako Mendialdea (7), azken biak NBEk aitortutako 'basamortu demografikoaren' atariaren azpitik populatuta. (10 biztanle km² bakoitzeko) —ikus 19. taula—.

Atala amaitzeko, EAEko azaleraren eta populazioaren portzentajezko banaketa ikusiko dugu, 2010eko urtarrilaren 1ean, hoguei eskualdeetan, populazioaren eskualdeetako banaketa orekatua dagoen jakiteko. Alde horretatik, '% populazioa / % azalera' adierazlea unitatera iristen bada edo hurbil badago, lurralde-ekitate egoera izango dugu. Hau da, populazioak eta eskualde azalera portzentaje bera adierazten dute autonomia-erkidegoko guztizkoarekiko; baina unitatea baino txikiagoa bada, populazioaren garrantzia

18. taula. EAEko erroldatutako atzeritarren banaketaren bilakaera, eskualdeen arabera (1996-2010): kopuru absolutuak eta portzentajezko aldakuntzak

Eskualdeak	1996	1996 (EAEko %)	2010	2010 (EAEko %)	Aldea (%) 2010 – 1996
Arabako Kantaurialdea	79	0,60	1.643	1,18	0,58
Gorbeialdea	49	0,37	467	0,34	−0,04
Arabako Lautada	1.708	12,92	24.576	17,63	4,71
Arabako Mendialdea	5	0,04	185	0,13	0,09
Arabako Errioxa	17	0,13	971	0,70	0,57
Arabako Ibarrek	18	0,14	368	0,26	0,13
Arratia Nerbioi	47	0,36	1.293	0,93	0,57
Enkarterria	91	0,69	1.649	1,18	0,49
Bilbo Handia	4.974	37,62	52.427	37,62	−0,01
Plentzia-Mungia	360	2,72	2.872	2,06	−0,66
Gernika-Bermeo	226	1,71	2.865	2,06	0,35
Markina-Ondarroa	300	2,27	1.804	1,29	−0,97
Durangaldea	534	4,04	5.800	4,16	0,12
Goierri	259	1,96	4.948	3,55	1,59
Debagoiena	231	1,75	2.856	2,05	0,30
Debarrena	336	2,54	3.050	2,19	−0,35
Urola Kosta	286	2,16	4.250	3,05	0,89
Tolosa	205	1,55	2.292	1,64	0,09
Donostialdea	2.944	22,27	19.205	13,78	−8,49
Bidasoa Beherea	547	4,14	5.848	4,20	0,06
EAE	13.220	100,00	139.369	100,00	0,00

Iturria: 1996/5/1eko Biztanleen Udal Erroldaren Berritzea eta 2010/1/1ean egindako Udal Erroldaren Azterketa, INE.

19. taula. Biztanleriaren dentsitatearen bilakaera eskualdeetan (1996-2010)

Eskualdeak	Azalera km ² -tan	Dentsitatea 1996an	Dentsitatea 2010ean	Aldea 2010 – 1996
Arabako Kantaurialdea	300,73	112,20	113,83	1,63
Gorbeialdea	404,17	14,85	21,05	6,20
Arabako Lautada	784,46	287,01	324,20	37,19
Arabako Mendialdea	480,71	6,53	6,61	0,08
Arabako Errioxa	384,86	25,09	29,52	4,42
Arabako Ibarrak	584,88	7,07	9,84	2,77
Arratia Nerbioi	400,63	52,74	58,21	5,48
Enkarterria	452,05	65,90	69,63	3,72
Bilbo Handia	354,63	2.503,95	2.469,62	-34,33
Plentzia-Mungia	212,27	207,03	253,75	46,72
Gernika-Bermeo	282,45	157,20	163,06	5,86
Markina-Ondarroa	205,66	109,65	129,17	19,53
Durangaldea	317,16	284,50	304,71	20,21
Goierni	351,46	183,71	193,33	9,62
Debagoiena	342,75	185,45	180,49	-4,96
Debabarrena	181,51	313,24	303,05	-10,19
Urola Kosta	324,69	197,64	223,39	25,74
Tolosa	347,36	127,50	136,47	8,97
Donostialdea	305,62	1.024,45	1.063,77	39,31
Bidasoa Beherea	71,03	980,83	1.089,71	108,88
EAE	7.235,14	289,98	301,08	11,10

Iturria: Azalera Ezaugarri Geografikoetan. Euskal Estatistika Erakundea (EUSTAT); Populazioa 1996/5/1eko Biztanleen Udal Erroldaren Berritzean eta 2010/1/1ean egindako Udal Erroldaren Azterketan, INE.

txikiagoa da eskualde-azaleraren adierazpenari dagokionez eta alderantziz. Horrela, lurralde-oreka duten hiru eskualde soilik agertzen dira (Arabako Lautada, Durangaldea eta Debarrena). Aldiz, hiri-buruak hartzen dituzten bi eskualde eta horietako baten alboko bat nabarmentzen dira populazioaren aldeko desorekarengatik; hortik unitatearen gaineko balioak (Bilbo Handia, Donostialdea eta Bidasoa Beherea). Gainontzeko hamalau eskualdeetan erlazioa ere aldakorra da, baina azaleraren alde, biztanle gutxiagoko eskualdeak izateagatik. Horrela, adierazlearen balioa unitatearen azpikoa izango da. Labur esanda, eskualde-esparruan, lurralde desoreka da nagusi, populazioak azaleran duen banaketari dagokionez —ikus 20. taula—.

20. taula. EAEko azaleraren eta biztanleriaren banaketa ehunekotan 2010eko urtarilaren 1ean, eskualdeen arabera

Eskualdeak	Azalera km ² -tan	Azaleraren % eskualdeetan / EAEn	Biztanleria 2010	Biztanleriaren % eskualdeetan / EAEn	Biztanleriaren % / azaleraren %
Arabako Kantaurialdea	300,73	4,16	34.231	1,57	0,38
Gorbeialdea	404,17	5,59	8.507	0,39	0,07
Arabako Lautada	784,46	10,84	254.322	11,68	1,08
Arabako Mendialdea	480,71	6,64	3.179	0,15	0,02
Arabako Errioxa	384,86	5,32	11.360	0,52	0,10
Arabako Ibarrak	584,88	8,08	5.753	0,26	0,03
Arratia Nerbioi	400,63	5,54	23.322	1,07	0,19
Enkarterria	452,05	6,25	31.474	1,44	0,23
Bilbo Handia	354,63	4,90	875.801	40,20	8,20
Plentzia-Mungia	212,27	2,93	53.863	2,47	0,84
Gernika-Bermeo	282,45	3,90	46.056	2,11	0,54
Markina-Ondarroa	205,66	2,84	26.566	1,22	0,43
Durangaldea	317,16	4,38	96.642	4,44	1,01
Goierri	351,46	4,86	67.948	3,12	0,64
Debagoiena	342,75	4,74	61.862	2,84	0,60
Debarrena	181,51	2,51	55.007	2,53	1,01
Urola Kosta	324,69	4,49	72.531	3,33	0,74
Tolosa	347,36	4,80	47.405	2,18	0,45
Donostialdea	305,62	4,22	325.108	14,92	3,53
Bidasoa Beherea	71,03	0,98	77.402	3,55	3,62
EAE	7.235,14	100,00	2.178.339	100,00	1,00

Iturria: Azalera Ezaugarri Geografikoetan, EUSTAT; Biztanleria 2010/1/1ean egindako Udal Erroldaren Azterketan, INE.

4. Ondorioak

Euskal udalerrietan erroldatutako populazioa % 3,8 soilik hazi zen 1996ko maiatzaren 1etik 2010eko urtarrilaren 1era. Orduan, 2.178.339 pertsona zenbatu ziren azken errolda-azterketan, Espainiako populazioak izandako hazkunde nabarmenaren aurrean. Hori bost aldiz gehiago hazi zen (%18,5). Hazkunde mailako diferentzial horren ondoren, Euskadiko populazioak garrantzia galdu du Estatuaren barnean: 1996ko maiatzean, % 5,3 adierazten bazuen, 2010. urtearen hasieran, bere garrantzia Espainiako guztizkoaren % 4,6ra murriztu zen.

Hiru lurralde historikoek bilakaera demografiko positiboa izan zuten, nahiz eta desberdina izan intentsitateari dagokionez: Bizkaian pixka bat hazi zen (% 1,2), Gipuzkoako hazkuntza neurritsua izan zen (% 4,6) eta, Araban, populazioaren ehunekoaren hazkuntza garrantzitsua izan zen (% 12,6). Eskualde mailan, berriz, hoge eskualdeetatik hamazazpitan, erroldatutako populazioak aurrera egin zuen 1996ko maiatzetik 2010eko urtarrilera. Horien artean, nabarmenak dira Gorbeialdea (% 41,8) eta Arabako Ibarak (% 39,2). Populazioak hiru eskualdetan soilik egin zuen atzera: Debabarrena (–% 3,3), Debagoiena (–% 2,7) eta Bilbo Handia (–% 1,4).

EAEko udalerrietan erroldatutako populazioaren hazkundearen faktore nagusia immigrazio-fluxua izan da: 1996tik 2009ra, migrazio saldoek (immigranteak – emigranteak) 98.424 pertsonaren irabazia adierazi zuten. Kopuru horrek euskal demografiak izandako hazkunde osoa azaltzen du, berezko hazkunde (jaiotzak – heriotzak) negatiboa izan zelako 1.600 pertsonatan, azterketaren aldian. Hain zuzen ere, azken datu hori Espainian gertatutakoaren kontrakoa da; izan ere, bertan, populazioa ez zen migrazio saldoen eraginarengatik soilik hazi (immigrante +), berezko hazkundearengatik ere hazi zen (jaiotza +).

Immigrazio fenomenoaren barnean, atzerriko immigrazioa populazioaren fluxu nagusitzat agertzen da EAEn. Izan ere, 1996ko maiatzaren 1etik 2010eko urtarrilaren 1era, atzeritarren kopurua antzeko proportzioan eta nabarmen hazi zen Euskadin zein Espainian: % 954 eta % 960, hain zuzen ere, hurrenez hurren.

Populazio atzeritarren portzentajea modu biziagoan hazi zen Araban, bai eta Arabako Errioxan, Arabako Mendialdean, Arratia-Nerbioin, Arabako Kantaurialdean eta Arabako Ibarretan.

2010eko urtarrileko errolda-azterketak 139.369 atzeritar erregistratu zituen euskal udalerrietan; horiek Estatuan erroldatutako atzeritarren % 2,4 dira (5.747.734 pertsona). Era berean, euskal populazioaren % 6,4 dira. Nolanahi ere, atzeritarren tasa hori Espainiari dagokionaren erdia da: % 6,4 eta % 12,2, hurrenez hurren; horrek zera adierazten digu, fenomeno honek Euskadin inpaktu txikiagoa izan duela. Edozer kasutan, egungo krisi ekonomikoan, atzerriko immigranteen kolektiboaren hazkundearen intentsitateak Espainiako portzentajea bikoiztu du Euskadin: % 19 batean eta % 9 besean, 2008tik 2010era.

Atzeritarrek Araban dute garrantzia erlatibo handiena 2010eko urtarrilaren 1ean erroldatutako populazioaren artean; izan ere, populazioaren % 8,9 dira, Bizkaiari eta Gipuzkoari dagokien atzeritarren tasa baino hiru puntu gehiago (% 6 bietan). Nolanahi ere, Bizkaia da oraindik atzeritar gehien hartzen dituen lurralde historikoa, balio absolututan.

Atzeritarren jatorriari dagokionez, 2010eko urtarrilaren 1ean, Euskadin Hego Amerikako atzeritarren gailentzen dira (% 37,9, eta Estatuan % 26,7). Espainian, berriz, Europar Batasuneko herriarrak

nabarmentzen dira (% 40,9, eta Euskadin % 25,7). Lurralde historikoaren arabera, Bizkaian Hego Amerikako herritarrak dira nagusi (atzerriko guztizko populazioaren % 45); aldiz, Araban eta Gipuzkoan, banaketa heterogeneoagoa da: Araban Afrikako herritarrak gailentzen dira (% 32,9), eta Gipuzkoan, berriz, Europar Batasuneko herritarrak (% 31,9).

Goranzko bilakaera demografikoari esker, populazioaren dentsitatea handitu egin zen 1996ko maiatzetik 2010eko urtarrilera bitarte: Euskadin, 11 pertsona km² bakoitzeko (289tik 301era). Adierazle horren balioa askoz handiagoa da EAEn, eta erosotasunez hirukoizten du Espainiako batez bestekoa: 301 pertsona km² bakoitzeko EAEn eta 93 pertso-

na Espainian, 2010. urtearen hasieran. Laburbilduz, Euskadik Estatuko batez bestekoa baino askoz biztanle dentsitate handiagoa du: euskal populazioak Espainiako populazioaren gainean duen portzentajeari dagokionez (% 4,6), Euskadiko azalerak (% 1,5) Estatuko guztizko azaleran adierazten duena baino 3,2 aldiz handiagoa dela ikus dezakegu.

Aurretik aipatutakoari dagokionez, nabarmentzekoa da ondorio nagusi bezala euskal populazioa Espainiakoa baino bost aldiz gutxiago hazi zela 1996ko maiatzaren eta 2010eko urtarrilaren artean. Gainera, aurrerapen txiki hori (% 3,8) atzerriko immigrazioari soilik dagokio; izan ere, euskal udalerrietan erroladatutako Espainiako herritarren populazioak atzera egin zuen (-% 2,2) aldi berean.

Adin-talde handien eta sexuaren araberako egitura

02







Bigarren kapituluan, adinaren arabera egituraren muturreko bi aldeak (20 urtetik beherakoak eta 64 urtetik gorakoak) osatzen dituzten gizabanakoen kopuruaren bilakaera ikertuko dugu, 1996ko maiatzetik 2010eko urtarrilera izandako aldaketak aztertuta. Era berean, egitura demografikoaren adierazleen inguruko datuetan azaltzen diren aldakuntzak aztertuko ditugu; hala nola, haurtzaroko, nerabezaroko eta zahartzaroko tasak, ordezipen eta maskulinitate tasak. Horiek herritartasunaren ikuspegitik ere aztertuko ditugu. Has gaitezen EAEren eta Espainiaren arteko konparazio-analisiarekin.

1. Euskal Autonomia Erkidegoa eta Espainia

1996ko maiatzaren 1etik 2010eko urtarrilaren 1era bitarte, 0-19 urteko taldeak kopuruaren % 13,3 galdu zuen Euskadin, Espainian izandako portzentajezko beherakada (–% 2,7) baino bost aldiz handiagoa, hain zuzen ere. Horregatik, Euskadin erroldatutako 20 urtetik beherakoen garrantzia % 4,6tik % 4,1era jaitsi da, Estatuko talde berdinari dagokionez —ikus 1. taula—.

Orokorrean, nahiz eta 2009an etengo den jaiotza-tasaren pixkanakako hazkunde iraunkorra 1995ean

hasi, horrek nahikoa egin zuen aurrera 1977. urtetik 1996. urtera bitarte jaiotakoak ordezkatzeko; hau da, 1996an erroldatutako 0-19 urtekoen taldea ordezkatzeko. Zehazki, EAEn, 420.897 pertsona jaio ziren 1977. urtetik 1996. urtera bitarte. Aldiz, 1990etik 2009ra bitarte (20 urtetik beherakoak, 2010. urtearen hasieran), 335.244 jaiotza erregistratu ziren; horrek 85.563 gizabanakoren atzerakada adierazten du 0-19 urtekoen artean. Atzerriko immigrazioaren hazkundeak ezin izan dio aurre egin jaiotza-tasaren beherakada horri. Atzerriko immigra-

zioaren 20 urtetik beherakoak 2.393 izatetik (1996ko maiatzean) 27.741 izatera pasatu ziren (2010eko urtarrilean), 25.348 pertsonako alde positiboarekin.

Nolanahi ere, 2008ko urtarritik 2010eko urtarritara bitarteko azken bi urteetan, 20 urtetik beherakoek hazkunde txiki bat izan zuten; Espainiakoa (% 2,6) baino pixka bat handiagoa (% 3,1). Joera-aldaketa horrek bi fluxu-faktoreekin du zerikusia: alde bate-tik, jaiotza-tasaren azken hazkundearekin; izan ere, 2008an eta 2009an jaiotakoak (taldean sartzen di-

1. taula. 0-19 urteko populazioaren bilakaera EAEn eta Espainian (1996-2010): kopuru absolutuak eta portzentajezko aldakuntzak

Lurralde-esparrua	1996	2008	2010	▲% 2010/1996
EAE	431.867	363.178	374.522	–13,28
Espainia	9.492.942	9.010.393	9.239.768	–2,67
(%) EAE / Espainia	4,55	4,03	4,05	

Iturria: 1996/5/1eko Biztanleen Udal Erroldaren Berritzea; 2008/1/1ean eta 2010/1/1ean egindako Udal Erroldaren Azterketak, INE.

ren pertsonak) 1988an eta 1989an jaiotakoak baino gehiago izan ziren (taldeetik ateratzen diren pertsonak, 20 urte betetzeagatik), zehazki, +6.937 jaiotzeekin Euskadin; eta, bestetik, 0-19 urteko atzerriko immigranteen sarrerarekin; horiek 4.145 pertsonatan hazi ziren euskal udalerrietako erroldetan, aztertutako aldian.

Ikus dezagun talde honen garrantzia populazioaren guztizkoan. 1996ko maiatzetik 2010eko urtarilerara, haurtzaro eta nerabezaro tasa beherantz bilakatu da Euskadin (−3,4 puntu), zein Espainian (−4,3 puntu). Beherakada horren ondoren, 2010. urtearen hasieran, 20 urtetik beherakoak (374.522 pertsona) Euskadin erroldatutako populazioaren % 17,2 dira: 2,5 puntu, estatuko tasaren azpitik (% 19,6) —ikus 2. taula—.

20 urtetik beherakoak ez bezala, 65 urtetik gorakoak nabarmen hazi ziren 1996ko maiatzaren 1etik 2010eko urtarilaren 1era: Euskadin, % 29,7, Espainian hazitakoa baino pixka bat gehiago (% 28). Goranzko joera horrek ere bi lurraldeetan eragin du azkenaldian, eta intentsitate berarekin: % 4, 2008-2010 aldian.

Laburbilduz, 2010. urtearen hasieran, Euskadiko udal-erroldak 64 urtetik gorako 417.656 pertsona erregistratu zituzten; hau da, Espainian erroldatutako adin bereko populazioaren % 5,3: datu horrek jadanik ematen digu zahartzaro prozesuak eragindako adinaren arabeko egituraren berri; izan ere, euskal populazioak Espainiako populazioaren % 4,6 adierazten du —ikus 3. taula—.

2. taula. Haurtzaro eta nerabezaro tasak (HNT*) EAEn eta Espainian izandako bilakaera (1996-2010)

Lurralde-esparrua	1996	2008	2010	Aldea 2010 – 1996	Aldea 2010 – 2008
EAE	20,58	16,84	17,19	−3,39	0,36
Espainia	23,93	19,52	19,65	−4,28	0,13
Aldea EAE – Espainia	−3,35	−2,68	−2,46		

(*) Haurtzaro eta Nerabezaro tasa (HNT) = 0-19 urtekoen ehunekoa biztanleria osoarekiko.

Iturria: 1996/5/1eko Biztanleen Udal Erroldaren Berritzea; 2008/1/1ean eta 2010/1/1ean egindako Udal Erroldaren Azterketak, INE.

3. taula. 64 urtetik gorako populazioaren bilakaera EAEn eta Espainian (1996-2010): kopuru absolutuak eta portzentajezko aldakuntzak

Lurralde-esparrua	1996	2008	2010	▲% 2010/1996
EAE	321.958	401.664	417.656	29,72
Espainia	6.196.499	7.632.925	7.931.164	27,99
(%) EAE / Espainia	5,20	5,26	5,27	

Iturria: 1996/5/1eko Biztanleen Udal Erroldaren Berritzea; 2008/1/1ean eta 2010/1/1ean egindako Udal Erroldaren Azterketak, INE.

Hain zuzen ere, 2010. urtearen hasieran, 64 urtetik gorakoak EAEko udalerrietan erroldatutako populazioaren % 19,2 dira; ehuneko horrek 2,3 puntutan gainditzen du Espainiako zahartze tasa (% 16,9). Euskadin zein Estatuan, adierazle horren balioak aurrera egin du 1996ko maiatzetik aurrera, baina aurrerakada are nabarmenagoa izan da euskal lurraldean (bertan, 3,8 puntu hazi zen, eta Espainian 1,2 puntu) —ikus 4. taula—.

Analisiaren une honetan, adinaren araberako egituraren muturreko bi taldeak erlazionatu ditzakegu, ordezen tasaren bidez. Horrela, zahartze-prozesuaren aurrerakadak markatutako egoera demografikoan, tasa horren balioak hazteko joera du: 1996/5/1etik 2010/1/1era, adierazle horrek 37 puntuko hazkuntza izan zuen EAEn, eta 20,6 puntukoa, berriz, Espainian. Goranzko aldakuntza horren ondoren, Euskadin, 64 urtetik gorako 111,5 pertsonekin hasi zen 2010. urtea, 20 urtetik beherako 100 pertsona bakoitzeko. Aldiz, Espainian, tasak 25,7 puntuko beherakada izan zuen; hau da, 64 urtetik gorako 85,8 pertsona, 20 urtetik beherako 100 pertsona bakoitzeko. Nabarmendu dezagun Euskadiko ordezen tasaren balioak argi eta garbi gaintitu duela 100eko ataria; hau da, muturreko bi taldeen pertsonen arteko oreka-balioa. Horrek zera esan nahi du, zahartza-roak euskal demografian inpaktu askoz handiagoa izan duela, Espainiakoarekin konparatuta —ikus 5. taula—.

4. taula. Zahartze tasak (ZT*) EAEn eta Espainian izandako bilakaera (1996-2010)

Lurralde-esparrua	1996	2008	2010	Aldea 2010 – 1996
EAE	15,35	18,62	19,17	3,83
Spainia	15,62	16,54	16,87	1,25
Aldea EAE – Spainia	-0,27	2,08	2,31	

(*) Zahartze tasa = 64 urtetik gorakoen ehunekoa biztanleria osoarekiko.

Iturria: 1996/5/1eko Biztanleen Udal Erroldaren Berritzea; 2008/1/1ean eta 2010/1/1ean egindako Udal Erroldaren Azterketak, INE.

5. taula. Ordezen tasak (OT*) EAEn eta Espainian izandako bilakaera (1996-2010)

Lurralde-esparrua	1996	2010	Aldea 2010 – 1996
EAE	74,55	111,52	36,97
Spainia	65,27	85,84	20,56
Aldea EAE – Spainia	9,28	25,68	

(*) Ordezkapen tasa = 64 urtetik gorakoen kopurua, 0-19 urteko 100 pertsona bakoitzeko.

Iturria: 1996/5/1eko Biztanleen Udal Erroldaren Berritzea eta 2010/1/1ean egindako Udal Erroldaren Azterketa, INE.

Populazioaren egitura aztertzerakoan, interesgarria da sexuaren araberako banaketa ezagutzea; horretarako, maskulinitate tasa dugu. Horrela, 2010eko urtarrilaren 1ean, gizonezkoen kopurua 100 emakume bakoitzeko 95,6 da EAEn, Espainiako tasa baino 2 puntu gutxiago: 97,6. Nolanahi ere, emakumezkoen nagusitasun kuantitatibo txiki bat ikusi da euren bizitza-luzera handiagoaren ondorioz, adin-egiturarengatik zahartzeak aurrera egiten duen ingurune demografikoan —ikus 6. taula—.

Gure analisian herritartasunaren aldagaia sartuz gero, EAEn, 2010eko urtarrilaren 1ean, haurtzaro eta nerabezaro tasa pixka bat handiagoa da atzerriko populazioan (% 19,9), Espainiako populazioan baino (% 17). Espainian, berriz, tasa berdina da bi kasuetan (% 19,6). Edozer kasutan, badirudi Euskadin, atzerriko populazioa 20 urtetik beherakoen beherakada moteltzen laguntzen ari dela —ikus 7. taula—.

Adinaren araberako piramidearen gailurrari dagokionez, 65 urtetik gorako taldeak 2010eko urtarrilaren 1ean erroldatutako populazio atzeritarren artean duen garrantzi marjinala ikus daiteke: Euskadin, % 1,8 da soilik, Espainian, berriz, % 5,4ra iristen da. Espainiako herritarren arteko zahartze tasari dagokionez duen kontrastea nahiko nabaria da: % 20,4 Euskadin eta % 18,5 Estatuan. Horren ondorioz, atzerriko immigra-teen fluxuak zahartze-prozesuaren aurrerakada moteltzen laguntzen ari dira, zalantzarik gabe —ikus 8. taula—.

6. taula. Maskulinitate tasak (MT*) EAEn eta Espainian izandako bilakaera (1996-2010)

Lurralde-esparrua	1996	2010	Aldea 2010 – 1996
EAE	95,91	95,61	–0,30
Espainia	95,71	97,61	1,90
Aldea EAE – Espainia	0,20	–2,00	

(*) Maskulinitate tasa = Gizonezkoen kopurua, 100 emakume bakoitzeko.

Iturria: 1996/5/1eko Biztanleen Udal Erroldaren Berritzea eta 2010/1/1ean egindako Udal Erroldaren Azterketa, INE.

7. taula. Haurtzaro eta nerabezaro tasa (HNT) EAEn eta Espainian 2010eko urtarrilaren 1ean, herritartasunaren arabera

Lurralde-esparrua	Atzerriko herritartasunekoak	Espainiako herritartasunekoak	Aldea Atzerriko herritartasunekoak – Espainiako herritartasunekoak
EAE	19,90	17,01	2,90
Espainia	19,62	19,66	–0,04
Aldea EAE – Espainia	0,29	–2,65	

Iturria: 2010/1/1eko Udal Erroldaren Azterketa, INE.

8. taula. Zahartze tasa (ZT) EAEn eta Espainian 2010/1/1, herritartasunaren arabera

Lurralde-esparrua	Atzerriko herritartasunekoak	Espainiako herritartasunekoak	Aldea Atzerriko herritartasunekoak – Espainiako herritartasunekoak
EAE	1,76	20,36	–18,60
Espainia	5,37	18,47	–13,10
Aldea EAE – Espainia	–3,61	1,89	

Iturria: 2010/1/1eko Udal Erroldaren Azterketa, INE.

Herritartasunaren arabera ordezpen tasek argi adierazten dute aurretik aipatutakoa: Euskadin, 2010. urtearen hasieran, 64 urtetik gorako 8,9 pertsona zeuden 20 urtetik beherako 100 pertsona bakoitzeko, atzerriko populazioaren artean, Espainiako herritarren artean, erlazioa 119,7ra iristen zen bitartean. Espainian, ordezpen tasa handiagoa da atzerriarren artean, baina Espainiako herritarrei dagokien tasa baino askoz txikiagoa izaten jarraitzen du: 27,4, eta 64 urtetik gorakoen kasuan 94 pertsona dira, 20 urtetik beherako 100 pertsona bakoitzeko. Seguruenik, Mediterraneoko kostako udalerriak Europako iparraldeko eta erdialdeko herrialdeetatik datozen nagusientzako urbanizazioen sustapenean espezializatuta daudelako da. Erretiratu ondoren, atzerriar nagusi horiek ingurune epelagoan eta merkeagoan bizi nahi dute —ikus 9. taula—.

Sexuaren arabera egiturari dagokionez, herritartasuna aztertzen badugu, ezberdintasunak ikusten dira maskulinitate tasaren adierazlean: 2010. urtearen hasieran, gizonezkoak gailentzen dira atzerriarren artean; Espainiako herritarren artean, berriz, emakumezkoak dira nagusi. Zehazki, Euskadin, maskulinitate tasak 106,6 eta 94,9 dira, hurrenez hurren. Horren ondorioz, atzerriko populazioak gizonezkoen presentzia handiagoa duenez, Espainiako herritartasuna duen populazioaren feminizazio joera leuntzen ari da; feminizazio hori zahartze-prozesuaren eragina da —ikus 10. taula—.

9. taula. Ordezpen tasak (OT) EAEn eta Espainian 2010eko urtarilaren 1ean, herritartasunaren arabera

Lurralde-esparrua	Atzerriko herritartasunekoak	Espainiako herritartasunekoak	Aldea Atzerriko herritartasunekoak – Espainiako herritartasunekoak
EAE	8,86	119,73	–110,86
Espainia	27,38	93,96	–66,58
Aldea EAE – Espainia	–18,52	25,77	

Iturria: 2010/1/1eko Udal Erroldaren Azterketa, INE.

10. taula. Maskulinitate tasak (MT) EAEn eta Espainian 2010eko urtarilaren 1ean, herritartasunaren arabera

Lurralde-esparrua	Atzerriko herritartasunekoak	Espainiako herritartasunekoak	Aldea Atzerriko herritartasunekoak – Espainiako herritartasunekoak
EAE	106,57	94,90	11,67
Espainia	110,56	95,93	14,62
Aldea EAE – Espainia	–3,99	–1,03	

Iturria: 2010/1/1eko Udal Erroldaren Azterketa, INE.

2. Lurralde historikoak

Jaiotza-tasaren beherakadak 0-19 urteko taldea osatzera sartzen diren pertsonen beheraka eragiten du, eta horren ekarpena ez da talde horretatik 20 urte betetzeagatik irteten diren gizabanakoak ordeztzeko nahikoa. Hala gertatu da 1996ko maiatzaren 1etik 2010eko urtarrilaren 1era bitarte hiru lurralde historikoetan, intentsitate ezberdinarekin bada ere: gutxitzea askoz handiagoa izan zen Bizkaian (–% 17,6), izan ere, Araban (–% 8,9) eta Gipuzkoan (–% 8) errolatutako 20 urtetik beherako pertsonak izandako atzerakada bikoiztu baitzen —ikus 11. taula—.

Nolanahi ere, 2008ko urtariletik 2010eko urtarilera bi-tarteko epe laburrerako ikuspegian, 20 urtetik beherakoen kopurua hazi egin zen hiru lurralde-esparruetan, gehiago Araban (% 4,9), proportzionalki, Gipuzkoan (% 3,5) eta Bizkaian (% 2,4) baino. Joera-aldaketa hau azaltzeko aukera ematen diguten bi gai daude:

a) Jaiotza-tasak pixkanakako hazkundeak izan du 1995etik aurrera, bere gehieneko balorea 2008an lortuta. Horren ondorioz, 2008an eta 2009an jaiotakoek (taldean sartzen diren pertsonak) 1988an eta 1989an jaiotakoek (20 urte betetzeagatik, taldetik ir-

teten diren pertsonak) kopurua gainditzen dute. Hala gertatu zen, hain zuzen ere, hiru lurralde historikoetan, Araban jaiotako 1.390 pertsonak, Bizkaian jaiotako 2.565 pertsonak eta Gipuzkoan jaiotako 2.982 pertsonak osatutako saldo positiboarekin.

b) Aldi berean, 2008ko urtariletik 2010era errolatutako immigrante atzeritarren hazkundeak 0-19 urtekoen taldearen kopuruaren azken hazkundeak sustatu du 2008 urtariletik 2010eko urtarilera: Araban 1.340 pertsona gehitu ziren, Bizkaian 7.332, eta Gipuzkoan, berriz, 1.429.

11. taula. 0-19 urteko biztanleriaren bilakaera lurralde historikoetan (1996-2010):
kopuru absolutuak eta portzentajeak aldakuntzak

Lurralde historikoak	1996	2008	2010	▲% 2010/1996
Araba	61.087	53.032	55.623	–8,94
Bizkaia	231.572	186.376	190.861	–17,58
Gipuzkoa	139.208	123.770	128.038	–8,02

Iturria: 1996/5/1eko Biztanleen Udal Errolaren Berritzea; 2008/1/1ean eta 2010/1/1ean egindako Udal Errolaren Azterketak, INE.

Itzul gaitezen 1996ko maiatzetik 2010eko urtarile-ra bitarteko aldira, 20 urtetik beherakoek erroldatutako populazio osoaren gainean duten adierazpena ezagutzeko: portzentajezko garrantziaren galera ikus dezakegu hiru lurralde historikoetan, haurtzaro eta nerabezaro tasak 2,5 puntutik (Gipuzkoa) 4,1 puntura (Araba) behera egiterakoan. Beherakada orokor horren ondoren, 2010. urtearen hasieran, 0-19 urteko pertsonen % 16,5 adierazten dute Bizkaian, eta % 18,1 Gipuzkoan —ikus 12. taula—.

2010eko urtarilean erroldatutako 20 urtetik beherakoek herritartasuna aztertuz gero, haurtzaro eta nerabezaro tasak atzerriko populazioaren artean Espainiako herritartasuna duen populazioari dago-kiona gainditzen du bi lurralde historikotan: Araba (% 22,8 eta % 17, hurrenez hurren) eta Bizkaia (% 19,8 eta % 16,3 hurrenez hurren); Gipuzkoan, berriz, berdina dira (% 18,1). Horren ondorioz, Araban eta Bizkaian, atzerriko immigrazioaren fenomenoak neurri handiagoan laguntzen ari da adinaren arabera egitura gaztetzen —ikus 13. taula—.

12. taula. Haurtzaro eta nerabezaro tasak (HNT) lurralde historikoetan izandako bilakaera (1996-2010)

Lurralde historikoak	1996	2008	2010	Aldea 2010 – 1996
Araba	21,68	17,13	17,53	–4,15
Bizkaia	20,31	16,26	16,54	–3,77
Gipuzkoa	20,59	17,65	18,10	–2,48

Iturria: 1996/5/1eko Biztanleen Udal Erroldaren Berritzea; 2008/1/1ean eta 2010/1/1ean egindako Udal Erroldaren Azterketak, INE.

13. taula. Haurtzaro eta nerabezaro tasak (HNT) lurralde historikoetan 2010eko urtarilaren 1ean, herritartasunaren arabera

Lurralde historikoak	Atzerriko herritartasunekoak	Espainiako herritartasunekoak	Aldea Atzerriko herritartasunekoak – Espainiako herritartasunekoak
Araba	22,77	17,02	5,76
Bizkaia	19,81	16,34	3,47
Gipuzkoa	18,16	18,10	0,06

Iturria: 2010/1/1eko Udal Erroldaren Azterketa, INE.

Orain, aztertu dezagun 64 urtetik gorakoen taldea: 1996ko maiatzaren 1etik 2010eko urtarrilaren 1era bitarte, kopurua nabarmen hazi zen hiru lurralde historikoetako udal-erroldeetan. Araba nabarmentzen da hazkunde handiena lortzeagatik (% 42,3), Gipuzkoaren (% 28,8) eta Bizkaiaren (% 27,6) gainetik; horiek ia bat egiten dute euren portzentaje-aldakuntzetan.

Laburbilduz, zahartze-prozesuak aurrera egin zuen hiru lurralde historikoetan, baina indar erlatibo handiagoarekin Araban —ikus 14. taula—.

65 urtetik gorakoen goranzko bilakaera hau hiru lurralde historikoetako zahartze tasaren hazkundean adierazten da. 2010. urtearen hasieran, Arabak zuen 64 urtetik gorakoen proportzio txikiena bere populazioan. Aldiz, Bizkaiak zuen handiena: % 17,3 eta % 19,8, hurrenez hurren —ikus 15. taula—.

Atzeritarrak zahartze-prozesua mantsotzen laguntzen ari direla jadanik aipa dugu lehen ere, eta hurrengo datuek berresten dute, zalantzarik gabe: 2010. urtearen hasieran, hiru lurralde historikoetan, zahartze tasa marjinala da atzeritarren artean; izan ere, % 1,4tik (Araba) eta % 2,3ra (Gipuzkoa) bitarteko urkilara murritzten da. Espainiako herritartasuna duen populazioa ez bezala; bertan, 64 urtetik gorakoen portzentajezko garrantzia % 18,9ra (Araba) eta % 20,9ra (Bizkaia) iristen da —ikus 16. taula—.

14. taula. 64 urtetik gorako biztanleriaren bilakaera lurralde historikoetan (1996-2010): kopuru absolutuak eta portzentajezko aldakuntzak

Lurralde historikoak	1996	2008	2010	▲% 2010/1996
Araba	38.645	51.835	54.981	42,27
Bizkaia	178.981	220.918	228.355	27,59
Gipuzkoa	104.330	128.911	134.320	28,75

Iturria: 1996/5/1eko Biztanleen Udak Erroldaren Berritzea; 2008/1/1ean eta 2010/1/1ean egindako Udak Erroldaren Azterketak, INE.

15. taula. Zahartze tasak (ZT) lurralde historikoetan izandako bilakaera (1996-2010)

Lurralde historikoak	1996	2008	2010	Aldea 2010 – 1996
Araba	13,71	16,74	17,32	3,61
Bizkaia	15,70	19,27	19,79	4,09
Gipuzkoa	15,43	18,39	18,99	3,56

Iturria: 1996/5/1eko Biztanleen Udak Erroldaren Berritzea; 2008/1/1ean eta 2010/1/1ean egindako Udak Erroldaren Azterketak, INE.

16. taula. Zahartze tasak (ZT) lurralde historikoetan 2010/1/1, herritartasunaren arabera

Lurralde historikoak	Atzerriko herritartasunekoak	Espainiako herritartasunekoak	Aldea Atzerriko herritartasunekoak – Espainiako herritartasunekoak
Araba	1,41	18,88	–17,47
Bizkaia	1,61	20,94	–19,33
Gipuzkoa	2,25	20,06	–17,81

Iturria: 2010/1/1eko Udak Erroldaren Azterketa, INE.

Adinaren arabera egituraren muturreko bi taldeak osatzen dituzten pertsonak izandako bilakaera eta garrantzia ezagutu ondoren, erlazio-natu ditzagun, ordezen tasaren adierazlearen bidez. 1996ko maiatzaren eta 2010eko urtarilaren artean handituz joan den bilakaera izan ondoren, soilik Arabak du erlazio orekatua: 64 urtetik gorako 98,8 pertsona, 20 urtetik beherako 100 pertsona bakoitzeko. Gainontzeko lurraldeetan, erlazioa pertsona nagusien talderantz okertu da: indar handiagoz Bizkaian (119,6), Gipuzkoan baino (104,9) —ikus 17. taula—.

Eta herritartasunaren aldagaia analisisan sartzen badugu, desberdintasun handiak agertzen dira atzerriko eta Espainiako populazioen ordezen tasaren artean, 2010. urtearen hasieran: lehen taldean, 6,2tik (Araba) eta 12,4ra (Gipuzkoa) bitartekoa da; bigarren taldean, aldiz, 111 da Araban eta Gipuzkoan, eta 128,2 Bizkaian.

Hitz batez, atzerriko immigrazioa nahiko onuragarria da gure lurralde historikoen zahartze-prozesuaren aurrerakada leuntzeko —ikus 18. taula—.

17. taula. Ordezen tasak (OT) lurralde historikoetan izandako bilakaera (1996-2010)

Lurralde historikoak	1996	2010	Aldea 2010 – 1996
Araba	63,26	98,85	35,58
Bizkaia	77,29	119,64	42,36
Gipuzkoa	74,95	104,91	29,96

Iturria: 1996/5/1eko Biztanleen Udal Erroldaren Berritzea eta 2010/1/1ean egindako Udal Erroldaren Azterketa, INE.

18. taula. Ordezen tasa (OT) lurralde historikoetan 2010eko urtarilaren 1ean, herritartasunaren arabera

Lurralde historikoak	Atzerriko herritartasunekoak	Espainiako herritartasunekoak	Aldea Atzerriko herritartasunekoak – Espainiako herritartasunekoak
Araba	6,20	110,94	–104,75
Bizkaia	8,13	128,21	–120,07
Gipuzkoa	12,38	110,83	–98,45

Iturria: 2010/1/1eko Udal Erroldaren Azterketa, INE.

Azkenik, maskulinitate tasa aipatuko dugu. Horren balioa nahiko egonkorra izan da 1996ko maiatzaren 1etik 2010eko urtarrilaren 1era bitarte. 2010ean esan daiteke Arabak erlazio orekatua duela sexuen artean (99,6 gizonezko, 100 emakume bakoitzeko). Gainontzeko bi lurraldeetan, erlazioa emakumezkoen alde jartzen da: 96,3 Gipuzkoan, eta 94,1 Bizkaian. Aipatzekoa da, bi lurralde historiko horietan, zahartze-prozesuak eragin handiagoa duela populazioan eta, beraz, prozesu horren feminizazio-joera sortzen da —ikus 19. taula—.

Hori bai, 100 emakume bakoitzeko gizonezkoen kopurua are txikiagoa izango litzateke, atzerriko immigrazioaren ekarpena ez balego: 2010eko urtarrilaren 1ean, atzerriko populazioaren maskulinitate tasa hiru lurralde historikoetan 100etik gorakoa dela ikus dezakegu. Aurkakoa gertatzen da Espainiako herritartasuneko populazioarekin; bertan, emakumezkoak nagusitzen dira, gizonezkoen gainetik. Aztertu dezagun Araba, maskulinitate tasa handienarekin, atzeritarren artean: 124 gizonezko, 100 emakume bakoitzeko. Hain zuzen ere, hain zahartuta ez dagoen adinen araberako egituraz gain, populazio atzeritarraren maskulinizazioak guztizko populazioaren sexuen arteko erlazioa orekatuagoa bihurtzen laguntzen du, Araban ikus bezala —ikus 20. taula—.

19. taula. Maskulinitate tasak (MT) lurralde historikoetan izandako bilakaera (1996-2010)

Lurralde historikoak	1996	2010	Aldea 2010 – 1996
Araba	98,63	99,55	0,92
Bizkaia	94,96	94,11	–0,85
Gipuzkoa	96,40	96,33	–0,06

Iturria: 1996/5/1eko Biztanleen Udal Erroldaren Berritzea eta 2010/1/1ean egindako Udal Erroldaren Azterketa, INE.

20. taula. Maskulinitate tasak (MT) lurralde historikoetan 2010eko urtarrilaren 1ean, herritartasunaren arabera

Lurralde historikoak	Atzerriko herritartasunekoak	Espainiako herritartasunekoak	Aldea Atzerriko herritartasunekoak – Espainiako herritartasunekoak
Araba	124,00	97,45	26,54
Bizkaia	101,25	93,68	7,57
Gipuzkoa	104,74	95,82	8,92

Iturria: 2010/1/1eko Udal Erroldaren Azterketa, INE.

3. Eskualdeak

Eskualdeen esparruan, 20 urtetik beherakoen taldeak bilakaera negatiboa izan zuen, gehienbat, 1996ko maiatzaren 1etik 2010eko urtarrilaren 1era bitarte: hamahiru eskualdetan behera egin zuen, bost eskualdetan gora egin zuen, eta gainontzeko bietan pertsona kopuruak berdin jarraitu zuen. Talde erregresiboan Arabako Kantaurialdea (–% 22,3), Bilbo Handia (–% 21,1) eta Debagoiena (–% 20,1) nabarmentzen dira, izandako beherakada handienatik. Gero eta talde handiagoak dituzten eskualdeen artean, aldiz, Arabako Ibarak (% 65,8) eta Gorbeialdea (% 54,1) nabarmentzen dira —ikus 21. taula—.

2010. urtearen hasieran, 20 urtetik beherakoek euren garrantzi handiena izan zuten hiru eskualdetan errolatutako guztizko populazioaren gainean: Gorbeialdea (% 20,7), Urola Kosta (% 20,6) eta Plentzia-Mungia (% 20,1). Kontrako aldean, Arabako Mendialdea (% 12) haurtzaro eta nerabezaro tasa txikiena izateagatik nabarmentzen da —ikus 22. taula—.

21. taula. 0-19 urteko biztanleriaren bilakaera eskualdeetan (1996-2010): kopuru absolutuak eta portzentajezko aldakuntzak

Eskualdeak	1996	2010	▲% 2010/1996
Arabako Kantaurialdea	7.304	5.677	–22,28
Gorbeialdea	1.141	1.758	54,08
Arabako Lautada	49.890	44.806	–10,19
Arabako Mendialdea	375	381	1,60
Arabako Errioxa	1.818	2.081	14,47
Arabako Ibarak	555	920	65,77
Arratia Nerbioi	4.106	4.066	–0,97
Enkarterria	5.679	5.036	–11,32
Bilbo Handia	179.293	141.513	–21,07
Plentzia-Mungia	8.930	10.821	21,18
Gernika-Bermeo	8.654	7.649	–11,61
Markina-Ondarroa	5.201	4.380	–15,79
Durangaldea	19.706	17.396	–11,72
Goierrri	13.303	12.903	–3,01
Debagoiena	13.264	10.596	–20,11
Debabarrena	10.760	9.053	–15,86
Urola Kosta	14.846	14.914	0,46
Tolosa	9.359	9.441	0,88
Donostialdea	62.561	56.592	–9,54
Bidasoa Beherea	15.108	14.539	–3,77
EAE	431.853	374.522	–13,28

Iturria: Renovación del Padrón Municipal de Habitantes a 1/5/1996 y Revisión del Padrón Municipal a 1/1/2010, INE.

22. taula. Hautzaro eta nerabezaro tasak (HNT) eskualdeetan izandako bilakaera (1996-2010)

Eskualdeak	1996	2010	Aldea 2010 - 1996
Arabako Kantaurialdea	21,65	16,58	-5,06
Gorbeialdea	19,02	20,67	1,65
Arabako Lautada	22,16	17,62	-4,54
Arabako Mendialdea	11,94	11,98	0,04
Arabako Errioxa	18,82	18,32	-0,51
Arabako Ibarrak	13,43	15,99	2,57
Arratia Nerbioi	19,43	17,43	-2,00
Enkarterria	19,06	16,00	-3,06
Bilbo Handia	20,19	16,16	-4,03
Plentzia-Mungia	20,32	20,09	-0,23
Gernika-Bermeo	19,49	16,61	-2,88
Markina-Ondarroa	23,06	16,49	-6,58
Durangaldea	21,84	18,00	-3,84
Goierra	20,60	18,99	-1,61
Debagoiena	20,87	17,13	-3,74
Debarrena	18,92	16,46	-2,47
Urola Kosta	23,13	20,56	-2,57
Tolosa	21,13	19,92	-1,22
Donostialdea	19,98	17,41	-2,57
Bidasoa Beherea	21,69	18,78	-2,90
EAE	20,58	17,19	-3,39

Iturria: 1996/5/1eko Biztanleen Udal Erroldaren Berritzea eta 2010/1/1ean egindako Udal Erroldaren Azterketa, INE.



Bestalde, ia eskualde guztietan, 65 urtetik gorako pertsonen kopurua modu nabarmenean hazi zen; Arabako Mendialdea¹ izan zen salbuespen bakarra (–% 7,2). Goranzko joera hedatu horretan, hiru eskualde nabarmentzen dira beste guztien gainetik, euren portzentajezko hazkundea dela-eta: Arabako Kantaurialdea (% 48,7), Arabako Lautada (% 47,1) eta Durangaldea (% 43,6) —ikus 23. taula eta 1. grafikoa—.

1996ko maiatzari dagokionez, zahartze tasaren bilakaera goranzkoa izan zen eskualde gehienetan. Horien artean, Arabako Kantaurialdea (+6 puntu), Debagoiena (+4,9 puntu), Bilbo Handia (+4,7 puntu) eta Durangaldea (+4,4 puntu) nabarmentzen dira. Nolanahi ere, zahartze-prozesuaren aurrerapen egoera honetan, nabarmenagoak dira tasan atzerakada nabaria izan zuten lau eskualdeak, bereziki, Arabako Ibarrek (–4,1 puntu).

2010eko urtarilaren 1ean, zer adierazpen dute 65 urtetik gorakoek erroldatutako populazio osoan? Handiena Arabako Mendialdeko eskualdean erregistratu zen (% 26,4) eta txikiena, berriz, Plentzia-Mungian (% 14,1) eta Gorbeialdean (% 14,7). Nolanahi ere, eskualde gehienetan, zahartze tasa tarte txikiagoan kokatu zen, % 18,5etik % 21,5era bitarte —ikus 24. taula—.

23. taula. 64 urtetik gorako biztanleriaren bilakaera eskualdeetan (1996-2010): kopuru absolutuak eta portzentajezko aldakuntzak

Eskualdeak	1996	2010	▲% 2010/1996
Arabako Kantaurialdea	4.360	6.482	48,67
Gorbeialdea	1.043	1.253	20,13
Arabako Lautada	29.198	42.930	47,03
Arabako Mendialdea	903	838	–7,20
Arabako Errioxa	2.103	2.272	8,04
Arabako Ibarrek	1.035	1.206	16,52
Arratia Nerbioi	4.007	4.336	8,21
Enkarterria	5.771	6.294	9,06
Bilbo Handia	138.674	177.824	28,23
Plentzia-Mungia	5.432	7.601	39,93
Gernika-Bermeo	8.492	9.702	14,25
Markina-Ondarroa	4.834	5.716	18,25
Durangaldea	11.759	16.882	43,57
Goierrri	9.967	12.982	30,25
Debagoiena	9.542	12.316	29,07
Debarrena	10.258	11.748	14,53
Urola Kosta	9.266	12.020	29,72
Tolosa	6.907	8.355	20,96
Donostialdea	48.475	63.296	30,57
Bidasoa Beherea	9.901	13.603	37,39
EAE	321.927	417.656	29,74


Iturria: 1996/5/1eko Biztanleen Udal Erroldaren Berritzea eta 2010/1/1ean egindako Udal Erroldaren Azterketa, INE.

¹ 64 urtetik beherakoak izandako beherakada hori Bernedon (–% 45,2), Haranari (–% 46,7) eta Urizaharri (–% 45,9) izan zen, zehazki.

24. taula. Zahartze tasak (ZT) eskualdeetan izandako bilakaera (1996-2010)

Eskualdeak	1996	2010	Aldea 2010 – 1996
Arabako Kantaurialdea	12,92	18,94	6,01
Gorbeialdea	17,38	14,73	-2,65
Arabako Lautada	12,97	16,88	3,91
Arabako Mendialdea	28,76	26,36	-2,40
Arabako Errioxa	21,77	20,00	-1,77
Arabako Ibarrek	25,04	20,96	-4,07
Arratia Nerbioi	18,97	18,59	-0,37
Enkarterria	19,37	20,00	0,63
Bilbo Handia	15,62	20,30	4,69
Plentzia-Mungia	12,36	14,11	1,75
Gernika-Bermeo	19,13	21,07	1,94
Markina-Ondarroa	21,44	21,52	0,08
Durangaldea	13,03	17,47	4,44
Goierrri	15,44	19,11	3,67
Debagoiena	15,01	19,91	4,90
Debabarrena	18,04	21,36	3,32
Urola Kosta	14,44	16,57	2,13
Tolosa	15,60	17,62	2,03
Donostialdea	15,48	19,47	3,99
Bidasoa Beherea	14,21	17,57	3,36
EAE	15,34	19,17	3,83

Iturria: 1996/5/1eko Biztanleen Udal Erroldaren Berritzea eta 2010/1/1ean egindako Udal Erroldaren Azterketa, INE.

1. grafikoa. 20 urtetik beherako eta 64 urtetik gorako biztanleriaren ehunekoaren bilakaera eskualdeetan (1996-2010)

Jarraian, piramide demografikoaren muturreko bi taldeak erlazionatuko ditugu, ordezen tasaren bidez, 20 urtetik beherako 100 pertsona bakoitzeko, 64 urtetik gorako zenbat pertsona dauden jakiteko. Adierazle horren balioa hogei eskualdeetako hamaseitan hazi zen 1996ko maiatzetik 2010eko urtarriera: goranzko joera hori intentsitate handiagoarekin adierazi zen Arabako Kantaurialdean (+54,5 puntu), Bilbo Handian (+48,3 puntu) eta Debagoienan (+44,3 puntu). Labur esanda, aztertutako aldian, zahartze-prozesuak aurrera egiten jarraitu zuen euskal eskualde gehienetan, Arabako lau eskualdeetan izan ezik. Horietan atzera egin zuen: Arabako Ibarrek (-55,4 puntu), Arabako Mendialdea (-20,9 puntu), Gorbeialdea (-20,1 puntu) eta Arabako Errioxa (-6,5 puntu), horietako hiruk balio altuagoak zituzten aldiaren hasieran.

Denborazko bilakaera ikusi ondoren, ordezen tasaren balio eguneratuak aztertzea komeni da. 2010. urtearen hasieran, Arabako Mendialdea balio handienara iritsi zen (64 urtetik gorako 220 pertsona, 20 urtetik beherako 100 pertsona bakoitzeko), balio txikiena Plentzia-Mungian izan zen bitartean (70,2), Gorbeialdea atzetik zuela (71,3). Aipatzekoa da hamabi eskualdek gaitzitu dutela, argi eta garbi, '100' balorea (muturreko bi taldeen arteko oreka); horrek zahartze-prozesuaren inpaktu handiagoa jasanez dutela adierazten digu —ikus 25. taula—.

25. taula. Ordezen tasak (OT) eskualdeetan izandako bilakaera (1996-2010)

Eskualdeak	1996	2010	Aldea 2010 – 1996
Arabako Kantaurialdea	59,69	114,18	54,49
Gorbeialdea	91,41	71,27	-20,14
Arabako Lautada	58,52	95,81	37,29
Arabako Mendialdea	240,80	219,95	-20,85
Arabako Errioxa	115,68	109,18	-6,50
Arabako Ibarrek	186,49	131,09	-55,40
Arratia Nerbioi	97,59	106,64	9,05
Enkarterria	101,62	124,98	23,36
Bilbo Handia	77,34	125,66	48,31
Plentzia-Mungia	60,83	70,24	9,41
Gernika-Bermeo	98,13	126,84	28,71
Markina-Ondarroa	92,94	130,50	37,56
Durangaldea	59,67	97,05	37,37
Goierri	74,92	100,61	25,69
Debagoiena	71,94	116,23	44,29
Debabarrena	95,33	129,77	34,43
Urola Kosta	62,41	80,60	18,18
Tolosa	73,80	88,50	14,70
Donostialdea	77,48	111,85	34,36
Bidasoa Beherea	65,53	93,56	28,03
EAE	74,55	111,52	36,97

Iturria: 1996/5/1eko Biztanleen Udal Erroldaren Berritzea eta 2010/1/1ean egindako Udal Erroldaren Azterketa, INE.

Maskulinitate tasari dagokionez, 1996ko maiatzetik 2010eko urtarrilera, bere bilakaera eskualde-esparruan anibalentea izan da: hamar eskualdetan hazi egin zen (Arabako Mendialdea eta Markina-Ondarroa nabarmentzen dira +4,7 eta +3,7 puntu-rekin, hurrenez hurren), bederatzi eskualdetan txikitu egin zen, eta bakar batek eutsi zion tasaren balioari (Plentzia-Mungia). 2010. urtearen hasiera aztertzen badugu, Arabako lau eskualde nabarmentzen dira, emakumezkoak baino gizonezko gehiago izateagatik: Arabako Mendialdea (122,8), Arabako Ibarrek (120,5), Gorbeialdea (111) eta Arabako Errioxa (107,1 gizonezko, 100 emakume bakoitzeko); orokorrean, landa-eskualdeak edo hain hirituak edo populatuak ez dauden eskualdeak dira, eta gizonezkoen proportzio handiagoa dute. Beste aldetik, 100dik beherako tasekin, emakumezkoen nagusitasuna dela eta, bi eskualde urbanizatuak nabarmentzen dira: Bilbo Handia (92,6) eta Donostialdea (92,3). Horietan, emakumezkoen enplegarritasuna errazten duten jardura ekonomikoen kontzentrazioak emakumezkoen presentzia handiagoa laguntzen du, Euskadiko bi eskualde populatuenetan —ikus 26. taula—.

26. taula. Maskulinitate tasak (MT) eskualdeetan izandako bilakaera (1996-2010)

Eskualdeak	Gizonezkoak 2009 (abs.)	Emaku- mezkoak 2009 (abs.)	MT 1996	Gizonezkoak 2010 (abs.)	Emaku- mezkoak 2010 (abs.)	MT 2010	MTen arteko aldea 2010 – 1996
Arabako Kantaurialdea	16.906	16.836	100,42	17.095	17.136	99,76	-0,66
Gorbeialdea	3.152	2.848	110,67	4.475	4.032	110,99	0,31
Arabako Lautada	110.959	114.188	97,17	125.982	128.340	98,16	0,99
Arabako Mendialdea	1.700	1.440	118,06	1.752	1.427	122,78	4,72
Arabako Errioxa	4.961	4.697	105,62	5.874	5.486	107,07	1,45
Arabako Ibarrek	2.262	1.872	120,83	3.144	2.609	120,51	-0,33
Arratia Nerbioi	10.605	10.523	100,78	11.745	11.577	101,45	0,67
Enkarterria	14.839	14.952	99,24	15.654	15.820	98,95	-0,29
Bilbo Handia	429.850	458.127	93,83	421.028	454.773	92,58	-1,25
Plentzia-Mungia	19.734	20.079	98,28	26.691	27.172	98,23	-0,05
Gernika-Bermeo	21.830	22.572	96,71	22.719	23.337	97,35	0,64
Markina-Ondarroa	13.343	13.340	100,02	13.523	13.043	103,68	3,66
Durangaldea	45.073	45.159	99,81	47.999	48.643	98,68	-1,13
Goierri	32.570	31.996	101,79	34.466	33.482	102,94	1,14
Debagoiena	31.953	31.609	101,09	30.940	30.922	100,06	-1,03
Debabarrena	28.149	28.708	98,05	27.165	27.842	97,57	-0,48
Urola Kosta	32.228	31.945	100,89	36.390	36.141	100,69	-0,20
Tolosa	22.321	21.968	101,61	23.973	23.432	102,31	0,70
Donostialdea	150.480	162.613	92,54	156.029	169.079	92,28	-0,26
Bidasoa Beherea	34.199	35.469	96,42	38.064	39.338	96,76	0,34
EAE	1.027.114	1.070.941	95,91	1.064.708	1.113.631	95,61	-0,30

Iturria: 1996/5/1eko Biztanleen Udal Erroldaren Berritzea eta 2010/1/1ean egindako Udal Erroldaren Azterketa, INE.

4. Ondorioak

1996ko maiatzaren 1etik 2010eko urtarrilaren 1era, 20 urtetik beherako pertsonen kopurua bost aldiz gehiago txikitu zen Euskadin, Espainian baino, erlatiboki: -% 13,3 eta -% 2,7, hurrenez hurren; jaiotza-tasa eta immigrazio-tasa eskasak izan ziren euskal atzerakada nabarmenaren arrazoi nagusiak. Beherakada horren ondoren, 2010. urtearen hasieran, 20 urtetik beherakoak (374.522 pertsona) Euskadin erroldatutako populazioaren % 17,2 dira: 2,5 puntu estatuko haurtzaro eta nerabezaro tasaren azpitik (% 19,6).

Atzerakada hiru lurralde historikoetan nabaritu zen, nahiz eta intentsitate desberdinekin izan: gutxitzea askoz handiagoa izan zen Bizkaian (-% 17,6); izan ere, Araban (-% 8,9) eta Gipuzkoan (-% 8) erroldatutako 20 urtetik beherako pertsonak izandako atzerakada bikoiztu baita. 2010. urtearen hasieran, 0-19 urteko pertsonen % 16,5 adierazten dute Bizkaian, eta % 18,1 Gipuzkoan.

Eskualde mailari dagokionez, 20 urtetik beherakoen kopurua bost eskualdetan handitu zen soilik (Arabako Ibarrek, Gorbeialdea, Plentzia-Mungia, Arabako Errioxa eta Arabako Mendialdea). Beste hamahirutan txikitu egin zen 1996-2010 aldian. Aldi horren amaieran, haurtzaro eta nerabezaro tasa

handienak Gorbeialdean, Urola Kostan eta Plentzia-Mungian kokatu ziren; aldiz, txikienak Arabako Mendialdean aurkitu ziren.

Nolanahi ere, azkenaldian izandako joera bat nabarmendu behar da: 2008ko urtariletik 2010eko urtarrilera bitarte, 20 urtetik beherakoek hazkunde txiki bat izan zuten Euskadin (% 3,1); Espainiakoa (% 2,6) baino pixka bat handiagoa. Hiru lurralde historikoen artean, proportzionalki, gehiago hazi ziren Araban (% 4,9), Gipuzkoan (% 3,5) eta Bizkaian (% 2,4) baino. Beraz, azken bi urteetan, jaiotza-tasa eta immigrazio-fluxuak nahikoak izan dira taldetik irtendako pertsonen kopurua gainditzeko. Nolanahi ere, joera-aldaketa hori iragankorra izan daiteke, jaiotza-tasa berriro erortzen bada: Euskadin, 2009an eten zen jaiotzen pixkanakako hazkuntza iraunkorra hasi zen 1995. urtean, (20.905 jaioberri, eta 2008an jaiotakoak 21.310 ziren).

Piramide demografikoaren gailurra aztertzen badugu, 1996ko maiatzaren 1etik 2010eko urtarrilaren 1era, 65 urtetik gorakoen kopurua nabarmen hazi zela ikus dezakegu: Euskadin, % 29,7, Espainian baino pixka bat gehiago (% 28). 2010. urtearen hasieran, euskal udal-erroldak 64 urtetik gorako 417.656 pertsona hartzen zituzten barnean. Horiek

euskal populazioaren % 19,2 adierazten dute, Espainiako zahartze tasa 2,3 puntutan gaindituta (% 16,9). Datu horrek zera adierazten digu, zahartze-prozesuak Euskadin Espainian baino eragin handiagoa izan duela. Izan ere, Euskadiko ordezipen tasa 64 urtetik gorako 111,5 pertsonara iristen da, 20 urtetik beherako 100 pertsona bakoitzeko. Espainian, aldiz, oraindik ez du 100 pertsonen muga gainditzen; izan ere, 64 urtetik gorako 85,8 pertsona daude 20 urtetik beherako 100 pertsona bakoitzeko.

Zahartze-prozesuak aurrera egin zuen adinaren arabeko egiturari, hiru lurralde historikoetan, aztertutako aldian. 2010. urtearen hasieran, Arabak 64 urtetik gorakoen proportzio txikiena bere populazioan (% 17,3). Aldiz, Bizkaian zuen handiena (% 19,8). Muturreko bi taldeak erlazionatzen baditugu, oreka Arabak bakarrik azaltzen duela ikusiko dugu: 64 urtetik gorako 98,9 pertsona, 20 urtetik beherako 100 pertsona bakoitzeko. Gai nontzeko lurralde historikoetan, ordezipen tasa pertsona nagusien talderantz okertu da: indar handiagoz Bizkaian (119,6), Gipuzkoan baino (104,9).

Eskualde-esparruari dagokionez, euskal eskualde gehienetan, aztertutako aldian, adinaren arabeko egiturak zahartzen jarraitu zuela ikus dezake-

gu. Salbuespena Arabako lau eskualde izan ziren; horietan, ordezen tasak behera egin zuen: Arabako Ibarrek, Arabako Mendialdea, Gorbeialdea eta Arabako Errioxa. Nolanahi ere, 2010. urtearen hasieran, Arabako Mendialdeak zuen balio handiena ordezen tasan (64 urtetik gorako 220 pertsona, 20 urtetik beherako 100 pertsona bakoitzeko), muturreko bi taldeen arteko oreka-balioa (100) gaindituta.

Zahartze-prozesuaren menpe dagoen biztanleria modernoan, sexuaren araberako egiturak feminizatze joera du, emakumezkoen bizitza-luzera handiagoa dela-eta: 2010eko urtarrilaren 1ean, 100 emakume bakoitzeko gizonezkoen kopurua 95,6 da EAEn, Espainiako maskulinitate tasa baino bi puntu gutxiago (97,6). Zahartzearen bigarren mailako efektu hori argi ikusten da bi lurralde historikotan: 96,3ko maskulinitate tasa Gipuzkoan, eta 94,1eko tasa Bizkaian. Horietan kokatzen dira eskualde feminizatuenak; seguruenik, hiritarrenak izateagatik eta hirugarren sektorea delako nagusi: Donostialdea (92,3) eta Bilbo Handia (92,6 gizonezko, 100 emakume bakoitzeko). Aldiz, Araban, sexuen arteko erlazio orekatuagoa dago: 99,6 gizonezko, 100 emakume bakoitzeko; agian, lurralde historiko horretan, landa-ingurunea oraindik

garrantzitsu samarra delako. Horregatik aurkituko ditugu emakumezkoak baino gizonezko gehiago dituzten lau eskualde: Arabako Mendialdea (122,8), Arabako Ibarrek (120,5), Gorbeialdea (111) eta Arabako Errioxa (107,1 gizonezko, 100 emakume bakoitzeko).

Zalantzarik gabe, atzerriko immigranteen fluxua zahartze-prozesua leuntzen laguntzen ari da: Euskadin, 2010. urtearen hasieran, 64 urtetik gorako 8,9 pertsona zeuden 20 urtetik beherako 100 pertsona bakoitzeko, atzerriko populazioaren artean, eta Espainiako herritarren artean, erlazioa 119,7ra iristen zen.

Aldi berean, atzerriko immigrazioa Espainiako herritartasuneko populazioaren feminizazio gero eta handiagoko joera leuntzen ari da: Euskadin, maskulinitate tasak 106,6 dira atzerriko egoiliarren artean, eta 94,9 Espainiako herritartasuna duten pertsonen artean.

Lurralde historikoen esparruan, Araba nabarmentzen da maskulinitate tasa handiena izateagatik: 124 gizonezko, atzerriko 100 emakume bakoitzeko, eta Espainiako herritartasuneko 97,5 gizonezko, 100 emakume bakoitzeko.





15 eta 29 urte bitarteko gazteak 03







Hirugarren kapitulan populazio gaztearen azterketa demografikoa ikusiko dugu, 15-29 urteko pertsonen bilakaerarekin hasita, 1996ko maiatzetik 2010eko urtarrilera doan aldia. Horiek sexuaren eta adin-taldearen arabera bereiziko ditugu (15-29, 20-24 eta 25-29 urte), bai eta bilakaera gaztearen herritartasunaren ikuspegitik aztertu ere. Gainera, analisisaren sakonduko dugu, gure arreta garrantzizko zenbait adierazletarantz zuzenduta; hala nola, gazteen ordezkien tasa, migrazio saldoak, gazte atzerriaren tasak, atzerriko gazteen artean ohikoenak diren hamar herritartasunak, gazteria tasak eta maskulinitate tasak, herritartasunaren arabera. Aipatzekoa da gure analisia hiru epigrafeetan garatzen dela, bakoitza lurralde-maila batean espezializatuta. Horiek beherantz azaltzen dira: EAE eta Espainia, hiru lurralde historikoak eta, azkenik, hogei eskualdeak landuko ditugu.



1. Euskal Autonomia Erkidegoa eta Espainia

1996ko maiatzaren 1etik 2010eko urtarrilaren 1era, 15-29 urteko taldeak pertsonak galdu zituen EAEn: % 35, hain zuzen ere. Espainiako talde berdinen atzerakada erosotasunez bikoiztu zuen intentsitatearekin galdu zituen pertsona horiek (–% 13,1). Horren ondorioz, Euskadiko udalerrietan erroldatutako gazteen garrantzi puntu bat baino pixka bat gehiago jaitsi da, Estatutako gazte taldeari dagokionez: zehazki, % 5,2tik, 1996an, % 3,9ra, 2010ean. Era berean, joera erregresiboa mantendu egin da 2008ko urtariletik 2010era, baina Euskadiren eta Espainiaren arteko bateratasunerantz zuzendutako beherakadekin: –% 6,8 eta –% 5,2, hurrenez hurren.

Labur esanda, 2010. urtearen hasieran, euskal udalerrien erroldaren azterketak 15-29 urteko 329.968 pertsona erregistratu zituen, 1996ko maiatzaren hasieran erroldatutakoak baino 177.513 pertsona gutxiago —ikus 1. taula—.

Sexuari dagokionez, Euskadin erroldatutako 15-29 urteko emakumezkoen eta gizonezkoen bilakaera aztertutako aldiaren antzekoa izan dela ikus daiteke: nabari erregresiboa, Espainian izandako ia intentsitate berdinarekin atzera eginda, eta oso antzeko desberdintasunak markatuta. Horrela, 1996ko maiatzetik 2010eko urtarrilera, Euskadin, emaku-

mezko gazteek % 35,1eko beherakada izan zuten; gizonezkoek, berriz, % 34,8ko beherakada izan zuten. Estatuan, % 13,4 eta % 12,8 murriztu ziren, hurrenez hurren —ikus 2. taula—.

Gazte taldeari dagozkion hiru adin-taldeen bilakaeraren zenbait kontraste azaltzen dira, erregresio-joera nagusiaren barnean: Euskadin, 15-19 urteko taldea izan zen gehien murriztutakoa (–% 44,8), 20-24 urteko gazteen taldea hurbil duela (–% 41,5). Bi taldeak 25-29 urtekoen taldearen desberdinak dira; izan ere, talde hori intentsitate erdiarekin murriztu zen (–% 19,2) —ikus 3. taula—.

1. taula. 15 eta 29 urte bitarteko gazteen bilakaera EAEn eta Espainian (1996-2010): kopuru absolutuak eta portzentajezko aldakuntzak

Lurralde-esparrua	1996	2001	2008	2009	2010	▲% 2010/1996
EAE	507.481	453.157	354.176	342.817	329.968	–34,98
Espainia	9.713.311	9.363.750	8.908.267	8.726.773	8.443.086	–13,08
(%) populazio gaztea EAE / Espainia	5,22	4,84	3,98	3,93	3,91	

Iturria: 1996/5/1eko Biztanleen Udal Erroldaren Berritzea; 2001/1/1ean, 2008/1/1ean, 2009/1/1ean eta 2010/1/1ean egindako Udal Erroldaren Azterketak, Estatistikako Institutu Nazionala (INE).

2. taula. 15 eta 29 urte bitarteko gazteen bilakaera EAEn eta Espainian, sexuaren arabera (1996-2010):
kopuru absolutuak eta portzentajezko aldakuntzak

Lurralde-esparrua eta sexua		1996	2001	2008	2009	2010	▲% 2010/1996
Emakumezkoak	EAE	247.803	220.545	172.470	166.770	160.696	-35,15
	Espainia	4.766.438	4.570.259	4.330.549	4.251.668	4.127.446	-13,41
	% biztanleria gaztea EAE / Espainia	5,20	4,83	3,98	3,92	3,89	
Gizonezkoak	EAE	259.678	232.613	181.706	176.047	169.272	-34,81
	Espainia	4.946.873	4.793.491	4.577.718	4.475.105	4.315.640	-12,76
	% biztanleria gaztea EAE / Espainia	5,25	4,85	3,97	3,93	3,92	

Iturria: 1996/5/1eko Biztanleen Udal Erroldaren Berritzea; 2001/1/1ean, 2008/1/1ean, 2009/1/1ean eta 2010/1/1ean egindako Udal Erroldaren Azterketak, INE.

3. taula. 15 eta 29 urte bitarteko gazteen bilakaera EAEn eta Espainian, adin-taldearen arabera (1996-2010):
kopuru absolutuak eta portzentajezko aldakuntzak

Lurralde-esparrua eta adin-taldeak		1996	2008	2010	▲% 2010/1996
15-19 urte	EAE	156.386	88.206	86.327	-44,80
	Espainia	3.131.310	2.354.504	2.303.428	-26,44
20-24 urte	EAE	178.912	112.345	104.587	-41,54
	Espainia	3.350.402	2.839.138	2.695.223	-19,56
25-29 urte	EAE	172.183	153.625	139.054	-19,24
	Espainia	3.231.599	3.714.625	3.444.435	6,59

Iturria: 1996/5/1eko Biztanleen Udal Erroldaren Berritzea; 2008/1/1ean eta 2010/1/1ean egindako Udal Erroldaren Azterketak, INE.



Nolanahi ere, 1996ko maiatzetik 2010eko urtarrilerara, EAEn erroldatutako populazioa neurritz hazi zen (% 3,8): orduan, zergatik murriztu zen gazteen kopurua aldi berean? Galdera horri erantzuteko, 15-29 urteko taldearen sarrera- eta irteera-fluxuak izan behar ditugu kontuan: batetik, 15 urte bete ondoren, taldean sartzen diren pertsonak; eta bestetik, 30 urte bete ondoren, taldetik irteten direnak. Gainera, migrazio-mugimendua aztertu behar da; hau da, 15-29 urteko immigranteen eta emigranteen arteko aldea.

Adinarengatik gazte taldean sartzen eta irteten direnei dagokienez, gazteen ordezen tasa kalkulatu dugu; hau da, 10-14 urteko 100 pertsona bakoitzeko dauden 25-29 urteko pertsona-kopurua. 1996ko maiatzaren 1ean, erlazioa nahiko

onuragarria zen, dagoeneko, talde nagusia-goarentzako, eta are gehiago handitu zen 2001eko urtarrilaren hasierara arte, ondoren, 2010eko urtarrilera arte murrizteko. Hala gertatu zen bi lurralde-esparruetan, eta euren balioek bat etortzeko joera dute: 2010. urtearen hasieran, Euskadin, 25-29 urteko 160,4 pertsona daude erroldatuta, 10-14 urteko 100 pertsona bakoitzeko; Espainian, 159,6 dira. Ondorioz, azterketaren aldian, 29 urte bete-tzeagatik taldetik atera zirenak baino asko nerabe gutxiago sartu ziren taldean, 15 betetzerakoan. Beraz, sarrera baino irteera gehiago daude, batez ere, 1980 eta 1995 artean izandako jaiotza-tasaren beherakadarengatik. Horiek 1996ko maiatzetik 2010eko urtarrilera gazte taldeak izandako atzerakada garrantzitsua azaltzen dute —ikus 4. taula—.

4. taula. Gazteen ordezen tasak (GOT*) EAEn eta Espainian izandako bilakaera (1996-2010)

Lurralde-esparrua	1996	2001	2010	Aldea 2010 – 1996
EAE	154,10	202,20	160,38	48,10
Espainia	133,25	161,34	159,59	28,09
Aldea EAE – Espainia	20,85	40,86	0,79	

(*) Gazteen ordezkapen tasa (GOT) = 25-29 urtekoen kopurua, 10-14 urteko 100 pertsona bakoitzeko.

Iturria: 1996/5/1eko Biztanleen Udal Erroldaren Berritzea; 2001/1/1ean eta 2010/1/1ean egindako Udal Erroldaren Azterketak, INE.

¹ Ez ditugu heriotzagatiko irteerak kontuan hartzen; izan ere, euren gertaera kuantitatiboa marjinala da gazteen taldean.

Migrazio-mugimenduari dagokionez, 1996tik 2009-ra, 15-29 urteko immigranteen eta emigranteen arteko aldea nahiko positiboa izan zen, orokorrean, EAEn², nahiz eta, 1999ra arte, saldoak negatiboak izan. Immigrazio-fluxu horrek gazte taldearen beherakada-joera leuntzen lagundu zuen, baina ez zen horri aurre egiteko nahikoa izan —ikus 5. taula—.

2000. urtetik aurrera, immigrazio-fluxua garrantzitsua izan zenez, ikus dezagun osagai nagusiaren, atzerriko immigrazioaren, bilakaera, 15-19 urteko populazioan. Horrela, 1996ko maiatzean,

atzerriko 3.720 gazte zeuden errolatuta euskal udalerrietan. Kolektibo horrek hazkunde izugarria izan zuen 2010eko urtarrilera arte, zehazki, % 1.099koa; hau da, 15-29 urteko errolatutako 44.591 pertsona. Portzentajezko hazkunde hori pixka bat txikiagoa izan zen Espainiako batez bestekoarekin konparatuta (% 1.137), baina euskal bilakaerak berezitasun garrantzitsua azaltzen du: krisi ekonomikoaren aldia, 2008ko urtarriletik 1010era, atzerriko gazteek hazten jarraitu zuten Euskadin; Espainian, berriz, jaisteko joera txiki bat azaldu zuen: % 12,6 eta -% 0,4, hurrenez hurren —ikus 6. taula—.

6. taula. 15 eta 29 urte bitarteko gazte atzeritarren bilakaera, EAEn eta Espainian (1996-2010): kopuru absolutuak eta portzentajezko aldakuntzak

Lurralde-esparrua	1996	2001	2008	2009	2010	▲% 2010/1996
EAE	3.720	8.412	39.588	44.143	44.591	1.098,68
Espainia	125.753	379.726	1.562.566	1.619.251	1.556.077	1.137,41
% biztanleria gaztea EAE / Espainia	2,96	2,22	2,53	2,73	2,87	

Iturria: 1996/5/1eko Biztanleen Udak Erroldaren Berritzea; 2001/1/1ean, 2008/1/1ean, 2009/1/1ean eta 2010/1/1ean egindako Udak Erroldaren Azterketak, INE.

5. taula. 15 eta 29 urte bitarteko taldearen migrazio saldoen bilakaera EAEn (1996-2010)

Urtea	Immigranteak – emigranteak
1996	-802
1997	-700
1998	-564
1999	-29
2000	1.860
2001	3.689
2002	3.732
2003	3.742
2004	4.744
2005	6.350
2006	7.124
2007	8.634
2008	7.884
2009	6.302

Iturria: Migrazio Mugimenduen Estatistika, Migrazio saldoak, EUSTAT.

² EAEz ari gara soilik, eta EUSTATEk emandako datuekin; izan ere, INEk migrazio-mugimendurako eskaintzen duen informazioak adin-taldeen bestelako segmentazioa ematen du (16-24 urtekoetan, eta 25-39 urtekoetan).

Portzentajezko zer adierazpen dute atzeritarrek EAEn eta Espainian bizi den gazterian? 2010. urtearen hasieran, erroldatutako 15-29 urtekoen % 13,5 eta % 18,4 adierazten dute, hurrenez hurren. 1996ko maiatzaren hasieran, % 0,7 marjinala adierazten zuten Euskadin, eta % 1,3 Espainian. Nolanahi ere, 2010eko urtarilaren 1ean, nabarmentzekoa da Euskadin lortutako garrantzi erlatiboa bost puntu baxuagoa dela, Espainian lortutakoarekin konparatuta —ikus 7. taula eta 1. grafikoa—.

2010. urtearen hasieran, Errumania, Maroko, Kolonia eta Bolivia dira jatorrizko herrialde ohikoenak

euskal udalerrietan erroldatutako atzeritar gazteen artean.

Espainiari dagokion hamar herritartasun ugarienen portzentajezko banaketa antzekoa da, baina Europar Batasuneko gazteen presentzia handiagoa ikusten da; hala nola, Bulgariakoak, Italiakoak eta Erresuma Batukoak —ikus 8. taula—.

15-29 urtekoen taldean izandako beherakada orokorraren ondoren, herritartasuna bereizi gabe, portzentajezko zer adierazpen dute gazteek erroldatutako populazio osoan? 2010eko urtarilaren batean, gaz-

teria tasak EAEko udalerrietan erroldatutako populazioaren % 15,2 adierazten du, Espainian baino ia hiru puntu gutxiago (% 18). Nabarmentzekoa da gazteria tasaren balioak 1996ko maiatzetik 2010eko urtarilera izandako beherakada handia: 9 puntu Euskadin, eta 6,5 puntu Espainian —ikus 9. taula—.


7. taula. Atzerriko biztanleria gaztearen tasak* EAEn eta Espainian izandako bilakaera (1996-2010)

Lurralde-esparrua	1996	2010	Aldea 2010 – 1996
EAE	0,73	13,51	12,78
Espainia	1,29	18,43	17,14
Aldea EAE – Espainia	-0,56	-4,92	

(*) Atzerriko populazioaren gaztearen tasa = Atzerriko herritartasuna duten gazteen ehunekoa, erroldatutako 15-29 urteko biztanleria osoarekiko.

Iturria: 1996/5/1eko Biztanleen Udal Erroldaren Berritzea eta 2010/1/1ean egindako Udal Erroldaren Azterketa, INE.

1. grafikoa. Atzerriko biztanleria gaztearen indizea, EAEn eta Espainian, 1996an eta 2010ean



Iturria: 1996/5/1eko Biztanleen Udal Erroldaren Berritzea eta 2010/1/1ean egindako Udal Erroldaren Azterketa, INE.

8. taula. Hamar herritartasun ohikoena EAE eta Espainian errolatutako 15 eta 29 urte bitarteko gazteen artean, 2010eko urtarilaren 1ean

EAE			ESPAINIA		
Herritartasuna	Kopuru absolutuak	15-29 urteko atzerritar guztien gaineko %	Herritartasuna	Kopuru absolutuak	15-29 urteko atzerritar guztien gaineko %
Errumania	5.333	11,96	Errumania	281.219	18,07
Maroko	5.309	11,91	Maroko	216.793	13,93
Kolonia	4.145	9,30	Ekvador	123.308	7,92
Bolivia	4.080	9,15	Kolonia	88.832	5,71
Ekvador	2.530	5,67	Bolivia	71.538	4,60
Portugal	2.372	5,32	Txina	45.206	2,91
Brasil	2.030	4,55	Bulgaria	44.195	2,84
Paraguay	1.960	4,40	Italia	42.368	2,72
Txina	1.338	3,00	Erresuma Batua	36.320	2,33
Aljeria	1.309	2,94	Portugal	34.109	2,19
15-29 urteko atzerritar guztiak	44.591	100,00	15-29 urteko atzerritar guztiak	1.556.077	100,00

Iturria: 2010/1/1eko Udal Erroldaren Azterketa, INE.

9. taula. Gazteria tasak (GT*) EAE eta Espainian izandako bilakaera (1996-2010)

Lurralde-esparrua	1996	2008	2010	Aldea 2010 – 1996
EAE	24,19	16,42	15,15	-9,04
Espainia	24,49	19,30	17,96	-6,53
Aldea EAE – Espainia	-0,30	-2,88	-2,81	

(*) Gazteria tasa (GT) = 15-29 urtekoen ehunekoa, biztanleria osoarekiko.

Iturria: 1996/5/1eko Biztanleen Udal Erroldaren Berritzea eta 2010/1/1ean egindako Udal Erroldaren Azterketa, INE.

2010eko urtarrilaren 1ean, EAEn, populazio atzerriarraren gazteria tasak erosotasunez bikoizten zuen Espainiako herritarrei zegokiona: % 32 EAEn eta % 14 Espainian. Aldi berean, Estatuan errol-datutako atzerriarren gazteria tasa Euskadikoa baino 5 puntu txikiagoa dela ikus daiteke. Horrek atzerriko immigrazioaren fenomenoaren Euskadiko adinaren arabera egitura gaztetzen gehiago laguntzen ari dela adierazten digu —ikus 10. taula—.

Jarraian, ikus ditzagun 15-19 urteko, 20-24 urteko eta 25-29 urteko gizabanakoek adierazten dituzten ehunekoak, gazte taldearen guztizko partzialari eta populazioaren guztizkoari dagozkien. Lehen izendatzaileari dagokionez, 1996ko maiatzean, hiru taldeetan, talde gaztearen banaketa orekatua izatetik, 25-29 urteko gazteen nagusitasun nabarira pasatu gara 2010eko urtarilean. Laburbilduz, 2010ean, Euskadin, gazteak honako proportzio hauekin banatzen dira hiru taldeetan: % 26,2, 15-19 urtekoetan; % 31,7, 20-24 urtekoetan eta % 42,1, 25-29 urtekoetan.

Populazioaren guztizkoaren izendatzaileari dagokionez, gazte taldearen hiru adin-taldeek garrantzi erlatiboa galdu zuten 1996. urteari dagokionez, baina beherakada are handiagoa izan zen lehen bi taldeetan. Aldakuntza horren ondoren, 2010. urtea portzentajezko honako garrantzi honekin hasi zen, populazio osoari dagokionez: % 4, 15-19 urtekoetan; % 4,8, 20-24 urtekoetan eta % 6,4, 25-29 urtekoetan —ikus 11. taula—.

10. taula. EAEn eta Espainian errol-datutako atzerriko eta Espainiako herritartasuneko populazioaren gazteria tasa (GT), 2010eko urtarrilaren 1ean

Lurralde-esparrua	Atzerriko herritartasunekoak	Espainiako herritartasunekoak	Aldea atzerriko herritartasunekoak – Espainiako herritartasunekoak
EAE	31,99	14,00	18,00
Espainia	27,07	16,69	10,39
Aldea EAE – Espainia	4,92	-2,69	

Iturria: 2010/1/1eko Udaltaldearen Azterketa, INE.

11. taula. Gazteen adin-taldearen pisuak* izandako bilakaera EAEn eta Espainian (1996-2010)

Lurralde-esparrua eta adin-taldeak		1996	2010	Aldea 2010 – 1996
15-19 urte	EAEko 15-19 urtekoak / 15-29 urtekoak (%)	30,82	26,16	−4,65
	Espainiako 15-19 urtekoak / 15-29 urtekoak (%)	32,24	27,28	−4,96
	EAEko 15-19 urtekoak / biztanleria osoa (%)	7,45	3,96	−3,49
	Espainiako 15-19 urtekoak / biztanleria osoa (%)	7,89	4,90	−2,99
20-24 urte	EAEko 20-24 urtekoak / 15-29 urtekoak (%)	35,25	31,70	−3,56
	Espainiako 20-24 urtekoak / 15-29 urtekoak (%)	34,49	31,92	−2,57
	EAEko 20-24 urtekoak / biztanleria osoa (%)	8,53	4,80	−3,73
	Espainiako 20-24 urtekoak / biztanleria osoa (%)	8,45	5,73	−2,71
25-29 urte	EAEko 25-29 urtekoak / 15-29 urtekoak (%)	33,93	42,14	8,21
	Espainiako 25-29 urtekoak / 15-29 urtekoak (%)	33,27	40,80	7,53
	EAEko 25-29 urtekoak / biztanleria osoa (%)	8,21	6,38	−1,82
	Espainiako 25-29 urtekoak / biztanleria osoa (%)	8,15	7,33	−0,82

(*) Pisuak = adin talde bakoitzak adierazten duen ehunekoak, gazte guztiekiko eta biztanleria osoarekiko.

Iturria: 1996/5/1eko Biztanleen Udaltaldearen Berritzea eta 2010/1/1eko Udaltaldearen Azterketa, INE.

Bestalde, 15-29 urteko taldearen maskulinitate tasak egonkorrak izan ziren 1996ko maiatzetik 2010eko urtarrilera; bertan, 105,3 gizonezko daude Euskadin, 100 emakume bakoitzeko, Espainian baino pixka bat gehiago (104,6). Nabarmentzekoa da, talde zaharrenean ere, populazioan emakumezkoak baino gizonezko gehiago daudela; izan ere, gizonezko jaiotzeko probabilitatea emakumezko jaiotzearena baino pixka bat handiagoa da (100 jaiotzetatik, 51 gizonezko izan ohi dira). Beraz, adin egitura aztertzen badugu, maskulinitate tasak murrizteko joera du, erlazioa emakumezkoen alde alderantzikatu arte (100dik behera), emakumezkoen bizitza-luzera dela-eta —ikus 12. taula—.

Eta herritartasun aldagaia sartuz gero, maskulinitate tasak pixka bat txikiagoak dira 15-29 urteko populazio atzeritarrean, Espainiako herritarren talde berdinarekin konparatuta: Euskadin 104, 100 emakume bakoitzeko (gizonezkoak 105,5) —ikus 13. taula—.

12. taula. 15 eta 29 urte bitarteko gazteen maskulinitate tasak (MT*) izandako bilakaera EAEn eta Espainian (1996-2010)

Lurralde-esparrua	1996	2010	Aldea 2010 – 1996
EAE	104,79	105,34	0,54
Espainia	103,79	104,56	0,77
Aldea EAE – Espainia	1,01	0,78	

(*) Maskulinitate tasa (MT) = gizonezkoen kopurua, 100 emakume bakoitzeko.

Iturria: 1996/5/1eko Biztanleen Udal Erroldaren Berritzea eta 2010/1/1ean egindako Udal Erroldaren Azterketa, INE.

13. taula. 15 eta 29 urte bitarteko atzerriko eta Espainiako herritartasuneko gazteen maskulinitate tasak, EAEn eta Espainian 2010eko urtarrilaren 1ean

Lurralde-esparrua	Atzerriko herritartasunekoak	Espainiako herritartasunekoak	Aldea atzerriko herritartasunekoak – Espainiako herritartasunekoak
EAE	103,98	105,55	–1,58
Espainia	102,63	105,00	–2,37
Aldea EAE – Espainia	1,35	0,55	

Iturria: 2010/1/1eko Udal Erroldaren Azterketa, INE.

2. Lurralde historikoak

Gazteria lurralde historikoetan argi eta garbi murrizten ari den talde demografikoa da, 1996ko maiatzaren 1etik 2010eko urtarrilaren 1era izandako aldakuntza negatiboan ikus daitekeen bezala. Proportzionalki, gehiago murriztu zen Bizkaian (% 36,6) eta Gipuzkoan (% 35,7). Joera erregresibo horrek indar handiagoarekin eragiten jarraitu du egungo krisi ekonomikoan, 2008ko urtariletik 2010era, aipatutako bi lurraldeetan —ikus 14. taula—.

15-29 urteko taldearen bilakaera antzekoa izan zen sexuen artean. Dena den, aipatzekoa da Araban

ikusten den desberdintasun txikia; bertan, emakumez-koak gizonezkoak baino pixka bat gehiago murriztu ziren 1996ko maiatzetik 2010eko urtarriera: -% 28 eta -% 26,1, hurrenez hurren —ikus 15. taula—.

Bestalde, gazte atzerritarrak nabarmen hazi ziren hiru lurralde historikoetan, aztertutako aldian: portzentualki, Araban gehiago hazi ziren (% 1.400,3), baina, balio absolututan, gehiago hazi ziren Bizkaian (+20.742 pertsona). Nolanahi ere, epe laburrera, hau da, 2009tik 2010era, joera-aldaketa txiki bat ikusten da Gipuzkoan; bertan, atzera egin zu-

ten pixka bat (-% 1,2), Araban erroldatutako gazte atzerritarren taldearen gehikuntza esanguratsua- ren aldean (% 5,2). Agian, lurralde historiko bakoitzaren lan-merkatuen iragazkortasun bereizgarriaren eraginaren aurrean gaude, atzerriko immigrazioari dagokionez, alor ekonomiko ezberdinetan espezializatuak egoteagatik; izan ere, zenbait beste batzuk baino irekiagoak daude gazte atzerritarren enplegararritasunera. Era berean, 2008tik aurrera, lan-merkatuetako krisi ekonomikoaren eragin zehatzek iragazkortasun bereizgarri hori baldintzatzen dute, jarduera-adarren eta lurraldeen arabera —ikus 16. taula—.

14. taula. 15 eta 29 urte bitarteko gazteen bilakaera lurralde historikoetan (1996-2010): kopuru absolutuak eta portzentajeak aldakuntzak

Lurralde historikoak	1996	2001	2008	2009	2010	▲% 2010/1996
Araba	69.735	65.030	53.822	52.571	50.891	-27,02
Bizkaia	274.564	243.348	188.068	181.410	174.148	-36,57
Gipuzkoa	163.182	144.780	112.286	108.836	104.929	-35,70

Iturria: 1996/5/1eko Biztanleen Udal Erroldaren Berritzea; 2001/1/1ean, 2008/1/1ean, 2009/1/1ean eta 2010/1/1ean egindako Udal Erroldaren Azterketak, INE.

15. taula. 15 eta 29 urte bitarteko gazteen bilakaera lurralde historikoetan, sexuaren arabera (1996-2010):
kopuru absolutuak eta portzentajezko aldakuntzak

Lurralde historikoak eta sexua		1996	2001	2008	2009	2010	▲% 2010/1996
Emakumezkoak	Araba	34.241	31.709	26.068	25.506	24.649	-28,01
	Bizkaia	134.370	118.869	91.991	88.539	85.015	-36,73
	Gipuzkoa	79.191	69.966	54.411	52.725	51.032	-35,56
Gizonezkoak	Araba	35.494	33.321	27.754	27.065	26.242	-26,07
	Bizkaia	140.192	124.479	96.077	92.871	89.133	-36,42
	Gipuzkoa	83.991	74.814	57.875	56.111	53.897	-35,83

Iturria: 1996/5/1eko Biztanleen Udal Erroldaren Berritza; 2001/1/1ean, 2008/1/1ean, 2009/1/1ean eta 2010/1/1ean egindako Udal Erroldaren Azterketak, INE.

16. taula. 15 eta 29 urte bitarteko atzerriko gazteen bilakaera lurralde historikoetan (1996-2010):
kopuru absolutuak eta portzentajezko aldakuntzak

Lurralde historikoak	1996	2001	2008	2009	2010	▲% 2010/1996
Araba	592	1.813	7.458	8.446	8.882	1.400,34
Bizkaia	1.864	4.071	20.243	22.441	22.606	1.112,77
Gipuzkoa	1.264	2.528	11.887	13.256	13.103	936,63

Iturria: 1996/5/1eko Biztanleen Udal Erroldaren Berritza; 2001/1/1ean, 2008/1/1ean, 2009/1/1ean eta 2010/1/1ean egindako Udal Erroldaren Azterketak, INE.



1996ko maiatzetik 2010eko urtarrilera bitarteko bilakaera positiboaren ondoren, zer garrantzi dute atzerritarrek lurralde historiko bakoitzeko udaletan erroladatutako 15-29 urteko populazioaren guztizkoan? Esan dezagun, 2010. urtearen hasieran, garrantzi nabaria dutela, % 12,5 (Gipuzkoa) eta % 17,5 (Araba) artekoa. Tasa horiek atzerritarrek 1996ko maiatzean zuten marjinaltasun kuantitati-boarekin kontrastatzen dute; izan ere, ez zuten % 1eko atari kaskarra gainditzea lortzen, 15-29 urteko gazte taldearen guztizkoari dagokionez —ikus 17. taula—.

Eta zer herritartasun nabarmentzen dira 2010eko urtarrilaren 1ean erroladatutako atzerritar gazteen artean? Marokokoa (% 15,5) eta Kolonbiakoa (% 11,7) Araban, Boliviakoa (% 14,8) eta Errumaniakoa (% 13,8) Bizkaian, eta Marokokoa (% 11,6) Gipuzkoan —ikus 18. taula—.

Orain, ikus dezagun gazteria tasen bilakaera. Horren garrantzia nabarmen murriztu zen lurralde historiko bakoitzean, 8,7 eta 9,3 puntu artean, esparru bakoitzaren arabera. Horrela, 2010. urtearen hasieran, urkila murriztua eratzen dute: % 14,8 Gipuzkoan, eta % 16 Araban —ikus 19. taula—.

17. taula. Atzerritar gazteen tasak lurralde historikoetan izandako bilakaera (1996-2010)

Lurralde historikoak	1996	2010	Aldea 2010 – 1996
Araba	0,85	17,45	16,60
Bizkaia	0,68	12,98	12,30
Gipuzkoa	0,77	12,49	11,71

Iturria: 1996/5/1eko Biztanleen Udal Errolaren Berritzea eta 2010/1/1ean egindako Udal Errolaren Azterketa, INE.

18. taula. Hamar herritartasun ohikoenak lurralde historikoetan erroladatutako 15 eta 29 urte bitarteko atzeritar gazteen artean, 2010eko urtarilaren 1ean

ARABA			BIZKAIA			GIPUZKOA		
	Absolutuak	15-29 urteko atzeritar guztien gaineko %		Absolutuak	15-29 urteko atzeritar guztien gaineko %		Absolutuak	15-29 urteko atzeritar guztien gaineko %
Maroko	1.379	15,53	Bolivia	3.339	14,77	Errumania	1.558	11,89
Kolonia	1.035	11,65	Errumania	3.120	13,80	Maroko	1.517	11,58
Aljeria	668	7,52	Maroko	2.413	10,67	Ekuador	1.098	8,38
Portugal	658	7,41	Kolonia	2.098	9,28	Portugal	1.003	7,65
Errumania	655	7,37	Paraguai	1.436	6,35	Kolonia	1.012	7,72
Paraguai	411	4,63	Brasil	1.080	4,78	Nikaragua	757	5,78
Ekuador	409	4,60	Ekuador	1.023	4,53	Brasil	545	4,16
Brasil	405	4,56	Txina	829	3,67	Bolivia	498	3,80
Pakistan	276	3,11	Portugal	711	3,15	Argentina	385	2,94
Bolivia	243	2,74	Senegal	651	2,88	Honduras	368	2,81
15-29 urteko atzeritar guztiak	8.882	100,00	15-29 urteko atzeritar guztiak	22.606	100,00	15-29 urteko atzeritar guztiak	13.103	100,00

Iturria: 2010/1/1eko Udal Erroldaren Azterketa, INE.

19. taula. Gazteria tasak (GT) lurralde historikoetan izandako bilakaera (1996-2010)

Lurralde historikoak	1996	2008	2010	Aldea 2010 – 1996	Aldea 2010 – 2008
Araba	24,74	17,38	16,04	-8,71	-1,35
Bizkaia	24,08	16,40	15,09	-8,99	-1,31
Gipuzkoa	24,13	16,02	14,84	-9,30	-1,18

Iturria: 1996/5/1eko Biztanleen Udal Erroldaren Berritza; 2008/1/1ean eta 2010/1/1ean egindako Udal Erroldaren Azterketak, INE.

Gazteen adierazleak 2011

Gazteria tasak oso desberdinak dira herritartasunaren arabera, 2010eko urtarilaren 1eko ehunekoak adierazten duten bezala: populazio atzerriarraren artean, % 30etik gorakoak dira; Espainiakoen artean, balioa erdira murrizten da —ikus 20. taula—.

Talde gaztearen adin-taldee dagokienez, atzerakada izan zen guztietan eta lurralde historiko bakoitzean, 1996ko maiatzetik 2010eko urtarilera errol-datutako pertsona kopuruan. Bilakaera negatibo hori askoz handiagoa izan zen 15-19 eta 20-24 urteko taldeetan. Aldi berean, Araban errol-datutako 25-29 urteko gazteak nabarmentzen dira bertan izandako portzentajezko atzerakada moderatua-rengatik (–% 6,8), gainontzeoekin konparatuta —ikus 21. taula—.

Adin-talde bakoitzeko gazteek lurralde historiko bakoitzeko talde gaztearen guztikoan adierazten dituzten ehunekoei dagokienez, aipatzekoa da 2010eko urtarilaren hasieran goranzko lerro zuzena osatu arte bilakatu direla (ehuneko handiagoarekin, 25-29 urtekoetan). Lurralde historiko bakoitzean errol-datutako populazioaren guztizkoari dagokionez, adin-talde bakoitzaren garrantzia aztertzen badugu, hiru eskualdeetan, hiru adin-talde gazteen garrantzia murriztu zela ikusten dugu, baina intentsitate handiagoarekin lehen bietan: 15-19 urteko nerabeak eta 20-24 urteko gazteak —ikus 22. taula—.

20. taula. Gazteria tasak (GT) 2010eko urtarilaren 1ean lurralde historikoetan errol-datutako atzerriko eta Espainiako herritartasuneko biztanleen artean

Lurralde historikoak	Atzerriko herritartasunekoak	Espainiako herritartasunekoak	Aldea atzerriko herritartasunekoak – Espainiako herritartasunekoak
Araba	31,49	14,53	16,96
Bizkaia	32,90	13,81	19,09
Gipuzkoa	30,87	13,97	16,90

Iturria: 2010/1/1eko Udal Erroldaren Azterketa, INE.

21. taula. 15 eta 29 urte bitarteko gazteen bilakaera lurralde historikoetan, adin-taldeen arabera (1996-2010): kopuru absolutuak eta portzentajezko aldakuntzak

Lurralde historikoak eta adin-taldeak		1996	2008	2010	▲% 2010/1996
15-19 urte	Araba	21.845	13.141	12.915	−40,88
	Bizkaia	85.044	46.435	44.875	−47,23
	Gipuzkoa	49.497	28.630	28.537	−42,35
20-24 urte	Araba	24.397	17.158	16.091	−34,05
	Bizkaia	96.306	59.874	55.351	−42,53
	Gipuzkoa	58.209	35.313	33.145	−43,06
25-29 urte	Araba	23.493	23.523	21.885	−6,84
	Bizkaia	93.214	81.759	73.922	−20,70
	Gipuzkoa	55.476	48.343	43.247	−22,04

Iturria: 1996/5/1eko Biztanleen Udal Erroldaren Berritzea; 2008/1/1ean eta 2010/1/1ean egindako Udal Erroldaren Azterketak, INE.

22. taula. Gazteen adin-taldeen pisuen bilakaera lurralde historikoetan (1996-2010)

Lurralde historikoak eta adin-taldeak			1996	2010	Aldea 2010 – 1996
15-19 URTE	15-19 urtekoak/ 15-29 urtekoak (%)	Araba	31,33	25,38	-5,95
		Bizkaia	30,97	25,77	-5,21
		Gipuzkoa	30,33	27,20	-3,14
	15-19 urtekoak/ biztanleria osoa (%)	Araba	7,75	4,07	-3,68
		Bizkaia	7,46	3,89	-3,57
		Gipuzkoa	7,32	4,03	-3,28
20-24 URTE	20-24 urtekoak/ 15-29 urtekoak (%)	Araba	34,99	31,62	-3,37
		Bizkaia	35,08	31,78	-3,29
		Gipuzkoa	35,67	31,59	-4,08
	20-24 urtekoak/ biztanleria osoa (%)	Araba	8,66	5,07	-3,59
		Bizkaia	8,45	4,80	-3,65
		Gipuzkoa	8,61	4,69	-3,92
25-29 URTE	25-29 urtekoak/ 15-29 urtekoak (%)	Araba	33,69	43,00	9,31
		Bizkaia	33,95	42,45	8,50
		Gipuzkoa	34,00	41,22	7,22
	25-29 urtekoak/ biztanleria osoa (%)	Araba	8,34	6,90	-1,44
		Bizkaia	8,18	6,41	-1,77
		Gipuzkoa	8,20	6,11	-2,09

Iturria: 1996/5/1eko Biztanleen Udal Erroldaren Berritzea eta 2010/1/1ean egindako Udal Erroldaren Azterketa, INE.

Gazteen adierazleak 2011

Orain, ezagutu dezagun EAEn erroldatutako populazio gazteak hiru lurralde historikoetan duen banaketa: 2010eko urtarrilean, erdia baino pixka bat gehiago Bizkaian bizi da (% 52,8), eta ia herena Gipuzkoan (% 31,8). Araban bizi da euskal gazteen kopururik txikiena (guztizkoaren % 15,4). Hala ere, aipatzekoa da bertako talde gaztea dela garrantzia hartu duen bakarra, 1996ko maiatzari dagokionez (% 13,7tik % 15,4ra) —ikus 23. taula—.

Nola banatzen dira euskal udalerrietan erroldatutako gazte atzerritarrak hiru lurralde historikoetan? 2010. urtearen hasieran, aurretik talde osorako azaldutako antzeko banaketa aurkezten dute, herritartasun-bereizketarik egin gabe: gazte atzeritar gehienak Bizkaian bizi dira (% 50,7); nolanahi ere, pixka bat gehiago nabarmentzen dira Araban (guztizkoaren % 19,9) —ikus 24. taula—.

Amaitu dezagun epigrafe hau talde gaztearen maskulinitate tasa aipatuz. 2010aren hasieran, 100 emakumeko 104,8 gizonezko ditu Bizkaia, eta 106,5 Arabak. Hain zuzen ere, 1996ko maiatzarekin konparatuta tasa horretan izandako hazkunde garrantzitsurengatik nabarmentzen da Araba (+2,8 puntu) —ikus 25. taula—.

Arabako udalerrietan erroldatutako gazteriak maskulinitate tasa handiagoa lortzen badu, atzerriko gazterien artean gizonezko gehiago izatearen ondorio zuzena dela aipatu behar dugu: 113,1 100 emakumeko; Espainiako herritartasuna duten Arabako gazteei dagokien maskulinitate tasa baino 8 puntu gehiago, hain zuzen ere (105,1) —ikus 26. taula—.

23. taula. EAEn udalerrietan erroldatutako 15 eta 29 urte bitarteko gazteen banaketaren bilakaera, lurralde historikoen arabera (1996-2010): kopuru absolutuak eta portzentajeak

Lurralde historikoak	1996		2010		Aldea (%) 2010 – 1996
	Abs.	%	Abs.	%	
Araba	69.735	13,74	50.891	15,42	1,68
Bizkaia	274.564	54,10	174.148	52,78	-1,33
Gipuzkoa	163.182	32,16	104.929	31,80	-0,36
EAE	507.481	100,00	329.968	100,00	0,00

Iturria: 1996/5/1eko Biztanleen Udal Erroldaren Berritzea eta 2010/1/1ean egindako Udal Erroldaren Azterketa, INE.

24. taula. EAEn erroldatutako 15 eta 29 urte bitarteko gazte atzeritarren banaketaren bilakaera, lurralde historikoen arabera (1996-2010): kopuru absolutuak eta portzentajeak

Lurralde historikoak	1996		2010		Aldea (%) 2010 – 1996
	Abs.	%	Abs.	%	
Araba	592	15,91	8.882	19,92	4,00
Bizkaia	1.864	50,11	22.606	50,70	0,59
Gipuzkoa	1.264	33,98	13.103	29,38	-4,59
EAE	3.720	100,00	44.591	100,00	0,00

Iturria: 1996/5/1eko Biztanleen Udal Erroldaren Berritzea eta 2010/1/1ean egindako Udal Erroldaren Azterketa, INE.

25. taula. 15 eta 29 urte bitarteko gazteen maskulinitate tasak (MT) lurralde historikoetan izandako bilakaera (1996-2010)

Lurralde historikoak	1996	2010	Aldea 2010 – 1996
Araba	103,66	106,46	2,80
Bizkaia	104,33	104,84	0,51
Gipuzkoa	106,06	105,61	-0,45

Iturria: 1996/5/1eko Biztanleen Udal Erroldaren Berritzea eta 2010/1/1ean egindako Udal Erroldaren Azterketa, INE.

26. taula. 15 eta 29 urte bitarteko atzerriko eta Espainiako herritartasuneko gazteen maskulinitate tasak (MT) lurralde historikoetan 2010eko urtarrilaren 1ean

Lurralde historikoak	Atzerriko herritartasunekoak	Espainiako herritartasunekoak	Aldea atzerriko herritartasunekoak – Espainiako herritartasunekoak
Araba	113,15	105,10	8,05
Bizkaia	102,87	106,44	-3,57
Gipuzkoa	100,02	105,14	-5,13

Iturria: 2010/1/1eko Udal Erroldaren Azterketa, INE.



3. Eskualdeak

2010eko urtarrilaren 1ean, eskualdeetan erroldatutako³ bi sexuetako gazteen kopurua 1996ko maiatzaren 1ean zenbatutakoa baino askoz txikiagoa da: ehunekoei dagokienez, atzerakada txikiena Gorbeialdean izan zen (–% 9,1), Arabako Errioxa atzetik duela (–% 10,6). Handiena, aldiz, Arabako Mendialdekoa izan zen (–% 45,6). Eskualde horrez gain, honako hauek nabarmentzen dira gazte kopuruaren murrizpen handienak izateagatik: Debarrena (–% 39,2), Bilbo Handia (–% 38,7), Donostialdea (–% 38,7), Arabako Kantaurialdea (–% 38,1) eta Debagoiena (–% 37,4). Hortaz, gazteen beherakada demografikoa guztiz zabaldutako joera da; izan ere, hiri- zein landa-eskualdeei eragin die —ikus 27. taula—.

27. taula. 15 eta 29 urte bitarteko gazteen bilakaera eskualdeetan (1996-2010): kopuru absolutuak eta portzentajezko aldakuntzak

Eskualdeak	1996	2010	▲% 2010/1996
Arabako Kantaurialdea	8.632	5.340	–38,14
Gorbeialdea	1.203	1.093	–9,14
Arabako Lautada	56.673	41.823	–26,20
Arabako Mendialdea	601	327	–45,59
Arabako Errioxa	1.859	1.662	–10,60
Arabako Ibarrek	764	646	–15,45
Arratia Nerbioi	4.567	3.341	–26,84
Enkarterria	6.502	4.759	–26,81
Bilbo Handia	215.849	132.265	–38,72
Plentzia-Mungia	9.028	8.008	–11,30
Gernika-Bermeo	9.975	6.745	–32,38
Markina-Ondarroa	6.065	3.952	–34,84
Durandaldea	22.572	15.078	–33,20
Goierrri	15.244	10.383	–31,89
Debagoiena	14.921	9.342	–37,39
Debarrena	12.929	7.857	–39,23
Urola Kosta	15.390	11.543	–25,00
Tolosa	10.576	6.981	–33,99
Donostialdea	76.812	47.081	–38,71
Bidasoa Beherea	17.304	11.742	–32,14
EAE	507.466	329.968	–34,98

³ Eskualdeei buruzko atalean ezin dugu gazteen herritasun aldagaia landu; izan ere, INEk ez ditu ezaugarri horiek eta bost urteko adin-taldeak erlazioztatzen, udalerrietarako egindako ustiapenean.

Sexu-bereizketarik gabeko bilakaeraren ondoren, sexu bakoitzari dagokiona jaso dugu hurrengo taulan: 15-29 urteko gizabanakoen kopuruaren atzerakada sakona izan zela ikus daiteke, emakumezkoetan zein gizonezkoetan, eta horrek antzeko intentsitatea azaltzen du bi sexuetan, eskualde gehienetan. Nolanahi ere, emakumezkoen eta gizonezkoen beherakadak oso desberdinak izan dira lau esparrutan: handiagoak izan dira Gorbeialdean, Arabako Ibarretan eta Markina-Ondarroan bizi diren emakumezko gazteen artean; al-diz, Arabako Mendialdean, gizonezkoen kopurua gehiago murriztu da —ikus 28. taula—.

Bost urteko taldeen arabera bilakaerari dagokionez, beherakada nabaria izan da ia eskualde guztietan; 'ia' diogu, bi salbuespen daudelako: 15-19 urteko gazteak pixka bat hazi ziren (% 0,9) Gorbeialdean eta, bestalde, Plentzia-Mungian, nahiko hazi ziren 25-29 urtekoak (% 7,2). Aipatzekoa da 1996ko maiatzaren eta 2010eko urtarrilaren arteko atzerakada erlatibo handienak (% 40tik gorakoak) Bilbo Handian (–% 49,2) eta Debabarrenan (–% 49,1) izan zirela, 15-19 urteko taldean; bai eta Arabako Mendialdean ere, 20-24 urteko (–% 49,1) eta 25-29 urteko (–% 46,1) taldeetan —ikus 29. taula—.

28. taula. 15 eta 29 urte bitarteko gazteen bilakaera eskualdeetan, sexuaren arabera (1996-2010): kopuru absolutuak eta portzentajezko aldakuntzak

Eskualdeak	Emakumeak 1996	Emakumeak 2010	Emakumeen ▲% 2010/1996	Gizonak 1996	Gizonak 2010	Gizonen ▲% 2010/1996
Arabako Kantaurialdea	4.247	2.593	–38,95	4.384	2.747	–37,34
Gorbeialdea	601	519	–13,64	602	574	–4,65
Arabako Lautada	27.870	20.311	–27,12	28.803	21.512	–25,31
Arabako Mendialdea	257	146	–43,19	343	181	–47,23
Arabako Errioxa	895	788	–11,96	962	874	–9,15
Arabako Ibarrak	366	292	–20,22	398	354	–11,06
Arratia Nerbioi	2.234	1.617	–27,62	2.330	1.724	–26,01
Enkarterria	3.159	2.316	–26,69	3.346	2.443	–26,99
Bilbo Handia	105.693	64.610	–38,87	110.147	67.655	–38,58
Plentzia-Mungia	4.517	3.953	–12,49	4.518	4.055	–10,25
Gernika-Bermeo	4.862	3.338	–31,35	5.113	3.407	–33,37
Markina-Ondarroa	2.954	1.831	–38,02	3.111	2.121	–31,82
Durangaldea	10.954	7.350	–32,90	11.618	7.728	–33,48
Goierri	7.254	4.906	–32,37	7.992	5.477	–31,47
Debagoiena	7.174	4.402	–38,64	7.747	4.940	–36,23
Debabarrena	6.245	3.770	–39,63	6.684	4.087	–38,85
Urola Kosta	7.530	5.611	–25,48	7.860	5.932	–24,53
Tolosa	5.090	3.356	–34,07	5.480	3.625	–33,85
Donostialdea	37.518	23.254	–38,02	39.293	23.827	–39,36
Bidasoa Beherea	8.373	5.733	–31,53	8.931	6.009	–32,72
EAE	247.793	160.696	–35,15	259.662	169.272	–34,81

Iturria: 1996/5/1eko Biztanleen Udal Erroldaren Berritzea eta 2010/1/1ean egindako Udal Erroldaren Azterketa, INE.

29. taula. 15 eta 29 urte bitarteko gazteen bilakaera eskualdeetan, adin-taldeen arabera (1996-2010):
kopuru absolutuak eta portzentajezko aldakuntzak

Eskualdeak	15-19 urte			20-24 urte			25-29 urte		
	1996	2010	▲% 2010/1996	1996	2010	▲% 2010/1996	1996	2010	▲% 2010/1996
Arabako Kantaurialdea	2.690	1.373	-48,96	3.029	1.723	-43,12	2.913	2.244	-22,97
Gorbeialdea	348	351	0,86	382	320	-16,23	473	422	-10,78
Arabako Lautada	17.932	10.490	-41,50	19.862	13.193	-33,58	18.879	18.140	-3,91
Arabako Mendialdea	138	84	-39,13	216	110	-49,07	247	133	-46,15
Arabako Errioxa	544	447	-17,83	635	541	-14,80	680	674	-0,88
Arabako Ibarrak	191	170	-10,99	272	204	-25,00	301	272	-9,63
Arratia Nerbioi	1.410	872	-38,16	1.528	1.063	-30,43	1.629	1.406	-13,69
Enkarterria	2.003	1.183	-40,94	2.268	1.543	-31,97	2.231	2.033	-8,87
Bilbo Handia	66.806	33.929	-49,21	76.031	42.044	-44,70	73.012	56.292	-22,90
Plentzia-Mungia	2.840	2.256	-20,56	3.147	2.491	-20,85	3.041	3.261	7,23
Gernika-Bermeo	3.174	1.754	-44,74	3.453	2.119	-38,63	3.348	2.872	-14,22
Markina-Ondarroa	1.792	1.029	-42,58	2.039	1.264	-38,01	2.234	1.659	-25,74
Durangaldea	7.017	3.852	-45,10	7.838	4.827	-38,42	7.717	6.399	-17,08
Goierri	4.699	2.812	-40,16	5.341	3.300	-38,21	5.204	4.271	-17,93
Debagoiena	4.742	2.431	-48,73	5.175	3.004	-41,95	5.004	3.907	-21,92
Debabarrena	3.968	2.023	-49,02	4.627	2.496	-46,06	4.334	3.338	-22,98
Urola Kosta	4.953	3.247	-34,44	5.355	3.680	-31,28	5.082	4.616	-9,17
Tolosa	3.285	2.025	-38,36	3.738	2.194	-41,31	3.553	2.762	-22,26
Donostialdea	22.605	12.744	-43,62	27.828	14.909	-46,42	26.379	19.428	-26,35
Bidasoa Beherea	5.241	3.255	-37,89	6.144	3.562	-42,02	5.919	4.925	-16,79
EAE	156.378	86.327	-44,80	178.908	104.587	-41,54	172.180	139.054	-19,24

Iturria: 1996/5/1eko Biztanleen Udal Erroldaren Berritzea eta 2010/1/1ean egindako Udal Erroldaren Azterketa, INE.

15-29 urteko taldearen bilakaera erregresibo nabarmenak gazteen garrantzi txikiagoa ekartzen du berekin, errolatutako populazio osoan: aitzitik, hazi egin zen ia eskualde guztietan⁴, 1996ko maiatzetik 2010eko urtarilerira. Izan ere, gazteria tasaren balioa txikitu egin zen eskualde guztietan, eta joera negatibo hedatu horretan Donostialdea (–10,1 puntu) eta Markina-Ondarroa (–12 puntu) nabarmentzen dira. 2010. urtearen hasieran, eskualdeetako gazteria tasak Arabako Mendialdeko % 10,3ren eta Arabako Lautadako % 16,4ren artean dabilen 6 puntuko urkilan banatzen dira —ikus 30. taula—.

Gazteen maskulinitate tasari dagokionez, 1996ko maiatzetik 2010eko urtarilerira, bilakaera positiboa izan zen eskualde gehienetan: zehazki, hamalau eskualdetan balioa hazi egin zen, eta honako hauek nabarmentzen dira izandako gorakada handiengatik: Arabako Ibarrek (+12,5 puntu), Markina-Ondarroa (+10,5 puntu) eta Gorbeialdea (+10,4 puntu). Aitzitik, sei eskualdetan murriztu zen; horien artean, Arabako Mendialdea nabarmentzen da izandako atzerakada handigoarengatik (–9,5 puntu). 2010. urtearen hasieran, gazteen maskulinitate tasa handiena Arabako Mendialdean (124), Arabako Ibarretan (121,2) eta Markina-Ondarroan (115,8 gi-

30. taula. Gazteria tasak (GT) eskualdeetan izandako bilakaera (1996-2010)

Eskualdeak	1996	2010	Aldea 2010 – 1996
Arabako Kantaurialdea	25,58	15,60	–9,98
Gorbeialdea	20,05	12,85	–7,20
Arabako Lautada	25,17	16,44	–8,73
Arabako Mendialdea	19,14	10,29	–8,85
Arabako Errioxa	19,25	14,63	–4,62
Arabako Ibarrek	18,48	11,23	–7,25
Arratia Nerbioi	21,62	14,33	–7,29
Enkarterria	21,83	15,12	–6,70
Bilbo Handia	24,31	15,10	–9,21
Plentzia-Mungia	20,54	14,87	–5,68
Gernika-Bermeo	22,47	14,65	–7,82
Markina-Ondarroa	26,90	14,88	–12,02
Durangaldea	25,02	15,60	–9,41
Goierri	23,61	15,28	–8,33
Debagoiena	23,47	15,10	–8,37
Debarrena	22,74	14,28	–8,46
Urola Kosta	23,98	15,91	–8,07
Tolosa	23,88	14,73	–9,15
Donostialdea	24,53	14,48	–10,05
Bidasoa Beherea	24,84	15,17	–9,67
EAE	24,19	15,15	–9,04

⁴ Gogora dezagun errolatutako populazioa Bilbo Handian (–% 1,4), Debagoienan (–% 2,7) eta Debarrenan (–% 3,2) soilik murriztu zela.

Gazteen adierazleak 2011

zonezko, 15-29 urteko 100 emakume bakoitze-ko) kokatu zen —ikus 31. taula—.

Epigrafe hau amaitzeko, EAEko udalerrietan erroldatutako 15-29 urteko taldearen banaketa ikusiko dugu, hoge eskualdeetan. Lehenik eta behin, aipatu beharra dago 10 gaztetik 4 Bilbo Handian bizi direla; beraz, Bilboren makrozefaliaren alde egiten duen eskualde-banaketa nahiko kontzentratua dugu. Jarraian, beste bi hiri-buruen eskualdeek % 14,3 (Donostialdea) eta % 12,7 (Arabako Lautada) hartzen dutela ikus daiteke. Hortaz, hiru eskualde hiritarrenek Euskadiko gazteen % 67,1 biltzen dute. Eta hirugarren garrantzi-mailan, lau eskualde nabarmen-tzen dira, baina portzentajezko garrantzi askoz txikiagoarekin: Durangaldea (% 4,6), Bidasoa Beherea (% 3,6), Urola Kosta (% 3,5) eta Goierri (% 3,2) —ikus 32. taula—.

31. taula. Gazteen maskulinitate tasak (GMT) eskualdeetan izandako bilakaera (1996-2010)

Eskualdeak	1996	2010	Aldoa 2010 – 1996
Arabako Kantaurialdea	103,23	105,94	2,71
Gorbeialdea	100,17	110,60	10,43
Arabako Lautada	103,35	105,91	2,57
Arabako Mendialdea	133,46	123,97	–9,49
Arabako Errioxa	107,49	110,91	3,43
Arabako Ibarrek	108,74	121,23	12,49
Arratia Nerbioi	104,30	106,62	2,32
Enkarterria	105,92	105,48	–0,44
Bilbo Handia	104,21	104,71	0,50
Plentzia-Mungia	100,02	102,58	2,56
Gernika-Bermeo	105,16	102,07	–3,10
Markina-Ondarroa	105,31	115,84	10,52
Durangaldea	106,06	105,14	–0,92
Goierri	110,17	111,64	1,47
Debagoiena	107,99	112,22	4,23
Debabarrena	107,03	108,41	1,38
Urola Kosta	104,38	105,72	1,34
Tolosa	107,66	108,02	0,35
Donostialdea	104,73	102,46	–2,27
Bidasoa Beherea	106,66	104,81	–1,85
EAE	104,79	105,34	0,55

Iturria: 1996/5/1eko Biztanleen Udal Erroldaren Berritzea eta 2010/1/1ean egindako Udal Erroldaren Azterketa, INE.

32. taula. EAEen erroldatutako 15 eta 29 urte bitarteko gazteen banaketaren bilakaera, eskualdeen arabera (1996-2010)

Eskualdeak	1996	2010	Aldea 2010 – 1996
Arabako Kantaurialdea	1,70	1,62	–0,08
Gorbeialdea	0,24	0,33	0,09
Arabako Lautada	11,17	12,67	1,51
Arabako Mendialdea	0,12	0,10	–0,02
Arabako Errioxa	0,37	0,50	0,14
Arabako Ibarrek	0,15	0,20	0,05
Arratia Nerbioi	0,90	1,01	0,11
Enkarterria	1,28	1,44	0,16
Bilbo Handia	42,53	40,08	–2,45
Plentzia-Mungia	1,78	2,43	0,65
Gernika-Bermeo	1,97	2,04	0,08
Markina-Ondarroa	1,20	1,20	0,00
Durangaldea	4,45	4,57	0,12
Goierra	3,00	3,15	0,14
Debagoiena	2,94	2,83	–0,11
Debarrena	2,55	2,38	–0,17
Urola Kosta	3,03	3,50	0,47
Tolosa	2,08	2,12	0,03
Donostialdea	15,14	14,27	–0,87
Bidasoa Beherea	3,41	3,56	0,15
EAE	100,00	100,00	0,00

Iturria: 1996/5/1eko Biztanleen Udal Erroldaren Berritzea eta 2010/1/1ean egindako Udal Erroldaren Azterketa, INE.



4. Ondorioak

2010eko urtarrilaren 1ean, euskal udalerrien errol-daren azterketak 15-29 urteko 329.968 pertsona erregistratu zituen, 1996ko maiatzaren hasieran erroldatutakoak baino 177.513 pertsona gutxiago. Portzentualki, % 35eko murrizpena adierazten du, eta beherakada horrek erosotasunez bikoizten du Espainiako talde berdinak izandako atzerakada (–% 13,1).

Lurralde historikoen ikuspegitik begiratuta, erlatiboki, atzerakada handiagoa izan zen Bizkaian (–% 36,6) eta Gipuzkoan (–% 35,7), Araban baino (–% 27). Eskualdeetan ere, gazteen beherakada orokorra izan da, salbuespenik gabe; izan ere, hiri-zein landa-eskualdeei eragin die: beherakada handiena Arabako Mendialdean erregistratu da (–% 45,6), baina Debabarrena (–% 39,2), Bilbo Handia (–% 38,7), Donostialdea (–% 38,7), Arabako Kantaurialdea (–% 38,1) eta Debagoiena (–% 37,4) eskualdeak ditu atzetik.

Adin-taldearen arabera aztertuz gero, Euskadin, 15-19 urteko nerabeak izan ziren atzerakada handiena izan zutenak (–% 44,8), baina 20-24 urtekoak gertu dituzte (–% 41,5). Aldiz, 25-29 urtekoen taldea intentsitate erdiarekin murriztu zen (–% 19,2). Aipatzekoa da Araba nabarmentzen

dela 25-29 urtekoek 1996ko maiatzetik 2010eko urtarrilera izandako beherakadarengatik (–% 6,8). Eskualde-mailara jaitsita, joera erregresiboaren bi salbuespen ikus daitezke: 15-19 urteko pertsonak pixka bat hazi ziren (% 0,9) Gorbeialdean, bai eta 25-29 urtekoak ere, Plentzia-Mungian (% 7,2).

Gehiegizko atzerakada hori 15-29 urteko taldean sarrera baino askoz artea gehiago izatearen ondorioa da, gazteen ordezen tasan ikusi dugun moduan. 1980. urtetik 1995. urtera bitarte izandako jaiotza-tasaren beherakadak eta immigrazio-fluxu eskasak (2000. urtetik aurrera, migrazio-saldoak positiboak izaten hasi ziren) 15-29 urteko taldeak 1996ko maiatzetik 2010eko urtarrilera izandako atzerakada garrantzitsua azaltzen digute.

Aitzitik, aztertutako aldiari, euskal udalerrietan erroldatutako atzerriko gazteria % 1.099 hazi zen, eta erroldatutako 44.591 pertsona gehitu zituen 2010eko urtarileko azterketara. Gorakada hori Espainiako ehunekoa baino pixka bat txikiagoa izan zen (% 1.137), baina euskal bilakaerak berezitasun garrantzitsua azaltzen du: krisi ekonomikoaren aldiari, 2008ko urtariletik 2010era, atzerriko gazteek hazten jarraitu zuten Euskadin. Espainian, berriz, jaisteko joera txiki bat azaldu zuen: % 12,6 EAEn

eta –% 0,4 Espainian. Nolanahi ere, 2010eko urtarrilaren batean, atzerriko gazteen tasa Euskadin Espainiako batez bestekoa baino bost puntu txikiagoa da: % 13,5 eta % 18,4, hurrenez hurren.

Lurralde historikoak aztertuz gero, atzerriko gazteak intentsitate handiagoarekin hazi ziren Araban (% 1.400,3), 1996ko maiatzetik 2010eko urtarrilera. Hain zuzen ere, esparru historiko hori 2010. urtearen hasieran atzerriko gazteen tasa handiena izateagatik nabarmentzen da (% 17,5).

15-29 urtekoen beherakada garrantzitsuak gazteen garrantzia txikiagoa ekartzen du, erroldatutako populazio osoari dagokionez. 2010eko urtarrilaren 1ean, gazteria tasa % 15,2ra jaitsi zen EAEko udalerrietan, Espainian baino ia hiru puntu gutxiago (% 18). Lurralde historikoetan, gazteria tasak % 14,8ra jaitsi ziren Gipuzkoan, % 15,1era Bizkaian, eta % 16ra Araban. Eskualde esparruan, adierazle hori eskualde guztietan txikitu zen eta, 2010. urtearen hasieran, gazteria tasak Arabako Mendialdeko % 10,3ren eta Arabako Lautadaren % 16,4ren artean kokatzen dira.

Herritartasunari begira, populazio atzerriarraren gazteria tasak erosotasunez bikoizten zuen Espai-

niako herritarrei zegokiona: % 32, Euskadikoa % 14 izanik. Aipatzekoa da atzerriko immigrazioaren fenomenoaren adinaren arabera egitura gaztetzen laguntzen ari dela Euskadin.

Sexuaren arabera egiturari dagokionez, Euskadin, 105,3 gizonezko daude 15-29 urteko 100 emakume bakoitzeko; gazteen maskulinitate tasa hori Estatukoa baino pixka bat handiagoa da (104,6). Lurralde historikoetan, Bizkaiko 104,8tik Arabako 106,5era doa, 100 emakume bakoitzeko. Eskualdeetan, berriz, tasa Gernika-Bermeoko 102,1 gizonezkoetik Arabako Mendialdeko 124 gizonezkoetara doa, 15-29 urteko 100 emakume bakoitzeko (landa-eskualdearen gizonezko gazteen gehiegikeriak emakumezkoen emigrazio handiagoren berri ematen digu, eremuko lan-merkatuaren enplegarritasun txikiagorengatik, agian).

2010eko urtarrilaren 1ean euskal udalerrietan erroldatutako gazteen lurralde-banaketa dagokionez, erdia baino pixka bat gehiago Bizkaian bizi da (% 52,8), eta ia herena Gipuzkoan (% 31,8). Araban bizi da gazte kopuru txikiena (guztizkoaren % 15,4). Hala ere, aipatzekoa da bertako talde gaztea dela garrantzia hartu duen bakarra, 1996ko maiatzari dagokionez (% 13,7tik % 15,4ra). Erroldatutako

atzeritarrek antzeko banaketa azaltzen dute. Nolanahi ere, pixka bat gehiago gailentzen dira Araban (guztizkoaren % 19,9).

Eta, amaitzeko, EAEko 15-29 urteko taldearen eskualde-banaketa aztertuz gero, 10 gaztetik 4 Bilbo Handian bizi direla esango dugu (% 40,1). Horrek Bilboren makrozefalia eragiten duen eskualde-banaketa kontzentratua esan nahi du. Gainera, beste bi hiriburuen eskualdeek % 14,3 (Donostialdea) eta % 12,7 (Arabako Lautada) hartzen dutela ikus daiteke. Horren ondorioz, hiru eskualde hiritarrenak Euskadiko gazteen % 67,1 biltzen dute.



Ezkontzak eta ezkontza-desegiteak 04







Gazteen adierazleak 2011 honen laugarren kapitulu-
luan, ezkontzen fenomenoaz aztertuko dugu: lehe-
nengo, ezkontza heterosexualak (sexu ezberdine-
ko ezkontideak) eta, ondoren, homosexualak (sexu
bereko ezkontideak). Orokorrean, 1996tik 2009ra
bitarte izandako ezkontza heterosexualen ko-
puruaren bilakaerarekin hasiko dugu analisi deskri-
batzailea eta konparatiboa eta, ondoren, 2006tik
2009ra bitarte, 15-29 urteko ezkontideek izandako
ezkontza homosexualarekin jarraituko dugu.

Zehazki, ezkontza heterosexuali dagokienez,
ezkontzaren fenomenoak populazio gaztean duen
garrantzia eta intentsitatea ezagutzeko aukera
ematen diguten adierazleak kalkulatu eta aztertuko
ditugu: ezkontza tasa gordina eta sexuaren arabera
ezkontza tasa. Gainera, 'ezkontza-egutegia'
aztertuko dugu, lehen ezkontzaren batez besteko
adinarekin bidez.

Ezkontza homosexuali dagokienez, euren denbo-
ra-bilakaera ezagutu ondoren, motaren arabera
banaketa (gizonezkoen edo emakumezkoen ar-
tean) eta ezkontza guztiei (homosexualak gehi he-

terosexualak) dagokienez adierazten duten ehune-
koa aztertuko ditugu. Analisi hori 15-29 urteko
ezkontideek izandako ezkontza guztietarako egin-
go dugu.

Era berean, kapitulu honetan, ezkontza hetero-
sexualen¹ desegiteen bilakaera aztertuko dugu,
1998tik 2009ra bitarte, guztira zein motaren arabera
(baliogabetzeak, banantzeak eta dibortzioak)². Ana-
lisia EAEren eta lurralde historikoen mailan egingo
dugu, eskualdeetan sartu gabe; izan ere, ez dago
informazio estatistiko bereizirik eskualde-mailan.

Fenomeno horiek Ron J. Lesthaeghe eta Dirk J.
Van de Kaa demografoek 1986an egindako biga-
rren trantsizio demografikoaren teoriarekin erlazio-
natu daitezke (1987). Horren helburua lehen tran-
sizio demografikoaren ondoren, hirurogeiko eta
hirurogeita hamarreko hamarkadetatik aurrera, ka-
pitalismo aurreratuko gizarteetan sortutako erlazio-
natutako eta garrantzizko zenbait demografia-
eta gizarte-aldaketa aipatzea eta azaltzea da. Aldaketa
horiek asko hedatu dira laurogeiko eta laurogeita
hamarreko hamarkadan.

¹ Sexu bereko pertsonen arteko ezkontzak erregulatzen dituen 13/2005 Legearen berritasuna dela eta, oraindik ez da argitaratu ezkontza horien desegiteei buruzko estatistikarik. Horrek fenomenoaz aztertzea eragozten digu.

² Kapitulu honetan, aztertutako aldia ez da 1996an hasten; izan ere, INEren Ezkontza Baliogabetzeen, Banantzeen eta Dibortzioen Estatistikak 1998tik aurrerako datuak eskaintzen ditu. Talde gazteari dagokionez, EINEn taulak honela banatzen dira: 18 urtera arte, 19-24 urtekoak eta 25-29 urtekoak; horre-
gatik diogu '29 urtera arte'.

Bigarren trantsizio demografikoari lotutako aldaketa horiek honako hauek dira:

- Lehen aldiz ezkontzeko eta lehen seme-alaba izateko adinaren atzerapena.
- Ezkongabetasuna egoera zibil bezala, eta bakarrik bizitzea.
- Bizikidetzaren edo izatezko bikoteen hedapena.
- Ezkontzaz kanpoko jaiotzen hazkundea.
- Emakume bakoitzeko batez besteko emankortasunaren beherakada, belaunaldien arteko ordezipen-mailaren azpitik (2,1 seme-alaba).

- Familien sorrera eta berregituraketa, banandu edo dibortziatu ondoren, beste familia batzuetatik datozen kideekin.
- Familia-egituraren dibertsifikaziorako joera, «familia-forma berriak» deitutakoen hazkundearen bidez (funtsean, bikoteak eta seme-alabak/ek eratutako nukleo bakarreko familiaren pixkanakako beherakada, familia eta etxe desberdinen hazkundearen alde: guraso bakarrekoak, seme-alabarik gabeko bi gurasokoak, nukleorik gabeko familiabakarrak, pertsona bakarrekoak, nukleorik gabeko pertsona anitzekoak)³.

³ TRABADA CRENDE, Elías: «Viviendas y hogares: la propietarización y encarecimiento de la vivienda frenan la formación de los hogares» in Documentación Social, Revista de Estudios Sociales y de Sociología Aplicada, Cáritas Española, n.º 147, urria-abendua, 153-181. orr.

1. Euskal Autonomia Erkidegoa eta Espainia

15-29 urteko taldeari dagokionez eta sexuaren arabera, gutxienez, ezkontide gazte bat duten ezkontza heterosexualen kopuruaren bilakaera 1996tik 2009ra bitarte oso erregresiboa izan zela esango dugu: Euskadin, fenomeno horren maiztasuna % 54,7 murriztu zen emakumezkoen artean, eta % 62,6 gizonezkoen artean. Gainera, aipatzekoa

da gizonezkoentzako zein emakumezkoentzako, euskal murrizpenak 6 puntutan gainditu zuela Espainiakoa, gutxi gorabehera —ikus 1. taula—.

Gazteen arteko ezkontza tasa 7,6 puntu murriztu zen Euskadin, eta 12,4 puntu Espainian, 1996-2009 aldian. Azken urte horretan, ezkondu

13,2 eta 15 heterosexualetan kokatu zen, 15-29 urteko 1.000 biztanle bakoitzeko, hurrenez hurren.

Talde gazteko bost urteko hiru adin-taldeak azterzen baditugu, ezkontza tasa espezifikoa (ETE) guztietan jaitsi zela ikus daiteke, baina garrantzi handiagoarekin 25-29 urteko gazteen artean:

1. taula. 15 eta 29 urte bitarteko ezkontideen (bat edo biak) ezkontza heterosexualen kopuruaren bilakaera EAEn eta Espainian, sexuaren arabera (1996-2009)

Lurralde-esparrua eta sexua		1996	2001	2008	2009	▲% 2009/1996
Gizonezkoak	EAE	4.309	3.685	1.986	1.610	-62,64
	Espainia	118.813	109.239	65.316	52.247	-56,03
Emakumezkoak	EAE	6.217	5.551	3.401	2.819	-54,66
	Espainia	146.967	142.087	93.983	76.520	-47,93

Iturria: Bizitokiaren araberako ezkontzak, Populazio Naturalaren Mugimendua, Estatistikako Institutu Nazionala (INE).

Gazteen adierazleak 2011

–22,5 puntu EAEn, eta –24,9 puntu Estatuan. Lau-rogeiko hamarkadaren hasieran azaldutako lehen aldiz ezkontzeko adina atzeratzeko joerak eragiten jarraitzen du. Izan ere, Euskadiri dagokionez, 1996an ezkontza tasa espezifikoa 10,3 ezkontzakoa bazen 20-24 urteko gazteentzat, eta 49,5ekoa 25-29 urtekoentzat, adin-talde bakoitzeko 1.000 pertsona bakoitzeko, 2009an, ezkontza

heterosexualaren garrantzia 4,9 eta 27,1 ezkontzara murriztu zen, 1.000 gazte bakoitzeko, hurrenez hurren —ikus 2. taula—.

Orain, ikus ditzagun ezkontza tasak, baina sexua-ren ikuspegitik. Emakumezko gazteak gizonezko gazteak baino gehiago ezkontzen dira: 2009an eta 15-29 urtekoentzat, emakumezkoen tasak gizo-

nezkoena ia bikoizten du Euskadin (17,2 eta 9,3, hurrenez hurren, 1.000 emakumezko edo gizonazko gazte bakoitzeko). Emakumezkoen ezkontza heterosexualen aldeko erlazioa talde gazteko hiru adin taldeetan gertatzen da, EAEn zein Espainian; nolanahi ere, euskal gazteek Espainiakoek baino ezkontzeko joera txikiagoa dutela ikus daiteke, bereziki, gizonezkoek —ikus 3. taula—.

2. taula. Ezkontza tasa espezifikoak (ETE*) EAEn eta Espainian izandako bilakaera, adin-taldeen arabera (1996-2009)

Lurralde-esparrua eta adin-taldeak		1996	2001	2008	2009	Aldea 2009 – 1996
15-19 urte	EAE	0,95	0,58	0,42	0,45	–0,50
	Espainia	3,28	1,90	0,92	0,86	–2,42
	Aldea EAE – Espainia	–2,34	–1,31	–0,49	–0,41	
20-24 urte	EAE	10,32	7,62	4,80	4,94	–5,39
	Espainia	23,94	17,84	10,39	8,60	–15,34
	Aldea EAE – Espainia	–13,62	–10,22	–5,59	–3,67	
25-29 urte	EAE	49,55	44,55	32,10	27,05	–22,50
	Espainia	54,24	52,86	34,97	29,29	–24,95
	Aldea EAE – Espainia	–4,69	–8,31	–2,87	–2,24	
15-29 urte	EAE	20,74	20,66	15,46	13,17	–7,58
	Espainia	27,36	26,82	18,07	15,00	–12,36
	Aldea EAE – Espainia	–6,62	–6,15	–2,61	–1,83	

(*) Ezkontza tasa espezifikoa (ETE) = adin-talde bakoitzeko ezkontutako pertsona heterosexualen kopurua, adin-talde bereko 1.000 biztanle bakoitzeko.

Iturria: Bizitokiaren arabera ezkontzak Populazioaren Mugimendu Naturalean, EIN; 1996/5/1eko Udal Erroldaren Berrikuntzako Populazioa eta 2001/1/1eko, 2001/1/1eko, 2008/1/1eko, 2009/1/1eko eta 2010/1/1eko Errolda Azterketak Erroldaren Ustiapen Estatistikoan, INE.

3. taula. Ezkontza tasa espezifikoak (ETE) EAEn eta Espainian izandako bilakaera, adin-taldean eta sexuaren arabera (1996-2009)*

Lurralde-esparrua, adin-taldeak eta sexua		1996	2001	2008	2009	Aldea 2009 – 1996
15-19 urte	Gizonezkoak EAEn	0,42	0,38	0,09	0,13	-0,29
	Emakumezkoak EAEn	1,49	0,79	0,78	0,79	-0,71
	Aldea gizonezkoak – emakumezkoak EAEn	-1,07	-0,41	-0,69	-0,65	
	Gizonezkoak Espainian	1,27	0,71	0,33	0,28	-0,99
	Emakumezkoak Espainian	5,39	3,15	1,53	1,48	-3,91
	Aldea gizonezkoak – emakumezkoak Espainian	-4,12	-2,43	-1,20	-1,20	
	Gizonezkoen aldea EAE – Espainia	-0,85	-0,33	-0,25	-0,15	
	Emakumezkoen aldea EAE – Espainia	-3,90	-2,35	-0,76	-0,69	
20-24 urte	Gizonezkoak EAEn	5,61	3,92	2,70	3,17	-2,43
	Emakumezkoak EAEn	15,26	11,52	6,99	6,78	-8,48
	Aldea gizonezkoak – emakumezkoak EAEn	-9,65	-7,61	-4,29	-3,60	
	Gizonezkoak Espainian	16,26	11,29	6,19	5,27	-10,99
	Emakumezkoak Espainian	31,93	24,73	14,77	12,07	-19,86
	Aldea gizonezkoak – emakumezkoak Espainian	-15,67	-13,44	-8,58	-6,80	
	Gizonezkoen aldea EAE – Espainia	-10,65	-7,37	-3,49	-2,09	
	Emakumezkoen aldea EAE – Espainia	-16,68	-13,20	-7,78	-5,29	
25-29 urte	Gizonezkoak EAEn	42,70	36,34	23,73	19,54	-23,16
	Emakumezkoak EAEn	56,72	53,26	40,94	34,95	-21,77
	Aldea gizonezkoak – emakumezkoak EAEn	-14,02	-16,92	-17,21	-15,41	
	Gizonezkoak Espainian	54,41	49,03	29,76	24,69	-29,72
	Emakumezkoak Espainian	54,06	56,88	40,50	34,11	-19,95
	Aldea gizonezkoak – emakumezkoak Espainian	0,35	-7,85	-10,74	-9,42	
	Gizonezkoen aldea EAE – Espainia	-11,71	-12,69	-6,03	-5,16	
	Emakumezkoen aldea EAE – Espainia	2,66	-3,62	0,44	0,84	
15-29 urte	Gizonezkoak EAEn	16,59	16,05	11,10	9,32	-7,27
	Emakumezkoak EAEn	25,09	25,54	20,05	17,22	-7,87
	Aldea gizonezkoak – emakumezkoak EAEn	-8,49	-9,50	-8,95	-7,89	
	Gizonezkoak Espainian	24,02	22,75	14,43	11,89	-12,13
	Emakumezkoak Espainian	30,83	31,10	21,90	18,26	-12,57
	Aldea gizonezkoak – emakumezkoak Espainian	-6,82	-8,36	-7,47	-6,38	
	Gizonezkoen aldea EAE – Espainia	-7,42	-6,70	-3,33	-2,56	
	Emakumezkoen aldea EAE – Espainia	-5,75	-5,56	-1,85	-1,05	

(*) Adin-talde eta sexu bakoitzeko ezkontutako pertsona heterosexualean kopurua, adin-talde eta sexu bereko 1.000 biztanle bakoitzeko.

Iturria: Bizitokiaren arabera ezkontzak Populazioaren Mugimendu Naturalean, EIN; 1996/5/1eko Udako Erroldaren Berrikuntzako Populazioa eta 2001/1/1eko, 2001/1/1eko, 2008/1/1eko, 2009/1/1eko eta 2010/1/1eko Errolda Azterketak Erroldaren Ustiapen Estatistikoan, INE.

Lehen ezkontzaren batez besteko adina lehen ezkontza atzeratzeko joera agerian jartzen duen adierazlea da. Horrela, 1996-2009 aldian, EAEn, horren balioa 3 urte igo zen, 29,9 urtetik 32,9 urtera pasatuta —ikus 4. taula—.

Lehen aldiz ezkontzen den ezkontide heterosexualaren sexua aztertzen badugu, goranzko bilakaera orokortua ikus daiteke, bai eta gizonezkoen batez besteko adina emakumezkoena baino handiagoa dela ere: 2009an, senarrek emazteek baino 2,4 urte gehiago dituzte EAEn (34,1 urte eta 31,7 urte, hurrenez hurren). Estatuarekin konparatuta, Euskadiko gizonezkoak zein emakumezkoak Espainiakoak baino beranduago ezkontzen dira lehen aldiz: 34,1 urte EAEn eta 32,8 urte Espainian, gizonezkoen kasuan; eta emakumeen kasuan, 31,7 urte EAEn eta 30,6 urte Espainian —ikus 5. taula—.

Ezagutu dezagun 13/2005 Legea onartu zenetik posible diren sexu bereko ezkontzen bilakaera. 2009an, EAEn, 23 ezkontza izan ziren; horietan, gutxienez, ezkontideetako batek 15-29 urte zituen. Kopuru horrek % 17,9ko beherakada dakar, 2006. urteari dagokionez; behera doan bilakaera, eta Espainian gora doa (% 11). Euskadiko aldakuntza negatibo hori gizonezkoen ezkontzen kopuruaren beherakadaren ondorioa da (% 31,6); izan ere, emakumezkoen ezkontzek gora egin zuten (% 11,1) —ikus 6. taula—.

4. taula. Lehen ezkontza heterosexualaren batez besteko adinaren bilakaera EAEn eta Espainian (1996-2009)

Lurralde-esparrua	1996	2001	2008	2009	Aldea 2009 – 1996
EAE	29,90	30,89	32,42	32,88	2,98
Espainia	28,42	29,38	31,26	31,67	3,25
Aldea EAE – Espainia	1,48	1,52	1,16	1,21	

Iturria: Ezkontzak, Oinarrizko Adierazle Demografikoak, INE.

5. taula. Lehen ezkontza heterosexualaren batez besteko adinaren bilakaera EAEn eta Espainian, sexuaren arabera (1996-2009)

Lurralde-esparrua eta sexua		1996	2009	Aldea 2009 – 1996
EAE	Gizonezkoak EAEn	31,03	34,10	3,07
	Emakumezkoak EAEn	28,77	31,73	2,96
	Emakumezkoen eta Gizonezkoen arteko aldea EAEn	2,26	2,37	
Espainia	Gizonezkoak Espainian	29,45	32,85	3,40
	Emakumezkoak Espainian	27,39	30,57	3,18
	Gizonezkoen eta emakumezkoen arteko aldea Espainian	2,06	2,28	
EAE – Espainia	Gizonezkoen aldea EAE – Espainia	1,58	1,25	
	Emakumezkoen aldea EAE – Espainia	1,38	1,16	

Iturria: Ezkontza, Oinarrizko adierazle demografikoak, INE.

6. taula. 15 eta 29 urte bitarteko ezkontideen (bat edo biak) ezkontza homosexualen kopuruaren bilakaera EAEn eta Espainian, motaren arabera (2006-2009)

Lurralde-esparrua eta ezkontza-mota		2006	2007	2008	2009	▲% 2009/2006
Gizonezkoen arteko ezkontzak	EAE	19	10	13	13	-31,58
	Espainia	670	611	714	722	7,76
	Gizonezkoen arteko ezkontzen tasa (%) EAE / Espainia	2,84	1,64	1,82	1,80	
Emakumezkoen arteko ezkontzak	EAE	9	9	13	10	11,11
	Espainia	308	304	338	364	18,18
	Emakumezkoen arteko ezkontzen tasa (%) EAE / Espainia	2,92	2,96	3,85	2,75	
Ezkontza homosexualak guztira	EAE	28	19	26	23	-17,86
	Espainia	978	915	1.052	1.086	11,04
	Ezkontza homosexual guztien tasa (%) EAE / Espainia	2,86	2,08	2,47	2,12	

Iturria: Bizitokiaren arabera ezkontzak, Populazio Naturalaren Mugimenduan, INE.

Gazteen adierazleak 2011

EAEn, urtebeteen egindako ezkontza guztietan, 15-29 urteko ezkontide bat duten ezkontza homosexualen garrantziari dagokionez, 2009an izandako ezkontza homosexual guztiak urte berean izandako 3.232 ezkontza guztien % 0,7 dira. Ehunekoa pixka bat handiagoa da Espainian (% 1,2) —ikus 7. taula—.

Bestalde, «bikote-bizimodua» edo ezkontzaren ordezkorrelako aukerak ere ez du presentzia esanguratsurik, 2008an, *Euskadiko gazteak 2008*⁴ ikerlanean galdetutako euskal gazteriaren artean (15-29 urteko laginaren % 7, eta 25-29 urtekoen % 15). Horrek adierazten digu ezkontzaren geldiarazpena

ez dela aldaketa soziokulturalak eragindako efektua soilik, baizik eta gazteek emantzipatzeko izan ohi dituzten zailtasun materialen efektua ere dela (etxebizitzaren garestitzea, langabezia, ezegonkortasuna, soldata txikiak, eta abar).

Jarraian, 29 urtera arteko taldeko ezkontide bat edo bi dituzten ezkontzen desegiteak aztertuko ditugu (banantzeak, dibortzioak eta baliogabetzeak), EAEn eta Espainian.

2009. urtean, EAEn, 30 urtetik beherako ezkontide bat edo bi zituzten ezkontzen 459 desegite erregis-

tratu ziren. Hori EAEn erregistratutako 4.156 desegiteen % 11 da.

1998-2009 aldian, talde gazteko ezkontzen desegiteen kopuruaren bilakaera nabari erregresiboa izan da, eta antzeko beherakadak adierazten ditu bi sexueta, bai eta aztertutako bi lurralde-esparruetan ere. Atzerapen hori gure analisisian kontuan izandako tarte guztietan gertatu zen. Hortaz, lehen aldiz ezkontzeko adina atzeratzeko gazteen joerak baldintzatutako bilakaeraren aurrean gaude; noski, fenomeno horrek izan litekeen ezkontzaren desegitearen unea ere atzeratzen du —ikus 8. taula—.

7. taula. Ezkontza homosexualak eta heterosexualak, 15 eta 29 urte bitarteko ezkontideen (bat edo biak) ezkontza guztiekiko, duten pisuaren bilakaera EAEn eta Espainian (2006-2009): kopuru absolutuak eta portzentajeak

Lurralde-esparrua eta ezkontza-mota		2006		2008		2009		Aldea % 2009 – 2006
		Abs.	%	Abs.	%	Abs.	%	
EAE	Homosexualak	28	0,62	26	0,67	23	0,71	0,09
	Heterosexualak	4.465	99,38	3.826	99,3	3.209	99,29	-0,09
	Ezkontzak guztira	4.493	100,0	3.852	100,0	3.232	100,0	
Espainia	Homosexualak	978	0,79	1.052	0,99	1.086	1,24	0,45
	Heterosexualak	122.206	99,2	104.990	99,0	86.255	98,76	-0,45
	Ezkontzak guztira	123.184	100,0	106.042	100,0	87.341	100,0	
Aldea (%) EAE – Espainia	Homosexualak		-0,17		-0,32		-0,53	
	Heterosexualak		0,17		0,32		0,53	

Iturria: Bizitokiaren araberako ezkontzak, Populazio Naturalaren Mugimenduan, INE.

⁴ BILBAO GAZTANAGA, Miren: *Euskadiko gazteak 2008*. EAEn bizi diren bi sexueta 15-29 urteko 1.500 pertsonen inkestan oinarritutakoa eta 2008ko urtarilaren 29tik otsailaren 15era bitarte etxean elkarriketa pertsonalaren bidez egindako ikerketa soziologikoa. http://www.gazteakera.euskadi.net/r58-7657/es/contenidos/informacion/estudios_sociologicos/es_liburuak/adjuntos/Juventud_vasca_2008_c.pdf

8. taula. 29 urtera arteko ezkontideen arteko ezkontza heterosexualen desegiteen bilakaera EAEn eta Espainian, motaren eta sexuaren arabera (1998-2009): kopuru absolutuak eta portzentajezko aldakuntzak

Lurralde-esparrua, sexua eta desegite-mota		1998	2004	2006	2008	2009	▲% 2009/1998
€AE							
Gizonezkoak	Dibortzioak	87	69	254	180	152	74,71
	Banantzeak	206	139	13	8	2	-99,03
	Baliogabetzeak	-	2	-	3	2	-
	Gizonezkoen desegiteak guztira	293	210	267	191	156	-46,76
Emakumezkoak	Dibortzioak	178	166	428	317	293	64,61
	Banantzeak	380	315	51	23	10	-97,37
	Baliogabetzeak	-	8	2	-	-	-
	Gizonezkoen desegiteak guztira	558	489	481	340	303	-45,70
ESPAINIA							
Gizonezkoak	Dibortzioak	2.558	2.399	7.978	5.879	4.901	91,59
	Banantzeak	6.880	6.588	887	307	261	-96,21
	Baliogabetzeak	9	22	25	25	18	100,00
	Gizonezkoen desegiteak guztira	9.447	9.009	8.890	6.211	5.180	-45,17
Emakumezkoak	Dibortzioak	5.177	4.987	15.052	11.022	9.545	84,37
	Banantzeak	11.992	11.903	1.623	574	473	-96,06
	Baliogabetzeak	27	61	31	25	25	-7,41
	Emakumezkoen desegiteak guztira	17.196	16.951	16.706	11.621	10.043	-41,60

Iturria: Ezkontza baliogabetzen, banantzen eta dibortzioen estatistikak, INE.

Bestalde, ezkontza heterosexualen desagitea 29 urtera arteko emazteengan senarrengan baino gertaera pixka bat handiagoa duen fenomeno soziala da, ezkontza heterosexualen haustura tasak (EHHT) adierazten duen bezala: hala gertatu zen 1998-2009 aldian, aztertutako bi lurralde-esparruetan; zehazki, Euskadin, 2009an, 29 urtera arteko senarren 9,7 ezkontza hautsi ziren, talde bereko 100 ezkondu bakoitzeko. Aldiz, emazteen artean, tasaren balioa 10,7 hausturetara iritsi zen, ezkonduetako 100 gazte bakoitzeko.

Gainera, nabarmentzekoa da gazteen arteko ezkontza heterosexualen haustura hain bizia ez den fenomeno soziala dela EAEn bizi diren

emazteen artean, Espainiako 29 urtera arteko emazteekin konparatuta: 2009an, Espainiako emazteen aldeko 2,4 puntuko desberdintasuna (10,7 haustura EAEn, 13,1 Espainian, ezkonduetako 100 emakume bakoitzeko); gizonezkoengan, berriz, Euskadiko eta Espainiako EHHTen parekatze-joera dago (9,7 haustura EAEn, 9,9 Espainian, ezkonduetako 100 gizoneko) —ikus 9. taula—.

29 urtera arteko ezkontideen ezkontza heterosexualen desagiteen motaren arabera banaketari dagokionez, dibortzioa da 2005etik aurrera nabarmen hazi den modalitatea, banantzearen kalterako, Dibortzio Lasterraren Legearen onar-

penari esker (uztailaren 8ko 15/2005 Legea). Zehazki, 2004an, dibortzioek EAEn bizi ziren ezkontide gazteen desagite guztien % 33-34 adierazten zuten. 2009an, berriz, % 97 adierazten dute eta Espainian ere izan da dibortzioaren hazkunde progresiboaren joera hori (ezkontide gazteen desagite guztien % 27-29 izatetik, % 95 izatera pasatu da). 2005eko uztailako lege-erreformatik aurrera, hain da handia dibortzioaren hazteko indarra, legezko banantzearen aukera nagusi izatetik marjinaltasun kuantitatibora pasatu dela, bereziki, Euskadin: 2009an, euren ezkontza heterosexualaren banantzea formalizatu zuten 29 urtera arteko gizonezkoak % 1,3 izan ziren, eta emakumezkoak % 3,3 —ikus 10. taula—.

9. taula. 29 urtera arteko ezkontideen arteko ezkontza heterosexualen haustura tasak (EHHT*) EAEn eta Espainian izandako bilakaera (1998-2009)

Lurralde-esparrua eta sexua		1998	2004	2006	2008	2009	Aldea 2009 – 1998
Gizonezkoak	EAE	7,16	6,75	10,68	9,62	9,69	2,53
	Espainia	7,94	9,34	11,18	9,51	9,91	1,97
	Gizonezkoen aldea EAE – Espainia	-0,78	-2,59	-0,50	0,11	-0,23	
Emakumezkoak	EAE	8,91	9,92	12,02	10,00	10,75	1,83
	Espainia	11,37	13,04	15,13	12,37	13,12	1,75
	Emakumezkoen aldea EAE – Espainia	-2,46	-3,12	-3,10	-2,37	-2,38	
Gizonezkoen eta emakumezkoen arteko aldea	EAE	-1,76	-3,17	-1,34	-0,38	-1,06	
	Espainia	-3,43	-3,70	-3,94	-2,86	-3,21	

(*) Ezkontza heterosexualen haustura tasa (EHHT) = baliogabetzeen, banantzeen eta dibortzioen batukaria, adin- eta sexu-talde bereko ezkonduetako 100 pertsona bakoitzeko.

Iturria: Ezkontza-baliogabetzeen, banantzeen eta dibortzioen estatistika, Ezkontzak Populazioaren Mugimendu Naturalean, INE.

10. taula. 29 urtera arteko ezkontideen arteko ezkontza heterosexualen desegiteen banaketaren bilakaera
 EAEn eta Espainian, sexuaren arabera (1998-2009)

Lurralde-esparrua, sexua eta desegite mota		1998	2004	2006	2008	2009	Aldea 2009 – 1998
EAĖ							
Gizonezkoak	Dibortzioak (%)	29,69	32,86	95,13	94,24	97,44	67,75
	Banantzeak (%)	70,31	66,19	4,87	4,19	1,28	–69,03
	Baliogabetzeak (%)	-	0,95	-	1,57	1,28	1,28
	Gizonezkoen desegiteak guztira (%)	100,00	100,00	100,00	100,00	100,00	
Emakumezkoak	Dibortzioak (%)	31,90	33,95	88,98	93,24	96,70	64,8
	Banantzeak (%)	68,10	64,42	10,60	6,76	3,30	–64,8
	Baliogabetzeak (%)	-	1,64	0,42	-	-	0
	Emakumezkoen desegiteak guztira (%)	100,00	100,01	100,00	100,00	100,00	
ESPAINIA							
Gizonezkoak	Dibortzioak (%)	27,08	26,63	89,74	94,65	94,61	67,53
	Banantzeak (%)	72,83	73,13	9,98	4,94	5,04	–67,79
	Baliogabetzeak (%)	0,10	0,24	0,28	0,40	0,35	0,25
	Gizonezkoen desegiteak guztira (%)	100,01	100,00	100,00	99,99	100,00	
Emakumezkoak	Dibortzioak (%)	30,11	29,42	90,10	94,85	95,04	64,93
	Banantzeak (%)	69,74	70,22	9,72	4,94	4,71	–65,03
	Baliogabetzeak (%)	0,16	0,36	0,19	0,22	0,25	0,09
	Emakumezkoen desegiteak guztira (%)	100,01	100,00	100,01	100,01	100,00	

Iturria: Ezkontza-baliogabetzeen, banantzeen eta dibortzioen estatistikak, INE.

2. Lurralde historikoak

15-29 urteko ezkontideek 1996-2009 aldian izandako ezkontza heterosexualen bilakaera aztertzen badugu, beherakada nahiko nabarmena izan da bi sexueta eta hiru lurralde historikoetan, baina pixka bat erregresiboagoa izan zen gizonezkoengan, emakumezkoengan baino: lehenengoetan, Arabako atzerakada nabarmentzen da (–% 67) eta, bigarren-goetan, Bizkaikoa (–% 57,3) —ikus 11. taula—.

15-29 urteko taldean, ezkontza heterosexualen tasek atzera egin dute hiru lurralde historikoetan,

1996-2009 aldian. Arabako gazteria nabarmentzen da murrizketa handiena izateagatik (–10,2 puntu). 2009. urtean, gazteen ezkontzak intentsitate handiagoa du Gipuzkoan (ezkontutako 15,2 gazte heterosexual, 15-29 urteko 1.000 egoiliar bakoitzeko) —ikus 12. taula—.

Talde gaztea bost urteko taldeetan zatituz gero, ezkontza heterosexualen maiztasuna hiru adin taldeetan murriztu zela ikus daiteke. Joera hori lurralde historiko guztietan gertatu zen, baina nabarmen-

na da 25-29 urteko taldean izandako atzerakada, batez ere, beste bi nerabe eta gazte taldeak nabari txikiagoak ziren balioekin abiatu zirelako 1996an (batez ere, 15-19 urtekoak), laurogeiko hamarkadaren erdialdetik eragiten duen lehen aldiz ezkontzeko adina atzeratzeko joera sozialaren ondorioz. Alde horretatik, dirudienez, aztertutako aldian, joera sozial horrek 25-29 urteko taldean eragin du, nagusiki, eta korrante erregresibo hori Arabako ezkontzatan adierazten da (–28,6 punturen galera, 1996-2009 aldian).

11. taula. 15 eta 29 urte bitarteko ezkontideen (bat edo biak) ezkontza heterosexualen kopuruaren bilakaera lurralde historikoetan, sexuaren arabera (1996-2009)

Lurralde historikoak eta sexua		1996	2001	2008	2009	▲% 2009/1996
Gizonezkoak	Araba	652	514	246	215	–67,02
	Bizkaia	2.210	1.854	1.020	813	–63,21
	Gipuzkoa	1.447	1.317	720	582	–59,78
Emakumezkoak	Araba	903	735	451	411	–54,49
	Bizkaia	3.196	2.845	1.713	1.364	–57,32
	Gipuzkoa	2.118	1.971	1.237	1.044	–50,71

Iturria: Ezkontzak bitokiaren arabera, Ezkontzak, Oinarrizko Adierazle Demografikoak, INE.

12. taula. Ezkontza tasak (€€) lurralde historikoetan izandako bilakaera, adin-taldeen arabera (1996-2009)

Lurralde historikoak eta adin-taldeak		1996	2001	2008	2009	Aldea 2009 – 1996
Araba	15-19 urte	1,33	0,79	0,61	0,46	-0,87
	20-24 urte	11,68	7,04	4,71	4,81	-6,88
	25-29 urte	52,82	42,40	26,32	24,24	-28,58
	15-29 urte	22,30	19,40	13,10	12,10	-10,20
Bizkaia	15-19 urte	1,03	0,86	0,39	0,51	-0,53
	20-24 urte	6,86	8,74	4,48	4,63	-2,23
	25-29 urte	47,13	52,88	30,69	24,91	-22,22
	15-29 urte	19,69	24,46	14,79	12,25	-7,44
Gipuzkoa	15-19 urte	0,63	0,23	0,38	0,35	-0,28
	20-24 urte	10,94	6,68	5,38	5,52	-5,42
	25-29 urte	52,22	36,91	37,34	32,09	-20,13
	15-29 urte	21,85	17,27	17,70	15,21	-6,63

Iturria: Bizitokiaren arabeko ezkontzak Populazioaren Mugimendu Naturalean, EIN; 1996/5/1eko Udal Erroldaren Berrikuntzako Populazioa eta 2001/1/1eko, 2001/1/1eko, 2008/1/1eko, 2009/1/1eko eta 2010/1/1eko Errolda Azterketak Erroldaren Ustiapen Estatistikoan, INE.



Gazteen adierazleak 2011

Gazteen ezkontzaren atzerakada orokorra ezaugarri duen lurralde-esparruan, 2009an, Gipuzkoako gazteria ezkontza heterosexualen intentsitate handiagoarengatik nabarmentzen da: 20-24 urteko ezkontutako 5,5 gazte heterosexual, adin-talde horretako 1.000 biztanle bakoitzeko, eta 25-29 urteko ezkontutako 32,1 gazte, adin-talde bereko 1.000 biztanle bakoitzeko.

‘Ezkontza berantiarra’ adinaren atzerapen masiboan adierazten den joera sozial nagusia dela argi ikusten da lehen ezkontzaren batez besteko adinaren adierazlean: 1996tik 2009ra bitarte, lehen ezkontzak hiru bat urte atzeratu ziren lurral-

de historikoetan, 33 urteetara igota —ikus 13. taula—.

«Ezkontza berantiarrean» gizonezkoek zein emakumezkoek parte hartzen dute, baina joera sozial hori neurri handiagoan adierazten da gizonezkoengan: 1996an, gizonezkoek erosotasunez gaintitzen zuten hogeita hamar urteko ataria; aldiz, emakumezkoek ez zuten 2000/2001era arte lortu lurralde historikoetan. Aztertutako aldia amaitzerakoan, 2009an, gizonezkoen aldeko desberdintasuna 2,3 (Bizkaia) eta 2,5 urte artekoa da (Gipuzkoa). Beraz, lehen ezkontzaren batez besteko adina altuena 34,2 urte da (Gipuzkoa) gizonezkoengan; aldiz,

emakumezkoengan, 31,8 urte da (Bizkaia) —ikus 14. taula—.

Orain, ikus dezagun ezkontza homosexualen maiztasuna talde gaztean: 2006tik 2009ra bitarte, 15-29 urteko ezkontideak dituzten (bat gutxienez) ezkontzen kopuruaren bilakaera positiboa izan da Gipuzkoan (% 85,7) eta Araban (% 50), Bizkaian ez bezala; bertan, murriztu egin ziren (–% 63). Uztailaren 1eko 13/2005 Legea nahiko berria denez, 2006-2009 aldiko urteko batez bestekoa ikusiko dugu: Bizkaia nabarmentzen da; izan ere, bertan, gutxienez ezkontide gazte bat duten 13 ezkontza homosexual egiten dira. Araban, berriz, kopuru txikiena dute: 3, batez beste, urtean —ikus 15. taula—.

13. taula. Lehen ezkontzaren batez besteko adinaren bilakaera lurralde historikoetan (1996-2009)

Lurralde historikoak	1996	2001	2008	2009	Aldea 2009 – 1996
Araba	29,70	30,78	32,44	32,71	3,01
Bizkaia	29,86	30,94	32,47	32,86	3,00
Gipuzkoa	30,04	30,88	32,33	32,95	2,91

Iturria: Ezkontzak, Oinarrizko adierazle demografikoak, INE.

14. taula. Lehen ezkontzaren batez besteko adinaren bilakaera lurralde historikoetan, sexuaren arabera (1996-2009)

Lurralde historikoak	Gizonak 1996	Emakumeak 1996	Aldea G – E 1996	Gizonak 2009	Emakumeak 2009	Aldea G – E 2009	Gizonezkoen aldea 2009 – 1996	Emakumezkoen aldea 2009 – 1996
Araba	30,60	28,81	1,79	33,93	31,56	2,37	3,33	2,75
Bizkaia	31,00	28,73	2,28	34,03	31,76	2,26	3,02	3,04
Gipuzkoa	31,25	28,84	2,41	34,25	31,74	2,51	3,01	2,90

Iturria: Ezkontzak, Oinarrizko adierazle demografikoak, INE.

15. taula. 15 eta 29 urte bitarteko ezkontideen (bat edo biak) ezkontza homosexualen kopuruaren bilakaera lurralde historikoetan, motaren arabera (2006-2009)

Lurralde historikoak eta ezkontza-mota		2006	2007	2008	2009	▲% 2009/2006	Urteko batez bestekoa 2006/2009
Gizonezkoen arteko ezkontzak	Araba	0	1	3	1	0,00	1,25
	Bizkaia	14	3	8	4	-71,43	7,25
	Gipuzkoa	5	6	2	8	60,00	5,25
Emakumezkoen arteko ezkontzak	Araba	2	1	1	2	0,00	1,50
	Bizkaia	5	4	9	3	-40,00	5,25
	Gipuzkoa	2	4	3	5	150,00	3,50
Ezkontza homosexualak guztira	Araba	2	2	4	3	50,00	2,75
	Bizkaia	19	7	17	7	-63,16	12,50
	Gipuzkoa	7	10	5	13	85,71	8,75

Iturria: Bizitokiaren araberako ezkontzak, Populazio Naturalaren Mugimenduan, INE.

Ikus dezagun 29 urtetik beherako ezkontideen ezkontzen desegiteen bilakaera, sexuaren arabera: hiru lurralde historikoetan, gizonezkoengan eta emakumezkoengan ikus daiteke desegiteen kopurua txikitu egin zela 1998-2009 aldian. Aipatzeko da portzentajezko beherakada handienak Gipuzkoako senar gazteetan (–% 55,6) eta Bizkaiko emazte gazteetan (–% 52,7) izan direla. Aldia zati txikiagotan segmentatuz gero, Dibortzio Lasterraren Legea indarrean sartzerakoan, 2006tik 2009ra bitarte, bi sexueta eta hiru lurraldeetan, ezkontzen desegiteak ere jaitsi egin zirela ikus daiteke.

Lehen ezkontzaren adina hogeita hamar urtetik gora atzeratzeko joerak bi sexueta eta hiru lurralde historikoetan eragin du; ezkontide gazteak dituzten ezkontza berrien kopurua etengabe murrizten joan da aztertutako aldian; ondorioz, gazte potentzial gutxiago daude ezkontza-desegitearen fenomenoan sartzeko —ikus 17. taula—.

Azkenik, 29 urtera arteko ezkontideen ezkontza desegiteen banaketan, motaren eta sexuaren arabera, adin- eta sexu-bereizketarik gabeko desegiteetan gertatu den «aldaketa kopernikarra» ikus daiteke: 2004ra arte, banantzeak gailentzen dira baina, 2006tik aurrera, dibortzioek gora egiten dute, Dibortzio Lasterraren Legeari esker. Aldaketa hori hiru lurralde historikoetan gertatu da, gizonezko zein emakumezko ezkontideetan —ikus 16. taula—.

16. taula. 29 urtera arteko ezkontideen arteko ezkontza heterosexualen desegiteen banaketaren bilakaera lurralde historikoetan, motaren eta sexuaren arabera (1998-2009)

Lurralde historikoak eta sexua		1998	2004	2006	2008	2009	Aldia 2009–1998
ARABA							
Gizo- nezkoak	Dibortzioak	36,07	29,41	93,65	87,50	100,00	63,93
	Banantzeak	63,93	70,59	6,35	12,50	-	-3,93
	Baliogabetzeak	-	-	-	-	-	0,00
	Gizonezkoen desegiteak guztira	100,00	100,00	100,00	100,00	100,00	0,00
Emaku- mezkoak	Dibortzioak	31,73	34,21	70,00	91,23	95,24	63,51
	Banantzeak	68,27	61,84	30,00	8,77	4,76	-63,51
	Baliogabetzeak	-	3,95	-	-	-	0,00
	Emakumezkoen desegiteak guztira	100,00	100,00	100,00	100,00	100,00	0,00
BIZKAIA							
Gizo- nezkoak	Dibortzioak	29,58	36,75	93,89	92,78	96,34	66,76
	Banantzeak	70,42	62,39	6,11	4,12	2,44	-67,98
	Baliogabetzeak	-	0,85	-	3,09	1,22	1,22
	Gizonezkoen desegiteak guztira	100,00	100,00	100,00	100,00	100,00	0,00
Emaku- mezkoak	Dibortzioak	34,67	35,17	90,94	91,16	98,59	63,92
	Banantzeak	65,33	63,45	9,06	8,84	1,41	-3,92
	Baliogabetzeak	-	1,38	-	-	-	0,00
	Emakumezkoen desegiteak guztira	100,00	100,00	100,00	100,00	100,00	0,00
GIPUZKOA							
Gizo- nezkoak	Dibortzioak	25,56	27,12	98,63	100,00	97,50	71,94
	Banantzeak	74,44	71,19	1,37	-	-	74,44
	Baliogabetzeak	-	1,69	-	-	2,50	2,50
	Gizonezkoen desegiteak guztira	100,00	100,00	100,00	100,00	100,00	0,00
Emaku- mezkoak	Dibortzioak	26,62	30,89	96,32	98,04	94,90	68,27
	Banantzeak	73,38	68,29	2,21	1,96	5,10	-68,27
	Baliogabetzeak	-	0,81	1,47	-	-	0,00
	Emakumezkoen desegiteak guztira	100,00	100,00	100,00	100,00	100,00	0,00

Iturria: Ezkontza-baliogabetzen, banantzen eta dibortzioen estatistikak, INE.

17. taula. 29 urtera arteko ezkontideen arteko ezkontza heterosexualen desegiteen bilakaera lurralde historikoetan, motaren eta sexuaren arabera (1998-2009): kopuru absolutuak eta portzentajezko aldakuntzak

Lurralde historikoak, sexua eta desegite-motak		1998	2004	2006	2008	2009	▲% 2009/1998
ARABA							
Gizonezkoak	Dibortzioak	22	10	59	28	34	54,55
	Banantzeak	39	24	4	4	-	-100,00
	Baliogabetzeak	-	-	-	-	-	-
	Gizonezkoen desegiteak guztira	61	34	63	32	34	-44,26
Emakumezkoak	Dibortzioak	33	26	56	52	60	81,82
	Banantzeak	71	47	24	5	3	-95,77
	Baliogabetzeak	-	3	0	-	-	-
	Emakumezkoen desegiteak guztira	104	76	80	57	63	-39,42
Gizonezkoen / emakumezkoen desegiteak guztira		58,65	44,74	78,75	56,14	53,97	
BIZKAIA							
Gizonezkoak	Dibortzioak	42	43	123	90	79	88,10
	Banantzeak	100	73	8	4	2	-98,00
	Baliogabetzeak	-	1	-	3	1	-
	Gizonezkoen desegiteak guztira	142	117	131	97	82	-42,25
Emakumezkoak	Dibortzioak	104	102	241	165	140	34,62
	Banantzeak	196	184	24	16	2	-98,98
	Baliogabetzeak	-	4	-	-	-	-
	Emakumezkoen desegiteak guztira	300	290	265	181	142	-52,67
Gizonezkoen / emakumezkoen desegiteak guztira		47,33	40,34	49,43	53,59	57,75	
GIPUZKOA							
Gizonezkoak	Dibortzioak	23	16	72	62	39	69,57
	Banantzeak	67	42	1	0	0	-100,00
	Baliogabetzeak	0	1	0	0	1	-
	Gizonezkoen desegiteak guztira	90	59	73	62	40	-55,56
Emakumezkoak	Dibortzioak	41	38	131	100	93	126,83
	Banantzeak	113	84	3	2	5	-95,58
	Baliogabetzeak	0	1	2	0	0	-
	Emakumezkoen desegiteak guztira	154	123	136	102	98	-36,36
Gizonezkoen / emakumezkoen desegiteak guztira		58,44	47,97	53,68	60,78	40,82	

Iturria: Ezkontza-baliogabetzeen, banantzeen eta dibortzioen estatistikak, INE.

3. Eskualdeak

EAEko eta lurralde historikoetako analisisia ezin da eskualdeetako lurralde-esparrurako egin; izan ere, datuak ez dira adinaren arabera bereizita agertzen. Horregatik, Eustaten 2006ko Populazio eta Etxebizitza Estatistikatik ateratako informazioa erabiliko dugu.

Datu horien arabera, EAEko gazteen % 9,3 ezkontuta dago (ezkontza-mota alde batera utzita). Ezkontutako gazteen presentzia erlatibo handiena duten eskualdeak Goierri (% 12,8), Arabako Ibarak (% 12,3), Bidasoa Beherea (% 12,3) eta Arabako Errioxa (% 12,1) dira —ikus 18. taula—.

18. taula. Ezkontutako gazteen ehunekoa, adin bereko pertsona guztiekiko eskualdeetan

Eskualdea	2006
Arabako Kantaurialdea	8,5
Gorbeialdea	8,8
Arabako Lautada	9,3
Arabako Mendialdea	11,6
Arabako Mendialdea	12,1
Arabako Ibarak	12,3
Arratia Nerbioi	9,3
Enkarterria	10,9
Bilbo Handia	8,6
Plentzia-Mungia	9,3
Gernika-Bermeo	7,9
Markina-Ondarroa	7,4
Durangaldea	9,0
Goierri	12,8
Debagoiena	7,7
Debabarrena	10,0
Urola Kosta	11,6
Tolosa	11,3
Donostialdea	9,3
Bidasoa Beherea	12,3
EAE	9,3

Iturria: 2006ko Populazio eta Etxebizitza Estatistika, EUSTAT.

4. Ondorioak

1996tik 2009ra bitarte, ezkontza heterosexualen beherakada nahiko garrantzitsua izan zen 15-29 urteko taldean: Euskadin, gutxienez ezkontide gazte bat duten ezkontzen kopurua % 54,7 murriztu zen emakumezkoengan, eta % 62,6 gizonezkoengan, Espainiako talde beraren beherakada 6 puntutan, gutxi gorabehera, gaudituta. Gauza bera gertatu zen lurralde historikoetan; bertan, Arabaren atzerakada nabarmentzen da gizonezkoen kasuan (–% 76), eta Bizkaiarena emakumezkoen kasuan (–% 57,3).

Nolanahi ere, aipatzekoa da, ezkontzaren beherakada orokorra dela populazioaren guztizkoan, kopuruak txikiagoak badira ere.

Ezkontza heterosexualaren intentsitatean izandako beherakada handienak 25-29 urteko taldeari dagozkio, –22,5 puntuko beherakadarekin, Euskadin, eta –24,9 punturekin, Estatuan.

2009an, azterketaren aldia amaitzean, EAEko gazteen ezkontza tasa 15-29 urteko ezkontutako 13,2 pertsona heterosexualekoa da, adin bereko 1.000 gazte bakoitzeko. Tasa hori handiagoa da emakumezko gazteengan (% 17,2), gizonezko gazteengan baino (% 9,3). Era berean, handiagoa da 25-29 urteko gazteen artean (% 27), adin txikiagoko taldeetan baino.

Bestalde, gutxienez, 15-29 urteko ezkontide bat duten ezkontza homosexualak % 31,6 jaitsi ziren 2006-2009 aldian, EAEn, Espainiako eboluzioa positiboa izanik.

Orokorrean, euskal gazteek Espainiakoek baino ezkontzeko joera txikiagoa dute. Lurralde historikoei dagokienez, gazteen ezkontzaren intentsitate handiena Gipuzkoan agertzen da.

Gainera, 1996-2009 aldian, laurogeiko hamarkadaren hasieratik ikusten den lehen aldiz ezkontzeko adina atzeratzeko joerak eragiten jarraitu du. 2009an, batez besteko adina 32,9 urtekoa zen Euskadin, eta 31,7 urtekoa Estatuan, bi sexueta-rako. Gainera, euskal gizonezkoak zein emakumezkoak Espainiakoak baino beranduago ezkontzen dira lehen aldiz: 34,1 urte eta 32,8 urte, hurrenez hurren, gizonezkoen kasuan, eta 31,7 urte eta 30,6 urte, hurrenez hurren, emakumezkoen kasuan. «Ezkontza berantiarra» da joera sozial nagusia hiru lurralde historikoetan.

Beraz, esan liteke ezkongabetasuna egoera zibil hegemonikoa dela euskal gazteraren artean.

29 urtetik beherako talde gaztearen ezkontza-desegiteei dagokienez, aipatzekoa da ezkontza he-

terosexualen desagiteen kopuruaren bilakaera oso negatiboa izan dela 1998tik 2009ra bitarte, senarren kasuan (–% 46,8 EAEn eta –% 41,7 Espainian) zein emazteen kasuan (–% 45,7 eta –% 41,6, hurrenez hurren). Gauza bera gertatu zen hiru lurralde historikoetan; portzentajezko beherakada handienak Gipuzkoako senar gazteetan (–% 55,6) eta Bizkaiko emazte gazteetan (–% 52,7) izan dira. Labur esanda, ez gaude lege-erreformak edo dinamika ekonomikoak baldintzatutako bilakaeraren aurrean, baizik eta lehen aldiz ezkontzeko adina atzeratzeko gazteen joerak baldintzatutako bilakaeraren aurrean. Logikoki, «ezkontza berantiar» horrek ondoren izan litekeen ezkontza desagitea atzeratzen du.

Nabarmentzekoa da ezkontza heterosexualen desagiteak gehiago gertatzen direla 29 urtera arteko emazteengan, senarrengan baino: EAEn eta 2009rako, ezkontza heterosexualen haustura tasa 29 urtera arteko gizonezkoen 9,7 ezkontzen desagitea dakar, talde berean ezkontutako 100 gizon bakoitzeko. Aldiz, emakumezkoen kasuan, 10,7 hausturetara iritsi zen, ezkontutako 100 emakume bakoitzeko. Era berean, desagitea maizago gertatzen da Euskadiko emazte gazteengan, Espainiakoengan baino (13,1 haustura, 29 urtera arteko 100 emazte bakoitzeko); gizonezkoen ehunekoa antzekoa da.

Bibliografia

Barómetro de diciembre. Estudio n.º 2856: Tablas de resultados. Madril: Centro de Investigaciones Sociológicas, 2010. Webgune honetan eskuragarri: http://www.cis.es/cis/opencms/-Archivos/Marginales/2840_2859/2856/es2856.pdf [Kontsultaren data: 2012/05/18]

BILBAO GAZTAÑAGA, Miren: *Euskadiko gazteak 2008*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, 2008. Webgune honetan eskuragarri: http://www.gazteaukera.euskadi.net/r58-7657/es/contenidos/informacion/estudios_sociologicos/es_liburuak/adjuntos/Juventud_vasca_2008_c.pdf [Kontsultaren data: 2012/05/18]

KAA, Dirk J. van de, «Europe's Second Demographic Transition», in *Population Bulletin*, 42. bolumena, 1. zk., 1987ko martxoa, 51-80. orr.

ESPAINIA: 13/2005 Legea, uztailaren 1ekoa, Kode Zibila aldaraztekoa, ezkontzeko eskubidearen arloan. Estatuko Aldizkari Ofiziala, 2005eko uztailaren 2a, 157. zk., 23632. or. Webgune honetan eskuragarri: <http://www.boe.es/boe/dias/2005/07/02/pdfs/A23632-23634.pdf> [Kontsultaren data: 2012/05/18]

ESPAINIA: 15/2005 Legea, uztailaren 8koa, Kode Zibila eta Prozedura Zibilaren Legea aldaraztekoa, banatze eta dibortzioen arloan. Estatuko Aldizkari Ofiziala, 2005eko uztailak 9, 163. zk., 24458. or. Webgune honetan eskuragarri: <http://www.boe.es/boe/dias/2005/07/09/pdfs/A24458-24461.pdf> [Kontsultaren data: 2012/10/23]

INGLEHART, Ronald. *Modernización y posmodernización: El cambio cultural, económico y político en 43 sociedades* (Monografías, 161. alea). Madril: Ikerketa Soziologikoen Zentroak eta Siglo XXI de España Editores S.A. argitaletxeak argitaratua, 2000.

Jóvenes y diversidad sexual: Estudio INJUVE EJ 149, Tablas de resultados. Madril: Instituto de la Juventud, 2011. Webgune honetan eskuragarri: <http://www.injuve.es/contenidos/downloadatt.action?id=1152048446> [Kontsultaren data: 2012/05/18]

TRABADA CRENDE, Elías. «Viviendas y hogares: la propietarización y encarecimiento de la vivienda frenan la formación de los hogares», in *Documentación Social, Revista de Estudios Sociales y de Sociología Aplicada*. Madril: Cáritas Española, 147. alea, 2007ko urria-abendua, 153-181. orr.

Gazteen adierazleak 2011

Jaiotzak eta ugalkortasuna 05







Bosgarren kapituluan, Euskadiko eta Espainiako emakumeen jaiotza-tasa eta ugalkortasuna aztertuko ditugu. Lehenik eta behin, jaiotza-tasa globalaren bilakaera eta gazteek 1996 eta 2009 artean eragindakoa ezagutuko ditugu, bai eta datu horien garrantzia ere, populazio osoarekiko. Hau da, jaiotza tasa gordin. Horren ondoren, lehen seme-alabaren jaiotzaren batez besteko adina atzeratzeko joera soziala ikusiko dugu, eta gero, jaiotza-tasaren analisisan sakontzeko, ezkondu gabeko amen eta atzerriko emakumeen jaiotza-tasa aztertuko dugu.

Geroago, Euskadiko eta Espainiako emakumeen 1996tik 2009ra bitarteko ugalkortasunaren ikerketa kuantitatiboari ekingo diogu, adierazle hauen bidez: ugalkortasun-tasa orokorra eta ugalkortasun-adierazle koiunturala, biak ere 15 eta 49 urte bitarteko emakumeei buruzkoak; gazteen ugalkortasun-tasa eta bost urteko taldeen ugalkortasun-tasa espezifikoak (UTE), 15 eta 29 urte bitarteko emakumeei dagokienez; eta, ondoren, urtez urte, 40 urtera arteko emakumeak kontuan hartuta, herritartasunaren arabera (Espainiakoak/atzerrikoak).



1. Euskal Autonomia Erkidegoa eta Espainia

1996tik 2009ra bitartean, bi sexuetako jaioberrien kopurua nabarmen hazi zen, EAEn zein Espainian, baina pixka bat gehiago hazi zen Espainian oro har: % 30,1 eta % 36,5, hurrenez hurren. ‘Aldaketa kopernikar’ baten aurrean gaude; izan ere, jaiotza-tasak behera egin zuen 1976tik 1994ra arte Euskadin (eta 1996ra arte Estatuan): horrenbestez, badirudi hazkunde ekonomikoaren azken zikloak, hau da, 1997tik 2007ra artekoak, jaiotza-tasaren hazkundeari lagundu ziola bi lurraldeetan.

Nolanahi ere, azken bilakaera negatiboa da, seguru-erik krisi ekonomikoak eta atzeraldiak eraginda. Izan ere, langabeziaren, gizarte- eta lan-eze-gonkortasunaren, eta, orokorrean, ziurgabetasun ekonomikoaren hazkundeak jokabide ez natalisten hedapena sustatzen dute, ugaltzeko gaitasuna duten etxeetan: 2008tik 2009ra, jaiotako kopuruak atzera egin zuen bi lurraldeetan; portzentualki, gutxiago Euskadin (–% 1,9), Estatuan baino (–% 4,8). Aztertutako aldia EAEn bizi diren

ametatik jaiotako 20.905 jaioberriei amaitu zen; jaioberri horiek Espainian 2009an jaiotako % 4,2 dira —ikus 1. taula—.

Jaiotzen kopuruaren bilakaera progresiboaren ondoren, 1996 eta 2009 artean, jaiotza-tasa gordina (JTG) 7,7 jaioberritik 9,8 jaioberrira hazi zen, 1.000 biztanleko, EAEn. Espainian, berriz, 9,2 jaioberritik 10,7 jaioberrira hazi zen, 1.000 biztanleko. Tasaren hazkundea Euskadin handiagoa izan bazen ere,

1. taula. Jaioberrien kopuruaren bilakaera EAEn eta Espainian (1996-2009): kopuru absolutuak eta portzentajeak aldakuntzak

Lurralde-esparrua	1996	2001	2008	2009	▲% 2009/1996
EAE	15.985	17.649	21.310	20.905	30,78
Espainia	362.626	406.380	519.779	494.997	36,50
Jaioberriak (%) EAE / Espainia	4,41	4,34	4,09	4,22	

Iturria: Amaren bizitokiaren arabera jaiotzak. Mugimendu naturala. INE.

jaiotza-tasaren fenomenoak EAEn garrantzi demografiko txikiagoa izan zuela ikus daiteke, Espainiarekin konparatuta, aztertutako aldi horretan, eta, azkenean, 2009an, puntu bat gutxiago zuen, 1.000 biztanleko (9,8 eta 10,7, hurrenez hurren, 1.000 biztanleko) —ikus 2. taula—.

Orain, ikus dezagun 15etik 29 urtera bitarteko ametatik jaiotakoen kopuruaren bilakaera. Aldakuntza hori nabarmen negatiboa izan zen, batez ere, EAEn: 1996tik 2009ra bitartean % 13,1 murriztu ziren; Espainian, berriz, % 4,9 murriztu ziren. Portzentajezko hierarkia hori alderantzikatu egin zen azken bilakaeran (2008tik 2009ra); izan ere, atzerakada handiagoa izan zen Estatuan: -% 9,8 Estatuan eta -% 5,7 Euskadin. Analisiaren azken urtean (2009), EAEn bizi ziren 15etik 29 urtera bitarteko ametatik 4.707 haur jaio ziren (709 jaiotza gutxiago 1996an baino) —ikus 3. taula—.

15etik 29 urtera bitarteko ametatik jaiotakoen kopuruaren atzerakadak jaioberrien kolektibo horren proportzioaren beherakada nabarmena ekarri du, jaiotzen guztizkoan; izan ere, guztizko hori hazi egin zen aztertutako aldiaren lehen ikusi dugun bezala: Euskadin, % 33,9 ziren 1996an, eta 2009an % 22,5raino egin du behera. Beheranzko joera hori Estatutan ere ikusten da, baina aipatzekoa da ama gaztetik jaiotakoen proportzioa handiagoa

2. taula. Jaiotza-tasa gordinak (JTG*) EAEn eta Espainian izandako bilakaera (1996-2009)

Lurralde-esparrua	1996	2001	2008	2009	Aldea 2009 – 1996
EAE	7,70	8,49	9,97	9,79	2,09
Espainia	9,17	9,95	11,37	10,75	1,58
Aldea EAE – Espainia	-1,47	-1,47	-1,41	-0,96	

(*) Jaiotza-tasa gordinak (JTG) = jaiotzen kopurua, 1.000 biztanleko.

Iturria: Oinarrizko adierazle demografikoak. INE.

3. taula. 15 eta 29 urte bitarteko amen jaioberrien kopuruaren bilakaera EAEn eta Espainian (1996-2009): kopuru absolutuak eta portzentajezko aldakuntzak

Lurralde-esparrua	1996	2001	2008	2009	▲% 2009/1996
EAE	5.416	4.586	4.990	4.707	-13,09
Espainia	175.571	164.215	185.158	166.918	-4,93
Jaioberriak (%) EAE / Espainia	3,08	2,79	2,69	2,82	

Iturria: Amaren bizitokiaren arabera jaiotzak. Mugimendu naturala. INE.

dela Espainian: 2009an, 11,2 puntu gorago zeuden, Euskadiko portzentajearen gainetik (% 33,7 eta % 22,5, hurrenez hurren) —ikus 4. taula—.

Baliteke 15etik 29 urtera bitarteko ametatik jaiotakoen kopuruak atzera egitearen arrazoia izatea lehen haurra izateko adina atzeratzeko joerak jarraitzen duela. Hurrengo taulan ikus daiteke hala gertatzen dela: 1996tik 2009ra bitartean, EAEn, lehen jaiotzaren¹ batez besteko adina ia urtebete hazi zen (30,2tik 31,1era) eta, Espainian, urtebete baino pixka bat gehiago (28,4tik 29,6ra); halaber, ikus daiteke Euskadiko amek Espainiakoek baino beranduago dutela lehen umea (+1,4 urte 2009an). Nolanahi ere, alde hori moteltzen joan da —ikus 5. taula—.

Jarrai dezagun ama gazteetatik jaiotakoen kopuruaren bilakaera aztertzen, baina adin-taldean arabera bereizita: Euskadin zein Estatuan, 15etik 19 urtera bitarteko eta 20tik 24 urtera bitarteko ama gazteetatik jaiotakoen kopurua hazi zela ikus daiteke; aldiz, 25etik 29 urtera bitarteko ametatik jaiotakoen kopurua murriztu egin zen. Aipatzekoa da Euskadiko portzentajeazko aldakuntzak Espainiako bikoitzak izan direla. Laburbilduz, 1996tik

4. taula. Urte berean jaiotako guztiekiko, 15 eta 29 urte bitarteko amen jaioberrien ehunekoen bilakaera EAEn eta Espainian (1996-2009)

Lurralde-esparrua	1996	2001	2008	2009	Aldea 2009 – 1996
EAE	33,88	25,98	23,42	22,52	-11,36
Espainia	48,42	40,41	35,62	33,72	-14,70
Aldea EAE – Espainia	-14,53	-14,42	-12,21	-11,20	

Iturria: Amaren bizitokiaren arabera jaiotzak. Mugimendu naturala. INE.

5. taula. Lehen seme-alaba jaiotzean amaren batez besteko adinaren bilakaera EAEn eta Espainian (1996-2009)

Lurralde-esparrua	1996	2001	2008	2009	Aldea 2009 – 1996
EAE	30,18	31,07	30,87	31,05	0,87
Espainia	28,45	29,10	29,30	29,60	1,15
Aldea EAE – Espainia	1,74	1,97	1,57	1,44	

Iturria: Oinarrizko adierazle demografikoak. INE.

¹ INEren arabera, lurralde batean bizi den emakumeak lehen umea izango lukeen batez besteko adina da, aipatutako populazio taldeko 't' urtean ikusitako adinaren arabera ugalkortasun-intentsitate bera mantenduz gero. Kalkulatzeko, emakumeen lehen umea izateko batez besteko adina hartu eta amaren adinaren arabera lehen jaioberrien ugalkortasun-tasaren bidez haztatzen da.

2009ra bitartean, 15etik 24 urtera bitarteko ametatik jaiotakoen kopurua handitu bazen ere, handitze hori ez da nahikoa izan 25etik 29 urtera bitarteko ametatik jaiotakoen atzerakada nabarmena orekatzeko. Hori bai, egungo krisi ekonomikoaren hasierarekin batera 2008tik 2009ra bitartean jaiotakoen kopuruaren bilakaerak joera negatibo homogeneoa hartu zuen hiru adin-taldeetan, 25 urtetik beherako ametatik jaiotakoen aurreko gorakada etenda —ikus 6. taula—.

Jarraian, ikus dezagun nola banatzen diren ama gazteetatik jaiotakoak, 15 eta 29 urte arteko hiru adin-taldeetan artean: EAEri dagokionez, ama gazteetatik jaiotako gehienak 25etik 29 urtera bitarteko emakumeei dagozkie; adin-talde horretako emakumeek erditu zituzten 2009an ama gazteetatik jaiotakoen % 70,5. Nolanahi ere, 25 urtetik beherako ametatik jaiotakoen gorakada ikusten da; izan ere, pixkanaka, haien presentzia handitu egin da ama gazteetatik jaiotakoen artean, 2001tik 2009ra bitartean, bereziki, 20tik 24 urtera bitartekoei dagokionez (% 16,4tik % 23,7ra). Gainera, aurrerakada mugatu horrek Espainiarekiko aldea murrizten lagundu du; izan ere, Estatuan 15etik 19 urtera bitarteko eta 20tik 24 urtera bitarteko ametatik jaiot-

6. taula. 15 eta 29 urte bitarteko amen jaioberrien kopuruaren bilakaera EAE-n eta Espainian, amaren adin-taldearen arabera (1996-2009): kopuru absolutuak eta portzentajezko aldakuntzak

Lurralde-esparrua eta amaren adin-taldea		1996	2001	2008	2009	▲% 2009/1996
15-19 urte	EAE	186	176	307	269	44,62
	Espainia	1.075	11.856	14.955	13.145	18,69
	Jaioberriak (%) EAE / Espainia	1,68	1,48	2,05	2,05	
20-24 urte	EAE	890	749	1153	1117	25,51
	Espainia	42.068	41.717	51.925	46.503	10,54
	Jaioberriak (%) EAE / Espainia	2,12	1,80	2,22	2,40	
25-29 urte	EAE	4340	3661	3.530	3321	-23,48
	Espainia	122.428	110.642	118.278	107.270	-12,38
	Jaioberriak (%) EAE / Espainia	3,54	3,31	2,98	3,10	

Iturria: Amaren bizitokiaren arabera jaiotzak. Mugimendu naturala. INE.

Gazteen adierazleak 2011

takoen proportzioa handiagoa da talde gazteko amengatik jaiotakoen artean —ikus 7. taula—.

Bestaldetik, ezkondata ez dauden ametatik (ezkon-gabeak, alargunak edo dibortziatuak) jaiotakoen multzoa jaiotza-tasa orokorraren gorakadan nabarmen lagundu duen fenomeno demografikoa da: 1996tik 2009ra bitartean, jaiotakoen kolektibo horren kopurua % 288,3 handitu zen EAEn, eta % 302,8 Estatuan —ikus 8. taula—.

Gazteen adierazleak 2011 dokumentuaren lehen atalean, atzerriko immigrazioaren fluxuak euskal populazioaren hazkunderako funtsezkoak izan dira jakin dugu, 1996 eta 2009 artean. Atzerriko² emakumeek ere aldi horretako jaiotza-tasa orokorraren hazkunderari benetan lagundu diotela uste dugu. Egiazta dezagun alderdi hori: lehenik eta behin, atzerriko ametatik jaiotakoen kopuruak bi lurraldeetan indarrez hazi zirela ikus dezakegu, baina Euskadin are gehiago (% 1.039 Euskadin eta % 767 Espainian). 2008tik 2009ra bitartean ere, Euskadin bizi ziren atzerriko ametatik jaiotakoak % 4,9 hazi ziren; Estatuan, berriz, % 5,2 murriztu ziren. Gogora dezagun, azken atzerakada ekonomikoaren aldian, jaiotakoen guztizkoa murriztu egin zela bi lurraldeetan (–% 1,9 eta –% 4,8, hurrenez hurren); beraz, Euskadin bizi diren atzeritarren jaiotza-tasak gora egin du, joera orokorraren aurka —ikus 9. taula—.

7. taula. 15 eta 29 urte bitarteko amen jaioberrien portzentajezko banaketaren bilakaera EAEn eta Espainian, amaren adin-taldearen arabera (1996-2009)

Lurralde-esparrua eta amaren adin-taldea		1996	2001	2008	2009	Aldea 2009 – 1996
EAE	15-19 urte	3,43	3,84	6,15	5,71	2,28
	20-24 urte	16,43	16,33	23,11	23,73	7,30
	25-29 urte	80,13	79,83	70,74	70,55	–9,58
	Guztira %	100,00	100,00	100,00	100,00	0,00
Espainia	15-19 urte	6,31	7,22	8,08	7,88	1,56
	20-24 urte	23,96	25,40	28,04	27,86	3,90
	25-29 urte	69,73	67,38	63,88	64,27	–5,47
	Guztira %	100,00	100,00	100,00	100,00	0,00
Aldea EAE – Espainia	15-19 urte	–2,87	–3,38	–1,92	–2,16	
	20-24 urte	–7,53	–9,07	–4,94	–4,13	
	25-29 urte	10,40	12,45	6,86	6,29	

Iturria: Amaren bizitokiaren arabera jaiotzak. Mugimendu naturala. INE.

² INEk ez ditu argitaratzen atzerriko amen jaiotzen datuak, bizilekua duten autonomia-erkidegoaren eta amaren adin-taldearen arabera; hortaz, adin guztietako ama atzeritarrei buruz hitz egingo dugu.

8. taula. Ezkondu gabeko amen jaioberrien kopuruaren bilakaera EAEn eta Espainian (1996-2009): kopuru absolutuak eta portzentajezko aldakuntzak

Lurralde-esparrua	1996	2001	2008	2009	▲% 2009/1996
EAE	1.681	2.874	6.471	6.528	288,34
Espainia	42.352	80.159	172.311	170.604	302,82
Jaioberriak (%) EAE / Espainia	3,97	3,59	3,76	3,83	

Iturria: Amaren bizitokiaren arabera jaiotzak, mugimendu naturala. INE.

9. taula. Ama atzeritarren jaioberrien kopuruaren bilakaera EAEn eta Espainian (1996-2009): kopuru absolutuak eta portzentajezko aldakuntzak

Lurralde-esparrua	1996	2001	2008	2009	▲% 2009/1996
EAE	280	607	3.039	3.189	1.038,93
Espainia	11.832	33.475	108.195	102.586	767,02
Jaioberriak (%) EAE / Espainia	2,37	1,81	2,81	3,11	

Iturria: Amaren bizitokiaren arabera jaiotzak. Mugimendu naturala. INE.



Gainera, atzerriko ametatik jaiotakoen proportzioa hazi zela ikusi dugu, jaioberrien guztizkoarekiko: Euskadin, 1996an % 1,8 ziren, eta 2009an guztizkoaren % 15,3 dira; ehuneko horrek aurrera egin zuen 2008tik 2009ra bitartean ere, eta, Estatuan duten garrantzia kontuan hartuz gero (% 20,7), EAEn oraindik gehiago hazi daitezkeela pentsa dezakegu —ikus 10. taula—.

Horrez gain, amaren herritartasunaren arabera jaiotza-tasak adierazten digu jaiotzen fenomenoak eragin handiagoa duela atzerriko populazioaren artean, Espainiakoaren artean baino. Gainera, atzerriko populazioaren joera natalistak gora egin du Euskadin; aldiz, Espainian, murrizteko joera izan du, aztertutako aldian: horrela, 2009an, amaren herritartasunaren arabera jaiotza-tasen arteko desberdin-

tasuna 18 puntukoa izan da Euskadin (26,8 jaioberri, 1.000 atzerritarreko; eta 8,8 jaioberri, 1.000 espainiarreko); Estatuan, berriz, nekez gainditzen ditu 8 puntuak (17,9 jaioberri, 1.000 atzerritarreko; eta 9,7 jaioberri, 1.000 espainiarreko). Hain zuzen ere, badirudi euskal lurraldean bizi diren atzerritarrak ugalkorragoak direla, eta hurrengo epigrafean egiaztatuko dugu —ikus 11. taula—.

10. taula. Jaioberri guztiekiko, atzerriko amen jaioberrien ehunekoaren bilakaera EAEn eta Espainian (1996-2009)

Lurralde-esparrua	1996	2001	2008	2009	Aldea 2009 – 1996
EAE	1,75	3,44	14,26	15,25	13,50
Espainia	3,26	8,24	20,82	20,72	17,46
Aldea EAE – Espainia	-1,51	-4,80	-6,55	-5,47	

Iturria: Amaren bizitokiaren arabera jaiotzak. Mugimendu naturala. INE.

11. taula. Jaiotza-tasa gordinak (JTG) EAEn eta Espainian izandako bilakaera, amaren herritartasunaren arabera* (1996-2009)

Lurralde-esparrua eta amaren herritartasuna	1996	2001	2008	2009	Aldea 2009 – 1996
EAE	Espainiako herritartasuna	7,53	8,23	9,04	1,26
	Atzerriko herritartasuna	21,18	18,44	25,75	5,60
	Espainiako herritartasuna – atzerriko herritartasuna	-13,65	-10,21	-16,71	-17,99
Espainia	Espainiako herritartasuna	8,97	9,37	10,26	0,78
	Atzerriko herritartasuna	21,82	19,99	19,51	-3,97
	Espainiako herritartasuna – atzerriko herritartasuna	-12,85	-10,62	-9,25	-8,10

(*) Amaren herritartasunaren arabera jaiotza-tasa gordinak (JTG) = jaioberrien kopurua, 1.000 biztanleko, herritartasunaren arabera.

Iturria: Oinarrizko adierazle demografikoak. INE.

Gainera, atzerriko emakumeen jaiotza-tasa handiagoa izateko, lehen umea espainiarrek baino lehenago izan behar dute. Horrela, batez besteko adina lehen umea jaiotzerakoan nabarmen txikiagoa da, Espainiakoekin konparatuta, Euskadin zein Espainian: 2009an, Espainiako emakumeen adina handiagoa da atzeritarrena baino, 5,3 urtez eta 3,8 urtez, hurrenez hurren. Kontuan hartu behar dugu, lehen umea zenbat eta beranduago izan, orduan eta errazagoa da ugalkortasuna (emakume bakoitzeko ume kopurua) txikiagoa izatea, «egutegi efektua» dela eta: bigarren seme-alaba, hirugarrena eta hurrengoak izateko denbora murrizten du. Hau da, atzeritarrek lehen umea

lehenago izan ohi dutenez, haien jaiotza-tasa eta ugalkortasuna handiagoak izan daitezke —ikus 12. taula—.

Jaiotza-tasa orokorra eta talde gazteko emakumeena, zein ezkongabeetatik eta atzeritarretatik jaiotako umeen fenomeno bereziak ezagutu ondoren, ikus dezagun emakumeen ugalkortasuna (hau da, ugaltze potentzialaren gauzatzea), ugalkortasun-tasa orokorarekin (UTO) hasita. Adierazle horrek jaioberrien kopurua eta 15etik 49 urtera bitarteko emakumeen kopurua (hau da, potentzialki ugalkorra den taldea) erlazionatzen ditu. 1996tik 2009ra bitartean, ugalkortasun-tasa orokorrak

nabarmen gora egin zuen Euskadin eta Espainian; baina, egiatan, 2008ra arte hazi zen; izan ere, 2009an, lehengoari eutsi zion EAEn, eta murriztu egin zen Espainian. Laburbilduz, egungo krisi ekonomikoak aurreko hazkunde ekonomikoko zikloan izandako ugalkortasun globalaren aurrerabidea geldiarazi du, ugaltze-potentzialitatea duten etxeetan sortzen dituen ziurgabetasunak, mugapenak eta estutasun materialak direla eta. Gainera, tasa horren Euskadiko balioak Estatuko balioen azpitik egon dira aztertutako aldian, baina konbergentziarako joera argia da: horrela, 2009ren hasieran, Espainiako ugalkortasun-tasa orokorraren aldeko diferentzia 1,4 puntukoa da soilik (Espainian 43,1

12. taula. Lehen seme-alaba jaiotzean amaren batez besteko adinaren bilakaera EAEn eta Espainian, amaren herriartasunaren arabera (2002-2009)

Lurralde-esparrua eta amaren herriartasuna		2002	2008	2009	Aldia 2009 – 2002
EAE	Espainiako herriartasuna	31,26	31,81	31,94	0,68
	Atzerriko herriartasuna	25,60	25,99	26,60	1,00
	Espainiako herriartasuna – atzerriko herriartasuna	5,66	5,82	5,34	
Espainia	Espainiako herriartasuna	5,66	5,82	5,34	
	Atzerriko herriartasuna	26,02	26,06	26,54	0,52
	Espainiako herriartasuna – atzerriko herriartasuna	3,50	4,08	3,83	

Iturria: Oinarrizko adierazle demografikoak. INE.

jaioberri, 15etik 49 urtera bitarteko 1.000 emakume, eta EAEn 41,6) —ikus 13. taula—.

Jarraitu dezagun ugalkortasun-adierazle koiunturalarekin (UAK)³. Adierazle horrek bilakaera positiboa izan du 1996tik 2009ra bitartean; zehazki, 0,4 hazi zen Euskadin (emakume bakoitzeko 0,9 ume izatetik 1,3 ume izatera), Espainian hazitakoaren ia bikoitza (emakume bakoitzeko 1,2 ume izatetik 1,4 ume izatera). Nolanahi ere, EAEn 2008ra arte egin zuen aurrera, baina pixka bat atzera egin zuen (−0,1) hurrengo urtean, egungo krisi ekonomikoaren hasierarekin batera. Aipatzekoa da, aztertutako aldiaren, Euskadiko zein Espainiako emakumeen ugalkortasun-adierazle koiunturalen belaunaldien arteko ordezkapen-tasaren (2,1 haur emakumeko) nabarmen azpitik egon direla. Batez besteko ugalkortasun horrek populazioaren ordezkapena bermatzen du, bere kabuz, dinamika begetatiboaren bidez (jaiotzak minus heriotzak) —ikus 14. taula—.

Bestalde, emakumearen herritartasunak ugalkortasunaren intentsitatea baldintzatzen du, zentzu dibergentean: beherantz Espainiako emakumeen kasuan, eta gorantz atzeritarrei dagokienez; batez besteko ugalkortasunean dagoen alde hori bi lurraldeetan ikusten da, baina gehiago EAEn. 2009. urteari dagokionez, atzerriko emakumeek haur batean gaintitzen dute Espainiako ugalkortasun-adierazle koiunturala (2,2 eta 1,2 ume emakumeko, hurrenez hurren). Aldiz, Espainian, atzeritarren

13. taula. Ugalkortasun-tasa orokorrak (UTO*) EAEn eta Espainian izandako bilakaera (1996-2009)

Lurralde-esparrua	1996	2001	2008	2009	Aldea 2009 – 1996
EAE	28,81	32,78	41,65	41,63	12,82
Espainia	35,42	38,42	45,11	43,06	7,64
Aldea EAE – Espainia	−6,61	−5,65	−3,46	−1,43	

(*) Ugalkortasun-tasa orokorra (UTO) = jaioberrien kopurua, bertan bizi diren 15etik 49 urtera bitarteko 1.000 emakumeko.

Iturria: Oinarrizko adierazle demografikoak. INE.

14. taula. Ugalkortasun-adierazle koiunturalak (UAK*) EAEn eta Espainian izandako bilakaera (1996-2009)

Lurralde-esparrua	1996	2001	2008	2009	Aldea 2009 – 1996
EAE	0,95	1,06	1,46	1,32	0,37
Espainia	1,16	1,24	1,32	1,39	0,23
Aldea EAE – Espainia	−0,21	−0,18	0,14	−0,07	

(*) Ugalkortasun-adierazle koiunturala (UAK) = seme-alaben batez besteko kopurua, bertan bizi den 15etik 49 urtera bitarteko emakume bakoitzeko.

Iturria: Oinarrizko adierazle demografikoak. INE.

³ Aurretik, Ugalkortasun tasa sintetikoa deitutakoa; ikusi hemen: «Jaiotza tasa eta ugalkortasuna». In *Gazteen adierazleak 2007*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, 2007.

aldeko desoreka 0,3koa da (1,7 eta 1,3 ume emakumeko, hurrenez hurren). Aipatzekoa da, 2002⁴ eta 2009 artean, EAEko udalerrietan bizi diren Espainiako emakumeek joera ugalkor baxua izan dutela, baina pixkanaka gorantz egiten duela; dena dela, Espainian bizi direnen azpitik kokatzen da. Aldiz, Euskadin, atzeritarren batez besteko ugalkortasunak gora egin du belaunaldien arteko ordezkapen-tasaren balioraino (2,1); Estatuan, berriz, behera egin du, Espainiako herritartasuna duten emakumeen ugalkortasun-adierazle koiunturalarekin bat egin arte —ikus 15. taula—.

Emakume gazteei dagokienez, haien ugalkortasun-tasa handitu egin zen, 1996tik 2008ra bitartean, bi lurraldeetan; baina, hurrengo urtean, atzera egin zuen pixka bat Euskadin, eta asko Estatuan. Ondorioz, dirudienek, ziklo ekonomikoaren dinamikak 15etik 29 urtera bitarteko emakumeen ugalkortasun-intentsitatea baldintzatu du: gorantz joan da hazkunde ekonomikoko urteetan, eta beherantz azkenaldi honetako atzerakada ekonomikoaren garaian. Aztertutako aldiaren azken urtean (2009) 28,8 ume jaio ziren Euskadin, 1.000 emakume gazteko; ugalkortasun-intentsitate hori Espainiako gazteen ugalkortasun-tasa baino 11 puntu txikiagoa da (39,8 ume 1.000 emakume gazteko) —ikus 16. taula—.

Talde gaztearen hiru adin-taldeak kontuan hartzen baditugu, adinak aurrera egitearekin bat datorren erlazio hau ikusten da: emakume gaztearen adina

⁴ INEk emakumeen herritartasunarekin gurutzatutako ugalkortasunari buruzko datu estatistikoak eskaintzen ditu 2002. urtetik aurrera. Horregatik, ezin ditugu 1996ko datuak ikusi.

15. taula. Ugalkortasun-adierazle koiunturalak (UAK) EAE eta Espainian izandako bilakaera, amaren herritartasunaren arabera (2002-2009)

Lurralde-esparrua eta amaren herritartasuna		2002	2005	2008	2009	Aldea 2009 – 2002
EAE	Espainiako herritartasuna	1,07	1,30	1,22	1,20	0,13
	Atzerriko herritartasuna	1,91	1,70	2,18	2,22	0,31
	Aldea					
	Espainiako herritartasuna – atzerriko herritartasuna	–0,85	–0,41	–0,96	–1,01	
Espainia	Espainiako herritartasuna	1,21	1,16	1,38	1,33	0,12
	Atzerriko herritartasuna	2,05	1,74	1,81	1,67	–0,38
	Aldea					
	Espainiako herritartasuna – atzerriko herritartasuna	–0,84	–0,58	–0,43	–0,34	

Iturria: Oinarritzko adierazle demografikoak. INE.

16. taula. Gazteen ugalkortasun-tasak (GUT*) EAE eta Espainian izandako bilakaera (1996-2009)

Lurralde-esparrua	1996	2001	2008	2009	Aldea 2009 – 1996
EAE	21,86	21,10	29,42	28,75	6,89
Espainia	36,83	35,95	43,15	39,84	3,01
Aldea EAE – Espainia	–14,98	–14,84	–13,73	–11,09	

(*) Gazteen ugalkortasun-tasa (GUT) = 15tik 29 urtera bitarteko emakumetarik jaiotako umeen kopurua, bertan bizi diren talde bereko 1.000 emakumeko.

Iturria: Amaren bizitokiaren arabera jaiotzak. Mugimendu naturala. INE. 1996/5/1eko Udaltzaletza berrikuntzako populazioa eta 2001/1/1eko, 2008/1/1eko eta 2009/1/1eko errolda-azterketak Erroldaren ustiapen estatistikoan. INE.

handitzerakoan, ugalkortasun-tasa espezifikoa handiagoa da. Gainera, beste bi gai garrantzitsu nabarmendu nahi ditugu:

- Ugalkortasun-tasa espezifikoak bi lurraldeetan hazi ziren, 15etik 19 urtera bitarteko, eta 20tik 24 urtera bitarteko gazteengan, ez ordea 25etik 29 urtera bitarteko gazteengan. Talde horretako joera orokorra atzera egitekoa izan zen.
- 1996tik 2009ra bitartean Euskadin bizi izan diren nerabeen eta gazteen ugalkortasun-tasa espezifikoa nabarmen txikiagoak izan dira Espainiakoenak baino. Nolanahi ere, 25 eta 29 urte bitarteko emakumeen artean, ugalkortasun-intentsitatearen aldea txikitzekeo jarrera sendoa dago —ikus 17. taula—.

Jarraian, 39 urtera arteko emakumeen ugalkortasun-tasa espezifikoa jasoko ditugu, urtez urte, herritartasunaren arabera. Datuak 2009koak dira, eta egoera hau adierazten dute: EAEn nabarmentzekoa da, 31 urtera arte (29 urte Espainian), atzeritarren ugalkortasuna handiagoa dela; aldiz, 32tik 37 urtera bitartean (30tik 39 urtera bitartean Espainian), Espainiako herritartasuna duten emakumeen ugalkortasuna handiagoa da. Labur esanda, atzeritarren ugalkortasuna handiagoa da, adin handiagoetan izan ezik; lehen umea izateko adina atzertzeko joeraren ondorioz —ikus 18. taula—.

Aldi berean, Espainiako herritartasuna duten eta EAEn bizi diren emakumeen ugalkortasun-tasa espezifikoa txikiagoak dira Estatukoenak bai-

no, 30 urtera arte; gero, 31tik 39 urtera bitartean, alderantzizkoa gertatzen da: gogora dezagun lehen haurra jaiotzeko batez besteko adina urtebete baino pixka bat handiagoa dela Euskadiko espainiarren artean (31,9 eta 30,4, hurrenez hurren).

Nolanahi ere, atzeritarren kolektiboan, ugalkortasun-intentsitatea handiagoa da Euskadin bizi direnen artean, eta halaxe gertatzen da aztertutako taldearen urte bakoitzean: kasu horretan, lehen haurraren erditzearen ereduak ez du eraginik; izan ere, atzeritarren artean, adina berbera da bi lurraldeetan (26,5 urteko batez besteko adina).

17. taula. 15 eta 29 urte bitarteko emakumeen ugalkortasun-tasa espezifikoaren* bilakaera EAEn eta Espainian, adin-taldeen arabera (1996-2009)

Lurralde-esparrua eta amaren adin-taldea		1996	2001	2008	2009	Aldea 2009 – 1996
EAE	15-19 urte	2,44	3,24	7,22	6,42	3,98
	20-24 urte	10,18	9,84	21,34	21,38	11,20
	25-29 urte	51,62	42,10	48,33	47,72	-3,90
Espainia	15-19 urte	7,25	9,58	13,13	11,67	4,42
	20-24 urte	25,60	26,17	37,74	34,59	8,99
	25-29 urte	76,73	63,71	66,61	62,41	-14,32
Aldea EAE – Espainia	15-19 urte	-4,81	-6,33	-5,91	-5,25	
	20-24 urte	-15,42	-16,33	-16,40	-13,22	
	25-29 urte	-25,11	-21,61	-18,28	-14,69	

(*) Talde bakoitzeko ametatik jaiotako umeen kopurua, bertan bizi diren talde bereko 1.000 emakumeke.

Iturria: Amaren bizitokiaren arabera jaiotzak. Mugimendu naturala. INE. 1996/5/1eko Udal Erroldaren berrikuntzako populazioa eta 2001/1/1eko, 2008/1/1eko eta 2009/1/1eko errolda-azterketak Erroldaren ustiapen estatistikoan. INE.

18. taula. 40 urtetik beherako emakumeen ugalkortasun-tasa espezifikoak, adinez adin, EAEn eta Espainian 2009an, amaren herritartasunaren arabera*

Adina	EAE			Espainia			Aldea EAE – Espainia	
	Esp. herr.	Atz. herr.	Aldea Esp – atz.	Esp. herr.	Atz. herr.	Aldea Esp – atz.	Esp. herr.	Atz. herr.
< = 15 urte	1,49	13,28	-11,79	2,05	7,63	-5,58	-0,56	5,65
16 urte	1,75	19,49	-17,75	4,32	14,61	-10,29	-2,57	4,88
17 urte	4,09	35,62	-31,54	7,76	27,51	-19,75	-3,67	8,11
18 urte	5,28	49,11	-43,84	12,44	42,78	-30,34	-7,16	6,33
19 urte	5,29	72,97	-67,68	17,21	61,66	-44,45	-11,92	11,31
20 urte	7,96	93,71	-85,75	19,71	76,14	-56,42	-11,75	17,57
21 urte	7,64	114,89	-107,25	21,27	83,70	-62,43	-13,63	31,19
22 urte	8,56	117,27	-108,71	23,36	87,76	-64,41	-14,80	29,51
23 urte	9,70	117,20	-107,50	25,01	87,15	-62,14	-15,31	30,05
24 urte	13,47	134,80	-121,32	29,67	89,77	-60,11	-16,20	45,03
25 urte	17,51	122,76	-105,25	35,69	88,19	-52,50	-18,18	34,57
26 urte	22,45	106,24	-83,79	43,20	83,86	-40,66	-20,75	22,38
27 urte	35,08	99,55	-64,47	53,16	86,35	-33,19	-18,08	13,20
28 urte	48,57	105,22	-56,65	67,68	84,52	-16,85	-19,11	20,70
29 urte	68,72	114,60	-45,88	80,73	83,72	-2,99	-12,01	30,88
30 urte	84,05	99,20	-15,15	92,72	79,06	13,66	-8,67	20,14
31 urte	103,64	115,51	-11,86	102,63	78,86	23,78	1,01	36,65
32 urte	113,73	103,54	10,19	106,10	71,80	34,30	7,63	31,74
33 urte	122,14	109,66	12,48	106,11	68,76	37,34	16,03	40,90
34 urte	114,63	77,01	37,62	101,88	63,64	38,24	12,75	13,37
35 urte	102,40	79,39	23,01	90,38	58,83	31,55	12,02	20,56
36 urte	86,31	69,86	16,45	77,99	51,57	26,41	8,32	18,29
37 urte	71,48	62,05	9,44	64,14	46,45	17,70	7,34	15,60
38 urte	53,27	57,21	-3,94	48,86	39,58	9,29	4,41	17,63
39 urte	38,71	42,20	-3,49	35,77	32,75	3,03	2,94	9,45

(*) Adin bateko emakumetatik jaiotako umeen kopurua, bertan bizi diren 1.000 emakumeko, herritartasunaren arabera.

2. Lurralde historikoak

Orain, ekin diezaiozun berriro jaiotza-tasaren azterketari: hiru lurralde historikoetan, jaioberrien kopuruak bilakaera positiboa izan zuen 1996tik 2009ra bitarteko aldirian, Araban intentsitate askoz handiagoa izan bazuen ere (hazkundearen % 43,3). Izan ere, Araban, jaiotza-tasak gora egiten jarraitu zuen 2008tik 2009ra bitartean; gorakada txikia izan

zuen, baina igoera horrek Bizkaiko eta Gipuzkoako jaiotza-tasen atzerakadarekin kontrastatu zuen —ikus 19. taula—.

Bilakaera positibo orokorraren ondoren, jaiotza-tasa gordinak bere balio handienak izan zituen Araban eta Gipuzkoan: 10,4 jaioberri 1.000 biztan-

leko 2009an, Bizkaiko balioa baino puntu bat gehiago (9,3 1.000 biztanleko). Aipatzekoa da tasa hori 2 puntu inguru handitu dela, 1.000 biztanleko, aztertutako aldirian —ikus 20. taula—.

Badakigu atzerriko emakumeek nabarmen lagundu dutela jaiotza-tasaren gorakadan, 1996tik

19. taula. Jaioberrien kopuruaren bilakaera lurralde historikoetan (1996-2009): kopuru absolutuak eta portzentajeazko aldakuntzak

Lurralde historikoak	1996	2001	2008	2009	▲% 2009/1996
Araba	2.248	2.435	3.210	3.222	43,33
Bizkaia	8.147	9.040	10.861	10.538	29,35
Gipuzkoa	5.590	6.174	7.239	7.145	27,82

Iturria: Amaren bizitokiaren arabera jaiotzak. Mugimendu naturala. INE.

20. taula. Jaiotza-tasa gordinak (JTG) lurralde historikoetan izandako bilakaera (1996-2009)

Lurralde historikoak	1996	2001	2008	2009	Aldea 2009 – 1996
Araba	8,11	8,54	10,45	10,45	2,34
Bizkaia	7,20	8,06	9,53	9,28	2,09
Gipuzkoa	8,37	9,18	10,46	10,33	1,97

Iturria: Amaren bizitokiaren arabera jaiotzak. Mugimendu naturala. INE.

aurrera baina, zer lurralde historikotan egin dute ekarpen handiena? Zalantzarik gabe, Araban. Izan ere, 2009an Araban jaiotako ume guztien % 23,2 atzerriko ametatik jaio dira, Bizkaian (% 14,8) eta Gipuzkoan (% 12,4) hartzen proportzioaren ia bikoitza —ikus 21. taula—.

Amen herritartasunaren aldagaiaren arabera aztertzen jarraituz gero, ikus dezakegu jaiotza-tasaren intentsitatea atzerriko populazioaren artean aski handiagoa dela, Espainiako herritartasuna dutenen artean baino: 2009an, distantzia handiena Araban adierazten da, atzerri-tarren artean 44,6 jaiotza gehiagorekin espainiarren artean baino, 1.000 biztanleko (61,5ko eta 16,9ko jaiotza-tasak, hurrenez hurren 1.000 biztanleko). Hain zuzen, Araba atzerri-tarren jaiotza-tasa handiena izateagatik nabarmentzen da; espainiarren kasuan, aldiz, Gipuzkoa gailentzen da (% 18,4). Gainera, Araban, jaiotza-tasa orokorra handitu egin zen 2008tik 2009ra bitartean, atzerriko amei esker, beste bi lurraldeetan ez bezala; izan ere, haietan txikitu egin zen. Labur esanda, atzerriko emakumeek, 1996tik aurrera, jaiotza-tasaren berragertzeari lagundu diote, eta Espainiako herritartasuna dutenek baino dezente indar handiagoarekin gainera —ikus 22. taula—.

21. taula. Jaioberri guztiekiko atzerriko ametatik jaiotako umeen ehunekoaren bilakaera lurralde historikoetan (1996-2009)

Lurralde historikoak	1996	2001	2008	2009	Aldea 2009 – 1996
Araba	2,22	5,38	20,19	23,18	20,96
Bizkaia	1,51	3,35	14,10	14,78	13,27
Gipuzkoa	1,91	2,80	11,88	12,37	10,46

Iturria: Amaren bizitokiaren arabera jaiotzak. Mugimendu naturala. INE.

22. taula. Jaiotza-tasak (JT) lurralde historikoetan izandako bilakaera, amaren herritartasunaren arabera (1996-2009)

Lurralde historikoak eta amaren herritartasuna		1996	2001	2008	2009	Aldea 2009 – 1996
Araba	Espainiako herritartasuna	15,59	16,13	17,63	16,94	1,35
	Atzerriko herritartasuna	53,88	42,62	59,00	61,50	7,62
	Espainiako herritartasuna – atzerriko herritartasuna	–38,29	–26,49	–41,37	–44,56	
Bizkaia	Espainiako herritartasuna	13,80	15,22	16,64	16,02	2,22
	Atzerriko herritartasuna	38,49	37,34	49,18	46,57	8,08
	Espainiako herritartasuna – atzerriko herritartasuna	–24,69	–22,12	–32,54	–30,55	
Gipuzkoa	Espainiako herritartasuna	16,04	17,57	18,80	18,45	2,41
	Atzerriko herritartasuna	44,34	33,82	46,84	43,93	–0,41
	Espainiako herritartasuna – atzerriko herritartasuna	–28,31	–16,25	–28,04	–25,49	

Iturria: Amaren bizitokiaren arabera jaiotzak. Mugimendu naturala. INE.

Orain, ikus dezagun 15tik 29 urtera bitarteko amen jaiotza-tasa; jaiotza horien bilakaera dibergentea izan zen 1996tik 2009ra bitartean: positiboa izan zen Araban, eta behera egin zuen Bizkaian eta Gipuzkoan. Orobat, aipatzekoa da anibalentzia hori azken urte-tartean adierazten dela, 2008tik 2009ra bitartean, higiezinaren espekulazioan oinarritutako dinamika ekonomikoa lehertu

eta egungo finantza-krisiari hasiera emandakoan —ikus 23. taula—.

Zenbat dira ama gaztetatik jaiotako umeak, jaio-tzen guztizkoarekiko? Aztertutako aldian, jaiotza horien proportzioak behera egin du hiru lurralde historikoetan. 2009an, Araba nabarmentzen da, han baitu garrantzi erlatibo handiena (% 26,1),

eta Bizkaiak, berriz, txikiena (% 21,5) —ikus 24. taula—.

Ama gazteetatik jaiotako umeen atzerakada da lehen erditzea atzeratzeko emakumeen joera sozialaren ondorio. Horrenbestez, 1996tik 2009ra bitartean, lehen umea izateko unean, batez besteko adinak 30 urteen atalasea gainditu du, eta hiru lu-

23. taula. 15 eta 29 urte bitarteko amen jaioberrien kopuruaren bilakaera lurralde historikoetan (1996-2009): kopuru absolutuak eta portzentajeak aldakuntzak

Lurralde historikoak	1996	2001	2008	2009	▲% 2009/1996
Araba	799	660	822	842	5,38
Bizkaia	2.724	2.250	2.481	2.263	-16,92
Gipuzkoa	1.893	1.676	1.676	1.602	-15,37

Iturria: Amaren bizitokiaren arabera jaiotzak. Mugimendu naturala. INE.

24. taula. Jaioberri guztiekiko, 15 eta 29 urte bitarteko ametatik jaiotako umeen ehunekoaren bilakaera lurralde historikoetan (1996-2009)

Lurralde historikoak	1996	2001	2008	2009	Aldea 2009 - 1996
Araba	35,54	27,10	25,61	26,13	-9,41
Bizkaia	33,44	24,89	22,84	21,47	-11,97
Gipuzkoa	33,86	27,15	23,30	22,42	-11,44

Iturria: Amaren bizitokiaren arabera jaiotzak. Mugimendu naturala. INE.

rralde historikoetan ama izateko adinak gora egiteko joera du, batez ere Bizkaian (+1) eta Gipuzkoan (+0,8). Gainera, bi lurralde horietan jaiotzak murriztu egin ziren. Aldiz, Araban, gazteen jaiotza-tasak bilakaera positiboa izan duen lurraldean, pixkanaka egin dute gora —ikus 25. taula—.

Ezkontzaz kanpoko jaiotza-tasaren fenomeno garrantzitsuari dagokionez, zer garrantzi du lurralde historikoetako ama gazteen artean? Aztertutako aldian, fenomeno sozial hori nabarmen hazi da hiru eremuetan, baina indar handiagoz Bizkaian. 2009an, 15etik 29 urtera bitarteko ametatik jaiotako ume guztien

% 42,3 dira Gipuzkoan, eta % 53,2 Bizkaian. Gainera, ezkontuta ez dauden amen (ezkongabeak, alargunak edo dibortziatuak) jaiotza-tasak eragin handiagoa du ama gazteen artean, ama guztien artean baino. Ama guztiak kontuan hartuz gero % 30,4 baitira Gipuzkoan eta % 32,2 Araban —ikus 26. taula—.

25. taula. Lehen seme-alaba jaiotzean amaren batez besteko adinaren bilakaera lurralde historikoetan (1996-2009)

Lurralde historikoak	1996	2001	2008	2009	▲% 2009/1996
Araba	30,29	31,06	30,68	30,60	0,30
Bizkaia	30,16	31,15	30,86	31,21	1,05
Gipuzkoa	30,18	30,95	30,96	30,99	0,81

Iturria: Oinarrizko adierazle demografikoak; INE.

26. taula. 15 eta 29 urte bitarteko eta adin guztietako ezkondu gabeko amen jaioberrien ehunekoaren bilakaera, adin-talde bereko amen jaioberri guztiekiko, lurralde historikoetan (1996-2009)

Lurralde historikoak eta amaren adin-taldea	1996	2001	2008	2009	Aldea 2009 – 1996
15-29 urteko amak	Araba	15,64	26,97	42,46	28,42
	Bizkaia	16,01	28,00	52,60	37,24
	Gipuzkoa	13,63	21,36	40,84	28,69
Adin guztietako amak	Araba	11,21	16,30	30,81	21,01
	Bizkaia	10,10	16,48	30,56	21,37
	Gipuzkoa	10,84	15,99	29,88	19,59

Iturria: Amaren bizitokiaren arabera jaiotzak. Mugimendu naturala. Oinarrizko adierazle demografikoak. INE.

Ondoren ugalkortasunari erreparatuko diogu. 1998tik 2007ra bitartean izandako hazkunde ekonomikoaren zikloak bultzatu zuen potentzialki ugalkorra den taldeko amen arteko ugalkortasunaren hazkundera, taula honetan ikusten dugunez: hiru lurralde historikoetan, gorakada hori 13 jaioberrikoa izan zen, 15etik 49 urtera bitarteko 1.000 emakumeko. 2009an, ugalkortasun-tasa orokor handiena ekialdeko lurraldean bizi diren emakumeei dagokie (44,9 1.000 emakumeko, Gipuzkoan) eta txikiena mendebaldekoari (39,4 jaioberri, 15etik 49 urtera bi-

tarteko 1.000 emakumeko, Bizkaian) —ikus 27. taula—.

15etik 49 urtera bitarteko talde osoaren ugalkortasun orokorra ezagutu ondoren, talde bereko emakume bakoitzeko batez besteko ugalkortasuna aztertzeari ekingo diogu. Zehazki, potentzialki ugalkorra den taldeko emakume bakoitzeko batez besteko haurren kopurua handitu egin zen aztertutako aldian, eta, 2009an, ugalkortasun-adierazle koiunturala 1,3koa izan zen Bizkaian eta 1,4koa

Gipuzkoan. Aipatzekoa da progresio hori oso garrantzitsua dela, kontuan hartzen badugu ugalkortasun-adierazle koiunturala emakume bakoitzeko haur 1etik beherakoa izan zela 1989an Bizkaian (0,99), 1992an Araban (0,99) eta 1994an Gipuzkoan (0,99). Nolanahi ere, ekialdeko lurralde horrek pixkanaka gainditu zuen berriro emakume bakoitzeko haur baten atalase kritikoa 1996tik aurrera (1,06), beste bi lurraldeek ez bezala. Arabak eta Bizkaia ez zuten 2001. urtera arte lortu (1,03) eta 1,00 hurrenez hurren —ikus 28. taula—.

27. taula. Ugalkortasun-tasa orokorrak (UTO) lurralde historikoetan izandako bilakaera (1996-2009)

Lurralde historikoak	1996	2001	2008	2009	Aldea 2009 – 1996
Araba	29,52	31,93	41,95	42,57	13,05
Bizkaia	26,98	31,02	39,72	39,39	12,41
Gipuzkoa	31,62	36,16	44,77	44,95	13,33

Iturria: Oinarrizko adierazle demografikoak; INE.

28. taula. Ugalkortasun-adierazle koiunturalak (UAK) lurralde historikoetan izandako bilakaera (1996-2009)

Lurralde historikoak	1996	2001	2008	2009	Aldea 2009 – 1996
Araba	0,97	1,03	1,34	1,36	0,38
Bizkaia	0,89	1,00	1,27	1,26	0,37
Gipuzkoa	1,06	1,16	1,40	1,42	0,36

Iturria: Oinarrizko adierazle demografikoak; INE.

Orain begira diezaigun emakume gazteen ugalkortasunari: 1996tik 2009ra bitartean, gazteen ugalkortasun-tasa (GUT) handitu egin zen hiru lurralde historikoetan; bereziki, Araban. Goranzko joera horri esker, 2009an, gazteen ugalkortasun-tasa horrek bere balio handiena lortu zuen Arabako gazteen artean: ama gazteetatik jaiotako 33,6 haur, 15etik 29 urtera bitarteko 1.000 biztanleko —ikus 29. taula—.


Amaitzeko, ikus ditzagun emakume gazteen ugalkortasun-tasa espezifikoak, urtez urte, 1996tik 2009ra bitartean: denboran zehar egindako bilakaerari dagokionez, 2009an, hiru lurralde historikoen 1996ko balioak erreferentziatzat hartuta, tasa horiek gora egin dute, 25 edo 26 urtera arte. Aldiz, 25 eta 29 urte bitartekoenak, ugalkortasun-intentsitateak atzera egin du. Bestaldetik, 2009an, zuzenean progresiboa den ugalkortasun-tasa espezifikoen eta adinaren arteko erlazioak (hura handitzean, tasaren balioa handitzen da) Araban eta Bizkaian zenbait etenaldi azaltzen baditu ere, argi ikusten da ugalkortasun-tasa espezifikoaren balore txikiak nerabeenak direla eta handienak, berriz, 25 eta 29 urte bitartekoenak —ikus 1. grafikoa—.

29. taula. Gazteen ugalkortasun-tasak (GUT) lurralde historikoetan izandako bilakaera (1996-2009)

Lurralde historikoak	1996	2001	2008	2009	Aldea 2009 – 1996
Araba	23,33	21,07	31,88	33,58	10,25
Bizkaia	20,27	19,24	27,49	26,08	5,81
Gipuzkoa	23,90	24,28	31,49	30,88	6,98

Iturria: Oinarrizko adierazle demografikoak, INE.

1. grafikoa. Emakume gazteen ugalkortasun-tasa espezifikoak, adinez-adin, lurralde historikoetan 2009an: adin bakoitzeko ametatik jaiotakoak, adin horretako 1.000 emakumeko



3. Eskualdeak

Jaiotza-tasari eta ugalkortasunari dagokion hogei eskualdeetarako argitaratutako informazio estatistikoa askoz ere urriagoa da, EAERI eta lurralde historikoei buruz eskuragarri dagoena baino. Zehazki, epigrafe honetan erabiliko ditugun datuak Euskal Estatistika Erakundearenak dira (EUSTAT), eta jaioberrien kopuruari, jaiotza-tasa gordinari, ama izateko batez besteko adinari, ezkontuta ez dauden ametatik jaiotako umeei eta ugalkortasun-adierazle koiunturalari buruzkoak dira. Ekin diezaiozun eskualdeen araberrako azterketari, jaiotza-tasaren bilakaerari erreparatu.

Jaioberrien kopurua handitu egin zen eskualde guztietan, 1996tik 2009ra bitartean, eta Arabako hiru eskualderen portzentajezko hazkundeak nabarmentzekoak dira: Arabako eskualdeak (% 183,3), Zuia-Gorbeialdea (% 104,8) eta Arabako Errioxa (% 101,4). Nolanahi ere, azken urteei begira, krisi ekonomikoaren hasierarekin, 2008tik 2009ra bitarteko aldakuntza negatiboa izan da 11 eskualdetan; haien artean Plentzia-Mungiaren (–% 7,7) beherakada nabarmentzen da. Labur esanda, badirudi dinamika ekonomikoak jaiotza-tasa baldintzatu duela: positiboki ekonomia hazten denean, eta negatiboki atzerapen ekonomikoa daterenean —ikus 30. taula—.

30. taula. Jaioberrien kopuruaren bilakaera eskualdeetan (1996-2009): kopuru absolutuak eta portzentajezko aldakuntzak

Eskualdeak	1996	2008	2009	▲% 2009/1996
Arabako Kantaurialdea	233	316	311	33,48
Zuia-Gorbeialdea	42	84	86	104,76
Arabako Lautada	1.868	2.633	2.615	39,99
Arabako Mendialdea	17	19	18	5,88
Arabako Errioxa	71	116	143	101,41
Arabako Ibarrek	18	41	51	183,33
Arratia Nerbioi	141	237	241	70,92
Enkarterriak	181	304	294	62,43
Bilboaldea	6.266	7.966	7.724	23,27
Plentzia-Mungia	400	666	615	53,75
Gernika-Bermeo	293	430	440	50,17
Markina-Ondarroa	191	242	248	29,84
Durangaldea	676	1.016	978	44,67
Goierri	516	794	793	53,68
Debagoiena	493	596	609	23,53
Debarrena	393	517	538	36,90
Urola Kosta	594	885	886	49,16
Tolosaldea	399	569	545	36,59
Donostialdea	2.551	3.047	2.994	17,37
Bidasoa Beherea	644	837	799	24,07
EAE	15.987	21.315	20.928	30,91

Iturria: Populazioaren mugimendua, jaiotzak. Datu-bankua, EUSTAT.

Baina, zer eskualdetan kontzentratzen dira Euskadiko jaiotzak? Bilboalde nabarmentzen da (% 36,9); izan ere, eskualde horretako jaiotzek aise bikoizten dituzte Donostialdekoak (% 14,3), eta Arabako Lautadakoak hirukoizten dituzte (guztizkoaren % 11,7). Guztira, hiriburuei dagozkien hiru eskualdeetan jaio ziren 2009n Euskadin jaiotako hiru umetatik bi (guztizkoaren % 62,9).

Ezagut dezagun jaiotza-tasaren fenomenoaren intentsitatea eskualdeetako populazioaren artean, jaiotza-tasa gordinaren bidez. Adierazle hori eskualde guztietan hazi zen aztertutako aldian. Gure begirada analitikoa 2009an jartzen badugu, balio handienak Urola Kostan (12,3 jaioberri, 1.000 biztanleko) eta Arabako Errioxan (12,7 jaioberri, 1.000 biztanleko) ageri direla ikus daiteke. Aldiz, txikienak Arabako Mendialdean (5,6) eta Bilboaldean (8,8 jaioberri, 1.000 biztanleko) ematen dira —ikus 31. taula—.

Bestalde, ama izateko batez besteko adina⁵ hazi egin zen ia eskualde guztietan laurogeita hamarretako hamarkadaren bigarren erdialdean, Arabako Mendialdean izan ezik; eskualde horretan murriztu egin zen (−0,9 urte). Nabarmentzekoa da hazkunde handienak Arabako Kantaurialdean (+1,4 urte) eta Gernika-Bermeon izan direla (+1,2 urte). Aldia

⁵ EAEri eta lurralde historikoei buruzko aurreko bi ataletan, lehen aldiz ama izateko batez besteko adina aztertu dugu: hemen, ama izateko batez besteko adina erabiltzen dugu, argitaratutako eskualde-adierazlea izateagatik. 1995-1996rako eta 2000-2001erako biurteko batez bestekoa da; izan ere, EUSTATEk ez du datu eguneratuagorik ematen. Euskal Estatistika Erakundearen arabera, amen batez besteko adina da bizi diren jaioberriak dituzten unean, ugalkortasun orokorreko taularen arabera, hau da, heriotzarik ez dagoenean.

31. taula. Jaiotza-tasa gordinak (JTG) eskualdeetan izandako bilakaera (1996-2009)

Eskualdeak	1996	2008	2009	Aldea 2009 – 1996
Arabako Kantaurialdea	6,91	9,33	9,13	2,22
Zuia-Gorbeialdea	7,00	10,22	10,27	3,27
Arabako Lautada	8,30	10,63	10,40	2,10
Arabako Mendialdea	5,41	5,98	5,65	0,24
Arabako Errioxa	7,35	10,28	12,67	5,32
Arabako Ibarrak	4,35	7,45	9,17	4,82
Arratia Nerbioi	6,67	10,34	10,40	3,73
Enkarterriak	6,08	9,82	9,41	3,33
Bilboalde	7,06	9,12	8,81	1,75
Plentzia-Mungia	9,10	12,84	11,62	2,52
Gernika-Bermeo	6,60	9,42	9,59	2,99
Markina-Ondarroa	8,47	9,12	9,30	0,83
Durangaldea	7,49	10,64	10,15	2,66
Goierri	7,99	11,81	11,72	3,73
Debagoiena	7,76	9,66	9,83	2,07
Debarrena	6,91	9,44	9,80	2,89
Urola Kosta	9,26	12,45	12,28	3,02
Tolosaldea	9,01	12,20	11,56	2,55
Donostialdea	8,15	9,45	9,23	1,08
Bidasoa Beherea	9,24	10,84	10,32	1,08
EAE	7,62	9,88	9,63	2,01

Iturria: Populazioaren mugimendua, jaiotzak. Datu-bankua, EUSTAT.

amaitzean, informazio estatistikoa argitaratu zuen EUSTATEk: 2000-2001 biurtekoan, ama izateko batez besteko adinak⁶ 31 urteko atalasea gainditu du eskualde guztietan eta, bereziki, Arabako Kantaurialdean, Zuia-Gorbeialdean (bietan 32,6 urte) eta Debagoienan (32,7 urte), xxi. mendearen hasierako balioak handiak izan baitira —ikus 32. taula—.

1996 eta 2009 artean, ezkondata ez zeuden ametatik jaiotako umeak fenomeno soziodemografikoa dira, eskualde guztietan gora egin du tasa horrek, urteko erditze guztiekiko. Zehazki, 1996an, baliorik apalena Arabako Ibarretan aurki daiteke (% 5,6) eta garaiena Markina-Ondarroan (% 14,7); 2009an, ehuneko horiek gora egin zuten nabarmen. Ehunekorik baxuena Enkarterrietakoa izan zen (% 25,2) eta altuena Arabako Errioxakoa (% 36,4). Nolanahi ere, konparazio berrienean, 2008tik 2009ra bitartekoan, aldakuntza anibalentea izan da; izan ere, ezkontzatik kanpo izandako jaiotzen hazkundea izan duten eskualdeak nabarmentzen dira, eta beste eskualde batzuetan behera egin du, guztizkoarekiko: lehenengoen artean azpimarratzekoa da Arabako Errioxa (+11,4 puntu); eta, bigarrenengoen artean, berriz, Arabako Mendialdea (−8,8 puntu).

32. taula. Ama izateko batez besteko adinaren bilakaera eskualdeetan (1995-1996tik 2000-2001era)

Eskualdeak	1995-1996	2000-2001	Aldera 2000-2001 – 1995-1996
Arabako Kantaurialdea	31,2	32,6	1,40
Zuia-Gorbeialdea	31,8	32,6	0,80
Arabako Lautada	31,1	32,0	0,90
Arabako Mendialdea	32,2	31,3	−0,90
Arabako Errioxa	30,6	31,2	0,60
Arabako Ibarrak	31,0	31,6	0,60
Arratia Nerbioi	31,2	32,3	1,10
Enkarterriak	30,9	31,8	0,90
Bilboaldea	31,3	32,2	0,90
Plentzia-Mungia	31,5	32,5	1,00
Gernika-Bermeo	31,0	32,2	1,20
Markina-Ondarroa	31,2	31,9	0,70
Durangaldea	31,4	32,3	0,90
Goierrí	31,3	31,9	0,60
Debagoiena	31,8	32,7	0,90
Debabarrena	31,6	32,4	0,80
Urola Kosta	31,1	32,0	0,90
Tolosaldea	31,6	32,2	0,60
Donostialdea	31,4	32,3	0,90
Bidasoa Beherea	31,1	31,7	0,60
EAE	31,3	32,2	0,90

⁶ Ama izate batez besteko adina 30,7 urtekoa da, 2000rako eta 2001erako (Iturria: Oinarrizko adierazle demografikoak. INE).

Atal hau amaituko dugu eskualdeetan bizi diren 15etik 49 urtera arteko emakumeen ugalkortasuna aipatuz, Euskal Estatistika Erakundeak 2000-2001 biurtekora arteko informazioa soilik badu ere. Mende honen hasierako eta 1995/1996 urteetako datuak konparatzean, ikus dezakegu potentzialki ugalkorra den taldeko emakume bakoitzeko seme-alaben batez besteko kopuruak aurrera egin duela eskualde guztietan, eta, bereziki, Arratia Nerbioin (+0,3 puntu), Arabako Mendialdean eta Goierri (+0,2 puntu). 2000-2001 biurtekoan, ugalkortasun-adierazle koiunturala 0,7tik (Arabako eskualdeak) 1,3ra doa (Goierri, Tolosa eta Urola Kosta), 15etik 49 urtera bitarteko emakumeko; gainera, aipatzen da, hamalau eskualdetan, ugalkortasun-adierazle koiunturalak emakume bakoitzeko seme-alaba 1en batez bestekoa berdintzen edo gainditzen duela, 1995-1996an, zazpi eskualde-eremutan soilik lortu zela kontuan hartuta —ikus 33. taula—.

33. taula. Ugalkortasun-adierazle koiunturalak eskualdeetan izandako bilakaera (1995-1996tik 2000-2001era)

Eskualdeak	1995-1996	2000-2001	Aldera 2000-2001 – 1995-1996
Arabako Kantaurialdea	0,83	0,94	0,11
Zuia-Gorbeialdea	1,08	1,13	0,05
Arabako Lautada	0,96	1,05	0,09
Arabako Mendialdea	0,67	0,87	0,20
Arabako Errioxa	1,02	1,19	0,17
Arabako Ibarrek	0,66	0,72	0,06
Arratia Nerbioi	0,85	1,12	0,27
Enkarterriak	0,79	0,93	0,14
Bilboaldea	0,87	0,98	0,11
Plentzia-Mungia	1,11	1,18	0,07
Gernika-Bermeo	0,89	1,07	0,18
Markina-Ondarroa	0,91	1,00	0,09
Durangaldea	0,93	1,07	0,14
Goierri	1,04	1,26	0,22
Debagoiena	0,97	1,09	0,12
Debarrena	0,90	1,08	0,18
Urola Kosta	1,20	1,29	0,09
Tolosaldea	1,12	1,27	0,15
Donostialdea	0,99	1,10	0,11
Bidasoa Beherea	1,07	1,18	0,11
EAE	0,92	1,03	0,11

Iturria: Adierazle demografikoak, EUSTAT.

4. Ondorioak

2009an, Euskadin bizi diren ametatik 20.905 haur jaio ziren; hau da, Espainiako jaiotza guztien % 4,2. 1996 erreferentziatzat hartuta, jaioberrien kopuruak nabarmen gora egin zuen, baina Euskadin zertxobait gutxiago, Estatuan baino: % 30,1 eta % 36,5, hurrenez hurren. Hiru lurralde historikoe-tan, jaioberrien kopuruak bilakaera positiboa izan zuen aldi berean, Araban intentsitate askoz handiagoa izan bazuen ere (hazkunderen % 43,3). Hain zuzen ere, jaiotza-tasaren gorakada orokorra ezaugarri nagusia duen eskualde-eremuan, hazkunde handienak Arabako hiru eskualdetan izan dira: Arabako eskualdeak (% 183,3), Zuia-Gorbeialdea (% 104,8) eta Arabako Errioxa (% 101,4). Nolanahi ere, 2008tik 2009ra bitartean, jaiotza-tasa ia orokorrean jaitsi zen: jaioberrien kopuruak behera egin zuen, bai Euskadin (–% 1,9), bai Estatuan (–% 4,8), bai eta Bizkaian (–% 3) zein Gipuzkoan (–% 1,3) ere. Araban, pixka bat gora egitea lortu zuen (% 0,4). Aldi berean, jaiotza-tasak behera egin zuen 11 eskualdetan. Haien artean nabarmenak dira Plentzia-Mungia (–% 7,7) eta Arabako Mendialdea (–% 5,3) beherakada handienak izateagatik. Hortaz, badirudi hazkunde ekonomikoaren azken zikloak, hau da, 1997tik 2007ra artekoak, jaiotza-tasaren aurrerapen orokorrean lagundu zuela. Alde horretatik, fase atzerakorrekarako ziklo ekonomikoaren azken aldaketa bat dator jaiotza-tasaren beherakadarekin: gure ustez,

langabeziaren, pobrezia materialaren eta, orokorrean, ziurgabetasun ekonomikoaren hazkunderak kontrako egoera eratzen dute ugalkortasun gaitasuna dutenen jokaera natalistarako.

Jaiotza-tasa gordinari dagokionez, aztertutako al-dian, gehiago hazi zen Euskadin, Espainian baino; baina, hala ere, jaiotza-tasak garrantzi demografiko txikiagoa du EAEn: 2009an, 9,8 ume jaio dira Eus-kadin eta 10,7 Estatuan, 1.000 biztanleko. Lurralde historikoen esparruan, jaiotza-tasa gordinak Araban eta Gipuzkoan lortu zituen bere balio handienak: 10,4 jaioberri 1.000 biztanleko, 2009an, Bizkaiko balioa baino puntu bat gehiago (9,3 jaioberri 1.000 biztanleko). Halaber, eskualdeei begira, balore han-dienak Urola Kostan (12,3) eta Arabako Errioxan (12,7) ageri dira; aldiz, txikiak Bilboaldean (8,8) eta Arabako eskualdean daude (5,6 jaioberri 1.000 biztanleko, 2009an).

Aztertutako aldiko jaiotza-tasa orokorraren hazkun-dearen aldean, 15etik 29 urte bitarteko ametatik jaiotako jaioberrien kopuruaren bilakaera oso nega-tiboa izan zen, bereziki, Euskadin: 1996tik 2009ra bitartean, –% 13,1 eta –% 4,9 murriztu ziren Espai-nian. Lurralde historikoetan, ama gazteen jaiotza-tasaren bilakaera dibergentea izan zen: hau da, po-sitiboa Araban (% 5,4), baina negatiboa Bizkaian (–% 16,9), bai eta Gipuzkoan ere (–% 15,4); lurral-

deen arteko alde hori azken atzera begiratzean ere ageri da, hau da, atzerapen ekonomikoaren hasie-rarekin batera sortu da: 2008tik 2009ra bitartean, 15etik 29 urtera bitarteko ametatik jaiotako kopuruak hazi egin zen Araban (% 2,4), eta atzera egin zuen Bizkaian (–% 8,8) eta Gipuzkoan (–% 5) atze-rakaden aldean. Gazteen jaiotza-tasaren atzeraka-dak 15etik 29 urtera bitarteko ametatik jaiotako garrantziaren galera eragin du, jaiotzen guztizkoan: Euskadin, % 33,9 osatzen zuten 1996an, eta jaiotako guztien % 22,5era jaitsi ziren 2009an (20.905 jaioberritik, 4.707). Halaber, aipatzekoa da ama gazteetatik jaiotakoek proportzio handiagoa dutela Estatuan: 2009an, % 33,7 dira, 11,2 puntu Euska-diko portzentajearen gainetik (% 22,5). Lurralde his-torikoetan, Araba nabarmentzen da garrantzi erlati-bo handiena izateagatik (% 26,1); aldiz, Bizkaia txikiak izateagatik nabarmentzen da (guztizkoaren % 21,5).

Orokorrean, ama gazteen jaiotza-tasaren atzeraka-da lehen umea erditzeko adina atzeratzeko joeraren ondorioa da, batez ere: 1996 eta 2009 artean, Eus-kadin, lehen jaiotzaren batez besteko adina ia urte-bete hazi zen (30,2 urtetik, 31,1 urtera) eta, Espai-nian, urtebete baino pixka bat gehiago handitu zen (28,4 urtetik, 29,6 urtera); Euskadiko amek Espai-niakoek baino beranduago dute lehen umea (+1,4 urte 2009an). Lurralde historikoetan, lehen seme-

alabaren jaiotza atzeratzeko joera sozial horrek hiru eremuetan du eragina. Bizkaian bizi diren emakumeak nabarmentzen dira, lehen umea izatean, batez besteko adin handiena izateagatik (31,2 urte 2009an).

Beste aldetik, aipatzekoa da ezkondata ez dauden ametatik (ezkongabeak, alargunak edo dibortziatuak) jaiotakoak kopurua nabarmen handitu zela, % 288,3ko proportzioarekin Euskadin, eta % 302,8ko proportzioarekin Espainian, jaiotza-tasa orokorraren gorakadari lagunduta, 1996 eta 2009 artean. Goranzko bilakaera horren ondoren, 2009an, ezkondu gabeko ametatik jaiotakoek Euskadin bizi diren ametatik jaiotakoak % 31,2 ziren; 1996an % 10,5 soilik zirela kontuan hartuta. Aldiz, Espainian, haien garrantzia pixka bat gehiago hazi zen (% 11,7tik 1996an, % 34,5era 2009an). Lurralde historikoetan, % 30,4tik (Gipuzkoan) % 32,2ra doaz (Arabak). Eskualdeetan, % 25,2 (Enkarterriak) eta % 36,4 (Arabako Errioxa) artekoak dira, 2009an izandako jaiotza guztiei dagokienez.

15etik 29 urtera bitarteko emakumeen artean, ezkondu gabeko ametatik jaiotakoak kopuruak ere nabarmen egin zuen aurrera: % 175,2 Euskadin, Espainian pixka bat gehiago hazi zen bitartean (% 214,7). Halaber, ama gazteen artean, haien garrantzi erlatiboa % 15,1etik % 47,9ra handitu zen eta, Espainian, berriz, % 15etik % 49,6ra, 15etik 29 urtera bitarteko ametatik jaiotako guztiei dagokienez. Lurralde historikoetan, ezkondata ez dauden ametatik jaiotako umeak % 42,3 dira Gipuzkoan eta % 53,2 Bizkaian, 2009an 15etik 29 urtera bitarteko umeen jaiotza guztiekiko. Labur esanda, XXI.

mendearen lehen hamarkadaren amaieran, amaren adina adierazi gabe, hiru jaioberritik bat ezkondu gabeko amenak ziren eta, ama gazteak kontuan hartzen baditugu, bi jaiotzetik bat ezkontzatik kanpo gertatzen dira. Horrek guztiak adierazten digu amatasunaren desinstituzionalizazioranzko aldaketa sozial garrantzitsua.

Bestalde, atzerriko emakumeek ere nabarmen lagundu dute jaiotza-tasa orokorraren hazkundera, 1996 eta 2009 artean. Zehazki, ama atzerritarretatik jaiotakoak asko hazi ziren; gehiago Euskadin (% 1.039) Espainian baino. 2008 eta 2009 artean, Euskadin % 4,9 hazi ziren; Estatuan, berriz, -% 5,2 murriztu ziren joeraren kontrako bilakaera. Aztertutako aldia 2009an amaitzerakoan, ama atzerritarretatik jaiotakoak % 15,2 dira Euskadin, jaiotza guztiekiko; baina, Estatuan hartutako garrantzia kontuan hartuz gero (% 20,7), EAEn oraindik gehiago hazteko modua dagoela pentsa dezakegu. Lurralde historikoen artean, Araba nabarmentzen da. Bertan, atzerriko amak 2009an izandako jaiotza guztien % 23,2 dira, Bizkaian (% 14,8) eta Gipuzkoan (% 12,4) hartzen duten adierazpen erlatiboaren ia bikoitza.

Halaber, amaren herritartasunaren arabera jaiotza-tasak jaiotzen fenomenoaren eragin handiagoa adierazten digu atzerriko populazioaren artean, Espainiakoaren artean baino. Aldea handiagoa da Euskadin: 2009an, amaren herritartasunaren arabera jaiotza-tasen arteko desoreka 18 puntukoa da (26,8 jaioberri 1.000 atzerritarreko, eta 8,8 jaioberri 1.000 espainiarreko). Lurralde historikoetan, populazio atzerritarraren aldeko jaiotza-tasa handiena

Arabakoa da: 61,5 jaioberri 1.000 biztanle atzerritarreko, eta 16,9 jaioberri 1.000 espainiarreko. Labur esanda, atzerriko emakumeek jaiotza-tasaren berragertzean lagundu dute 1996tik aurrera, eta Espainiakoek baino dezente indar handiagoarekin egin dute.

15etik 49 urtera bitarteko emakumeen ugalkortasunari dagokionez, ugalkortasun-tasa orokorra nabarmen hazi zen 2008ra arte. Hurrengo urtean, berriz, 2009an, bere balioari eutsi zion Euskadin, eta murriztu egin zen Espainian. Gainera, tasaren balioak lurralde konbergentziarantz bilakatu dira: 2009an, Espainiako ugalkortasun-tasa orokorraren aldeko aldea 1,4 puntukoa da soilik (43,1 jaioberri, 15etik 49 urtera bitarteko 1.000 emakumeko Espainian, eta 41,6 EAEn). 1996tik 2009ra bitartean, tasa hori 13 jaioberri inguru hazi zen, 15etik 49 urtera bitarteko 1.000 emakumeko, lurralde historikoetan. Horrenbestez, 2009an, ugalkortasun-tasa handiena Gipuzkoan bizi diren emakumei dagokie (44,9 jaioberri, 15etik 49 urtera bitarteko 1.000 emakumeko), eta txikiena Bizkaian bizi direnei (39,4 jaioberri, 15etik 49 urtera bitarteko 1.000 emakumeko).

Aztertutako aldi horretan, ugalkortasun-adierazle koiunturalak bilakaera positiboa izan zuen: 1,3 seme-alaba emakumeko Euskadin, 2009an; Espainiako batez bestekoa baino pixka bat txikiagoa (1,4 seme-alaba emakumeko). Hiru lurralde historikoetan ugalkortasun-adierazle koiunturala antzekoa dute: txikiena Bizkaian (1,3 seme-alaba emakumeko) eta handiena Gipuzkoan (1,4 seme-alaba emakumeko). Aipatzekoa da, 1996tik 2009ra bitar-

tean, aztertutako lurraldeetako ugalkortasun-adierazle koiunturalaren balioak beti egon direla belau-naldien arteko ordezkapen-tasaren (2,1 haur emakumeko) nabarmen azpitik. Batez besteko ugalkortasun horrek populazioaren ordezkapena bermatuko luke berez, dinamika begetatiboaren bidez (jaiotzak minus heriotzak).

Emakume gazteei dagokienez, haien Ugalkortasun tasa handitu egin zen, 1996tik 2008ra bitartean, baina, hurrengo urtean, atzera egin zuen pixka bat Euskadin, eta asko Estatuan. 2009an, gazteen ugalkortasun-tasa 28,7 jaioberrikoa da, 15etik 29 urtera bitarteko 1.000 emakumeko. Ugalkortasun-intentsitate hori 11 puntu txikiagoa da Espainiako gazteena baino (39,8 1.000 emakumeko). Hiru lurralde historikoetan, tasa horren balioa handitu egin zen; hori bai, indar handiagorekin Araban. Horregatik, 2009an, gazteen ugalkortasun-tasak bere balorerik handiena lortu zuen hegoaldeko lurraldeko gazteen artean: ama gaztetik jaiotako 33,6 ume 15etik 29 urtera bitarteko 1.000

emakumeko; aldiz, txikiena mendebaldeko lurraldean izan zen (26,1 jaioberri 1.000 emakumeko Bizkaian). Aipatzekoa da gazteen ugalkortasunaren hazkundea 25 urtera arte gertatu zela; heldutasunera iristen ari diren emakumeek, berriz, atzera egin zuten.

Emakumearen herritartasunak ugalkortasun-intentsitatea baldintzatzen du: beherantz espainiarren kasuan, eta gorantz atzeritarrei dagokienez. 2009. urteari dagokionez, Euskadin, atzerriko emakumeek haur batean gainditzen dute Espainiako herritartasuna dutenen ugalkortasun-adierazle koiunturala (2,1 eta 1,2 ume emakumeko, hurrenez hurren). Aldiz, Espainiako ugalkortasun-adierazle koiunturalari begira, atzeritarren aldeko desoreka 0,3koa da (1,6 eta 1,3 ume emakumeko, hurrenez hurren). Gainera, aipatzekoa da atzeritarren batez besteko ugalkortasuna belaunaldi arteko ordezkapen-tasaren balioraino hazi dela Euskadin (2,1), Estatuan, ordea, espainiarren ugalkortasun-adierazle koiunturalera hurbildu da.

Bibliografia

BILBAO GAZTAÑAGA, Miren: *Euskadiko gazteak 2008*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, 2008. Webgune honetan eskuragarri: http://www.gazteaukera.euskadi.net/r58-7651x/eu/contenidos/informacion/gazteak_bilduma/eu_liburuak/adjuntos/Juventud_vasca_2008_e.pdf [Kontsulta data: 2012/5/18]

ESPAINIA: *Ley Orgánica 2/2010 de 3 de marzo, de salud sexual y reproductiva y de la interrupción voluntaria del embarazo*. Boletín Oficial del Estado, 2010eko martxoaren 4a, 55. zk., I. atala, 21001. or. Webgune honetan eskuragarri: <http://www.boe.es/boe/dias/2010/03/04/pdfs/BOE-A-2010-3514.pdf> [Kontsulta data: 2012/5/18]

Fecundidad y valores en la España del siglo XXI. Estudio n.º 2639: Tablas de resultados. Madrid: Centro de Investigaciones Sociológicas. Webgune honetan eskuragarri: http://www.cis.es/cis/open/cm/ES/1_encuestas/estudios/ver.jsp?estudio=6478&cuestionario=7532&muestra=12564 [Kontsulta data: 2012/5/18]

“Jaiotza tasa eta ugalkortasuna”. In *Gazteen adierazleak 2007*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, 2007. Webgune honetan eskuragarri: http://www.gazteaukera.euskadi.net/r58-7651x/eu/contenidos/informacion/gazteen_panoramika/eu_liburuak/adjuntos/Indicadores_2007/05E.pdf [Kontsulta data: 2012/5/18]

MACINNES, John & PÉREZ DÍAZ, Julio (2008): «La tercera revolución de la modernidad; la revolución reproductiva», in *Revista Española de Investigaciones Sociológicas* (REIS) 122. zk. Madril: CIS - Ikerkuntza Soziologikoen Zentroa, 89-118 or.

TRABADA CRENDE, Elías, “Jaiotzak eta ugalkortasuna”. In *Gazteen adierazleak 2009*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, 2010. Webgune honetan eskuragarri: http://www.gazteaukera.euskadi.net/r58-7651x/eu/contenidos/informacion/gazteen_panoramika/eu_liburuak/adjuntos/Indicadores_2009/Cuaderno_05_e.pdf [Kontsulta data: 2012/5/18]

“Valores e identidades”. *Estudio INJUVE EJ132, Tablas de resultados*. Madril: Instituto de la Juventud, 2008, 12. or. Webgune honetan eskuragarri: <http://www.injuve.es/contenidos/downloadatt.action?id=427073662> [Kontsulta data: 2012/5/18]






Gazteen adierazleak 2011

Osasuna 06







Gazteen adierazleak 2011 dokumentuaren seigarren atala EAEn bizi diren gazteen osasunari dagokio. Aztertutako zenbait adierazle kuantitatibotan, lurralde historikoen mailara arte xehatu ditugu datuak. Askotan Espainiari dagokionez ez daukagunez informazio konparagarriarik, ez dugu estatuspegiak aztertuko; bakarrik landuko dugu laugarren atalean, haurdunaldiaren borondatezko etendurei dagokiena, hain zuzen ere.

Zehazki, euskal gazteen osasunari buruzko lehen atalean, espezialitatearen arabeko kontsulta medikoak aztertuko ditugu. Ondoren, drogazaletasunaren tratamenduen hasierari buruzko datu estatistikoak aztertuko ditugu, droga motaren arabera, eta, azkenik, GIB infekzio berriak ikusiko ditugu, transmisio modua kontuan izanda. Alderdi horiek guztiak 15 eta 29 urte arteko pertsonen artean aztertuko ditugu, sexuen arteko aldeei eta bost urteko adin taldeei erreparatuta.

Orokorrean, Eusko Jaurlaritzako Osasun eta Kontsumo Sailak sortutako informazio estatistikokoan oinarrituta daude hurrengo orrialdeetako tauletan zein grafikoetan jasotako adierazleak. Datu estatistiko horiek erakundearen erregistro espezializatuaren edo EAEko osasun-inkestan dute jatorria. Informazio ofizial hori Gazteen Euskal Behatokiak ustiatzen du estatistikoki, eta bertako adierazle-sistematik¹ atera ditugu atal honetan erabilgaitako ia datu kuantitatibo guztiak. Denbora-esparrua ez da homogeneoa, osasunari dagokionez erabilgarri dauden datu ofizialen arabera baita 1997 eta 2007 artean, kontsulta medikoetarako; 1996 eta 2009 artean, drogazaletasunaren tratamenduen hasieretarako; 2000 eta 2010 artean, euskal gazteen artean GIB infekzio berrietarako; eta azkenik, 1996tik 2009ra, HBEetarako.



¹ http://www.gazteaukera.euskadi.net/r58-7657/es/contenidos/informacion/estadistikak_eae/es_6778/estadisticas_capv.html




1. Kontsulta medikoak

1997 eta 2007 artean, Euskadin bizi diren 15 eta 29 urte arteko gazteek egindako kontsulta medikoen portzentajezko garrantzia murriztu egin zen, euskal herritarrek egindako kontsulta mediko guztiei dagokienez; zehazki, ehunekoa 5 puntu murriztu zen, guztizkoaren % 15,6tik % 10,6ra —ikus 1. grafikoa—.

Adierazle horrek –% 19,4ko murrizketa izan zuen bi sexuetan, eta emakumezkoen atzerakada (–% 25) gizonezkoena baino handiagoa izan zen (–% 12,5) —ikus 1. taula—.

Hasiera batean, pentsa liteke 15 eta 29 urte arteko taldeak Euskadin izandako beherakada demografikoaren bigarren mailako ondorioa dela, horren kopurua nabarmen murriztu baitzen etapa horretan: 1996 eta 2008 artean, –% 30,2; euskal populazio osoa, aldiz, hazi egin zen etapa berean (% 2,8).

1. grafikoa. EAĒko 15 eta 29 urte arteko gazteek egindako kontsulta medikoen bilakaera, EAĒn egindako kontsulta mediko guztiekiko (1997-2007)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia, Osasun eta Kontsumo Sailak emandako EAĒko Osasun Inkestako (EAEOI) datuak oinarri hartuta.

15 eta 29 urte arteko taldearen bost urteko hiru adin taldeak kontuan hartuz gero, kontsulta medikoen benetako beherakada 25 urtetik beherakoan artean gertatu zela ikus daiteke; hau da, 15 eta 24 urte arteko pertsonen artean. Aldiz, bilakaera positiboa 25 eta

29 urte arteko pertsonen artean izan zen, neurrizko gorakadarekin (% 6,5) —ikus 2. taula—.

Hurrengo adierazleari esker, egiazta dezakegu EAEn bizi diren 15 eta 24 urte arteko pertso-

nek egindako kontsulta medikoen kopuruaren beherakada ez dagoela gazteek zerbitzu medikoei uko egitearekin edota horiei biguina izatearekin lotuta, baizik eta aurretik aipatutako beherakada demografiko garrantzitsuaren ondorio dela.

1. taula. 15 eta 29 urte bitarteko gazteek EAEn egindako kontsulta medikoen kopuruaren bilakaera, sexuaren arabera (1997 eta 2007): kopuru absolutuak eta portzentajeak aldakuntzak

Sexua	1997	2002	2007	▲% 2007/1997
Gizonezkoak	1.169.759	1.115.845	1.023.672	-12,49
Emakumezkoak	1.463.122	1.312.117	1.097.148	-25,01
Bi sexuak	2.632.881	2.427.962	2.120.820	-19,45

Iturria: Gazteen Euskal Behatokia, Osasun eta Kontsumo Sailak emandako EAEko Osasun Inkestako (EAE01) datuak oinarri hartuta.

2. taula. 15 eta 29 urte bitarteko gazteek EAEn egindako kontsulta medikoen kopuruaren bilakaera, adin-taldearen arabera (1997-2007): kopuru absolutuak eta portzentajeak aldakuntzak

Adin-taldeak	1997	2002	2007	▲% 2007/1997
15 a 19 urte	871.063	625.393	601.198	-30,98
20 a 24 urte	870.669	783.793	570.674	-34,46
25 a 29 urte	891.149	1.018.776	948.948	6,49

Iturria: Gazteen Euskal Behatokia, Osasun eta Kontsumo Sailak emandako EAEko Osasun Inkestako (EAE01) datuak oinarri hartuta.

Gazteen adierazleak 2011

Alde horretatik, kontsulta medikoen tasa (gazteek egindakoen kopurua) hazi egin zen, orokorrean, 1997 eta 2007 artean, bi sexuetan (gehiago gizonezkoetan) zein hiru adin taldeetan —ikus 3. taula—.

Gazteen Euskal Behatokiak 2006an egindako *Osasuna eta gazteak* ikerketatik² ateratako zenbait ohar: elkarriketatutako 15 eta 29 urte arteko gaz-

teen % 86,9k adierazi zuten haien osasuna ona edo bikaina zela, eta soilik % 10,3k adierazi zuten gaixotasun kronikoa edo minusbaliotasun fisikoa zutela.

Zerbitzu medikoei dagokienez, elkarriketatutako gazteen % 70 sendagilearengana joan zen azken urtean; bisita hori ohikoagoa izan zen emakumezkoetan, gizonezkoetan baino (% 73,6 eta % 66,1, hurrenez hurren).

Itzul gaitzeen analisi deskribatzailerara, eta azter dezagun gazteek egindako kontsulten urteko banaketa, espezialitate medikoen arabera: 1997 eta 2007 konparatzerakoan, kontsulten guztizkoari dagokionez, medikuntza orokorreko espezialitateen adierazpena handitu egin zela ikus daiteke (+7,8 puntu). Aldiz, dentistaren (−3,8 puntu) eta «bestelako» kontsulten portzentajezko garrantzia murriztu egin zen. Edozer kasutan, aztertutako aldian, gazteek

3. taula. Gazteen kontsulta medikoen tasak* EAEen izandako bilakaera, sexuaren eta adin-taldearen arabera (1997-2007)

Sexua eta adin-taldeak	1997	2007	Aldea 2007-1997
Gizonezkoak	4.576,49	5.548,51	972,02
Emakumezkoak	6.006,84	6.258,60	251,76
Bi sexuak	5.274,43	5.894,48	620,05
15-19 urte	5.877,36	6.794,50	917,14
20-24 urte	4.892,35	4.993,12	100,77
25-29 urte	5.150,96	6.043,39	892,43

(*) Kontsulta medikoen tasa = adin/sexu bereko 1.000 biztanleko kontsulta kopurua.

Iturria: EAEko Osasun Inkesta. (ESCAV), Osasun eta Kontsumo Saila; Gazteen Euskal Behatokia. 1996/5/1eko Biztanleen Udal Erroldaren Berritzea, eta 1998/1/1ean, 2007/1/1ean eta 2008/1/1ean egindako Udal Erroldaren Azterketak, EIN.

² GAZTEEN EUSKAL BEHATOKIA: *Osasuna eta gazteak. Euskadiko gazteen ikusmoldeak osasunari buruz.*

egindako kontsulta gehienak medikuntza orokorra-
ren ingurukoak izan ziren; bitik bat, gutxi gorabehera
(% 40,6tik 1997an, % 48,4ra 2007an) —ikus 4. taula—.

Sexuari dagokionez, aldea ginekologian eta trau-
matologian indartzen da: lehen espezialitatera
emakumezkoak joaten dira, eta bigarrenak garran-
tzi handiagoa du gizonezko gazteen artean; agian,
nolabaiteko arrisku traumatologikoa duten kirol-
jarduerak ohikoagoak direlako haien artean.

EAEko gazteek egindako kontsulta medikoei
buruzko datuak aztertu ondoren, euskal gazteriak
osasuna arazo pertsonal gisa hartzen ote duenaren
galdera sortu zaigu. Prospekzio Soziologikoen Ka-
binetearen Gazteen Argazkiak seriearen arabera,
«osasunak edo osasungintzak» 2006an elkarriket-
tatutako gazteen % 7 soilik kezkatzen du pertsonal-
ki. Lau urte geroago, 2010eko galdeketa, ehune-
koa lagingaren % 13ra arte handitu zen, eta kuota
handiagoa zuen elkarriketatutako 26 eta 29 urte

arteko pertsonen artean (% 15)³. Edozein kasutan,
dirudienez, osasuna edo osasungintza ez da arazo
pertsonal garrantzitsua euskal gazterientzat. Ho-
rrek ez du esan nahi euskal gazteentzat osasuna
garrantzitsua ez denik; izan ere, arestian aipatutako
eta Gazteen Euskal Behatokiak sustatutako *Osa-
suna eta gazteak* ikerketan, 0 (garrantzirik ez) eta 10
(oso garrantzitsua) arteko eskalan, osasunak
9,1eko balorazioa jaso zuen 15 eta 29 urte arteko
pertsonen artean⁴.

4. taula. Gazteek urtean egindako kontsulta medikoen banaketaren bilakaera EAEan, espezialitatearen
eta sexuaren arabera (1997-2007)

Espezialitatea	1997			2007			2007 – 1997	
	Gizonezkoak	Emakumezkoak	Aldea G – E	Gizonezkoak	Emakumezkoak	Aldea G – E	Aldea Gizonezkoak	Aldea Emakumezkoak
Dentista	21,90	27,60	–5,70	22,70	19,90	2,80	0,80	–7,70
Medikuntza orokorra	43,40	38,40	5,00	45,20	51,30	–6,10	1,80	12,90
Ginekologia	0,00	9,30	–9,30	0,00	11,80	–11,80	0,00	2,50
Oftalmologia	2,10	3,20	–1,10	1,80	2,80	–1,00	–0,30	–0,40
Otorrinolaringologia	1,80	1,90	–0,10	1,10	0,40	0,70	–0,70	–1,50
Traumatologia	11,30	5,60	5,70	12,30	4,30	8,00	1,00	–1,30
Arnas-aparatura	0,70	0,30	0,40	0,00	0,50	–0,50	–0,70	0,20
Dermatologia	3,10	1,40	1,70	3,20	2,20	1,00	0,10	0,80
Erradiologia	1,10	0,60	0,50	1,60	0,50	1,10	0,50	–0,10
Bestelakoak	14,50	11,70	2,80	12,00	6,30	5,70	–2,50	–5,40

Iturria: EAEko Osasun Inkesta. (ESCAV), Osasun eta Kontsumo Saila; Gazteen Euskal Behatokia.

³ Gazteen argazkiak 10 eta Gazteen argazkiak 14.

⁴ GAZTEEN EUSKAL BEHATOKIA: *Osasuna eta gazteak*, 5. or.

2. Drogazaletasunaren tratamenduen hasierak

1996 eta 2009 artean, drogazaletasunaren tratamenduen hasierak murriztu egin ziren biztanle gazteen artean, eta portzentajezko beherakada hori handiagoa izan zen emakumezkoen artean, (–% 62,4), gizonezkoen artean baino (–% 29,4) —ikus 5. taula—.

Drogazaletasun tratamenduen hasierek Euskadiko gazteen artean duten garrantzia benetan ezagutzeko, tasa bat kalkulatu dugu; kasu honetan, 15 eta 29 urte arteko 100.000 gizabanakoen ingurukoa, horren balioa nabaria izan dadin. 1996 eta 2009 artean, behera egin zuen drogazaletasun tratamenduen hasieren tasak (DTHT), bi sexuatarako. Nolanahi ere, gaztearen sexua kontuan hartuz gero, egiatan, emakumezkoen artean murriztu zela ikus daiteke (–47,7, 100.000 biztanleko), eta gizonezkoen artean handitu (+21,4, 100.000 biztanleko). Edozein kasutan, gizonezkoen tasak modu nabarian gaitzen du, oraindik ere, emakumezkoen tasa: 2009an, 308 puntutan gaitzen zuen; hitz erlatiboetan, 6 aldiz handiagoa da —ikus 6. taula—.

5. taula. Drogazaletasunaren tratamenduen hasiera kopuruaren bilakaera EAĒko 15 eta 29 urte bitarteko gazteen artean, sexuaren arabera (1996-2009): kopuru absolutuak eta portzentajezko aldakuntzak

Sexua	1996	2001	2008	2009	▲% 2009/1996
Gizonezkoak	907	532	657	640	–29,44
Emakumezkoak	274	118	116	103	–62,41
Bi sexuak	1.181	650	773	743	–37,09

Iturria: Gazteen Euskal Behatokia, Osasun eta Kontsumo Sailak emandako datuak oinarri hartuta.

6. taula. Drogazaletasunaren tratamenduen hasieren tasak* EAĒko 15 eta 29 urte bitarteko gazteen artean izandako bilakaera, sexuaren arabera (1996-2009)

Sexua	1996	2009	Aldakuntza 2009 – 1996
Gizonezkoak	349,28	370,67	21,39
Emakumezkoak	110,57	62,91	–47,66
Bi sexuak	235,28	220,87	–14,41

(*) Drogazaletasunaren tratamenduen hasieren tasa = gazteen tratamenduen hasieren kopurua, adin talde eta sexu bereko erroldatutako 100.000 pertsonako.

Iturria: Gazteen Euskal Behatokia, Osasun eta Kontsumo Sailak emandako datuak oinarri hartuta. 1996/5/1eko Biztanleen Udal Erroldaren Berritzea, eta 2009/1/1ean eta 2010/1/1ean egindako Udal Erroldaren Azterketak, INE.

Adin talde ezberdinei dagokienez, 1996 eta 2009 artean, drogazaletasunaren tratamenduen hasieren kopuruaren atzerako joera orokorra 20 eta 29 urte arteko pertsonen artean kontzentratu zen, eta % 41,5eko beherakada gertatu zen segmentu horrek barne hartzen dituen bost urteko bi taldeetan. Aldea dago atzerakada nabarmen horren eta 20 urtetik beherakoen tratamenduen hasieren kopuruaren beherakada txikiaren artean (–% 2,6). Edozer kasutan, joera-aldaketa ikus daiteke 20 eta 24 urte arteko taldean; izan ere, 2008tik 2009ra gorakada txiki bat izan da (% 4,1) —ikus 7. taula—.

Drogazaletasunaren tratamenduen hasieren tasak adin taldeen arabera kalkulatu gero, ikusiko dugu jarduera terapeutiko horrek 20 eta 29 urte artekoen artean duela presentzia handien, eta bikoiztu egiten duela 20 urtetik beherakoei dagokien tasaren balioa —ikus 8. taula—.

Orain, azter dezagun tratamenduen hasieren kopuruaren bilakaera droga motaren arabera, 1996 eta 2009 artean. Handitu egin ziren kokainaren, marihuanaren, eta alkoholaren kasuan, eta askoz ere indar gutxiagorekin speedaren kasuan. Beste aldetik, murriztu egin ziren heroinarengatiko, anfetaminengatiko eta estasiagatiko tratamenduen hasierak —ikus 9. taula—.

7. taula. Drogazaletasunaren tratamenduen hasieren kopuruaren bilakaera EAEko gazteen artean, adin-taldeen arabera (1996-2009):
kopuru absolutuak eta portzentajezko aldakuntzak

Adin-taldeak	1996	2001	2008	2009	▲% 2009/1996
15 a 19 urte	115	72	119	112	–2,61
20 a 24 urte	439	237	247	257	–41,46
25 a 29 urte	640	341	407	374	–41,56

Iturria: Gazteen Euskal Behatokia, Osasun eta Kontsumo Sailak emandako datuak oinarri hartuta.

8. taula. Drogazaletasunaren tratamenduen hasieren tasak EAEko 15 eta 29 urte bitarteko gazteen artean izandako bilakaera, adin-taldeen arabera* (1996-2009)

Adin-taldeak	1996	2009	Aldea 2009 – 1996
15 a 19 urte	73,54	129,01	55,47
20 a 24 urte	245,37	240,76	–4,61
25 a 29 urte	371,70	261,85	–109,85

(*) Gazteen tratamenduen hasieren kopurua, adin talde bereko erroldatutako 100.000 pertsonako.

Iturria: Gazteen Euskal Behatokia, Osasun eta Kontsumo Sailak emandako datuak oinarri hartuta. 1996/5/1eko Biztanleen Udak Erroldaren Berritzea, eta 2009/1/1ean eta 2010/1/1ean egindako Udak Erroldaren Azterketak, INE.

Gazteen adierazleak 2011

1996 eta 2009 bitartean, drogen moten araberako tratamenduen hasieren kopuruaren portzentajeazko banaketei dagokienez, aldaketa garrantzitsua gertatu da; izan ere, 1996an heroinak zuen hegemonia (% 79,2), eta 2009an banaketa anitzagoa izan da, kokainaren (% 39,7) eta marihuanaren (% 27) ziozko tratamenduen hasierak nabarmentzen baitira. Aldiz, heroinak adierazgarritasun txikia du (% 10,2) —ikus 10. taula—.

Portzentajeazko banaketan sexuaren aldagaia sartzean, eta 2009. urteari dagokionez, aipatzekoa da kokainaren tratamenduen hasierak garrantzi erlatibo handiagoa dutela gizonezkoen kasuan. Emakumezkoen kasuan, aldiz, heroinak eta speedak dute garrantzi handiena. Esan liteke gizonezkoen banaketa kokainan oinarritzen dela nagusiki, eta emakumezkoena anitzagoa dela —ikus 11. taula—.

Drogazaleatasunaren tratamenduen inguruko atal hau bukatzeko, azter ditzagun euskal gazteen artean zabaldutako arriskuzko bi jokabide, aurrerago osasun-tratamendu espezializatua eska dezakeen mendekotasuna eragin dezaketenak: behar baino gehiago edatea eta legeaz kanpoko drogak kontsumitzea. Batere osasungarriak ez diren bi jokabide horiei buruz galdetu zitzaion euskal gazte-riaren lagin adierazgarri bati, 2008ko urtarilaren eta otsailaren artean, Gazteen Euskal Behatokiak sustatutako *Euskadiko gazteak*

9. taula. Drogazaleatasunaren tratamenduen hasiera kopuruaren bilakaera, €A€ko 15 eta 29 urte bitarteko gazteen artean, droga-motaren arabera (1996-2009): kopuru absolutuak eta portzentajeazko aldakuntzak

Droga-mota	1996	2001	2008	2009	▲% 2009/1996
Heroina	946	256	78	76	-91,97
Kokaina	49	184	350	295	502,04
Anfetaminak	45	32	31	27	-40,00
Speed	25	15	39	29	16,00
Estasia	17	19	1	2	-88,24
Marihuana	53	80	170	201	279,25
Alkohola	40	55	83	93	132,50
Bestelako substantziak	19	9	21	20	5,26

Iturria: Gazteen Euskal Behatokia, Osasun eta Kontsumo Sailak emandako datuak oinarri hartuta.

10. taula. Drogazaleatasunaren tratamenduen hasiera kopuruaren banaketaren bilakaera €A€ko 15 eta 29 urte bitarteko gazteen artean, droga-motaren arabera (1996-2009)

Droga-mota	1996	2009	Aldea 2009 - 1996
Heroina	79,23	10,23	-69,00
Kokaina	4,10	39,70	35,60
Anfetaminak	3,77	3,63	-0,14
Speed	2,09	3,90	1,81
Estasia	1,42	0,27	-1,15
Marihuana	4,44	27,05	22,61
Alkohola	3,35	12,52	9,17
Bestelako substantziak	1,59	2,69	1,10
Guztira %	100,00	100,00	-

Iturria: Gazteen Euskal Behatokia, Osasun eta Kontsumo Sailak emandako datuak oinarri hartuta.

11. taula. Drogazaletasunaren tratamenduen hasiera kopuruaren banaketaren bilakaera €A€ko 15 eta 29 urte bitarteko gazteen artean, sexuaren eta droga-motaren arabera (1996-2009)

Droga-mota	1996			2009		
	Gizonezkoak	Emakumezkoak	Aldea Gizonezkoak – Emakumezkoak	Gizonezkoak	Emakumezkoak	Aldea Gizonezkoak – Emakumezkoak
Heroina	77,18	86,13	–8,95	9,38	15,53	–6,15
Kokaina	4,85	1,82	3,03	41,25	30,10	11,15
Anfetaminak	4,08	2,92	1,16	3,44	4,85	–1,41
Speed	2,09	2,19	–0,10	3,13	8,74	–5,61
Estasia	1,65	0,73	0,92	0,16	0,97	–0,81
Marihuana	5,18	2,19	2,99	27,50	24,27	3,23
Alkohola	3,31	2,92	0,39	12,34	13,59	–1,25
Bestelako substantziak	1,65	1,09	0,56	2,66	2,91	–0,25
Guztira %	100,00	100,00	0,00	100,00	100,00	0,00

Iturria: Gazteen Euskal Behatokia, Osasun eta Kontsumo Sailak emandako datuak oinarri hartuta.



Gazteen adierazleak 2011

2008⁵ ikerketa soziologikoaren barnean. Labur esanda, azken hamabi hilabeteetan gehiegi edan al zuten edo legez kanpoko drogarik kontsumitu al zuten galdetu zitzaien: elkarriketatutako gazteen ia erdiek (% 43) adierazi zuten azken urtean gutxienez behin gehiegi edan zutela. Arriskuzko jardura hori ohikoagoa izan da gizonezkoen kasuan (% 51), emakumezkoen kasuan baino (% 35), eta 19 urtetik gorakoen artean ere. Legez kanpoko


drogen kontsumoari dagokionez, elkarriketatutako bostetik batek (% 20) adierazi zuen azken urtean horiek gutxienez behin kontsumitu izana; berriro ere, gizonezkoek eta 19 urtetik gorakoek euren kontsumoa emakumezkoek baino gehiago aitortuta —ikus 2. grafikoa—.

Euskadiko gazteak 2008 ikerketa berak dioenez, elkarriketatutako gazteen % 94ren ustez, legezko drogen kontsumoa (tabakoa, alkohola) za-

bala da euren inguruko gazteen artean, eta % 84k gauza bera uste du legez kanpoko drogei dagokienez (haxixa, kokaina, pilulak...).

Droga bigunen kontsumoarekiko jarrerari dagokionez, galdetutako euskal gazteen % 51 horien kontsumoaren alde agertu zen, eta % 41 aurka. Berriro ere, aldeko jarrera ohikoagoa da gizonezkoen kasuan (% 59), emakumezkoen artean baino (% 42), eta 19 urtetik gorakoen kasuan (% 55)⁶.

2. grafikoa. Azken hamabi hilabeteetan honakoak egin ditu? (%)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia, *Euskadiko gazteak 2008*.

⁵ BILBAO GAZTAÑAGA, Miren: *Euskadiko gazteak 2008*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, 2008, 232. or.

⁶ Ibidem, 221. eta 226. orr.

3. GIB infekzio berriak

Giza Immunoeskasiaren Birusaren (GIB) infekzio berrien kopurua handitu egin zen 2000 eta 2010 artean EAEn bizi diren 15 eta 29 urte arteko pertsonetan; indar handiagoz gizonezkoetan (% 52,9), emakumezkoetan baino (% 10)⁷. Adin taldeen arabera, goranzko bilakaera 20 urtetik

gorakoen artean gertatu da; batez ere, 20 eta 24 urte artekoen taldean (% 83,3). Nolanahi ere, epe laburrean atzera begira, 2009 eta 2010 artean, bilakaera nabarmen negatiboa izan zen, sexuaren zein adin taldeen arabera —ikus 12. taula—.

Ikus dezagun orain portzentajezko banaketa, eus- kal gazteen artean GIB infekzio berrien sexuaren arabera: 2000. zein 2010. urteetan, gizonezkoen nagusitasun argia adierazten dela ikus daiteke, al- dian zehar hazteko joerarekin. Adinari dagokionez, kasu berriak 25 eta 29 urte arteko pertsonen ar-

12. taula. 15 eta 29 urte bitarteko gazteen artean GIB infekzio berrien kopuruaren bilakaera EAEn, sexuaren eta adin-taldeen arabera (2000-2010): kopuru absolutuak eta portzentajezko aldakuntzak

Sexua eta adin-taldeak	2000	2009	2010	▲% 2010/2000
Gizonezkoak	17	35	26	52,94
Emakumezkoak	10	18	11	10,00
Bi sexuak	27	53	37	37,04
15 a 19 urte	0	4	1	-
20 a 24 urte	6	15	11	83,33
25 a 29 urte	21	34	25	19,05

Iturria: Osasun eta Kontsumo Saila; Gazteen Euskal Behatokia, Osasun eta Kontsumo Sailak emandako datuak oinarri hartuta.

⁷ Zientzia eta Berrikuntzako Ministerioiko Carlos III Osasun Institutuko Epidemiologiako Zentro Nazionalak eskaintzen duen eta Espainiarako erabilgarri dauden GIBari buruzko informazio estatistikoak (*Vigilancia epidemiológica del VIH en España. Nuevos diagnósticos de VIH en España, periodo 2003-2009, actualización 30 de junio de 2010*, txostenean dago bilduta) 13 autonomia-erkidegotako datu totalak eskaintzen ditu (Aragoi, Asturias, Balearrak, Kanariak, Kantabria, Gaztela eta Leon, Katalunia, Extremadura, Galizia, Errioxa, Madril, Nafarroa eta Euskadi), bai eta bi autonomia-hirienak ere (Ceuta eta Melilla); sexuaren eta adin taldeen arabera, zortzi autonomia-erkidegoetako eta autonomia-hiri bateko datuak soilik eskaintzen dira. Informazio gabezia horien aurrean, Espainiako informazioari buruzko aipamenak oin-oharretan egitea erabaki dugu.

tean eman dira gehienbat⁸, murrizteko nolabaiteko joerarekin bada ere —ikus 13. taula—.

Zer garrantzia dute gazteek, Euskadin GIB infekzio berri guztiei dagokienez? Daukagun informazio ofiziala 2003 eta 2009 arteko urte osoei buruzkoa da, eta, horren arabera, haien adierazpena guztizkoaren % 23,1ekoa izan zen 2003an, eta % 25,6koa 2009an; hau da, aitortutako GIB kasu berri guztien lau pertsonatik bat 15 eta 29 urte artekoa da.

Jarrai dezagun giza immunoeskasiaren birusak euskal gazterian duen garrantzia sakontzen. Euskadin bizi diren 15 eta 29 urte arteko 100.000 pertsonaren artean GIB infekzio berrien tasek goranzko joera izan dute 2009ra arte, eta, geroztik, balioek behera egin dute, bi sexuetan zein hiru adin taldeetan. Edozer kasutan, gertaera askoz indartsuagoa da 25 eta 29 urte artekoen eta gizonen kasuan —ikus 14. taula—.

⁸ Zortzi autonomia-erkidegoen eta autonomia hirien batukarirako, adinen arabera informazioarekin (Balearrak, Kanariak, Katalunia, Ceuta, Extremadura, Galizia, Errioxa, Nafarroa eta Euskadi) eta 2009. urteari dagokionez, 15 eta 29 urte arteko gazteen artean diagnostikatutako 368 GIB kasu berrien % 92,4 20 eta 29 urte arteko pertsonen dagokie. Ikus hemen: Epidemiologiako Zentro Nazionala (2010): *Vigilancia epidemiológica del VIH en España. Nuevos diagnósticos de VIH en España, período 2003-2009*. Zientzia eta Berrikuntza Ministerioko Carlos III Osasun Institutua, 2010.

13. taula. 15 eta 29 urte bitarteko gazteen artean GIB infekzio berrien banaketaren bilakaera EAEn, sexuaren eta adin-taldearen arabera (2000-2010)

Sexua eta adin-taldeak	2000	2010	Aldea 2010 – 2000
Gizonezkoak	62,96	70,27	7,31
Emakumezkoak	37,04	29,73	-7,31
Bi sexuak	100,00	100,00	0,00
15 a 19 urte	0,00	2,70	2,70
20 a 24 urte	22,22	29,73	7,51
25 a 29 urte	77,78	67,57	-10,21

Iturria: Gazteen Euskal Behatokia, Osasun eta Kontsumo Sailak emandako datuak oinarri hartuta.

14. taula. 15 eta 29 urte bitarteko gazteen artean diagnostikatutako GIB kasu berrien tasak* EAEn izandako bilakaera, sexuaren eta adin-taldearen arabera (2000-2010)

Sexua eta adin-taldeak	2000	2009	2010	Aldea 2010 – 2000
Gizonezkoak	7,21	20,27	15,64	8,43
Emakumezkoak	4,47	10,99	6,96	2,49
Bi sexuak	5,87	15,76	11,41	5,54
15 a 19 urte	0,00	4,61	1,16	1,16
20 a 24 urte	3,66	14,05	10,74	7,08
25 a 29 urte	11,85	23,80	18,42	6,57

(*) GIB infekzio berrien tasa = kasu berrien kopurua, adin/sexu bereko 100.000 biztanleko eta urteko.

Iturria: Gazteen Euskal Behatokia, Osasun eta Kontsumo Sailak emandako datuak oinarri hartuta.

GIB birusaren transmisio moduei dagokienez, 15 eta 29 urte bitarteko bi sexuetako lagunen banaketan harreman homo/bisexual arriskugarriak nabarmentzen dira (2010ean, transmisio guztien % 54). Izan ere, arestian ohartarazi dugun bezala, horixe da transmisio-bide nagusia gizonen artean, eta gizonezkoak dira GIB

diagnostikatu zaien gazte gehien-gehienak. Hain zuzen ere, emakumezkoen artean, harreman heterosexualen ondorioz gertatutako kutsadurak gailentzen dira (2010ean, % 81,8 emakumezkoen kasuan, eta % 11,5 gizonezkoen artean). Beste aldetik, nabarmentzekoa da bide parenteraleko drogen beherakada euskal gaz-

teen artean GIB kutsatzeko kategoria gisa. Joera negatibo hori bi sexuetara zabaltzen da —ikus 15. taula—.

Talde gazteko hiru adin taldeak kontuan hartuz gero, 25 urtetik beherakoen artean harreman homo/bisexualak nagusitzen dira kutsatze-

15. taula. 15 eta 29 urte bitarteko gazteen artean GIB infekzio berrien portzentajezko banaketaren bilakaera EAE-n, sexuaren eta transmisio-kategoriaren arabera (2000-2010)

Sexua eta transmisio-kategoria		2000	2009	2010	Aldea 2010 – 2000
Gizonezkoak	Bide parenteraleko drogak	23,53	2,86	3,85	-19,68
	Homo/bisexuala	47,06	60,00	76,92	29,86
	Heterossexuala	23,53	22,86	11,54	-11,99
	Bestelakoa edo ezezaguna	5,88	14,29	7,69	1,81
	Guztira	100,00	100,00	100,00	-
Emakumezkoak	Bide parenteraleko drogak	20,00	0,00	0,00	-20,00
	Homo/bisexuala	0,00	0,00	0,00	0,00
	Heterossexuala	70,00	88,89	81,82	11,82
	Bestelakoa edo ezezaguna	10,00	11,11	18,18	8,18
	Guztira	100,00	100,00	100,00	-
Bi sexuak	Bide parenteraleko drogak	22,22	1,89	2,70	-19,52
	Homo/bisexuala	29,63	39,62	54,05	24,42
	Heterossexuala	40,74	45,28	32,43	-8,31
	Bestelakoa edo ezezaguna	7,41	13,21	10,81	3,40
	Guztira	100,00	100,00	100,00	-

Iturria: Gazteen Euskal Behatokia, Osasun eta Kontsumo Sailak emandako datuak oinarri hartuta.

Gazteen adierazleak 2011

kategoria hegemoniko bezala; aldiz, 25 eta 29 urte arteko pertsonen artean, banaketa harreman heterosexualetarantz dibertsifikatzen da —ikus 16. taula—.

Jarraian, ikus dezagun giza immunoeskasiaren birusaren (GIB) intzidentzia kuantiboa lurralde historikoetan bizi diren gazteen artean: 2000 eta 2010 artean, diagnostikatutako kasu berrien kopurua indar handiarekin hazi zen 2000tik 2009ra,

eta 2009tik 2010era oso erregresiboa izan zen —ikus 17. taula—.

Euskadin bizi diren gazteen artean GIB infekzio berriak hiru lurralde historikoetan portzentuarki banatuz gero, kontzentrazio garrantzitsua izango genuke Bizkaian, goranzko joerarekin: % 66,7tik 2000. urtean, % 70,3ra 2010. urtean. Pentsa dezagun Bizkaiko gazteek Euskadi osoaren % 52,8 adierazten dutela 2010.

urtearen hasieran; ondorioz, esan genezake GIBaren eragina Bizkaiko gazteen artean dela handien.

Lurralde historikoen arabera, 15 eta 29 urte arteko pertsonen artean GIB infekzio berrien tasaren bidez, zera baieztatu dezakegu: 2010ean, bi sexuen eta gizonezkoen kasuetan, Bizkaiko tasek nabarmen gaintitzen dituztela Arabakoak eta Gipuzkoakoak —ikus 18. taula—.

16. taula. 15 eta 29 urte bitarteko gazteen artean GIB infekzio berrien portzentajeazko banaketaren bilakaera EAEn, adin-taldeen eta transmisio-kategoriaren arabera (2000-2010)

Adin-taldeak eta transmisio-kategoria		2000	2009	2010	Aldea 2010 – 2000
15 a 19 urte	Parenteralak	0,00	0,00	0,00	0,00
	Homo/bisexualak	0,00	75,00	100,00	100,00
	Heterosexualak	0,00	0,00	0,00	0,00
	Bestelakoa edo ezezaguna	0,00	25,00	0,00	0,00
	Guztira	0,00	100,00	100,00	-
20 a 24 urte	Parenteralak	16,67	0,00	9,09	-7,58
	Homo/bisexualak	0,00	20,00	63,64	63,64
	Heterosexualak	66,67	66,67	18,18	-48,49
	Bestelakoa edo ezezaguna	16,67	13,33	9,09	-7,58
	Guztira	100,00	100,00	100,00	-
25 a 29 urte	Parenteralak	23,81	2,94	0,00	-23,81
	Homo/bisexualak	38,10	44,12	48,00	9,90
	Heterosexualak	33,33	41,18	40,00	6,67
	Bestelakoa edo ezezaguna	4,76	11,76	12,00	7,24
	Guztira	100,00	100,00	100,00	-

Iturria: Gazteen Euskal Behatokia, Osasun eta Kontsumo Sailak emandako datuak oinarri hartuta.

17. taula. 15 eta 29 urte bitarteko gazteen artean GIB infekzio berrien kopuruaren bilakaera lurralde historikoetan (2000-2010): kopuru absolutuak eta portzentajeak

Lurralde historikoak	2000		2009		2010	
	Abs.	%	Abs.	%	Abs.	%
Araba	4	14,81	9	16,98	4	10,81
Bizkaia	18	66,67	34	64,15	26	70,27
Gipuzkoa	5	18,52	10	18,87	7	18,92
EAE	27	100,00	53	100,00	37	100,00

Iturria: Gazteen Euskal Behatokia, Osasun eta Kontsumo Sailak emandako datuak oinarri hartuta.

18. taula. 15 eta 29 urte bitarteko gazteen artean GIB infekzio berrien tasak lurralde historikoetan izandako bilakaera, sexuaren arabera (2000-2010)

Lurralde historikoak eta sexua		2000	2009	2010	Aldea 2010 – 2000
Araba	Gizonezkoak	8,96	15,01	7,78	-1,18
	Emakumezkoak	3,13	19,94	8,25	5,12
	Bi sexuak	6,11	17,40	8,01	1,90
Bizkaia	Gizonezkoak	9,50	27,47	21,72	12,22
	Emakumezkoak	0,83	10,37	2,40	1,57
	Bi sexuak	5,26	19,12	12,28	7,02
Gipuzkoa	Gizonezkoak	2,64	10,91	9,42	6,78
	Emakumezkoak	4,22	7,71	3,97	-0,25
	Bi sexuak	3,40	9,36	6,77	3,37

(*) Diagnostikatutako GIB kasu berrien tasa = kasu berrien kopurua, adin/sexu bereko 100.000 biztanleko eta urteko.

Iturria: Gazteen Euskal Behatokia, Osasun eta Kontsumo Sailak emandako datuak oinarri hartuta. 2000/1/1ean, 2001/1/1ean eta 2010/1/1ean egindako Biztanleen Udal Erroldaren Azterketak, eta 2011/1/1ean egindako Erroldaren Aurrerapena (behin-behineko datuak), INE.

Azkenik, lurralde historikoetako gazteen arteko giza immunoeskasiaren birusa kutsatzeko moduari dagokionez, 2010ean, diagnostikatutako kasu berrietan, harreman heterosexualen nagusitasuna adierazten da Araban, eta harreman homo/bisexualena Bizkaian. Aldiz, Gipuzkoan, aurreko bi kategorietan oinarritutako banaketa bipolarra agertzen da —ikus 19. taula—.

sitasuna adierazten da Araban, eta harreman homo/bisexualena Bizkaian. Aldiz, Gipuzkoan, aurreko bi kategorietan oinarritutako banaketa bipolarra agertzen da —ikus 19. taula—.

19. taula. 15 eta 29 urte bitarteko gazteen artean diagnostikatutako GIB kasu berrien banaketa bilakaera lurralde historikoetan, transmisio-kategoriaren arabera (2000-2010)

Lurralde historikoak eta transmisio-kategoriak		2000	2009	2010	Aldea 2010 – 2000	Aldea 2010 – 2009
Araba	Parenterala	25,00	11,11	0,00	–25,00	–11,11
	Homosexuala/bisexuala	25,00	11,11	25,00	0,00	13,89
	Heterosexuala	25,00	66,67	75,00	50,00	8,33
	Bestelakoa edo ezezaguna	25,00	0,00	0,00	–25,00	0,00
	Guztira	100,00	100,00	100,00	0,00	0,00
Bizkaia	Parenterala	22,22	0,00	3,85	–18,37	3,85
	Homosexuala/bisexuala	33,33	41,18	61,54	28,21	20,36
	Heterosexuala	44,44	41,18	19,23	–25,21	–21,95
	Bestelakoa edo ezezaguna	0,00	17,65	15,38	15,38	–2,27
	Guztira	100,00	100,00	100,00	0,00	0,00
Gipuzkoa	Parenterala	20,00	0,00	0,00	–20,00	0,00
	Homosexuala/bisexuala	20,00	60,00	42,86	22,86	–17,14
	Heterosexuala	40,00	40,00	57,14	17,14	17,14
	Bestelakoa edo ezezaguna	20,00	0,00	0,00	–20,00	0,00
	Guztira	100,00	100,00	100,00	0,00	0,00

Iturria: Gazteen Euskal Behatokia, Osasun eta Kontsumo Sailak emandako datuak oinarri hartuta.

4. Haurdunaldiaren borondatezko etendurak

Epigrafe honetan, 1996 eta 2009 artean, emakumezko guztientzat eta, 2005 eta 2009 artean, 15 eta 29 urte arteko gazteentzat erregistratutako haurdunaldiaren borondatezko etendurak (HBE) aztertuko ditugu, hala EAEn zein Espainia osoan izandakoak. Zehazki, hainbat alderdi esanguratsu ikusiko ditugu: HBEn kopuruaren bilakaera; fenomeno horrek 15 eta 44 urte arteko emakumezkoen eta 15 eta 29 urte arteko gazteen artean duen intentsitatea, haurdunaldiaren boron-

datezko etenduren tasaren bidez (HBET) eta gazteen HBEn banaketa bost urteko taldeen arabera.

Jarraian, Euskadin eta Espainian 1996 eta 2009 artean izandako haurdunaldiaren borondatezko etendurak (HBE) aztertuko ditugu, 9/1985 Lege Organikoaren arabera egin direnak (166. BOE, 1985eko uztailak 12). Lege organiko horrek abortuaren hiru hipotesi zehatz despenalizatu zituen⁹:

1. Haurdunaren bizitzarako zein osasun fisiko edo psikikorako arrisku larria saihesteko xedea duena.
2. Haurdunaldia aurrez salatutako bortxaketa-delituaren ondorio denekoa.
3. Fetuak tara fisiko zein psikiko larriak dituen susmoa dagoenekoa.

20. taula. Haurdunaldiaren borondatezko etenduren (HBE) kopuruaren bilakaera EAEn eta Espainian (1996-2009): kopuru absolutuak eta portzentajezko aldakuntzak

Lurralde-esparrua	1996	2001	2008	2009	▲% 2009/1996
EAE	1.278	1.646	2.996	3.023	136,54
Espainia	51.002	69.857	115.812	111.482	118,58
HBE (%) EAE / Espainia	2,51	2,36	2,56	2,71	

Iturria: Haurdunaldiaren borondatezko etendurak. EAEn dagokionez, Eustat erakundearen webgunetik atera ditugu datuak, HBEn erregistroaren txostenean oinarrituta. Txosten hori Osasun eta Kontsumo Sailak egin zuen. Espainiari dagokionez, INEn webgunetik atera ditugu 2008ra arte (1992-2008 seriea), eta 2009rako, berriz, honako txosten honetatik: *Interrupciones Voluntarias del Embarazo. Datos definitivos correspondientes al año 2009*. Bi kasuetan, Osasun, Gizarte Politika eta Berdintasun Ministerioak sortu du informazio estatistikoa.

⁹ 2010eko uztailaren 5etik aurrera, haurdunaldiaren borondatezko etendurak martxoaren 3ko 2/2010 Lege Organikoan daude araututa, sexu- eta ugaltze-osasunari eta haurdunaldiaren borondatezko etendurari buruzkoan. 2010eko martxoaren 4ko BOE, 55. zk., I. sekzioa, 21001. or.

2009an, 3.023 HBE erregistratu ziren EAEn; hau da, % 136,5eko portzentajezko gorakada 1996ri dagokionez, eta hemezortzi puntu Espainiako gorakada erlatiboaren gainera (% 118,6). Epe laburrean atzera begira, egungo krisi ekonomikoaren hasierari dagokion aldian, aipatzekoa da haurdunaldien borondatezko etenduren kopuruak gora egin duela Euskadin, eta Estatuan, aldiz, behera. Euskadin erregistratutako HBEk Espainiako guzti-zkoaren % 2,7 adierazten zuten 2009an.

Jarrai dezagun analisi deskribatzailearekin. 2009an, 15 eta 29 urte arteko emakumezkoen borondatezko 1.680 abortu erregistratu ziren; horrenbestez, % 18,4ko gorakada erlatiboa gertatu zen, 2005. urtearekin alderatuta¹⁰. Gorakada horrek lau puntutan gainditzen du Espainiako portzentajezko gorakada (% 14). Beste aldetik, aurreko taulan jasotako datu orokorretan ez bezala, emakumezko gazteen HBE kopurua murriztu egin da 2008 eta 2009 artean bi lurralde esparruetan; Espainian, hala ere, indar bikoitzaz (% 6,8ko beherakada Espainian, % 3,1ekoa EAEn) —ikus 21. taula—.

15 eta 29 urte arteko gazteak adin taldeetan zatituz gero, borondatezko abortuen kopurua handitu egin zen emakumezko gazteen hiru taldeetan, baina, portzentualki, gehiago handitu zen Euskadin, Estatuan baino. Eta, bi lurraldeetan, gorakada erlatibo handiena 25 eta 29 urte artekoen taldean izan zen: % 22,3 eta % 21,1, hurrenez hurren —ikus 22. taula—.

¹⁰ 2005az geroztik, INE erakundeak emakumezkoaren adin taldearen eta HBE egindako autonomia-erkidegoaren arabera bereizita argitaratzen ditu datu estatistikoak bere web orrian: <http://www.ine.es/jaxi/taula.do?path=/t15/a044/a021/10/&file=s5011.px&type=pcaxis&L=0>

21. taula. 15 eta 29 urte bitarteko emakumezkoen haurdunaldiaren borondatezko etenduren (HBE) kopuruaren bilakaera EAEn eta Espainian (2005-2009): kopuru absolutuak eta portzentajezko aldakuntzak

Lurralde-esparrua	2005	2009	▲% 2009/2005
EAE	1.419	1.680	18,39
Espainia	58.631	66.856	14,03
HBE (%) EAE / Espainia	2,42	2,51	

Iturria: Haurdunaldiaren borondatezko etendurak, 1992-2008 seriea (adin taldeen arabera datuak, 2005etik aurrera), INE; 2009rako, honako txosten hau: *Interrupciones Voluntarias del Embarazo. Datos definitivos correspondientes al año 2009*. Bi kasuetan, Osasun, Gizarte Politika eta Berdintasun Ministerioak sortu du informazio estatistikoa.

22. taula. 15 eta 29 urte bitarteko emakumezkoen haurdunaldiaren borondatezko etenduren (HBE) kopuruaren bilakaera EAEn eta Espainian, adin-taldeen arabera (2005-2009): kopuru absolutuak eta portzentajezko aldakuntzak

Lurralde-esparrua eta adin-taldeak		2005	2008	2009	▲% 2009/2005
15-19 urte	EAE	244	313	290	18,85
	Espainia	12.460	14.464	13.511	8,43
	HBE (%) EAE / Espainia	1,96	2,16	2,15	
20-24 urte	EAE	575	670	656	14,09
	Espainia	23.813	28.389	26.275	10,34
	HBE (%) EAE / Espainia	2,41	2,36	2,50	
25-29 urte	EAE	600	751	734	22,33
	Espainia	22.358	28.859	27.070	21,08
	HBE (%) EAE / Espainia	2,68	2,60	2,71	

Iturria: Haurdunaldiaren borondatezko etendurak, 1992-2008 Seriea (adin taldeen arabera datuak, 2005etik aurrera), INE; 2009rako, honako txosten hau: *Interrupciones Voluntarias del Embarazo. Datos definitivos correspondientes al año 2009*. Bi kasuetan, Osasun, Gizarte Politika eta Berdintasun Ministerioak sortu du informazio estatistikoa.

15 eta 29 urte arteko emakumezkoen HBEen portzentajezko banaketa adin handieneko bi taldeetan biltzen da, eta 25 eta 29 urte arteko emakumezkoak gailentzen dira, euren balio nagusia dela-eta: 2009an, 25 eta 29 urte arteko emakumezkoek gazteek Euskadin izandako HBE guztien % 43,7 egin zituzten, eta Espainian izandakoen % 40,5 —ikus 23. taula—.

Jarraian, borondatezko abortuen fenomenoaren intentsitatea aztertuko dugu, haurdunaldiaren borondatezko etenduren tasen (HBET) kalkuluaren bidez. Has gaitezen 15 eta 44 urte arteko emakumezkoen taldearekin: 2009. urteari dagokionez, 7,2 HBE izan dira talde bereko 1.000 emakumeko EAEn. Tasa hori Espainiakoa baino lau puntu txikiagoa da (11,4 HBE, 15 eta 44 urte arteko 1.000 emakumeko). Denborazko aldakuntzari dagokionez, 1996 eta 2009 artean, tasak gorantz egin zuen. Nolanahi ere, egia da epe laburrean, 2008tik 2009ra, ia mantendu egin zela —ikus 24. taula—.

23. taula. 15 eta 29 urte bitarteko emakumezkoen haurdunaldiaren borondatezko etenduren (HBE) portzentajezko banaketaren bilakaera EAEn eta Espainian, adin-taldeen arabera (2005-2009)

Lurralde-esparrua eta adin-taldeak		2005	2008	2009	Aldea 2009 – 2005
EAE	15-19 urte	17,20	18,05	17,26	0,06
	20-24 urte	40,52	38,64	39,05	-1,47
	25-29 urte	42,28	43,31	43,69	1,41
	Guztira	100,00	100,00	100,00	
Espainia	15-19 urte	21,25	20,17	20,21	-1,04
	20-24 urte	40,62	39,59	39,30	-1,32
	25-29 urte	38,13	40,24	40,49	2,36
	Guztira	100,00	100,00	100,00	
Aldea EAE – Espainia	15-19 urte	-4,05	-2,12	-2,95	
	20-24 urte	-0,10	-0,95	-0,25	
	25-29 urte	4,15	3,07	3,20	

Iturria: Haurdunaldiaren borondatezko etendurak, 1992-2008 Seriea (adin taldeen arabera datuak, 2005etik aurrera), INE; 2009rako, honako txosten hau: *Interrupciones Voluntarias del Embarazo. Datos definitivos correspondientes al año 2009*. Bi aldietan, Osasun, Gizarte Politika eta Berdintasun Ministerioak sortu du informazio estatistikoa.

24. taula. Haurdunaldien borondatezko etenduren tasak (HBET*) EAEn eta Espainian izandako bilakaera (1996-2009)

Lurralde-esparrua	1996	2001	2008	2009	Aldea 2009 – 1996
EAE	2,64	3,55	7,02	7,25	4,61
Espainia	5,69	7,66	11,78	11,41	5,72
Aldea EAE – Espainia	-3,05	-4,11	-4,76	-4,16	

(*) Haurdunaldien borondatezko etenduren tasa (HBET) = abortuen kopurua, 15 eta 44 urte arteko 1.000 emakumeko.

Iturria: Haurdunaldiaren borondatezko etendurak, 1992-2008 seriea, INE; 2009rako, honako txosten hau: *Interrupciones Voluntarias del Embarazo. Datos definitivos correspondientes al año 2009*. Bi kasuetan, Osasun, Gizarte Politika eta Berdintasun Ministerioak sortu du informazio estatistikoa.

15 eta 29 urte arteko emakumezkoen artean, haurdunaldiaren borondatezko etenduren tasa 10,3koa izan da 2009an, Euskadin bizi diren talde gazteko 1.000 emakumeko; Espainiako HBET baino ia sei puntu gutxiagoa (16 HBE, 15 eta 19 urte arteko 1.000 emakumeko). Denborazko dimentsioan, joera ere goranzkoa izan da 2005etik aurrera, baina gorakada neurrizkoa

izan da, 15 eta 44 urte arteko taldearen HBETarekin konparatuta —ikus 25. taula—.

Talde gaztea adin taldetan zatikatzekoan, ikusiko dugu Euskadin zein Espainian HBETak hiru adin taldeetan handitu egin zirela; batez ere, 20 eta 24, eta 25 eta 29 urte arteko emakumezkoen artean. Adin taldeen arabera, tasarik handiena 20 eta 24 urte bi-

tarteko gazteen artean dago, 25 eta 29 urte bitarteko aurretik. Lurraldeen arteko aldeei dagokienez, aipatzekoa da Euskadikoak Estatukoak baino dezent txikiagoak direla, talde gazteko hiru taldeei dagokienez. Amaitzeko, adierazi behar dugu haurdunaldien borondatezko etendura gehien-gehienak (hamarretik zortzi) ezkondu gabeko emakumeei dagozkiela —ikus 26. taula—.

25. taula. 15 eta 29 urte bitarteko emakumezkoen haurdunaldiaren borondatezko etenduren tasak (HBET)*
EAE eta Espainian izandako bilakaera (2005-2009)

Lurralde-esparrua	2005	2008	2009	Aldea 2009 – 2005
EAE	7,51	10,22	10,26	2,75
Espainia	13,17	16,71	15,96	2,79
Aldea EAE – Espainia	-5,66	-6,49	-5,70	

(*) 15 eta 29 urte arteko emakumezkoen borondatezko abortu kopurua, talde bereko 1.000 emakumeko.

Iturria: Haurdunaldiaren borondatezko etendurak, 1992-2008 seriea (adin taldeen araberako datuak, 2005etik aurrera), INE; 2009rako, honako txosten hau: *Interrupciones Voluntarias del Embarazo. Datos definitivos correspondientes al año 2009*. Bi kasuetan, Osasun, Gizarte Politika eta Berdintasun Ministerioak sortu du informazio estatistikoa. 2005/1/1ean, 2006/1/1ean, 2009/1/1ean eta 2010/1/1ean egindako Udal Erroldaren Azterketak, INE.

26. taula. 15 eta 29 urte bitarteko emakumezkoen haurdunaldiaren borondatezko etenduren tasak (HBET) EAEn eta Espainian izandako bilakaera, adin-taldeen arabera* (2005-2009)

Lurralde-esparrua eta adin-taldeak		2005	2008	2009	Aldea 2009 – 2005
15 a 19 urte	EAE	5,40	7,36	6,92	1,52
	Espainia	10,87	12,69	11,99	1,12
	Aldea EAE – Espainia	-5,47	-5,33	-5,07	
20 a 24 urte	EAE	9,45	12,40	12,56	3,11
	Espainia	16,37	20,63	19,55	3,18
	Aldea EAE – Espainia	-6,92	-8,23	-6,99	
25 a 29 urte	EAE	7,24	10,28	10,55	3,31
	Espainia	12,09	16,25	15,75	3,66
	Aldea EAE – Espainia	-4,85	-5,97	-5,20	

(*) Adin talde bateko emakumezkoen borondatezko abortu kopurua, talde bereko 1.000 emakumeko.

Iturria: Haurdunaldiaren borondatezko etendurak, 1992-2008 seriea (adin taldeen araberako datuak, 2005etik aurrera), INE; 2009rako, honako txosten hau: *Interrupciones Voluntarias del Embarazo. Datos definitivos correspondientes al año 2009*. Bi kasuetan, Osasun, Gizarte Politika eta Berdintasun Ministerioak sortu du informazio estatistikoa. 2005/1/1ean, 2006/1/1ean, 2009/1/1ean eta 2010/1/1ean egindako Udal Erroldaren Azterketak, INE.

5. Ondorioak

Euskadin, gazteek egindako kontsulta medikoen kopurua txikitu egin zen 1997 eta 2007 artean, eta gehiago emakumezkoen artean, gizonezkoen artean baino (–% 25 eta –% 12,5, hurrenez hurren). Beherakada hori 25 urtetik beherakoen artean gertatu zen gehienbat, eta esan daiteke gazteen taldean izandako atzerakadaren bigarren mailako ondorioa dela. Edonola ere, beheraldi hori ez da euskal gazteek zerbitzu medikoekiko duten gaitzuste edo higuin jarrerarekin lotu behar; izan ere, gazteek egindako kontsulta medikoen tasak gora egin zuen 1997 eta 2007 artean, bi sexueta (gehiago gizonezkoen kasuan), eta hiru adin taldeetan.

Espezialitateen arabera, gazteek egindako kontsulta mediku gehienak medikuntza orokorrekoak dira (% 48,4, 2007an). Sexuari dagokionez, aldea ginekologian eta traumatologian indartzen da: lehen espezialitatara emakumezkoak joaten dira, eta bigarrenak garrantzi handiagoa du gizonezko gazteen artean; agian, nolabaiteko arrisku traumatologikoa duten kirol-jarduerak ohikoagoak direlako haien artean.

Drogazaletasunaren tratamenduen hasierak murriztu egin ziren Euskadiko gazteen artean, 1996

eta 2009 artean; gehiago emakumezkoen kasuan (–% 62,4), gizonezkoen kasuan baino (–% 29,4). Nolanahi ere, 100.000 gazteko tasak kontuan hartuz gero, emakumezkoen artean murriztu ziren berez; gizonezkoen kasuan, berriz, handitu. Hala ere, gizonezkoen tasak nabarmen gainditzten du emakumezkoena: 2009an, sei aldiz handiagoa da. Adin taldeen arabera, jarduera terapeutiko horrek garrantzi handiagoa du 20 urtetik gora. Droga motari dagokionez, berriz, tratamenduen hasierak kokainan, marihuanan eta alkoholean handitu ziren, eta heroinaren eta estasiaren kasuetan asko murriztu.

2010ean, 15 eta 29 urte arteko gazteengan GIB infekzioen 37 kasu berriek % 37ko gorakada adierazten dute 2000. urtean aitortutakoei dagokionez, eta igoera handiagoa izan da gizonezkoetan, emakumezkoetan baino. Nolanahi ere, epe laburrean atzera begirata, 2009 eta 2010 artean, behera egin du euskal gazteen artean diagnostikatutako kasu berrien kopuruak. Orokorrean, diagnostikatutako 10 GIB kasu berrietatik 7 inguru gizonezkoak dira, 25 eta 29 urte artekoak. Gainera, diagnostikatutako GIB kasu berriak Bizkaian izan dira batez ere (10etik 7).

Azkenik, GIBaren kutsatze-kategoriari dagokionez, arriskuzko harreman homo/bisexualak gailentzen dira gizonezko gazteen artean. Emakumezkoen artean, berriz, arriskuzko harreman heterosexualak nagusitzen dira.

2009an, 3.023 haurdunaldiaren borondatezko etendurak erregistratu ziren EAEn; hau da, % 136,5eko portzentajeazko gorakada 1996ri dagokionez, eta Espainiako gorakada erlatiboa baino hemezortzi puntu gehiago (% 118,6). 15 eta 29 urte arteko emakumezkoek borondatezko 1.680 abortu egin zituzten Euskadin: Erkidegoko haurdunaldiaren borondatezko etenduren guttizkoaren % 55,6; Estatuan baino ia bost puntu gutxiago (% 60). Edonola ere, gazteek izandako haurdunaldiaren borondatezko etendurak adin handieneko bi taldeetan kontzentratzen dira, 25 eta 29 urte bitarteko emakumeak gailenduta: 2009an, 25 eta 29 urte arteko emakumezkoek Euskadiko gazteen haurdunaldiaren borondatezko etenduren % 43,7 egin zuten; Espainian, aldiz, 15 eta 29 urte arteko emakumezkoek egindako haurdunaldiaren borondatezko etenduren % 40,5. Gazteen egoera zibilari dagokionez, HBE gehienak ezkongabeek egiten dituzte (borondatezko 10 etenduratik 8).

15 eta 44 urte arteko emakumezkoen haurdunaldiaren borondatezko etenduren tasek (HBET) gorantz egin dute 1996 eta 2009 artean: azken urteari dagokionez, Euskadin 7,2 haurdunaldiaren borondatezko etendurak egin dira 15 eta 44 urte arteko 1.000 emakumeko; beraz, Espainiako tasa baino lau puntu gutxiago (11,4 HBE, 15 eta 44 urte arteko 1.000 emakumeko). 2009an, eta gazteei dagokienez, haurdunaldiaren borondatezko etenduren tasa 10,3 etenduretan kokatzen da, Euskadin bizi diren 15 eta 29 urte arteko 1.000 emakumeko; Espainian bizi direnen tasa baino ia sei puntu gutxiago (16 HBE, 1.000 emakume gazteko). Era berean, talde gaztean, adin taldeen araberako haurdunaldiaren borondatezko etenduren tasak dezente txikiagoak dira Euskadin, Estatukoak baino (2009an, 5 eta 7 puntu artean, talde bakoitzeko 1.000 emakumeko).

Bibliografia

BILBAO GAZTAÑAGA, Miren: *Euskadiko gazteak 2008*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, 2008. Webgune honetan eskuragarri: http://www.gazteukera.euskadi.net/r58-7651x/eu/contenidos/informacion/gazteak_bilduma/eu_liburuak/adjuntos/Juventud_vasca_2008_e.pdf [Kontsulta data: 2012/5/18]

GAZTEEN EUSKAL BEHATOKIA: *Osasuna eta gazteak: Euskadiko gazteen ikusmoldeak osasunari buruz*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, 2008. Webgune honetan eskuragarri: http://www.gazteukera.euskadi.net/r58-7651x/eu/contenidos/informacion/gazteak_bilduma/eu_liburuak/adjuntos/Gazteak_Salud_e.pdf [Kontsulta data: 2012/5/18]


Gazteen argazkiak 10: 2007ko urria. [Vitoria-Gasteiz]: Eusko Jaurlaritzaren Lehendakariitzako Prospekzio Soziologikoaren Kabinetea; Gazteen Euskal Behatokia, 2007. Webgune honetan eskuragarri: http://www.gazteukera.euskadi.net/r58-7651x/eu/contenidos/informacion/gazteen_argazkiak_bilduma/eu_5561/adjuntos/retratos_10/sarrera_laburpena.pdf [Kontsulta data: 2012/5/18]

Gazteen argazkiak 14: Kultura demokratikoa: 2011ko otsaila. [Vitoria-Gasteiz]: Eusko Jaurlaritzaren Lehendakariitzako Prospekzio Soziologikoaren Kabinetea; Gazteen Euskal Behatokia, 2011. Webgune honetan eskuragarri: http://www.gazteukera.euskadi.net/r58-7651x/eu/contenidos/informacion/gazteen_argazkiak_bilduma/eu_5561/adjuntos/10retratos14_eu.pdf [Kontsulta data: 2012/5/18]

Gazteen joerak 2006. Lehen txostena. [Bilbao]: Gazteen Euskal Behatokia. Kultura Saileko Gazteria eta Gizarte Ekintza Zuzendaritza, 2006. 46. or. Webgune honetan eskuragarri: http://www.gazteukera.euskadi.net/r58-7651x/eu/contenidos/informacion/gazteen_joerak/eu_liburuak/adjuntos/Tendencias_Juventud_2006_e.pdf [Kontsulta data: 2012/5/18]



Heriotzak 07







Gazteen adierazleak 2011 dokumentuaren zazpigarren kapituluak heriotzen fenomeno demografikoa osatzen duten bi aspektu aztertzen ditu, Espainian, EAEn eta bertako hiru lurralde historikoetan: heriotza-tasa orokorra eta heriotzen arrazoiak.

Heriotza-tasa orokorrari dagokionez, INEk ematen duen populazioaren mugimendu naturalari dagokion heriotzen estatistika erabiliko dugu informazio-iturri gisa. Datu horiek Erregistro Zibiletan oinarrituta daude.

Heriotza-tasak talde gaztean duen eragin kuantitatiboa aztertuko dugu: hildakoen kopuruaren bilakaera 1996tik 2009ra bitartean, gazteen heriotza-tasak (bi sexuak batera eta sexu bakoitza berariaz aintzat hartuta), eta, amaitzeko, 15-19 urteko, 20-24 urteko eta 25-29 urteko taldeen heriotza-tasa espezifikoaren kalkulua egingo dugu (bi sexuak kontuan hartuta).

Heriotzen arrazoiak aztertuko ditugu, baita ere, INEeko heriotza-estatistikaren arabera 'zerrenda murriztuan' ageri diren arrazoi-familiak edo kausen talde handiak oinarri hartuta (102 arrazoi hartzen ditu bane). Zerrenda horrek OMEk Gaixotasunen Nazioarteko Sailkapenean (GNS) ezarritako irizpideak jarraitzen ditu. Lehenengo, 1999¹ eta 2009 arteko gazteen heriotza-kopuruaren bilakaerari erreparatuko diogu, eta gero heriotza-tasa espezifikoak eta heriotzaren arrazoiaren arabera portzentajezko banaketa ikusiko ditugu.

¹ Heriotza-arrazoiaren analisi-aldia 1999an hasten da; izan ere, urte horretatik aurrera, INEk heriotza-arrazoiaren arabera sailkapena eskaintzen du (zerrenda murriztua) eta 2009rako argitaratutako datuetan jarraitzen du. Gainera, adinen arabera bereizketa bost urteko taldeen bidezkoa da; 1999 aurreko informazioan, hamar urteko taldeetan oinarrituta egiten zen.

1. Euskal Autonomia Erkidegoa eta Espainia

Ikus ditzagun 15etik 29 urtera bitarteko pertsonen heriotzak, hildakoen kopuruaren bilakaeratik hasita: bi sexuetako 103 gazte hil ziren 2009an, EAEn. Kopuru horrek atzerakada nabaria adierazten du (–% 70,2), 1996an, talde berean hildakoei dagokienez. Gainera, EAEko beherakada Espainiakoa baino askoz ere handiagoa izan zen (–% 57,4). Horregatik, EAEko udalerrietan bizi

ziren eta 2009an hil diren gazteek proportzio txikiagoa osatzen dute (% 3,5, Espainiako guztirakoarekiko) 1996an hil zirenak baino (% 5, Espainiako guztirakoarekiko) —ikus 1. taula—.

Hildako gazteen kopuruaren beherakada garrantzitsuen arrazoietakoa bat 15etik 29 urtera bitarteko biztanleen erregresioa da, 1980 eta 1995

artean izandako jaiotza-tasaren beherakadaren ondorioz, *Gazteen adierazleak 2011* dokumentuko hirugarren atalean adierazi bezala. Horrela, 1996tik 2009ra bitartean, 15etik 29 urtera bitarteko pertsonen kopurua –% 35 murriztu zen Euskadiko Udal Erroldetan, Estatuko murriztearen bikoitza baino gehiago (–% 13,1 Estatuan). Hori bai, hilda-koen kopuruaren atzerakadaren beste

1. taula. 15 eta 29 urte bitarteko hildakoen kopuruaren bilakaera EAEn eta Espainian (1996-2009): kopuru absolutuak eta portzentajezko aldakuntzak

Lurralde-esparrua	1996	2001	2008	2009	▲% 2009/1996
EAE	346	214	115	103	–70,23
Espainia	6.956	5.016	3.384	2.963	–57,40
Hildakoak (%) EAEn / Espainian	4,97	4,27	3,40	3,48	

Iturria: Bizitokiaren arabeko heriotzak. Mugimendu naturala. INE.

arrazoi bat gazteen heriotzaren probabilitate txikiagoa da: 1996tik 2009ra bitartean, gazteen heriotza-tasa erdira murriztu zen, Euskadin zein Espainian, eta aztertutako aldia 15etik 29 urtera bitarteko 1.000 biztanleko 0,3 hildakorekin amaitu zen. Kopuru hori oso txikia da —ikus 2. taula—.

Nolanahi ere, gazteen heriotza-tasa txikiko egoera horretan desberdintasunak daude, sexuen arabera: gizonen artean, gazteen heriotza-tasak 15etik 29 urtera bitarteko emakumeena gainditzen du; zehazki, 2009an, gizonen tasa da emakumeena halako hiru Euskadin, eta emakumeena halako bi Estatuan. Guztira, gazteen hiltzeko probabilita-

tea eskasa da, baina oraindik eskasagoa da emakumeen artean, gizonen artean baino —ikus 3. taula—.

Talde gaztea bost urteko hiru taldetan zatituz gero, heriotza-tasa espezifikoaren balioak 20 urtetik 29 urtera atzera egin zutela ikus daiteke; hau da, 20tik

2. taula. Gazteen heriotza-tasak (GHT*) EAE eta Espainian izandako bilakaera (1996-2009)

Lurralde-esparrua	1996	2001	2009	Aldea 2009 – 1996
EAE	0,68	0,48	0,31	–0,37
Espainia	0,72	0,54	0,35	–0,37
Aldea EAE – Espainia	–0,03	–0,06	–0,04	

(*) Gazteen heriotza-tasa (GHT) = 15etik 29 urtera bitarteko hildakoen kopurua, talde bereko 1.000 biztanleko.

Iturria: Bizitokiaren arabeko heriotzak. Mugimendu naturala. INE. 1996/5/1eko Biztanleen Udal Erroldaren berrikuntza, eta 2001/1/1eko eta 2009/1/1eko Udal Errolden azterketak. INE.

3. taula. Gazteen heriotza-tasak (GHT) EAE eta Espainian izandako bilakaera, sexuaren arabera* (1996-2009)

Lurralde-esparrua eta sexua	1996	2009	Aldea 2009 – 1996
EAE	Gizonak	0,95	–0,50
	Emakumeak	0,40	–0,25
	Aldea Gizonak – emakumeak	0,55	0,30
Espainia	Gizonak	1,05	–0,57
	Emakumeak	0,37	–0,16
	Aldea Gizonak – emakumeak	0,68	0,27

(*) 15etik 29 urtera bitarteko hildakoen kopurua, talde eta sexu bereko 1.000 biztanleko.

Iturria: Bizitokiaren arabeko heriotzak. Mugimendu naturala. INE. 1996/5/1eko Biztanleen Udal Erroldaren berrikuntza, eta 2009/1/1eko Udal Errolden azterketak, INE.

24 urtera bitarteko gazteen artean atzera egin zuten, eta, batez ere, heldutasunera iristen ari diren 25etik 29 urtera bitarteko gazteen artean. Hala ere, adin-taldean arteko desberdintasunak oso txikiak dira: orokorrean, heriotza-tasa espezifikoaren balioa pixka bat handitzen da adinarekin, eta txikiagoa da nerabeen artean, heldutasunera iristen ari diren pertsonen artean baino —ikus 4. taula—.

Azter dezagun heriotzaren fenomenoak, arrazoiei dagokienez, Osasunaren Mundu Erakundeak Gaixotasunen Nazioarteko Sailkapenean (GNS) ezarritako irizpideei jarraiki, INEko heriotza-estatistikak jasotzen dituen eta 102 arrazoi barne hartzen dituen ‘zerrenda murriztuko’ arrazoi-familiak edo kausen talde handiak oinarri hartuta.

Bi sexuetako 15etik 29 urtera bitarteko taldeari dagokionez, 1999 eta 2009 artean, heriotzen kopuruaren bilakaera negatiboa izan zen ia heriotza-arrazoi guztietan, eta kanpoko arrazoi beharakada nabarmentzen da; izan ere, gazteen heriotzen arrazoi nagusi dira (–% 71,2 Euskadin, eta –% 56,5 Espainian). Euskadin, tumoreak joera erregresibo orokorraren salbuespena dira (+% 18,2); aldiz, Espainian, azalaren eta larruazalpeko ehunaren gaixotasunek, haurdunaldiek, erditzeek eta puerperioek, eta ezohiko seinale eta aurkipen klinikoek eta laborategikoek (beste inon sailkatu gabeak) *joera nagusiaren kontrako* bilakaera izan zuten —ikus 5. taula—.

4. taula. Gazteen heriotza-tasa espezifikoaren bilakaera EAE eta Espainian, adin-taldean arabera* (1996-2009)

Lurralde-esparrua eta adin-taldeak		1996	2008	2009	Aldea 2009 – 1996	Aldea 2009 – 2008
EAE	15-19 urte	0,33	0,21	0,31	–0,02	0,10
	20-24 urte	0,69	0,34	0,22	–0,47	–0,12
	25-29 urte	0,99	0,39	0,36	–0,63	–0,03
Espainia	15-19 urte	0,44	0,32	0,27	–0,17	–0,05
	20-24 urte	0,67	0,39	0,34	–0,33	–0,05
	25-29 urte	1,04	0,42	0,40	–0,64	–0,02
Aldea EAE – Espainia	15-19 urte	–0,10	–0,11	0,05		
	20-24 urte	0,02	–0,04	–0,11		
	25-29 urte	–0,05	–0,03	–0,04		

(*) Adin talde bakoitzeko hildakoen kopurua, adin talde bereko 1.000 biztanleko.

Iturria: Bizitokiaren arabera heriotzak. Mugimendu naturala. INE. 1996/5/1eko Biztanleen Udal Erroldaren berrikuntza, eta 2008/1/1eko eta 2009/1/1eko Udal Errolden azterketak. INE.

5. taula. 15 eta 29 urte bitarteko gazteen heriotzen bilakaera EAEn eta Espainian, heriotzaren arrazoiaren arabera (1999-2009): kopuru absolutuak eta portzentajezko aldakuntzak

Heriotzaren arrazoa	EAE			Espainia		
	1999	2009	▲% 2009/1999	1999	2009	▲% 2009/1999
Gaixotasun infekziosoak eta parasitoek eragindakoak, HIESa barne hartuta	13	1	-92,31	272	49	-81,99
HIESa	8	0	-100,00	192	16	-91,67
Tumoreak	22	26	18,18	591	467	-20,98
Odolaren eta org. hematopoietikoen gaixotasunak, eta immunitate-mekanismoei eragiten dieten zenbait gaitz	3	0	-100,00	22	18	-18,18
Gaixotasun endokrinoak, nutrizionalak eta metabolikoak	4	0	-100,00	47	38	-19,15
Buru- eta portaera-desorekak	1	0	-100,00	25	13	-48,00
Nerbio-sisteman eta zentzumenen organoetan eragiten duten gaixotasunak	9	3	-66,67	219	146	-33,33
Zirkulazio-sistemaren gaixotasunak	19	13	-31,58	311	237	-23,79
Arnas sistemaren gaixotasunak	4	2	0,00	202	148	-26,73
Digestio-sistemaren gaixotasunak	3	0	-100,00	64	34	-46,88
Azal eta larruazalpeko ehunetako gaixotasunak	0	0	0,00	1	3	200,00
Sistema osteomuskularreko eta ehun konjuntiboko gaixotasunak	1	0	-100,00	20	6	-70,00
Sistema genitourinarioaren gaixotasunak	0	0	0,00	18	8	-55,56
Haurdunaldia, erditzea eta puerperioa	0	0	0,00	4	5	25,00
Jaiotzaren inguruko aldian sortutako gaixotasunak	0	0	0,00	7	2	-71,43
Sortzetiko malformazioak, forma-anormaltasunak eta anomalia kromosomikoak	5	4	-20,00	104	79	-24,04
Beste inon sailkatu ez diren ezohiko sintoma, seinale eta aurkipen klinikoak eta laborategikoak	4	3	-25,00	176	178	1,14
Kanpoko heriotza-arrazoiak	177	51	-71,19	3.521	1.532	-56,49
Kanpoko heriotza-arrazoiak	99	22	-77,78	1.995	632	-68,32
Suizidioak eta norberak eragindako lesioak	33	17	-48,48	478	370	-22,59
Arrazoi guztiak	265	103	-61,13	5.604	2.963	-47,13

Iturria: Arrazoiaren arabera heriotzak, zerrenda murriztua. INE.

Orain, ikus dezagun 2009an erregistratutako gazteen heriotzen portzentajezko banaketa, heriotzen arrazoen arabera. Bertan, lau arrazoi nabarmentzen dira, gazteen heriotzen arrazoi nagusi gisa: tumoreak, ibilgailu motordunen trafiko-istripuak, suizidioa eta norberak eragindako lesioak, eta zirkulazio-sistemaren gaixotasunak. Lurraldeen arteko ezberdintasunei dagokienez, tumoreak, zirkulazio-sistemako gaixotasunek, suizidioek eta norberak eragindako lesioek presentzia erlatibo handiagoa dute Euskadin. Aldiz, arnas sistemako gaixotasunek, nerbio-sistemako gaixotasunek, zentzumen-organoen gaixotasunek eta ezohiko sintoma, seinale eta aurkiten klinikoek eta labora-

tegikoek (beste inon sailkatu gabeak) garrantzi handiagoa dute Estatuan —ikus 6. taula—.

Une honetatik aurrera, heriotza-arrazoi handien arabera tasa espezifikoak aztertuko ditugu. Adierazle demografiko horrek arrazoi bakoitzaren gertaera kuantitatiboa ezagutzeko aukera ematen digu, Euskadiko eta Espainiako 100.000 gazteren artean. Lehenik eta behin, 1999 eta 2009 arteko bilakaera aztertuko dugu eta, ondoren, arrazoi handi bakoitzak aldiaren azken urtean izan duen garrantziari erreparatuko diogu. Heriotza-tasa espezifikoaren balioen bilakaera atzerakada izan da, gehienbat, aztertutako aldian, eta nabarmena

da, batez ere, kanpoko arrazoen ondoriozko heriotza-tasaren atzerakada; bereziki, ibilgailu motordunen trafiko-istripuek eragindakoa. Bestalde, gora egin dute tumoreak, EAEn soilik bada ere. 2009ko heriotza-tasa espezifikoaren balioen inguruan, tumoreak, ibilgailu motordunen trafiko-istripuak eta suizidioak zein norberak eragindako lesioak nabarmentzen dira talde gazteko heriotza-arrazoi nagusi gisa, bai Euskadin, bai Estatuan. Lurraldeen arteko konparazioa egitean, aipatzekoa da tumoreak gailentzen direla euskal gazteriaren artean; Espainian, berriz, ibilgailu motordunen trafiko-istripuak dira nagusi —ikus 7. taula—.

6. taula. 15 eta 29 urte bitarteko gazteen heriotzen ehunekoen banaketaren* bilakaera EAEn eta Espainian, heriotzaren arrazoiaren arabera (1999-2009)

Heriotzaren arrazoa	EAE			Espainia			Aldea EAE – Espainia 2009
	1999	2009	Aldea 2009 – 1999	1999	2009	Aldea 2009 – 1999	Aldea EAE – Espainia
Gaixotasun infekziosoak eta parasitoek eragindakoak, HIESa barne hartuta	4,91	0,97	–3,94	4,85	1,65	–3,20	–0,68
HIESa	3,02	0,00	–3,02	3,43	0,54	–2,89	–0,54
Tumoreak	8,30	25,24	16,94	10,55	15,76	5,21	9,48
Odolaren eta org. hematopoietikoen gaixotasunak, eta immunitate-mekanismoen eragiten dieten zenbait gaitz	1,13	0,00	–1,13	0,39	0,61	0,22	–0,61
Gaixotasun endokrinoak, nutrizionalak eta metabolikoak	1,51	0,00	–1,51	0,84	1,28	0,44	–1,28
Buru- eta portaera-desorekak	0,38	0,00	–0,38	0,45	0,44	–0,01	–0,44
Nerbio-sisteman eta zentzumenen organoetan eragiten duten gaixotasunak	3,40	2,91	–0,49	3,91	4,93	1,02	–2,02
Zirkulazio-sistemaren gaixotasunak	7,17	12,62	5,45	5,55	8,00	2,45	4,62
Arnas sistemaren gaixotasunak	1,51	1,94	0,43	3,60	4,99	1,39	–3,05
Digestio-sistemaren gaixotasunak	1,13	0,00	–1,13	1,14	1,15	0,01	–1,15
Azal eta larruazalpeko ehunetako gaixotasunak	0,00	0,00	0,00	0,02	0,10	0,08	–0,10
Sistema osteomuskularreko eta ehun konjuntiboko gaixotasunak	0,38	0,00	–0,38	0,36	0,20	–0,16	–0,20
Sistema genitourinarioaren gaixotasunak	0,00	0,00	0,00	0,32	0,27	–0,05	–0,27
Haurdunaldia, erditzea eta puerperioa	0,00	0,00	0,00	0,07	0,17	0,10	–0,17
Jaiotzaren inguruko aldiaren sortutako gaixotasunak	0,00	0,00	0,00	0,12	0,07	–0,05	–0,07
Sortzetiko malformazioak, forma-anormaltasunak eta anomalia kromosomikoak	1,89	3,88	1,99	1,86	2,67	0,81	1,21
Beste inon sailkatu ez diren ezohiko sintoma, seinale eta aurkiten klinikak eta laborategikoak	1,51	2,91	1,40	3,14	6,01	2,87	–3,10
Kanpoko heriotza-arrazoiak	66,79	49,51	–17,28	62,83	51,70	–11,13	–2,19
lbilgailu motordunen trafiko-istripuak	37,36	21,36	–16,00	35,60	21,33	–14,27	0,03
Suizidioak eta norberak eragindako lesioak	12,45	16,50	4,05	8,53	12,49	3,96	4,01
Arrazoi guztiak	100,00	100,00	0,00	100,00	100,00	0,00	0,00

(*) 15etik 29ra bitarteko gazteen taldeko heriotzen guztizkoaren gaineko ehunekoa, urte bakoitzean.

Iturria: Arrazoiaren arabera heriotzak, zerrenda murritzua. INE.

7. taula. 15 eta 29 urte bitarteko gazteen heriotza-tasa espezifikoak (HTE)* EAEn eta Espainian izandako bilakaera, heriotzaren arrazoiaren arabera (1999-2009)


Heriotzaren arrazoa	EAEn			Espainia		
	1999	2009	Aldea 2009 – 1999	1999	2009	Aldea 2009 – 1999
Gaixotasun infekziosoak eta parasitoek eragindakoak, HIESa barne hartuta	2,75	0,30	-2,45	2,89	0,57	-2,32
HIESa	1,69	0,00	-1,69	2,04	0,19	-1,85
Tumoreak	4,66	7,73	3,07	6,28	5,44	-0,84
Odolaren eta org. hematopoietikoen gaixotasunak, eta immunitate-mekanismoen eragiten dieten zenbait gaitz	0,64	0,00	-0,64	0,23	0,21	-0,02
Gaixotasun endokrinoak, nutrizionalak eta metabolikoak	0,85	0,00	-0,85	0,50	0,44	-0,06
Buru- eta portaera-desorekak	0,21	0,00	-0,21	0,27	0,15	-0,12
Nerbio-sisteman eta zentzumenen organoetan eragiten duten gaixotasunak	1,91	0,89	-1,02	2,33	1,70	-0,63
Zirkulazio-sistemaren gaixotasunak	4,02	3,86	-0,16	3,31	2,76	-0,55
Arnas sistemaren gaixotasunak	0,85	0,59	-0,26	2,15	1,72	-0,43
Digestio-sistemaren gaixotasunak	0,64	0,00	-0,64	0,68	0,40	-0,28
Azal eta larruazalpeko ehunetako gaixotasunak	0,00	0,00	0,00	0,01	0,03	0,02
Sistema osteomuskularreko eta ehun konjuntiboko gaixotasunak	0,21	0,00	-0,21	0,21	0,07	-0,14
Sistema genitourinarioaren gaixotasunak	0,00	0,00	0,00	0,19	0,09	-0,10
Haurdunaldia, erditzea eta puerperioa	0,00	0,00	0,00	0,04	0,06	0,02
Jaiotzaren inguruko aldian sortutako gaixotasunak	0,00	0,00	0,00	0,07	0,02	-0,05
Sortzetiko malformazioak, forma-anormaltasunak eta anomalia kromosomikoak	1,06	1,19	0,13	1,11	0,92	-0,19
Sortzetiko malformazioak, forma-anormaltasunak eta anomalia kromosomikoak	0,85	0,89	0,04	1,87	2,07	0,20
Kanpoko heriotza-arrazoiak	37,47	15,16	-22,31	37,43	17,85	-19,58
lbigailu motordunen trafiko-istripuak	20,96	6,54	-14,42	21,21	7,36	-13,85
Suizidioak eta norberak eragindako lesioak	6,99	5,05	-1,94	5,08	4,31	-0,77
Suizidioak eta norberak eragindako lesioak	56,10	30,62	-25,48	59,57	34,51	-25,06

(*) 15etik 29ra bitarteko hildako gazteak, talde gazteko 100.000 biztanleko, heriotzaren arrazoiaren arabera.

Iturria: Arrazoiaren arabera heriotzak, zerrenda murriztua. INE. 1999/1/1eko eta 2009/1/1eko Udako Erroldaren azterketak. INE.

Jarraian, ikus ditzagun 15etik 29 urtera bitarteko sexu bakoitzeko gazteen 2009ko heriotza-tasa espezifikoak, heriotza-arrazoiaren arabera. Orokorrean, emakume gazteen artean heriotza-arrazoi gehienek askoz ere intentsitate txikiagoa dute, gizonekin konparatuta. Alde hori bereziki esanguratsua da heriotzaren kanpoko arrazoiak kontuan hartzen baditugu. Ibilgailu motordunen trafiko-istripuek eragindako heriotzetan zein suizidioetan eta lesioetan, gizonen eta emakumeen arteko aldea oso handia da —ikus 1. grafikoa eta 8. taula—.

1. grafikoa. 15 eta 29 urte bitarteko gazteen heriotza tasa espezifikoak EAEn 2009an, sexuaren eta heriotzaren arrazoiaren arabera: hildakoak, arrazoiaren arabera, 15-29 urte bitarteko eta sexu bereko 100.000 biztanleko



Iturria: Arrazoiaren araberako heriotzak, zerrenda murritzua. INE. 2009/1/1eko Udal Erroldaren azterketa, INE.

8. taula. 15 eta 29 urte bitarteko gazteen heriotza-tasa espezifikokoak*, sexuka, EAEn eta Espainian 2009an, heriotzaren arrazoiaren arabera

Heriotzaren arrazoa	EAEn			Espainia		
	Gizonak	Emakumeak	Aldea G – E	Gizonak	Emakumeak	Aldea G – E
Gaixotasun infekziosoak eta parasitoek eragindakoak, HIESa barne hartuta	0,00	0,61	–0,61	0,55	0,60	–0,05
HIESa	0,00	0,00	0,00	0,16	0,21	–0,05
Tumoreak	9,27	6,11	3,16	6,17	4,68	1,49
Odolaren eta org. hematopoietikoen gaixotasunak, eta immunitate-mekanismoen eragiten dieten zenbait gaitz	0,00	0,00	0,00	0,25	0,17	0,08
Gaixotasun endokrinoak, nutrizionalak eta metabolikoak	0,00	0,00	0,00	0,46	0,43	0,03
Buru- eta portaera-desorekak	0,00	0,00	0,00	0,25	0,05	0,20
Nerbio-sisteman eta zentzumenen organoetan eragiten duten gaixotasunak	1,16	0,61	0,55	1,91	1,48	0,43
Zirkulazio-sistemaren gaixotasunak	5,79	1,83	3,96	3,64	1,84	1,80
Arnas sistemaren gaixotasunak	1,16	0,00	1,16	1,91	1,53	0,38
Digestio-sistemaren gaixotasunak	0,00	0,00	0,00	0,55	0,24	0,31
Azal eta larruazalpeko ehunetako gaixotasunak	0,00	0,00	0,00	0,05	0,02	0,03
Sistema osteomuskularreko eta ehun konjuntiboko gaixotasunak	0,00	0,00	0,00	0,02	0,12	–0,10
Sistema genitourinarioaren gaixotasunak	0,00	0,00	0,00	0,09	0,10	0,01
Haurdunaldia, erditzea eta puerperioa	0,00	0,00	0,00	0,00	0,12	–0,12
Jaiotzaren inguruko aldian sortutako gaixotasunak	0,00	0,00	0,00	0,05	0,00	0,05
Sortzetiko malformazioak, forma-anormaltasunak eta anomalia kromosomikoak	1,74	0,61	1,13	1,07	0,76	0,31
Beste inon sailkatu ez diren ezohiko sintoma, seinale eta aurkipen klinikoak eta laborategikoak	1,74	0,00	1,74	2,96	1,15	1,81
Kanpoko heriotza-arrazoiak	24,33	5,50	18,83	27,92	7,28	20,64
Ibilgailu motordunen trafiko-istripuak	10,43	2,44	7,99	11,51	3,01	8,50
Suizidioak eta norberak eragindako lesioak	8,11	1,83	6,28	6,92	1,58	5,34
Arrazoi guztiak	45,18	15,27	29,91	47,82	20,55	27,27

(*) 15etik 29ra bitarteko hildako gazteak, talde gazteko eta sexu bereko 100.000 biztanleko, heriotzaren arrazoiaren arabera.

Iturria: Arrazoiaren arabera heriotzak, zerrenda murriztua. INE. 2009/1/1eko Udal Errolden azterketa. INE.

2. Lurralde historikoak

Ekin diezaiogun lurralde historikoetan erregistratutako gazteen heriotzen analisiari, 1996tik 2009ra bitartean hildakoen kopuruaren bilakaeraren bidez. Talde demografiko horretan, hildakoen kopuruak nabarmen egin zuen atzera, 1996tik 2009ra bitartean, beherakada handiena Bizkaian izan zen (–% 76,3) eta txikiena Araban (–% 55,6). Kontuan izan dezagun, aldi horretan, erroldatutako 15etik 29 urtera bitarteko gazteen kopuruak ere nabarmen egin zuela behera hiru lurralde historikoetan² —ikus 9. taula eta 2. grafikoa—.

15etik 29 urtera bitarteko hildakoen kopuruaren erregresio orokorrak talde bereko biztanleen beherakadaren ondorioa dirudi, baina baliteke beste arrazoiren batek ere eragina izatea. Kalkulatu dezagun gazteen heriotza-tasa; kalkulu horrek gazteek hiltzeko duten probabilitatea jaitsi ote den jakiteko aukera ematen digu: tasa jada nahiko baxua zen 1996an, baina 2009an lurralde historikoetan erdia (Gipuzkoa) edo gehiago (Bizkaia) murriztu dela ikus dezakegu. Labur esanda, 15etik 29 urtera bitarteko hildakoen kopuruaren beherakada garrantzitsua gazteek hiltzeko probabilitatearen mu-


² 1996/5/1 eta 2010/1/1 artean, 15etik 29 urtera bitarteko erroldatutako pertsonen % 27ko beherakada izan zuten Araban, % 36,6koa Bizkaian, eta % 35,7 Gipuzkoan.

9. taula. 15 eta 29 urte bitarteko hildakoen kopuruaren bilakaera lurralde historikoetan (1996-2009): kopuru absolutuak eta portzentajezko aldakuntzak

Lurralde historikoak	1996	2001	2008	2009	▲% 2009/1996
Araba	45	28	12	20	–55,56
Bizkaia	177	112	65	42	–76,27
Gipuzkoa	124	74	38	41	–66,94

Iturria: Bizitokiaren araberako heriotzak. Mugimendu naturala. INE.

2. grafikoa. 15 eta 29 urte bitarteko hildakoen kopuruaren bilakaera, 1996tik 2009ra bitartean, lurralde historikoetan (kopuru absolutuak)



Gazteen adierazleak 2011

rrizpenaren eragina ere bada. Probabilitate hori oso txikia da XXI. mendeko lehen hamarkadaren amaieran —ikus 10. taula—.

Halere, epe laburrera atzera begira; hau da, 2008 eta 2009 artean, Araban, eta, neurri txikiagoan, Gipuzkoan, 15etik 29 urtera bitarteko hildakoen urte-tik urterako bilakaerak norabide positiboa hartu zuen (+% 66,7 eta +% 7,9%, hurrenez hurren). Hain zuzen ere, Araban, gazteen heriotza-tasaren gorakada txiki bat ikus daiteke (+0,2).

Sexuari dagokion aldagaia analisi deskribatzailean eta konparatiboan sartzen badugu, hasieran ikus daiteke 2009ko gizon gazteen heriotza-tasak handiagoak direla emakumeenak baino, hiru lurralde historikoetan (Araban eta Gipuzkoan bikoitza da eta Bizkaian boskoitza). Nolanahi ere, 3 hamarrenez ari gara soilik, 1.000 biztanleko, talde gaztekoek hiltzeko duten probabilitatea oso eskasa baita, oro har. Ondoren, ikus daiteke, 1996tik 2009ra bitartean, gazteen heriotza-tasak murriztu egin direla bi sexuetako gazteetan, baina batez ere gizonetan. Amaitzeko, 2009an, Araban eta Gipuzkoan bizi diren gazteak bat datoz gizonen eta emakumeen tasen balioetan, eta azken tasa horiek ere handiagoak dira Bizkaikoekin konparatuta —ikus 11. taula—.

10. taula. Gazteen heriotza-tasak (GHT)* lurralde historikoetan izandako bilakaera (1996-2009)

Lurralde historikoak	1996	2001	2009	Aldea 2009 – 1996
Araba	0,65	0,43	0,39	–0,26
Bizkaia	0,64	0,47	0,24	–0,40
Gipuzkoa	0,76	0,52	0,38	–0,38

(*) Adin talde bakoitzeko hildakoen kopurua, adin talde bereko 1.000 biztanleko.

Iturria: Bizitokiaren araberako heriotzak. Mugimendu naturala. INE. 1996/5/1eko Biztanleen Udal Erroldaren berrikuntza, eta 2001/1/1eko eta 2009/1/1eko Udal Errolden azterketak. INE.

11. taula. Gazteen heriotza-tasak (GHT)* lurralde historikoetan izandako bilakaera, sexuaren arabera (1996-2009)

Lurralde historikoak eta sexua	1996	2001	2009	Aldea 2009 – 1996
Araba	Gizonak	0,82	0,73	–0,29
	Emakumeak	0,47	0,13	–0,23
	Aldea Gizonak – emakumeak	0,35	0,60	0,29
Bizkaia	Gizonak	0,98	0,68	–0,60
	Emakumeak	0,29	0,24	–0,21
	Aldea Gizonak – emakumeak	0,69	0,45	0,30
Gipuzkoa	Gizonak	0,95	0,72	–0,42
	Emakumeak	0,56	0,30	–0,33
	Aldea Gizonak – emakumeak	0,40	0,41	0,30

(*) Adin talde bakoitzeko hildakoen kopurua, adin talde bereko 1.000 biztanleko.

Iturria: Bizitokiaren araberako heriotzak. Mugimendu naturala. INE. 1996/5/1eko Biztanleen Udal Erroldaren berrikuntza, eta 2001/1/1eko eta 2009/1/1eko Udal Errolden azterketak. INE.

Talde gazteko adin taldeentzako heriotza-tasa espezifikoa kalkulatu ondoren, 20 urtetik aurrera hiltzeko probabilitateak behera egin duela ikus daiteke, bereziki, 25 eta 29 urte arteko pertsonen artean. Orokorrean, hiru lurralde historikoetan, adinaren eta hiltzeko probabilitatearen arteko erlazio positiboa ikusten da; izan ere, probabilitate hori pixka bat handiagoa da heldutasunera iristen ari diren gazteen artean. Dena dela, ezberdintasunak oso txikiak dira, 1 eta 3 hamarren artean, 1.000 biztanleko —ikus 12. taula—.

Orain ikus dezagun 15etik 29 urtera bitarteko pertsonen heriotzaren arrazoiaren arabera heriotza-kopuruaren bilakaera: atzerakada orokorra izan da 1999 eta 2009 artean, Gipuzkoako tumoreak eta Bizkaiko zein Gipuzkoako sortzetiko malformazioak, forma-anormaltasunak eta anomalia kromosomikoak alde batera utzita. Benetan atzera egiten ari diren arrazoiaren artean, nabarmentzekoak dira ibilgailu motordunen trafiko-istripuak; izan ere, lehen, heriotzaren arrazoi nagusia ziren gazteen artean. Gipuzkoan, tumoreen gorakadak kanpoko arrazoi horri lekua kendu dio jada —ikus 13. taula—.

12. taula. Gazteen heriotza-tasa espezifikoa (GHE)* lurralde historikoetan izandako bilakaera, adin-taldearen arabera (1996-2009)

Lurralde historikoak eta adin-taldeak		1996	2009	Aldea 2009 – 1996
Araba	15-19 urte	0,32	0,39	0,07
	20-24 urte	0,57	0,30	-0,27
	25-29 urte	1,02	0,45	-0,57
Bizkaia	15-19 urte	0,31	0,17	-0,14
	20-24 urte	0,69	0,40	-0,28
	25-29 urte	0,91	0,40	-0,51
Gipuzkoa	15-19 urte	0,38	0,31	-0,07
	20-24 urte	0,76	0,27	-0,49
	25-29 urte	1,10	0,52	-0,58

(*) Adin talde bakoitzeko hildakoen kopurua, adin talde bereko 1.000 biztanleko.

Iturria: Bizitokiaren arabera heriotzak. Mugimendu naturala. INE. 1996/5/1eko Biztanleen Udal Erroldaren berrikuntza, eta 2009/1/1eko Udal Errolden azterketa. INE.

13. taula. 15 eta 29 urte bitarteko gazteen heriotzen bilakaera lurralde historikoetan, heriotzaren arrazoiaren arabera (1999-2009): absolutuak eta portzentajezko aldakuntzak

Heriotzaren arrazoiak	Araba			Bizkaia			Gipuzkoa		
	1999	2009	▲% 2009/1999	1999	2009	▲% 2009/1999	1999	2009	▲% 2009/1999
Gaixotasun infektziosoak eta parasitoek eragindakoak, HIESa barne hartuta	2	0	-100,00	9	1	-88,89	2	0	-100,00
HIESa	1	0	-100,00	5	0	-100,00	2	0	-100,00
Tumoreak	5	5	0,00	11	7	-36,36	6	14	133,33
Odolaren eta org. hematopoietikoen gaixotasunak, eta immunitate-mekanismoek eragiten dieten zenbait gaitz	0	0	0,00	1	0	0,00	2	0	0,00
Gaixotasun endokrinoak, nutrizionalak eta metabolikoak	1	0	-100,00	1	0	-100,00	2	0	-100,00
Buru- eta portaera-desorekak	0	0	0,00	1	0	0,00	0	0	0,00
Nerbio-sistema eta zentzumenen organoetako gaixotasunak	1	0	0,00	5	2	0,00	3	1	0,00
Zirkulazio-sistemaren gaixotasunak	2	0	-100,00	10	6	-40,00	7	7	0,00
Arnas sistemaren gaixotasunak	0	0	0,00	2	1	0,00	2	1	0,00
Digestio-sistemaren gaixotasunak	0	0	0,00	3	0	0,00	0	0	0,00
Azal eta larruazalpeko ehunetako gaixotasunak	0	0	0,00	0	0	0,00	0	0	0,00
Sistema osteomuskularreko eta ehun konjuntiboko gaixotasunak	0	0	0,00	0	0	0,00	1	0	0,00
Sistema genitourinarioaren gaixotasunak	0	0	0,00	0	0	0,00	0	0	0,00
Haurdunaldia, erditzea eta puerperioa	0	0	0,00	0	0	0,00	0	0	0,00
Jaiotzaren inguruko aldiaren sortutako gaixotasunak	0	0	0,00	0	0	0,00	0	0	0,00
Sortzetiko malformazioak, forma-anormaltasunak eta anomalia kromosomikoak	3	0	-100,00	2	3	50,00	0	1	--
Beste inon sailkatu ez diren ezohiko sintoma, seinale eta aurkiten klinikoak eta laborategikoak	0	2	--	3	0	-100,00	1	1	0,00
Kanpoko heriotza-arrazoiak	28	13	-53,57	86	22	-74,42	63	16	-74,60
Ibilgailu motordunen trafiko-istripuak	20	7	-65,00	48	8	-83,33	31	7	-77,42
Suizidioak eta norberak eragindako lesioak	5	4	-20,00	12	8	-33,33	16	5	-68,75
Arrazoi guztiak	42	20	-52,38	134	42	-68,66	89	41	-53,93


Iturria: Arrazoiaren arabera heriotzak, zerrenda murriztua. INE.

Nolanahi ere, kanpoko arrazoiek behera eginda ere, ibilgailu motordunen trafiko-istripuek heriotzen arrazoi nagusia izaten jarraitzen dute, 2009an, Araban (% 35) eta Bizkaian (% 19,1) bizi diren gazteen artean, Bizkaian, suizidioarekin eta norberak eragindako lesioekin nagusitasuna partekatuta. Gipuzkoan berriz, tumoreak dira nagusi (% 34,1), eta zirkulazio-sistemako gaixotasunak eta ibilgailu motordunen trafiko-istripuak batera ageri dira, heriotza-arrazoen portzentajezko banaketaren bigarren postuan (% 17,1) —ikus 3 grafikoa eta 14. taula—.

Bi sexuetarako eta heriotza-arrazoiaren araberrako heriotza-tasa espezifikoak kalkulatu gero, kanpoko arrazoiengatik hiltzeko probabilitatea Arabako gazteen artean pixka bat handiagoa dela ikus daiteke; bereziki, ibilgailu motordunen trafiko-istripuengatik. Gipuzkoako gazteen artean tumoreak eta, ondoren, zirkulazio sistemako gaixotasunak nabarmentzen dira heriotzaren arrazoi nagusi gisa. Aldiz, Bizkaian bizi diren gazteak arrazoiaren araberrako heriotza-tasa espezifiko gehienetan balore txikiagoak izateagatik nabarmentzen dira. Nolanahi ere, heriotza-arrazoiaren araberrako heriotza-tasa espezifikoek benetan baxuak dira euskal gazteen artean —ikus 15. taula—.

Arrazoiaren araberrako heriotza-tasa espezifikoaren analisisan sakontzen badugu, sexua kontuan izanda, ia arrazoi guztietan, emakumeen tasak txikiagoak direla ikus daiteke, lau salbuespenekin. Salbuespen horien artean, tumoreak nabarmentzen dira, Arabako emakumeen artean —ikus 16. taula—.

3. grafikoa. 15etik 29ra bitarteko hildakoen banaketa 2009an lurralde historikoetan, heriotzaren arrazoiaren arabera (guztizkoaren gaineko portzentajea)



Iturria: Heriotzak arrazoiaren arabera, zerrenda murriztua. INE. 2009/1/1eko Udal Erroldaren Azterketa, INE.

14. taula. 15 eta 29 urte bitarteko hildakoen portzentajezko banakeraren bilakaera lurralde historikoetan, heriotzaren arrazoiaren arabera (1999-2009)

Heriotzaren arrazoa (*)	Araba			Bizkaia			Gipuzkoa		
	1999	2009	Aldea 2009 – 1999	1999	2009	Aldea 2009 – 1999	1999	2009	Aldea 2009 – 1999
Gaixotasun infekziosoak eta parasitoek eragindakoak, HIESa barne hartuta	4,76	0,00	-4,76	6,72	2,38	-4,34	2,25	0,00	-2,25
HIESa	2,38	0,00	-2,38	3,73	0,00	-3,73	2,25	0,00	-2,25
Tumoreak	11,90	25,00	13,10	8,21	16,67	8,46	6,74	34,15	27,41
Odolaren eta org. hematopoietikoen gaixotasunak, eta immunitate-mekanismoei eragiten dieten zenbait gaitz	0,00	0,00	0,00	0,75	0,00	-0,75	2,25	0,00	-2,25
Gaixotasun endokrinoak, nutrizionalak eta metabolikoak	2,38	0,00	-2,38	0,75	0,00	-0,75	2,25	0,00	-2,25
Buru- eta portaera-desorekak	0,00	0,00	0,00	0,75	0,00	-0,75	0,00	0,00	0,00
Nerbio-sisteman eta zentzumenen organoetan eragiten duten gaixotasunak	2,38	0,00	-2,38	3,73	4,76	1,03	3,37	2,44	-0,93
Zirkulazio-sistemaren gaixotasunak	4,76	0,00	-4,76	7,46	14,29	6,83	7,87	17,07	9,21
Arnas sistemaren gaixotasunak	0,00	0,00	0,00	1,49	2,38	0,89	2,25	2,44	0,19
Digestio-sistemaren gaixotasunak	0,00	0,00	0,00	2,24	0,00	-2,24	0,00	0,00	0,00
Sistema osteomuskularreko eta ehun konjuntiboko gaixotasunak	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	1,12	0,00	-1,12
Sortzetiko malformazioak, forma-anormaltasunak eta anomalia kromosomikoak	7,14	0,00	-7,14	1,49	7,14	5,65	0,00	2,44	2,44
Beste inon sailkatu ez diren ezohiko sintoma, seinale eta aurkipeen klinikoak eta laborategikoak	0,00	10,00	10,00	2,24	0,00	-2,24	1,12	2,44	1,32
Kanpoko heriotza-arrazoiak	66,67	65,00	-1,67	64,18	52,38	-11,80	70,79	39,02	-31,77
Ibilgailu motordunen trafiko-istripuak	47,62	35,00	-12,62	35,82	19,05	-16,77	34,83	17,07	-17,76
Suizidioak eta norberak eragindako lesioak	11,90	20,00	8,10	8,96	19,05	10,09	17,98	12,20	-5,78
Arrazoi guztiak	100,00	100,00	0,00	100,00	100,00	0,00	100,00	100,00	0,00

(*) Aurreko tauletako lau lerro ezabatu ditugu; izan ere, heriotzarik eragin ez duten arrazoiak dira: azaleko eta larruazalpeko ehunetako gaixotasunak; sistema genitourinarioko gaixotasunak; haurdunaldia, erditzea eta puerperioa; eta jaiotzaren inguruko aldiaren sortutako gaixotasunak.

Iturria: Heriotzak arrazoiaren arabera, zerrenda murriztua. INE.

15. taula. 15 eta 29 urte bitarteko gazteen heriotza-tasa espezifikoak (GHE)* lurralde historikoetan izandako bilakaera, heriotza arrazoiaren arabera (1999-2009)

Heriotzaren arrazoa (**)	Araba			Bizkaia			Gipuzkoa		
	1999	2009	Aldea 2009 – 1999	1999	2009	Aldea 2009 – 1999	1999	2009	Aldea 2009 – 1999
Gaixotasun infektzioak eta parasitoek eragindakoak, HIESa barne hartuta	3,00	0,00	–3,00	3,53	0,56	–2,97	1,32	0,00	–1,32
HIESa	1,50	0,00	–1,50	1,96	0,00	–1,96	1,32	0,00	–1,32
Tumoreak	7,51	9,67	2,16	4,32	3,94	–0,38	3,97	13,10	9,13
Odolaren eta org. hematopoietikoen gaixotasunak, eta immunitate-mekanismoen eragiten dieten zenbait gaitz	0,00	0,00	0,00	0,39	0,00	–0,39	1,32	0,00	–1,32
Gaixotasun endokrinoak, nutrizionalak eta metabolikoak	1,50	0,00	–1,50	0,39	0,00	–0,39	1,32	0,00	–1,32
Buru- eta portaera-desorekak	0,00	0,00	0,00	0,39	0,00	–0,39	0,00	0,00	0,00
Nerbio-sisteman eta zentzumenen organoetan eragiten duten gaixotasunak	1,50	0,00	–1,50	1,96	1,12	–0,84	1,99	0,94	–1,05
Zirkulazio-sistemaren gaixotasunak	3,00	0,00	–3,00	3,93	3,37	–0,56	4,64	6,55	1,91
Arnas sistemaren gaixotasunak	0,00	0,00	0,00	0,79	0,56	–0,23	1,32	0,94	–0,38
Digestio-sistemaren gaixotasunak	0,00	0,00	0,00	1,18	0,00	–1,18	0,00	0,00	0,00
Sistema osteomuskularreko eta ehun konjuntiboko gaixotasunak	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,66	0,00	–0,66
Sortzetiko malformazioak, forma-anormaltasunak eta anomalia kromosomikoak	4,50	0,00	–4,50	0,79	1,69	0,90	0,00	0,94	0,94
Beste inon sailkatu ez diren ezohiko sintoma, seinale eta aurkipen klinikoak eta laborategikoak	0,00	3,87	3,87	1,18	0,00	–1,18	0,66	0,94	0,28
Kanpoko heriotza-arrazoiak	42,03	25,13	–16,90	33,76	12,37	–21,39	41,72	14,97	–26,75
lbigailu motordunen trafiko-istripuak	30,02	13,53	–16,49	18,84	4,50	–14,34	20,53	6,55	–13,98
Suizidioak eta norberak eragindako lesioak	7,51	7,73	0,22	4,71	4,50	–0,21	10,60	4,68	–5,92
Arrazoi guztiak	63,05	38,66	–24,39	52,60	23,62	–28,98	58,94	38,36	–20,58

(*) 15etik 29ra bitarteko hildako gazteak, talde gazteko eta sexu bereko 100.000 biztanleko, heriotzaren arrazoiaren arabera.

(**) Aurreko tauletako lau lerro ezabatu ditugu; izan ere, heriotzarik eragin ez duten arrazoiak dira: azaleko eta larruazalpeko ehunetako gaixotasunak; sistema genitourinarioko gaixotasunak; haurdunaldia, erditzea eta puerperioa; eta jaiotzaren inguruko aldiak sortutako gaixotasunak.

Iturria: Heriotzak arrazoiaren arabera, zerrenda murriztua. INE.

16. taula. 15 eta 29 urte bitarteko gazteen heriotza-tasa espezifikoak*, sexuka, lurralde historikoetan 2009an, heriotza arrazoiaren arabera

Heriotzaren arrazoia (**)	Araba			Bizkaia			Gipuzkoa		
	Gizonak	Emakumeak	Aldea G – E	Gizonak	Emakumeak	Aldea G – E	Gizonak	Emakumeak	Aldea G – E
Gaixotasun infekziosoak eta parasitoek eragindakoak, HIESa barne hartuta	0,00	0,00	0,00	0,00	1,15	-1,15	0,00	0,00	0,00
HIESa	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
Tumoreak	7,50	11,96	-4,46	5,49	2,30	3,19	16,36	9,64	6,72
Nerbio-sisteman eta zentzumenen organoetan eragiten duten gaixotasunak	0,00	0,00	0,00	2,20	0,00	2,20	0,00	1,93	-1,93
Zirkulazio-sistemaren gaixotasunak	0,00	0,00	0,00	4,40	2,30	2,10	10,91	1,93	8,98
Arnas sistemaren gaixotasunak	0,00	0,00	0,00	1,10	0,00	1,10	1,82	0,00	1,82
Sortzetiko malformazioak, forma-anormaltasunak eta anomalia kromosomikoak	0,00	0,00	0,00	3,30	0,00	3,30	0,00	1,93	-1,93
Beste inon sailkatu ez diren ezohiko sintoma, seinale eta aurkipen klinikoak eta laborategikoak	7,50	0,00	7,50	0,00	0,00	0,00	1,82	0,00	1,82
Kanpoko heriotza-arrazoiak	37,52	11,96	25,56	21,98	2,30	19,68	21,82	7,71	14,11
lbilgailu motordunen trafiko-istripuak	18,76	7,98	10,78	7,69	1,15	6,54	10,91	1,93	8,98
Suizidioak eta norberak eragindako lesioak	15,01	0,00	15,01	7,69	1,15	6,54	5,45	3,86	1,59
Arrazoi guztiak	52,53	23,93	28,60	38,46	8,07	30,39	52,72	23,13	29,59

(*) 15etik 29ra bitarteko hildako gazteak, talde gazteko eta sexu bereko 100.000 biztanleko, heriotzaren arrazoiaren arabera.

(**) Aurreko tauletako bederatzi lerro ezabatu ditugu; izan ere, heriotzarik eragin ez duten arrazoiak dira: odoleko eta org. hematopoietikoak eta immunitate-mekanismoari eragiten dioten zenbait gaitz; gaixotasun endokrinoak, nutrizionalak eta metabolikoak; buru- eta portaera-desorekak; digestio-sistemako gaixotasunak; azaleko eta larruazalpeko ehunetako gaixotasunak; sistema osteomuskularreko eta ehun konjuntiboko gaixotasunak; sistema genitourinarioko gaixotasunak; haurdunaldia, erditzea eta puerperioa; eta jaiotzaren inguruko aldian sortutako gaixotasunak.

Iturria: Heriotzak, arrazoiaren arabera, zerrenda murriztua. INE. 2009/1/1eko Udak Erroldaren azterketa, INE.

3. Ondorioak

1996tik 2009ra bitartean, 15etik 29 urtera bitarteko taldeko hildakoen kopuruak nabarmen egin zuen behera: EAeko beherakadak (-% 70,2) aise gainditu zuen Espainiakoa (-% 57,4). Lurralde historikoetan, gazteen heriotzen atzerakada handiena Bizkaikoa da (-% 76,3) eta txikiena Arabakoa (-% 55,6). Atzerakadaren zati bat 15etik 29 urtera bitarteko biztanleen beherakadari dagokio (1980 eta 1995 artean jaiotza-tasan izandako beherakadaren ondoren). 1996tik 2009ra bitartean, gazteen heriotza tasa erdira murriztu zen, Euskadin zein Espainian, eta aztertutako aldia oso balio txikiekin amaitu zen: 0,3 hildako, 15etik 29 urtera bitarteko 1.000 biztanleko. Lurralde historikoetan, gazteen heriotza-tasa erdira murriztu da Gipuzkoan, eta are gehiago Bizkaian. Labur esanda, gazteek hiltzeko duten probabilitatea ia hutsala da, XXI. mendeko lehen hamarkadaren hasieran.

Gazteen heriotza-tasa eskasagoa da emakumeen artean, gizonen artean baino: 2009an, gizonen tasak emakumeena hirukoizten du Euskadin (0,45 eta 0,15 heriotza 1.000 biztanleko, hurrenez hurren). Estatuan, aldiz, bikoiztu egiten du (0,48 eta 0,21 heriotza, sexu bereko 1.000 gazteko). Lurral-

de historikoei dagokienez, Araban eta Gipuzkoan, gizon gazteen heriotza-tasak emakumeena bikoizten du. Bizkaian, berriz, boskoiztu egiten du. Nolanahi ere, 3 hamarreneko aldeaz ari gara, talde gaztearen heriotza-tasa eskasa baita oso.

Gazteen heriotza-arrazoiei dagokienez, 1999 eta 2009 artean, heriotza-kopuruaren bilakaera negatiboa izan zen ia arrazoi guztietan, eta kanpokoen beherakada azpimarratu behar da; izan ere, gazteen heriotzen arrazoi nagusi dira (-% 77,2 Euskadin, eta -% 56,5 Espainian). Hala ere, Euskadiko eta, bereziki, Gipuzkoako tumoreak orokorrean erregresiboa den joeraren salbuespen eskasetako bat dira. Ia orokorra den beherakadaren ondoren, 2009an, hiru heriotza-arrazoi nabarmentzen dira Euskadiko zein Espainiako gazteriaren artean, portzentajezko banaketan zein heriotza-tasa espezifikoetan: tumoreak, ibilgailu motordunek eragindako trafiko-istripuak, eta suizidioa eta norberak eragindako lesioak. Aipatzekoa da tumoreak direla nagusi Gipuzkoako gazteen artean; Araban eta Bizkaian, berriz, ibilgailu motordunek eragindako trafiko-istripuak. Sexuaren arabera, heriotza-arrazoi gehienek askoz intentsitate txikiagoa dute emakume gazteen artean.

Bibliografia

BILLARI, Francesco; DALLA, Gianpiero:
*¿Declive o revolución demográfica?:
Reflexiones a partir del caso italiano.*
(Monografías, 272). Madrid: Centro de
Investigaciones Sociológicas, 2010.



Hezkuntza eta euskara 08







Gazteen adierazleak 2011 dokumentuaren zortzigarren atalak euskal hezkuntza-sisteman matrikulatutako 15 eta 29 urte arteko ikasleei buruzko zenbait datu kuantitatibo ditu aztergai, eta, ondoren, EAEn bizi diren gazteen euskararen ezagutzari ekiten dio. Lehenengo gaiari dagokionez, hurrengo hezkuntza-adierazleak hartuko ditugu kontuan¹: 1996-1997tik eta 2009-2010era bitarteko ikasturteetan talde gazteko ikasleek izandako bilakaera; euren portzentajezko banaketa, adinaren eta hezkuntza mailaren arabera, 2009-2010 ikasturtean; eskolatze-tasak adinaren, sexuaren eta mailaren arabera, 1996-1997 eta 2009-2010 ikasturteetan; eta irakasle/talde, ikasle/irakasle eta ikasle/talde ratioak mailaren arabera, 1996-1997 eta 2009-2010 ikasturteetarako. Gero, euskal gazteen hezkuntza-emaizten adierazleekin jarraituko dugu: 15, 16 eta 17 urtekoen egokitasun-tasak, sexuaren arabera, 1997-1998 eta 2009-2010 ikasturteetarako; graduazio-tasa gordinak, sexuaren eta ikasketa-mailaren arabera, 1999-2000 eta 2008-2009 ikasturteetarako; zientziako, matematikako eta teknologiko goi graduatuen tasa gordinak, sexuaren arabera, 2007-2008 ikasturterako; gaingiditakoen ehunekoa, sexuaren eta unibertsitateaz kanpoko mailaren arabera, 1999-2000 eta 2008-2009 ikasturteetarako, azken ikasturte horretarako zentroaren titulartasunaz gain; errepikatzaileen ehunekoa, sexuaren eta mailaren arabera, 1999-2000 eta 2008-2009 ikasturteetarako; eta eskola garaia

baino lehen uztearen ehunekoa hezkuntza-sisteman, sexuaren arabera, 2000. eta 2010. urteetan.

Adierazle kuantitatibo horiek euskal hezkuntza-sisteman matrikulatutako ikasle gazteen ingurukoak dira, oro har; hala ere, informazio estatistikoa aukera eman digun kasuetan, alderaketa egin dugu Espainiarako antzeko datuak aintzat hartuta. Azken datu horiek Hezkuntza Ministerioko Ebaluazio Institutuaren *Mapa de Indicadores 2000-2010* dokumentutik atera ditugu. Lurralde historikoei dagokienez, eskuragarri dagoen informazioa irakasle/talde, ikasle/irakasle eta ikasle/talde ratioen ingurukoa da, mailaren arabera.

Euskararen arloan, honako arlo hauek aztertu ditugu: 15 eta 29 urte arteko populazioaren eta horren barneko bost urteko hiru taldeen bilakaera, ezagutzaren arabera, 1996 eta 2006 artean; talde gaztearen eta adin taldeen portzentajezko banaketa, ezagutzaren arabera, 2006an, EAEn eta lurralde historikoetan (taldea soilik); eta 15 eta 29 urte arteko populazioaren banaketa, euskararen ezagutzaren eta ama-hizkuntzaren arabera, 2006an, EAEn. Azkenik, gazteek erabili ohi duten hizkuntzari buruzko informazioa aurkeztuko dugu, bai eta euskaraz/gaztelaniaz hitz egiteko erraztasunari/zailtasunari buruzkoa ere, *Euskadiko Gazteak 2008* ikerketan bildutako datuetan oinarrituta.

¹ Aurreko ataletan ez bezala, «Hezkuntza»ri buruzko atalean, datu kuantitatiboak dezimal bakarrarekin adieraziko ditugu, eta ez birekin; izan ere, Eustatek eta Hezkuntza Ministerioko Ebaluazio Institutuak horrela zabaltzen dituzte adierazle gehienak.

1. Hezkuntza

2009-2010 ikasturtean, 15 eta 29 urte arteko 132.729 gazte matrikulatu ziren EAEko hezkuntza-sisteman; beraz, -% 35,7ko beherakada izan zen 1996-1997 ikasturtean erregistratutako talde gazteko ikasleekin alderatuta. Kontuan har dezagun, nolanahi ere, 1996/5/1etik 2010/1/1era bitartean, euskal udalerrietan errolatutako gazteen kopurua murriztu egin zela, antzeko proportzioan (% 35); batez ere, jaiotza-tasak hirurogeita hamarreko hamarkadaren erdialdeaz geroztik izandako beherakadaren ondorioz: alde horretatik, aipatzekoa da Euskadin, 1977 eta 1981 artean urteko batez bestekoa 32.473 umekoa izatetik (15 eta 19 urte artean bete zituzten 1996an), 16.047 umeko urteko batez bestekora igaro ginelarik 1990 eta 1994 artean (15 eta 19 urte artean zituzten 2009an) —ikus 1. taula—.

Adin taldeen arabera, beherakada handiena nerabeen artean gertatu zen (-%39,1); urtez urte aztertuz gero, berriz, 19 urteko ikasleena (-%44,4). Beherakada txikiena 25 eta 29 urte arteko taldean izan da (-%8,5), eta adin talde horretan gertatu dira, gainera, joera negatibo orokorraren bi salbuespen bakarrak: 27 urtekoetan (%1,1) eta, batez ere, 29 urtekoetan (%25,9).

1. taula. 15 eta 29 urte bitarteko ikasleen bilakaera, EAEn, adinaren arabera, urtez urte (1996-1997 eta 2009-2010 ikasturteen artean): kopuru absolutuak eta portzentajezko aldakuntzak

Adina, urtez urte	1996-1997	2009-2010	▲% 2009-2010 / 1996-1997
15 urte	25.922	16.217	-37,4
16 urte	25.616	16.514	-35,5
17 urte	26.000	16.558	-36,3
18 urte	24.417	14.085	-42,3
19 urte	23.056	12.818	-44,4
15-19 urte	125.011	76.192	-39,1
20 urte	20.358	11.771	-42,2
21 urte	15.974	10.346	-35,2
22 urte	13.587	8.585	-36,8
23 urte	9.831	6.970	-29,1
24 urte	6.935	5.338	-23,0
20-24 urte	66.685	43.010	-35,5
25 urte	4.821	4.073	-15,5
26 urte	3.556	3.305	-7,1
27 urte	2.389	2.414	1,1
28 urte	2.708	2.088	-22,9
29 urte	1.308	1.647	25,9
25-29 urte	14.782	13.527	-8,5
15-29 urte guztira	206.478	132.729	-35,7

Iturria: Eustat eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saila. Irakaskuntzaren Estatistika.

Nola banatzen dira ikasleak euskal hezkuntza-sistemaren mailatan? 15 eta 17 urte artean, %100ek bigarren hezkuntzako ikasketak egiten ditu; zehazki, 15 urterekin, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza uniber-

tsala da; 16 eta 17 urte artean, Batxilergoa nabarmen nagusitzen da, Lanbide Heziketarekin eta Hasierako Lanbide Prestakuntzako Programekin konparatuta. 18 urtetik aurrera, goi ikasketetan matrikulatuak dira

nagusi, eta, batez ere, unibertsitarioak: hain zuzen ere, 22 eta 29 urte arteko taldean, matrikulatutako ikasleen %73tik %78ra bitartean unibertsitate mailako ikasketetan ari da —ikus 2. taula—.

2. taula. 2009-2010 ikasturtean matrikulatutako ikasleen banaketa*, €AEn, adinaren arabera (urtez urte)

Adina, urtez urte	Bigarren hezkuntza guztira	DBH	Batxilergoa	LH	HLPP	Goi mailako ikasleak guztira	Unibertsitateaz kanpoko goi mailako ikasleak	Unibertsitateko goi mailako ikasleak	Guztira	
									%	abs.
15 urte	100,0	98,7	0,0	0,0	1,3	0,0	0,0	0,0	100,0	16.217
16 urte	100,0	23,4	65,9	2,2	8,5	0,0	0,0	0,0	100,0	16.514
17 urte	100,0	7,9	72,4	8,5	11,2	0,0	0,0	0,0	100,0	16.558
18 urte	43,7	0,3	21,5	15,7	6,1	56,3	8,5	47,8	100,0	14.085
19 urte	27,8	0,0	9,4	16,4	1,9	72,2	20,6	51,6	100,0	12.818
20 urte	18,2	0,0	4,6	13,5	0,1	81,8	22,6	59,3	100,0	11.771
21 urte	11,5	0,0	3,2	8,2	0,1	88,5	22,1	66,4	100,0	10.346
22 urte	8,7	0,0	3,0	5,6	0,0	91,3	18,4	72,9	100,0	8.585
23 urte	8,2	0,0	2,8	5,4	0,0	91,8	17,0	74,8	100,0	6.970
24 urte	6,8	0,0	2,1	4,7	0,0	93,2	15,8	77,5	100,0	5.338
25 urte	8,7	0,0	2,4	6,3	0,0	91,3	14,6	76,7	100,0	4.073
26 urte	8,7	0,0	2,3	6,4	0,0	91,3	14,7	76,6	100,0	3.305
27 urte	7,5	0,0	1,2	6,3	0,0	92,5	14,3	78,2	100,0	2.414
28 urte	8,7	0,0	2,2	6,5	0,0	91,3	14,9	76,4	100,0	2.088
29 urte	9,4	0,0	2,0	7,4	0,0	90,6	17,1	73,5	100,0	1.647
15-29 urte guztira	49,1	16,0	21,7	7,9	3,5	50,9	10,9	40,0	100,0	132.729

(*) Adin bakoitzeko guztizkoari dagokion ehunekoa.

Ikus dezagun adin bateko ikasleen portzentajezko garrantzia, erroldatuta dagoen adin bereko populazioari dagokionez. Portzentajezko erlazio hori eskolatzetasearen (ET) bidez adierazten da, eta horren balioa talde gazteko ia adin guztietan handitu zen (bi sexuetan); salbuespen bakarra, 28 urtekoena izan zen. 1996-1997 eta 2009-2010 ikasturteen arteko bilakaeran, gorakada handienak 17 urtekoen (+8,1 puntu) eta 21 urtekoen (+7,5 puntu) artean adierazi da. Nolanahi ere, tasa horren balioa nabarmen txikitzen da gaztearen adina handitu ahala: Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzari dagozkion adinetako (15 eta 16 urte) eskolatzetase unibertsaletik, gero eta txikiagoak diren ehunekoetara (marjinalak batzuetan), unibertsitate-hezkuntzaren bigarren zikloaren amaierari² dagozkion adinetan (23-24 urtetik aurrera). Zehazki, 2009-2010 ikasturtean, eskolatzetasea % 99,5etik (15 urtekoen artean) % 5,2ra murriztu da (29 urtekoen artean) —ikus 3. taula—.

Talde gaztean eskolatzetaseak izan duten gorakada orokorra hainbat faktoreren ondorioa da. Faktore horien artean, familiek eta gazteek trebakuntza-hezkuntzari, goi mailako titulazioari eta prestakuntza izateari ematen dieten balio handiagoa azpimarratu nahiko genuke, balio instrumentala dutela irizten baitiote; hau da, gazteak lan-merkatuan errazago enplegatuko direla. Aldi berean, Ongizate Estatua sendotzearekin batera, indartu egin da hezkuntza-etapa derrigorrezko hezkuntza gainditzen duten bideetan

3. taula. EAEko eskolatzetaseak³ izandako bilakaera, adinaren arabera (urtez urte)*, (1996-1997 eta 2009-2010 ikasturteen artean)

Adina, urtez urte	1996-1997	2009-2010	Aldera 2009-2010 – 1996-1997
15 urte	98,9	99,5	0,6
16 urte	92,8	97,8	5,0
17 urte	87,5	95,6	8,1
18 urte	75,6	80,5	4,9
19 urte	67,6	71,2	3,6
20 urte	56,6	62,2	5,6
21 urte	44,4	51,9	7,5
22 urte	37,9	41,3	3,4
23 urte	27,8	31,0	3,2
24 urte	19,4	22,4	3,0
25 urte	13,6	16,3	2,7
26 urte	10,3	12,4	2,1
27 urte	7,0	8,5	1,5
28 urte	8,0	6,9	-1,1
29 urte	3,8	5,2	1,4

(*) Eskolatzetasea adinaren arabera (urtez urte) = aztertutako adineko ikasleen eta adin bereko populazio osoaren arteko portzentajezko erlazioa.

Iturria: Eustat eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saila. Irakaskuntzaren Estatistika.

² Lizentziatura, Arkitektura eta Ingeniaritza.

³ EUSTAT: Aztertutako ikasleek ez dituzte Araubide Bereziko Ikasketak egiten dituzten ikasleak barne hartzen, eskolaturako populazioaren zenbaketan bikoiztasunak saihesteko. Gainera, aipatzekoa da Euskal Autonomia Erkidegoan eskolaturako populazioak Estatuko beste erkidego batzuetako ikasleak hartzen dituela barne, intzidentzia handiagoarekin unibertsitate-ikasketak egiten dituzten artean.

aurrera eginez luzatzeko joera; horrenbestez, derri-gorrezko irakaskuntzaren osteko hezkuntza arautuan, zabaldu eta garatu egin da eskaintza publikoa, eta ugaritu egin dira erdi zein goi mailako titulazioak behar dituzten zerbitzuetako eta herri-administratzioetako lanpostuak.

Ikus ditzagun orain 2009-2010 ikasturterako eskolatzetasak, adinaren eta hezkuntza mailaren

arabera. Euskadin bizi diren adin bereko hamar pertsonako, zera ondoriozta genezake: 17 urterekin, zazpik Batxilergoa egiten zuten, eta Erdi Mailako lanbide-heziketan pertsona bakar bat zegoen; 18 eta 22 urte artean, 3-4 gaztek unibertsitate-ikasketak egiten zituzten, unibertsitateaz kanpoko ikasketetan matrikulatutako bakoitzeko; 23 eta 24 urte artean, hamar gaztetik bi unibertsitatean ari ziren ikasten; azkenik, 25 eta 27 urte artean,

hamarretik batek soilik egiten zituen unibertsitate-ikasketak —ikus 4. taula—.

1996-1997 ikasturtean, 15 eta 23 urte arteko emakumezkoen eskolatzetasak zen handiena (unibertsitate-hezkuntzako bigarren zikloaren amaiera); aldiz, 2009-2010 ikasturtean, 20 eta 23 urte arteko emakumezkoen tasetan soilik ikusten da gailentasun hori —ikus 5. taula—.

4. taula. Eskolatzetasak, adinaren (urtez urte) eta hezkuntza mailaren arabera*, €AEn 2009-2010 ikasturterako

Adina, urtez urte	Bigarren hezkuntza					Goi mailako ikasketak		
	Guztira	DBH (1)	HLPP (2)	Batzilergoa	LH Erdi Mailako Gradua	Guztira	Unibertsitateaz kanpokoak (3)	Unibertsitatekoak
15 urte	99,5	98,2	1,3	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0
16 urte	97,8	22,9	8,4	64,4	2,1	0,0	0,0	0,0
17 urte	95,6	7,6	10,7	69,2	8,1	0,0	0,0	0,0
18 urte	35,2	0,3	4,9	17,3	12,7	45,3	6,9	38,4
19 urte	19,8	0,0	1,4	6,7	11,7	51,4	14,7	36,7
20 urte	11,3	0,0	0,1	2,8	8,4	50,9	14,0	36,8
21 urte	6,0	0,0	0,0	1,7	4,3	46,0	11,5	34,5
22 urte	3,6	0,0	0,0	1,2	2,3	37,7	7,6	30,1
23 urte	2,5	0,0	0,0	0,9	1,7	28,5	5,3	23,2
24 urte	1,5	0,0	0,0	0,5	1,0	20,9	3,5	17,3
25 urte	1,4	0,0	0,0	0,4	1,0	14,9	2,4	12,5
26 urte	1,1	0,0	0,0	0,3	0,8	11,3	1,8	9,5
27 urte	0,6	0,0	0,0	0,1	0,5	7,9	1,2	6,7
28 urte	0,6	0,0	0,0	0,1	0,4	6,3	1,0	5,3
29 urte	0,5	0,0	0,0	0,1	0,4	4,7	0,9	3,8

(*) Eskolatzetasak, adinaren (urtez urte) eta hezkuntza mailaren arabera = aztertutako adineko eta ikasketa mailako ikasleen arteko portzentajezko erlazioa, adin bereko populazio osoari dagokionez.

Iturria: EUSTAT eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saila, Irakaskuntzako Adierazleak. (1) Dagokion hezkuntza mailako hezkuntza berezia hartzen du barne; (2) Hasierako lanbide-prestakuntzako programak; (3) LH hartzen du barne. Goi mailako gradua. Tasak kalkulatzeko, Eustatek egindako 2009ko Populazioaren Proiekzioa erabili dugu, eta ikasleriaren adina 2009ko abenduaren 31koa da.

Beharbada, lan-merkatuetan enplegua aurkitzeko zailtasun handiagoak izan dituztelako nabarmendu dira emakumezkoen eskolatzetarako goi hezkuntza; izan ere, eragozpen horrek beren hezkuntza-trebakuntza curriculum hobetzerat bultzatzen ditu, prestakuntza-titulazio handiagoa izanda, enplegarritasun eta *merkatua negoziatzeko botere sozial*⁴

handiagoa izango duten itxaropenarekin. Orokorrean, langabezia, enpleguaren egonkortasun eza, soldata txikia, eta hierarkia profesional-okupazionalan aurrera egiteko eragozpena bezalako faktoreek gehiago eragiten diete emakumezkoiei, gizonezkoiei baino. Talde gazteko emakumeek enplegua lortzeko dauzkaten zailtasun horiek, funtsean, emakumez-

koak lan-merkatuetan oraindik ere diskriminatzen dituzten *genero-trabetan* dute jatorria. Traba horiek balio eta jarrera patriarkaletatik abiatuta eraikitako jarrerabide eta jardura sexisten emaitza dira: bigarren mailako rol eta posizio sozioekonomikoetara baztertzen dituzte emakumeak, eta, orokorrean, gizonezkoen menpera lerratzen dituzte.

5. taula. Eskolatzetarako, adinaren (urtez urte) eta sexuaren arabera*, EAEn izandako bilakaera (1996-1997 eta 2009-2010 ikasturteetan artean)

Adina, urtez urte	1996-1997			2009-2010			Aldea 2009-2010 – 1996-1997	
	Gizonak	Emakumeak	Aldea G – E	Gizonak	Emakumeak	Aldea G – E	G – G	E – E
15 urte	98,7	99,2	-0,5	100,6	98,4	2,2	1,9	-0,8
16 urte	92,1	93,5	-1,4	98,0	97,5	0,5	5,9	4,0
17 urte	85,0	90,1	-5,1	97,3	93,8	3,5	12,3	3,7
18 urte	73,2	78,1	-4,9	80,8	80,1	0,7	7,6	2,0
19 urte	63,6	72,0	-8,4	70,7	71,6	-0,9	7,1	-0,4
20 urte	53,5	59,8	-6,3	59,3	65,2	-5,9	5,8	5,4
21 urte	40,8	48,3	-7,5	48,9	55,1	-6,2	8,1	6,8
22 urte	35,3	40,7	-5,4	38,9	43,8	-4,9	3,6	3,1
23 urte	27,0	28,6	-1,6	29,9	32,2	-2,3	2,9	3,6
24 urte	19,8	18,9	0,9	22,2	22,5	-0,3	2,4	3,6
25 urte	14,0	13,1	0,9	16,4	16,2	0,2	2,4	3,1
26 urte	10,9	9,8	1,1	12,0	12,8	-0,8	1,1	3,0
27 urte	7,2	6,7	0,5	8,4	8,7	-0,3	1,2	2,0
28 urte	8,5	7,3	1,2	6,7	7,0	-0,3	-1,8	-0,3
29 urte	3,8	3,8	0,0	5,1	5,3	-0,2	1,3	1,5

(*) Eskolatzetara, adinaren (urtez urte) eta sexuaren arabera = aztertutako adinako eta sexuak ikasleentzako portzentajearen erlazioa, adin eta sexu bereko populazio osoari dagokionez.

Iturria: Eustat eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saila. Irakaskuntzako Adierazleak.

⁴ Ideia horren bidez, Carlos Prieto soziologoak lanpostua soldata eta lan-baldintza jakin batzuen truke onartzeko edo baztertzeko gizabanakoak duen gaitasun edo ahalmena adierazten du; ondorioz, enplegua onartzeko gutxieneko maila bat zehazten du, eta, maila horretatik beherako lan-aukerak onartezintzat jotzen ditu. Non: PRIETO, Carlos (1994): *Trabajadores y condiciones de trabajo*. Madrid: Ediciones HOAC.

Orain, ikus ditzagun eskolatzetaseen arteko aldeak, adinaren, hezkuntza mailaren eta sexuaren arabera: bigarren hezkuntzari dagokionez, 16 eta 17 urte arteko nerabe emakumeek adin bereko gizonen baino Hasierako Lanbide Prestakuntza Programa (HLPP) gehiago egiten zituzten. Aldiz, 17 eta 22 urte arteko gizonen gehiagok ikasten

zuten Batxilergoa edo Erdi Mailako Lanbide Heziketa. Goi mailako ikasketei dagokionez, 18 urtetik aurrera, gizonen nabarmen ziren unibertsitateaz kanpoko ikasketetan, Goi Mailako Lanbide Heziketa barne. Aldiz, emakumeen gailentzen dira unibertsitate-ikasketetan —ikus 6. taula—.

Konpara ditzagun, tarte batean, 2007-2008 ikasurteko Euskadiko eta Espainiako eskolatzetaseak, 15 eta 24 urte arteko adinak kontuan hartuta: hurrengo grafikoan, argi ikusten da ikasleen ehunekoen, 16 eta 24 urte arteko gazteen guztizkoen dagokionez, urte urte, handiagoak direla Euskadin, Estatuan baino; alde handienak 17 eta 19 urte

6. taula. Sexuen arteko aldeak (gizonen – emakumeen) eskolatzetasetan, adinaren (urte urte) eta hezkuntza mailaren arabera, EAEn 2009-2010 ikasturtean

Adina, urte urte	Bigarren hezkuntza					Goi mailako ikasketak		
	Guztira	DBH (1)	HLPP (2)	Batzilergoa	LH Erdi Mailako Gradua	Guztira	Unibertsitateaz kanpokoak (3)	Unibertsitatekoak
15 urte	2,2	1,4	0,1	0,0	0,7	0,0	0,0	0,0
16 urte	0,5	4,6	-12,0	1,4	6,5	0,0	0,0	0,0
17 urte	3,5	0,7	-12,8	5,4	10,0	0,0	0,0	0,0
18 urte	11,0	0,0	-0,6	7,4	4,4	-10,3	2,1	-12,4
19 urte	8,8	0,0	-0,4	7,7	1,5	-9,8	4,3	-14,0
20 urte	5,2	0,0	-0,1	5,3	0,0	-11,0	5,7	-16,8
21 urte	2,4	0,0	0,1	2,3	0,0	-8,5	5,5	-14,0
22 urte	1,3	0,0	0,3	1,0	0,0	-6,2	2,7	-8,9
23 urte	0,9	0,0	0,2	0,7	0,0	-3,2	1,1	-4,2
24 urte	0,3	0,0	0,1	0,1	0,0	-0,7	0,6	-1,3
25 urte	0,2	0,0	0,0	0,1	0,0	0,1	0,8	-0,8
26 urte	-0,1	0,0	0,0	0,0	0,0	-0,6	0,3	-0,8
27 urte	-0,1	0,0	0,0	-0,1	0,0	-0,2	0,0	-0,1
28 urte	0,0	0,0	0,1	-0,1	0,0	-0,2	0,0	-0,3
29 urte	-0,2	0,0	0,0	-0,1	0,0	-0,2	0,0	-0,2

Iturria: EUSTAT eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saila, Irakaskuntzako Adierazleak. (1) Dagokion hezkuntza mailako hezkuntza berezia hartzen du barne; (2) Hasierako lanbide-prestakuntzako programak; (3) LH hartzen du barne. Goi mailako gradua. Tasak kalkulatzeko, Eustatek egindako 2009ko Populazioaren Proiekzioa erabili dugu, eta ikasleriaren adina 2009ko abenduaren 31koa da.


Gazteen adierazleak 2011

artean adierazten dira (+18/19 puntu), eta txikiak, 23 eta 24 urte artean (+2/4 puntu) —ikus 1. grafikoa—.

Lurralde-konparazioan sakontzeko aukera ematen digun beste adierazle bat, 2007-2008 ikasturtekoa, sei urterekin dagoen eskola-bizitzaren itxaropena da⁵, zeina urtebete handiagoa den EAEn: 15,5 urteko batez bestekoa, Espainiako 14,4 urteen aurrean, aurreikus daitekeen sei urtetik aurrerako Araubide Orokorreko irakaskuntzetan eskolatzeko. Labur esanda, adierazle honek eta aurrekoak adierazten digutenaren arabera, eskolatzeko ildo nahiko zabalduta dago gazteen artean, baina are hedatuagoa dago Euskadiko gazteen artean, Espainiakoen artean baino.

Beste aldetik, 2009-2010 ikasturteari dagokionez, Euskadin, 29.403 ikasle atzeritar zeuden unibertsitateaz kanpoko irakaskuntzetan matrikulatuta⁶; hots, ikasle guztien % 8. Horien % 75,4, zentro publikoetan zeuden inskribatuta, eta gainerako % 24,6, zentro pribatuetan. Gehienak Hego Amerikako herrialdeetakoak ziren (% 43); jarraian, Afrikako iparraldekoak (% 20) eta, azkenik, Europar Batasunetik (% 14), Afrikako gainerako herrialdeetatik (% 9) eta Asia/Ozeaniako herrialdeetatik (% 7) etorritakoak.

1 grafikoa. 2007–2008 ikasturteko Euskadiko eta Espainako eskolatzeko-tasak, 15 eta 24 urte bitartekoen artean (urtez urte)



Iturria: Mapa de indicadores 2010. Sistema estatal de indicadores de la educación. Hezkuntza Ministerioioko Ebaluazio Institutua.

⁵ Eskolako bizi-itxaropena, sei urterekin, sei urtetik aurrera hezkuntza-sisteman aurreikusitako eskolatzeko-urteen batez bestekoa da, adin bakoitzean dagoen eskolatzeko-tasa garbiaren arabera. 6 eta 24 urte artekoen eskolatzeko-tasa garbien batuketara 100 artean zatituta kalkulatu da. Araubide Orokorreko unibertsitateko zein unibertsitateaz kanpoko ikasketak, Arte Plastikoetako eta Diseinuko Heziketa Zikloak, Goi Ikasketak Artistikoak eta Araubide Bereziko Kirol Ikasketak egiten dituzten 6 eta 24 urte arteko ikasleak aztertu ditugu. Iturria: Adierazleen Mapa 2010. Hezkuntzako Adierazleen Estatu Sistema, Ebaluazio Institutua, Hezkuntza Ministerioa.

⁶ Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerkuntza Saila: *Euskadiko Unibertsitateaz Kanpoko Irakaskuntzaren Datuak, 2009-2010 ikasturtea*.

Argitalpen honek ez ditu herriartasuna eta adina gurutzatzen dituzten datuak ematen; horregatik, datuak Unibertsitateaz Kanpoko Araubide Orokorreko Ikasketei eta Araubide Bereziko Ikasketei buruzkoak dira, Helduentzako Hezkuntza barne.

Espainiarekiko konparazioan, 2007-2008 ikasturtea aipatu behar dugu: EAEn, 19.035 ziren atzerriko nazionalitatedun ikasleak; hots, unibertsitateaz kanpoko irakaskuntzetan matrikulatutako ikasle guztien % 5. Beraz, Estatuko hezkuntza-sistema osoan zuten presentziaren ia erdia zeukaten (% 8,9)⁷. Hezkuntza mailen arabera, DBHn matrikulatutako euskal ikasle guztien % 6,8 adierazten zuten, eta Derrigorrezkoaren

Ondoko Bigarren Hezkuntzan eta unibertsitateaz Kanpoko goi hezkuntzan matrikulatutakoen % 5,1 (% 10,9 eta % 5,7 Espainian, hurrenez hurren).

Jarraian —ikus 7. taula— euskal hezkuntza-sistemaren kalitatea ezagutzeko aukera emango digute talde bakoitzeko irakasleen, irakasle bakoitzeko ikasleen eta talde bakoitzeko ikasleen ratioek. Biga-

rren hezkuntzari dagokionez, 1996-1997 ikasturte-tik 2009-2010 ikasturtera, talde bakoitzeko irakasleen ratioak zertxobait handitu egin ziren, 2ra eta 2,4ra arte (dedikazio osoko irakasleak). Aldiz, irakasle bakoitzeko eta talde bakoitzeko ikasleenak modu esanguratsuan txikitu ziren; izan ere, % 32ko (ikasleak/taldea) eta % 42ko (ikasleak/irakaslea) beharakadak izan zituzten. Hezkuntza-araudiak

7. taula. Irakasle/taldea, ikasle/irakasle eta ikasle/talde ratioek EAEn izandako bilakaera, hezkuntza mailaren arabera (1996-1997 eta 2009-2010 ikasturteen artean)

Hezkuntza maila eta ratioak		1996-1997	2009-2010	Aldia 2009-2010 – 1996-1997	▲% 2009-2010 / 1996-1997
Bigarren hezkuntza	Irakasleak/taldea	2,1	2,4	0,3	14,3
	Irakasleak (DOB)/taldea	1,8	2,0	0,2	11,1
	Irakaslea/ikasleak	13,9	8,1	-5,8	-41,7
	Ikasleak/irakaslea (DOB)	15,6	9,6	-6,0	-38,5
	Ikasleak/taldea	28,8	19,5	-9,3	-32,3
Unibertsitate ikasketak	Irakaslea/ikasleak	20,3	11,0	-9,3	-45,8
	Ikasleak/irakaslea (DOB)	23,9	12,7	-11,2	-46,9
Musika (1)	Irakaslea/ikasleak	7,9	4,3	-3,6	-45,6
	Ikasleak/irakaslea (DOB)	13,3	6,2	-7,1	-53,4
Hizkuntzak (1)	Irakaslea/ikasleak	108,7	66,5	-42,2	-38,8
	Ikasleak/irakaslea (DOB)	109,0	68,8	-40,2	-36,9

Iturria: EUSTAT eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saila, Irakaskuntzako Adierazleak. (1) Ikasleria: matrikulazio kopurua. DOB: dedikazio osoko baliokidetasuna. Bigarren hezkuntza: DBH, BBB/UBI, LOGSE Batxilergoa, LH, LOGSE LH eta MP hartzen ditu barne.

⁷ Iturria: Adierazleen Mapa 2010. Hezkuntzako Adierazleen Estatu Sistema, Ebaluazio Institutua, Hezkuntza Ministerioa. Unibertsitateaz Kanpoko Araubide Orokorreko Ikasketak eta Araubide Bereziko Ikasketak izan ditugu kontuan; ez da Helduentzako Hezkuntza barne hartzen.

xedatzen duenaren arabera, bigarren hezkuntzan, ikasgela bakoitzean, 30 ikasle baino gehiago ez iza-tea irakaskuntza hobetzeko baliabidea da, eta irakasleei euren zereginen laguntzeko modua ere bai. Hori aintzat hartuta, euskal hezkuntza-sistemak erruz betetzen du helburua, 2009-2010 ikasturtean 19,5 ikasle baitziren talde bakoitzeko. Unibertsitate mailako ikasketei dagokienez, dedikazio osoko irakasle bakoitzeko ikasleen ratioen balioak ere asko txikitu ziren (% 46 inguru): irakasle bakoitzeko, 11-13 ikasle artean ziren, 2009-2010 ikasturtean.

Gainera, musika- eta hizkuntza-ikasketetan ere beheranzko joera gertatu da ikasle/irakasle ratioetan. Laburbilduz, azken hamabost urteetan, euskal hezkuntza-sistemaren kalitate globala asko hobetu da irakasle eta talde bakoitzeko ikasleen ratioei dagokienez.

Hezkuntza-zentroaren titulartasuna (publikoa/pribatua) kontuan hartuta, eta 2009-2010 ikasturterako erregistratutako informazioa aztertuz gero, bigarren hezkuntzan, ratio publikoek gainditu egiten dituzte

pribatuak, taldeko irakasle kopuruan –bereziki, dedikazio osokoak (2,6, pribatuko 1,5en aurrean)–, bai eta irakasleko ikasle kopuruan ere, musika-ikasketetan. Aitzitik, bigarren hezkuntzako eta unibertsitate mailako irakasle eta talde bakoitzeko ikasleen batez bestekoetan, ratio pribatuak nabarmentzen dira; batez ere, dedikazio osoko irakasleen modalitatean. Ondorioz, musika-ikasketen salbuespena alde batera utzita, euskal hezkuntza-ingurunean, ratio publikoek, orokorrean, kalitate handiagoko funtzionamenduaren balioak dituzte —ikus 8. taula—.

8. taula. Irakasle/talde, ikasle/irakasle eta ikasle/talde ratioak, hezkuntza mailaren eta titulartasunaren arabera, 2009-2010 ikasturtean, €/€n

Hezkuntza maila eta ratioak		Zentro publikoa	Zentro pribatua	Aldea publikoa – pribatua
Bigarren hezkuntza	Irakasleak/taldea	2,7	2,1	0,6
	Irakasleak (DOB)/taldea	2,6	1,5	1,1
	Irakaslea/ikasleak	6,8	10,0	-3,2
	Ikasleak/irakaslea (DOB)	7,2	14,2	-7,0
	Ikasleak/taldea	18,3	20,8	-2,5
Unibertsitateko ikasketak	Irakaslea/ikasleak	10,9	11,3	-0,4
	Ikasleak/irakaslea (DOB)	12,1	15,1	-3,0
Musika (1)	Irakaslea/ikasleak	5,4	3,3	2,1
	Ikasleak/irakaslea (DOB)	7,1	5,2	1,9
Hizkuntzak (1)	Irakaslea/ikasleak	66,5	-	-
	Ikasleak/irakaslea (DOB)	68,8	-	-

Iturria: EUSTAT eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saila, Irakaskuntzako Adierazleak. (1) Ikasleria: matrikulazio kopurua. DOB: dedikazio osoko baliokidetasuna. Bigarren hezkuntza: DBH, BBB/UBI, LOGSE Baxilergoa, LH, LOGSE LH eta MP hartzen ditu barne.

Hezkuntza-ratio horietarako, badaukagu lurralde historikoen inguruko informaziorik: 2009-2010 ikasturtean, lurraldeen arteko aldeak txikiak dira bigarren hezkuntzan eta unibertsitate-hezkuntzan. Aldiz, handiagoak dira musika- eta hizkuntza-ikasketetan; horietan, Arabako zentroak nabarmentzen dira, irakasle bakoitzeko ikasle kopuruan balio

handienak izateagatik, Gipuzkoan ez bezala —ikus 9. taula—.

EAEren eta Espainiaren arteko konparazioa egiteko, unibertsitateaz kanpoko mailetakoko hezkuntza talde bakoitzeko ikasleen batez besteko kopuruari buruzko informazio estatistikoa daukagu, 2007-2008 ikastur-

teari dagokionez: kontuan hartutako bost mailetatik lautan, Espainiako ratioak gainditu egiten du Euskadiko batez bestekoa; bereziki, DBHn (24,4, talde bakoitzeko 19,7 ikasleren aurrean) eta Erdi Mailako Heziketa Zikloetan (18,7, talde bakoitzeko 15,2 ikasleren aurrean). Gizarte Bermean ez bezala; izan ere, horretan, ratioa antzekoa da —ikus 10. taula—.

9. taula. Irakasle/talde, ikasle/irakasle eta ikasle/talde ratioak, hezkuntza mailaren arabera, 2009-2010 ikasturtean, lurralde historikoetan

Hezkuntza maila eta ratioak		Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
Bigarren hezkuntza	Irakasleak/taldea	2,4	2,3	2,5
	Irakasleak (DOB)/taldea	2,1	2,0	2,1
	Irakaslea/ikasleak	8,2	8,4	7,7
	Ikasleak/irakaslea (DOB)	9,3	9,8	9,4
	Ikasleak/taldea	19,8	19,4	19,5
Unibertsitateko ikasketak	Irakaslea/ikasleak	10,5	10,6	10,7
	Ikasleak/irakaslea (DOB)	11,8	12,5	12,0
Musika (1)	Irakaslea/ikasleak	6,4	4,9	2,9
	Ikasleak/irakaslea (DOB)	7,5	7,9	4,0
Hizkuntzak (1)	Irakaslea/ikasleak	81,8	67,8	57,1
	Ikasleak/irakaslea (DOB)	84,7	70,1	58,9

Iturria: EUSTAT eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saila, Irakaskuntzako Adierazleak. (1) Ikasleria: matrikulazio kopurua. DOB: dedikazio osoko baliokidetasuna. Bigarren hezkuntza: DBH, BBB/UBI, LOGSE Batxilergoa, LH, LOGSE LH eta MP hartzen ditu barne.

10. taula. Talde bakoitzeko ikasleen ratioa (ikasle/talde ratioa), unibertsitateaz kanpoko hezkuntza mailaren arabera, 2007-2008 ikasturtean, EAE eta Espainian

Hezkuntza maila eta ratioak	EAE	Espainia	Aldea EAE – Espainia
DBH	19,7	24,4	-4,7
Batxilergoa	22,4	24,2	-1,8
Erdi Mailako Heziketa Zikloak	15,2	18,7	-3,5
Goi Mailako Heziketa Zikloak	15,3	18,2	-2,9

Iturria: Mapa de indicadores 2010, Hezkuntza Ministerioioko Ebaluazio Institutua.

Ondoren, euskal hezkuntza-sistemaren emaitzen berri ematen diguten hainbat adierazle kuantitatiboren analisia jaso dugu: zehazki, egokitasun-tasa 15, 16 eta 17 urterekin; graduazio-tasa gordina, sexuaren eta ikasketa mailaren arabera; zientziako, matematikako eta teknologiko goi graduatuen tasa gordina, sexuaren arabera; gainditutakoen ehunekoa, sexuaren eta hezkuntza mailaren arabera; errepikatzaileen ehunekoa, sexuaren eta mailaren arabera; eta azkenik, hezkuntza-sistema garaia baino lehen uzten dutenen ehunekoa, sexuaren arabera.

Has gaitezen egokitasun-tasekin; hau da, adinaren arabera, dagokien ikasturte teorikoan matrikulatutako 15, 16 eta 17 urteko ikasleen ehunekoekin. Adierazle horrek ikasleen aurrerapena ezagutzeko aukera ematen du, DBHko azken zatian eta derri gorrezkoaren ondoko hezkuntzaren hasieran. 1997-1998 ikasturtetik 2009-2010 ikasturtera, tasaren balioak gora egin zuen aztertutako nerabeza-roaren hiru urteetan, bai eta bi sexueta ere; batez ere, 16 urtekoetan —gorakada handiena izateagatik nabarmentzen da— eta 17 urtekoetan. Euskadiko hezkuntza-sistemaren emaitzek hobera egin dutela adierazten du horrek —ikus 11. taula—.

Egokitasun-tasaren goitik beheranzko hierarkiari dagokionez, bi sexueta, 15 urtekoek dute ehunik handiena (% 71,6, 2009-2010 ikasturtean); ikaslearen adina handitu ahala, ehunekoak behera egiten du. Sexuaren arabera, diferentzia emakumezkoen aldekoa da, 15 eta 17 urte arteko segmentu osoan.

11. taula. 15, 16 eta 17 urtekoen Egokitasun-tasek (ET*) EAEen izandako bilakaera, sexuaren arabera, (1997-1998 eta 2009-2010 ikasturteen artean)

Sexua eta adina		1997-1998	2009-2010	Aldea 2009-2010 – 1997-1998
Bi sexuak	15 urte	70,1	71,6	1,5
	16 urte	58,3	66,0	7,7
	17 urte	55,4	59,4	4,0
Gizonezkoak	15 urte	65,6	66,8	1,2
	16 urte	52,2	60,8	8,6
	17 urte	49,9	53,7	3,8
Emakumezkoak	15 urte	74,9	76,7	1,8
	16 urte	64,7	71,6	6,9
	17 urte	61,2	65,4	4,2
Aldea gizonezkoak – emakumezkoak	15 urte	–9,3	–9,9	
	16 urte	–12,5	–10,8	
	17 urte	–11,3	–11,7	

(*) Egokitasun-tasa (ET) = bere adinerako egokia den ikasturte teorikoan matrikulatuta dauden ikasleen ehunekoa.

Iturria: EUSTAT eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saila, Irakaskuntzako Adierazleak. Ikasturte teoriko egokiak: 15 urte – Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 4. maila; 16 urte – Batxilergoko eta Erdi Mailako Lanbide Heziketako 1. maila; eta 17 urte – Batxilergoko eta Erdi Mailako Lanbide Heziketako 2. maila.

Ikus dezagun graduazio-tasa gordina (GTG) —ikus 12. taula—; hots, aztertutako hezkuntza mailako graduatuen kopurua adierazten duen portzentajezko erlazioa, adina alde batera utzita, aipatutako ikaske-ten azken ikasturteko adin teorikoa duen populazio

osoari dagokionez. Adierazle horretarako, 1999-2000 eta 2008-2009 ikasturteetako informazioa daukagu. Aldi horretan, graduazio-tasa gordinaren portzentajezko balioa handitu egin zen DBHn, teknikoan, unibertsitateaz kanpoko goi teknikoan, bai

eta lehen zikloko unibertsitateko-ikasketetan; hau da, Diplomaturako, Arkitektura Teknikoko eta Ingeniaritza Teknikoko titulazioetan. Aldiz, pixka bat txikitu egin zen Batxilergoan, gizonezkoen zein emakumezkoen kasuan. Emakumezkoek graduazio-tasa

12. taula. Graduazio-tasa gordinak (GTG*) EAEen izandako bilakaera, sexuaren eta hezkuntza mailaren arabera (1999-2000 eta 2008-2009 ikasturteen artean)

Sexua eta hezkuntza maila		1999-2000	2008-2009	Aldea 2008-2009 – 1999-2000
Bi sexuak	Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza	85,8	88,5	2,7
	Batxilergoa	67,4	65,5	-1,9
	Teknikoa	15,3	20,7	5,4
	Goi Teknikoa	25,5	33,0	7,5
	Diplomatua, Arkitekto Teknikoa eta Ing. Teknikoa	19,2	25,1	5,9
	Lizentziatua, Arkitektoa eta Ingeniaria	26,3	26,1	-0,2
Gizonezkoak	Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza	81,8	85,7	3,9
	Batxilergoa	60,1	58,3	-1,8
	Teknikoa	17,4	22,3	4,9
	Goi Teknikoa	27,8	34,8	7,0
	Diplomatua, Arkitekto Teknikoa eta Ing. Teknikoa	15,5	19,1	3,6
	Lizentziatua, Arkitektoa eta Ingeniaria	21,3	20,9	-0,4
Emakumezkoak	Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza	90,0	91,4	1,4
	Batxilergoa	75,1	73,1	-2,0
	Teknikoa	13,1	18,9	5,8
	Goi Teknikoa	23,1	31,1	8,0
	Diplomatua, Arkitekto Teknikoa eta Ing. Teknikoa	23,0	31,5	8,5
	Lizentziatua, Arkitektoa eta Ingeniaria	31,6	31,5	-0,1
Aldea gizonezkoak – emakumezkoak	Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza	-8,2	-5,7	
	Batxilergoa	-15,0	-14,8	
	Teknikoa	4,3	3,4	
	Goi Teknikoa	4,7	3,7	
	Diplomatua, Arkitekto Teknikoa eta Ing. Teknikoa	-7,5	-12,4	
	Lizentziatua, Arkitektoa eta Ingeniaria	-10,3	-10,6	

(*) Graduazio-tasa gordina (GTG) = aztertutako hezkuntza mailako graduatuen kopurua adierazten duen portzentajezko erlazioa, adina alde batera utzita, aipatutako ikasketen azken ikasturteko hasieran adin teorikoa duen populazio osoari dagokionez.


Iturria: EUSTAT eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saila, Irakaskuntzako Adierazleak.

gordin nabarmen handiagoak lortzen dituzte DBHn eta Batxilergoan, bai eta lehen zein bigarren zikloko unibertsitate-ikasketetan ere (Lizentziatura, Arkitektura eta Ingeniaritza). Gizonezkoak, berriz, unibertsitateaz kanpoko tekniko (Erdi Mailako heziketa-zikloak) eta goi tekniko (Goi Mailako heziketa-zikloak) mailetan nabarmentzen dira. Sexuen arteko alde horiek aldiaren hasieran eta amaieran adierazten direnez, generoen arteko desberdintze soziokulturaleko arau irmo baten aurrean gaudela esan genezake.

Estatu osoarekin konparatuta, esan daiteke, 2006-2007 ikasturteko datu estatistikoaren arabera, EAEn graduatutako ikasleek aise gainditzen dituztela Espainiako ikasleei dagozkien graduazio-tasa gordinak, 2. grafikoa ikus daitekeen bezala.

Jarraian, azter dezagun zientziako eta teknologiako graduazio-tasa; hau da, matematiketako, zientziako eta teknologiako titulazio tertziarioa duen 20 eta 29 urte arteko populazioa, adin tarte bereko 1.000 pertsonako.

2. grafikoa. Graduatuaren tasa gordinak EAEn eta Espainian 2006-2007 ikasurtean



Iturria: Mapa de indicadores 2010. Sistema estatal de indicadores de la educación. Hezkuntza Ministerioioko Ebaluazio Institutua.

2007-2008 ikasturtean, tasa hori % 24koa zen EAEn, baina aski ezberdina zen sexuaren arabera: % 13,7 emakumezkoen artean, eta % 33,8 gizonezkoen artean. Zientzietako, matematiketako eta teknologiko goi graduazio-tasa gordinak⁸ 2007-2008 ikasturterako, EAEn eta Espainian, indartsu adierazten dira. Goi lanbide-heziketan eta unibertsitate-hezkuntzan, zientzietako, matematiketako eta teknologiko goi hezkuntzan graduatutakoak kopurua 1.000 biztanleko, 20 eta 29 urte arteko eus-

kal populazioaren artean, nabarmen handiagoa da, Espainiako tasaren balioarekin konparatuta. Edozer kasutan, 20 eta 29 urte arteko dagokienez, aldeak handiagoak dira gizonezkoen artean, emakumezkoen artean baino —ikus 13. taula—.

Jarraian, azter ditzagun gaitututakoak ehunekoak, unibertsitateaz kanpoko mailaren arabera, 1999-2000 ikasturtetik 2008-2009 ikasturtera. Bilakaera goranzkoa izan da oro har, nahiz eta sal-

buespen izan diren DBH 4koak —hortxe izan da beherakada handiena— eta Erdi zein Goi mailako lanbide-heziketakoak; bi sexuak, gainera, bat datoz joera horretan. Gaitututakoak DBHn matrikulatutakoak % 65 eta Batxilergoan matrikulatutakoak % 73 adierazten dute. Eraitza onenak lanbide-heziketan izan ziren: gaitututakoak % 79 Erdi Mailako lanbide-heziketan matrikulatutakoak artean, eta % 84 Goi Mailako artean —ikus 14. taula—.

13. taula. Zientzietako, matematiketako eta teknologiko goi graduatuen tasa gordinak, 20 eta 29 urte bitarteko 1.000 gazteko, EAEn eta Espainian, sexuaren eta ikasketa mailaren arabera. 2007-2008 ikasturtea

Sexua eta hezkuntza maila		EAEn	Espainia	Aldea EAEn – Espainia
Bi sexuak	LH Goi mailakoa	10,2	3,7	6,5
	Unibertsitate-hezkuntza	13,8	8,0	5,8
	Goi Irakaskuntza guztira	24,0	11,6	12,4
Gizonezkoak	LH Goi mailakoa	16,6	6,0	10,6
	Unibertsitate-hezkuntza	17,2	9,8	7,4
	Goi Irakaskuntza guztira	33,8	15,8	18,0
Emakumezkoak	LH Goi mailakoa	3,6	1,2	2,4
	Unibertsitate-hezkuntza	10,2	6,0	4,2
	Goi Irakaskuntza guztira	13,7	7,2	6,5
Aldea gizonezkoak – emakumezkoak	LH Goi mailakoa	13,0	4,8	
	Unibertsitate-hezkuntza	7,0	3,8	
	Goi Irakaskuntza guztira	20,1	8,6	

Iturria: Mapa de indicadores 2010. Sistema estatal de indicadores de la educación, Ebaluazio Institutua, Hezkuntza Ministerioa.

⁸ Zientzietan, matematiketan eta teknologian graduatutakoak tasa gordinak: Goi Mailako lanbide-heziketa eta unibertsitate-ikaskuntza mailako ikasketak (ISNI 5A, 5B eta 6) amaitzen dituzten ikasleek eta 20 eta 29 urte arteko populazio osoaren arteko erlazioa, bider 1.000. Mapa de indicadores 2010. Sistema estatal de indicadores de la educación, Hezkuntza Ministerioa, Ebaluazio Institutua.

14. taula. Gainditu dutenen ehunekoen bilakaera, sexuaren eta unibertsitateaz kanpoko mailaren arabera*,
€AEn (1999-2000 eta 2008-2009 ikasturteen artean)

Sexua eta hezkuntza maila		1999-2000	2008-2009	Aldea 2008-2009 – 1999-2000
Bi sexuak	DBH	59,9	65,1	5,2
	DBH 1	0,0	67,8	67,8
	DBH 2	53,5	63,6	10,1
	DBH 3	47,9	62,4	14,5
	DBH 4	78,2	66,5	-11,7
	Batxilergoa	64,4	72,9	8,5
	1. Batxilergoa	56,9	67,1	10,2
	2. Batxilergoa	71,0	78,2	7,2
	LH Erdi Maila	81,3	78,8	-2,5
	LH Goi Maila	86,9	84,3	-2,6
Gizonezkoak	DBH	52,7	60,2	7,5
	DBH 1	0,0	62,2	62,2
	DBH 2	44,8	58,5	13,7
	DBH 3	39,5	57,2	17,7
	DBH 4	74,5	62,6	-11,9
	Batxilergoa	59,7	70,1	10,4
	1. Batxilergoa	50,9	63,6	12,7
	2. Batxilergoa	67,3	76,0	8,7
	LH Erdi Maila	75,9	72,0	-3,9
	LH Goi Maila	85,4	82,1	-3,3
Emakumezkoak	DBH	67,8	70,4	2,6
	DBH 1	0,0	73,9	73,9
	DBH 2	63,5	69,3	5,8
	DBH 3	57,3	67,6	10,3
	DBH 4	82,2	70,6	-11,6
	Batxilergoa	68,6	75,5	6,9
	1. Batxilergoa	62,2	70,2	8,0
	2. Batxilergoa	74,5	80,2	5,7
	LH Erdi Maila	90,5	89,0	-1,5
	LH Goi Maila	89,0	87,1	-1,9
Aldea gizonezkoak – emakumezkoak	DBH	-15,1	-10,2	
	DBH 1	0,0	-11,7	
	DBH 2	-18,7	-10,8	
	DBH 3	-17,8	-10,4	
	DBH 4	-7,7	-8,0	
	Batxilergoa	-8,9	-5,4	
	1. Batxilergoa	-11,3	-6,6	
	2. Batxilergoa	-7,2	-4,2	
	LH Erdi Maila	-14,6	-17,0	
	LH Goi Maila	-3,6	-5,0	

(*) Gainditu dutenen ehunekoa, sexuaren eta unibertsitateaz kanpoko mailaren arabera = ikasgai guztiak gainditu zituzten ikasleen ehunekoa, ikasturte eta maila horretan matrikulatutako pertsona guztiei dagokienez.

Analisian hezkuntza-zentroaren titulartasuna aintzat hartuz gero, 2008-2009 ikasturtean, euskal ikasleen artean, gaingitu zutenen ehunekoa handiagoa izan zen zentro pribatuetan matrikulatutakoetan, unibertsitateaz kanpoko maila guztietan; alde handiena Batxilergoan izan zen (% 79, zentro publikoetako % 67ren aurrean) —ikus 15. taula—.

Unibertsitateaz kanpoko maila bakoitzeko errepikatzaileen ehunekoari dagokionez: bi sexueta-rako, 1999-2000 ikasturtetik 2008-2009 ikasturtera, ehuneko horren balioa txikitu egin zen DBHn eta Batxilergoan matrikulatutakoetan; nolanahi ere, handitu egin zen Goi Mailako lanbide-heziketan. Sexua kontuan izanez gero, gizonezko ikasle-rian ere handitu egin zen errepikatzaileen ehunekoa, Erdi mailako lanbide-heziketan. Orokorrean, gizonezkoek hezkuntza maila guztietan gaingitzen dituzte emakumezko errepikatzaileen ehunekoak, baina, batez ere, DBHko lehen bi ikasturteetan eta Erdi Mailako lanbide-heziketako formakuntza-zikloetan —ikus 16. taula—.


2007-2008 ikasturterako, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzari dagokion lurraldeen arteko konparazioa ahalbidetzen digun informazioa daukagu: Espainiako ikasle errepikatzaileen ehunekoak euskal ikasleen ia bikoitzak dira DBHko lau ikasturteetan —ikus 3. grafikoa—.

15. taula. Gaingitu dutenen ehunekoa EAEn 2008-2009 ikasturtean, unibertsitateaz kanpoko mailaren eta hezkuntza zentroaren titulartasunaren arabera

Hezkuntza maila	Zentro publikoa	Zentro pribatua	Aldea publikoa – pribatua
DBH	59,9	69,3	-9,4
DBH 1	62,5	72,4	-9,9
DBH 2	57,9	68,2	-10,3
DBH 3	56,6	66,8	-10,2
DBH 4	62,6	69,5	-6,9
Batxilergoa	66,7	79,2	-12,5
1. Batxilergoa	62,8	71,0	-8,2
2. Batxilergoa	70,0	87,5	-17,5
LH Erdi Maila	75,2	83,3	-8,1
LH Goi Maila	82,9	85,6	-2,7

Iturria: EUSTAT eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saila, Irakaskuntzako Adierazleak.

3 grafikoa. DBHko errepikatzaileen portzentajea EAEn eta Espainian 2007-2008 ikasturtean



Iturria: Mapa de indicadores 2010. Sistema estatal de indicadores de la educación. Hezkuntza Ministerioioko Ebaluazio Institutua.

16. taula. Ikasle errepikatzaileen ehunekoen⁹ bilakaera EAEn, sexuaren eta unibertsitateaz kanpoko mailaren arabera*
(1999-2000 eta 2008-2009 ikasturteen artean)

Sexua eta hezkuntza maila		1999-2000	2008-2009	Aldea 2008-2009 – 1999-2000
Bi sexuak	DBH	9,6	7,0	-2,6
	DBH 1	0,0	7,3	7,3
	DBH 2	11,8	7,7	-4,1
	DBH 3	11,9	7,3	-4,6
	DBH 4	12,6	5,7	-6,9
	Batxilergoa	13,4	7,2	-6,2
	1. Batxilergoa	10,0	4,5	-5,5
	2. Batxilergoa	16,5	9,7	-6,8
	LH Erdi Maila	8,2	8,7	0,5
	LH Goi Maila	3,9	6,3	2,4
	DBH	11,6	8,4	-3,2
Gizonezkoak	DBH 1	0,0	9,4	9,4
	DBH 2	14,8	9,2	-5,6
	DBH 3	14,3	8,3	-6,0
	DBH 4	14,8	6,3	-8,5
	Batxilergoa	16,1	7,8	-8,3
	1. Batxilergoa	12,3	4,7	-7,6
	2. Batxilergoa	19,5	10,7	-8,8
	LH Erdi Maila	9,1	10,3	1,2
	LH Goi Maila	4,5	6,9	2,4
	DBH	7,3	5,6	-1,7
	DBH 1	0,0	5,1	5,1
Emakumezkoak	DBH 2	8,3	6,1	-2,2
	DBH 3	9,3	6,2	-3,1
	DBH 4	10,3	5,1	-5,2
	Batxilergoa	10,9	6,7	-4,2
	1. Batxilergoa	8,0	4,3	-3,7
	2. Batxilergoa	13,6	8,8	-4,8
	LH Erdi Maila	6,6	6,2	-0,4
	LH Goi Maila	2,9	5,4	2,5
	DBH	4,3	2,8	
	DBH 1	0,0	4,3	
	DBH 2	6,5	3,1	
Aldea gizonezkoak – emakumezkoak	DBH 3	5,0	2,1	
	DBH 4	4,5	1,2	
	Batxilergoa	5,2	1,1	
	1. Batxilergoa	4,3	0,4	
	2. Batxilergoa	5,9	1,9	
	LH Erdi Maila	2,5	4,1	
	LH Goi Maila	1,6	1,5	

(*) Ikasle errepikatzaileen ehunekoa = errepikatzen duten ikasleen ehunekoa, ikasturte eta maila horretan matxulatutako guztiei dagokienez.

Iturria: EUSTAT eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saila, Irakaskuntzako Adierazleak.

⁹ Ikasleek ez dituztenean derrigorrezko hezkuntzako zikloi edo ikasturteei dagozkien helburuak betetzen, beste urtebete geldo daitezke bertan, adierazle honetako datuen ikasturtean indarrean dagoen legeriaren arabera. *Mapa de indicadores 2010*, Hezkuntza Ministerioko Ebaluazio Institutua.

Irakas Sistema Ebaluatu eta Ikertzeko Erakundeak eskola garaia baino lehen uzteari buruzko informazioa zabaltzen du; hau da, graduatua (ISNI 2) duten eta goragoko irakaskuntza edo prestakuntzarik¹⁰ jaso ez duten 18 eta 24 urte arteko pertsonen ehun-

nekoa. EAEn zein Espainian, orokorrean, eskola garaia baino lehen uzteko joera txikitu egin da 2000 eta 2010 artean; nolanahi ere, Euskadin, pixka bat handitu egin da emakumezkoen artean. Dena den, Euskadiko ehunekoak Espainiakoak baino askoz

ere txikiagoak dira, azken horiek aise bikoizten baitituzte Euskadikoak: 2010ean, % 12,6koa izan da Euskadin, eta % 28,4 Espainian. Beste aldetik, bi lurraldeetan, gizonezkoen ehunekoek erruz gainditzen dituzte emakumezkoenak —ikus 17. taula—.

17. taula. Hezkuntza-sistema garaia baino lehen uzten dutenen ehunekoak* bilakaera, sexuaren arabera, EAEn eta Espainian (2000-2010)

Sexua	EAEn			Espainia		
	2000	2010	Aldea 2010 – 2000	2000	2010	Aldea 2010 – 2000
Bi sexuak	14,7	12,6	–2,1	29,1	28,4	–0,7
Gizonezkoak	19,8	13,3	–6,5	35,6	33,5	–2,1
Emakumezkoak	9,5	11,9	2,4	23,2	23,1	–0,1
Aldea gizonezkoak – emakumezkoak	10,3	1,4		12,4	10,4	

(*) Hezkuntza-sistema garaia baino lehen uzten dutenen ehunekoa = 18 eta 24 urte bitarteko eta, gehienez, DBHko ikasketak edo hezkuntza maila txikiagoa duten (ISNI 0, 1 eta 2) eskolatu gabeko pertsonen ehunekoa.

Iturria: Irakas Sistema Ebaluatu eta Ikertzeko Erakundea (ISEI-IVEI). Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saila.

¹⁰ Edozein ikaskuntza motarekin lotutako jarduera da prestakuntza, arautua izan ala ez.

2. Euskara

Lehenik eta behin, azter dezagun EAEn bizi diren gazteen bilakaera, euren euskararen ezagutzaren arabera, 1996ko eta 2006ko datuak konparatuta. 15 eta 29 urte arteko taldearen kasuan, euskaldunen kopurua modu esanguratsuan handitu zen (% 20,4), eta, aldi berean, dezente txikitu zen ia euskaldunena (–% 41,7) eta erdaldunena edo euskaraz ez dakitenena (–% 59). Adin taldeen arabera, euskaldunen kopurua nerabeen artean txikitu zen soilik (–% 12,5); gazteen eta heltzearen dauden artean, ordea, nabarmen handitu zen (% 19,7 eta % 68,4, hurrenez hurren). Talde gaztearen kopurua termino absolutuetan zein hiru adin taldeetan nabarmen txikitu zela kontuan hartzen badugu, are gehiago nabarmentzen da euskal gazteen gorakada, nahiko egoera demografiko atzerakoi gertatu da eta —ikus 18. taula—.

18. taula. 15 eta 29 urte bitarteko gazteen euskararen ezagutzaren bilakaera EAEn, adin-taldearen arabera (1996-2006): kopuru absolutuak eta portzentajezko aldakuntzak

Adin-taldeak eta euskararen ezagutza		1996	2006	▲% 2006 / 1996
15-19 urte	Euskaldunak *	71.103	62.181	–12,55
	Ia euskaldunak **	57.442	19.290	–66,42
	Erdaldunak ***	31.029	10.160	–67,26
	Guztira	159.574	91.631	–42,58
20-24 urte	Euskaldunak *	61.324	73.419	19,72
	Ia euskaldunak **	64.839	30.796	–52,50
	Erdaldunak ***	52.385	18.834	–64,05
	Guztira	178.548	123.049	–31,08
25-29 urte	Euskaldunak *	49.577	83.479	68,38
	Ia euskaldunak **	49.267	49.864	1,21
	Erdaldunak ***	73.141	35.122	–51,98
	Guztira	171.985	168.465	–2,05
15-29 urte	Euskaldunak *	182.004	219.079	20,37
	Ia euskaldunak **	171.548	99.950	–41,74
	Erdaldunak ***	156.555	64.116	–59,05
	Guztira	510.107	383.145	–24,89

(*) Euskaldunak: euskara ondo ulertzen dute eta hitz egiten dute.

(**) Ia euskaldunak: euskara ondo edo zailtasunez ulertzen dute, eta zailtasunez hitz egiten dute.

(***) Erdaldunak: Ez dute euskara ulertzen, ez eta hitz egiten ere.

Iturria: Gazteen Euskal Behatokia, Eustaten datuak oinarri hartuta.

Euskararen ezagutzaren portzentajezko banaketak 15 eta 29 urte arteko gazteetan aztertuz gero, euren adin talde osoari dagokionez, ohartuko gara euskaldunen gorakada nabarmena izan dela (+21,5 puntu), eta behera egin dutela ia euskaldunek (-7,5 puntu) eta, batez ere, erdaldunek (-14 puntu), datu absolutuak aztertzerakoan ikusi dugun bezala. Handia izan da euskaldunen aurrerapena, eta gehien-go garbia adierazten dute 2006an: hamarretik sei; 1996an, aldiz, hamar gaztetik hiru baino ez ziren. Aldaketa garrantzitsu hori hiru adin taldeetan gertatu da, nahiz eta indar handiagoz nerabeen artean (% 67,9), 25 eta 29 urte arteko gazteen artean baino (% 49,5) —ikus 19. taula—.

19. taula. EAEko 15 eta 29 urte bitarteko gazteen euskararen ezagutzaren banaketaren* bilakaera, adin-taldeen arabera (1996-2006)

Adin taldeak eta euskararen ezagutza		1996	2006	Aldea 2006 – 1996
15-19 urte	Euskaldunak	44,56	67,86	23,30
	la euskaldunak	36,00	21,05	-14,95
	Erdaldunak	19,44	11,09	-8,36
	Guztira	100,00	100,00	0,00
20-24 urte	Euskaldunak	34,35	59,67	25,32
	la euskaldunak	36,31	25,03	-11,29
	Erdaldunak	29,34	15,31	-14,03
	Guztira	100,00	100,00	0,00
25- 29 urte	Euskaldunak	28,83	49,55	20,73
	la euskaldunak	28,65	29,60	0,95
	Erdaldunak	42,53	20,85	-21,68
	Guztira	100,00	100,00	0,00
15-29 urte	Euskaldunak	35,68	57,18	21,50
	la euskaldunak	33,63	26,09	-7,54
	Erdaldunak	30,69	16,73	-13,96
	Guztira	100,00	100,00	0,00

(*) Euskararen arabera talde (euskaldunak, ia euskaldunak eta erdaldunak) bakoitzaren ehunekoa, bere adin talde osoarekiko.

Iturria: Gazteen Euskal Behatokia, Eustaten datuak oinarri hartuta.

Gazteen adierazleak 2011

Lurralde historikoetan, eta 2006. urteari dagokionez, euskaldunek Gipuzkoako gazteen artean dute presentzia erlatibo handiena (% 68,8), eta Araban txikiena (% 48,8); edonola ere, hiru lurralde historikoetan, euskaldunek gehiengo argia osatzen dute, eta ia euskaldunak dituzte atzetik —ikus 20. taula eta 4. grafikoa—.


Analisian gaztearen ama-hizkuntza sartuz gero, 2006ko datuetan ikusiko dugunaren arabera,

20. taula. 15 eta 29 urte bitarteko gazteen banaketa, euskararen ezagutzaren arabera EAE eta lurralde historikoetan 2006an: kopuru absolutuak eta portzentajeak

Euskararen ezagutza		Araba	Gipuzkoa	Bizkaia	EAE
Kopuru absolutuak	Euskaldunak	28.572	82.897	107.610	219.079
	Ia euskaldunak	17.974	23.279	58.697	99.950
	Erdaldunak	11.943	14.277	37.896	64.116
% bertikalak	Euskaldunak	48,85	68,82	52,70	57,18
	Ia euskaldunak	30,73	19,33	28,74	26,09
	Erdaldunak	20,42	11,85	18,56	16,73
Guztira		100,00	100,00	100,00	100,00

Iturria: Gazteen Euskal Behatokia, Eustaten datuak oinarri hartuta.

4. grafikoa. Euskararen ezagutza lurralde historikoetan 2006



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia, Eustaten datuak oinarri hartuta.



Gauza bera gertatzen da ama-hizkuntzak euskara eta gaztelania diren kasuetan (% 84,5); ostera, ama-hizkuntza bakarra gaztelania izanez gero, nabarmen murrizten da euskaldun gazteen ehunekoa (% 47,9), eta handitu ia euskaldunen (% 31,8) eta erdaldunen (% 20,3) presentzia erlatiboa. Aldi berean, hurrengo taulan jasotako ehuneko horizontalen banaketan, zera ikusiko dugu: gazteen gehiengoak gaztelania izan duela ama-hizkuntza (% 72,6), baina ezaugarri hori ohikoagoa dela ia euskaldunetan (% 88,5) eta erdaldunetan (% 88), euskaldunen kolektiboan baino (% 60,8) —ikus 21. taula—.

Euskal gazteen euskararen ezagutza maila ezagutu ondoren, eguneroko bizitzan zer erabilera duen aztertu beharko genuke. Horri dagokionez, Gazteen Euskal Behatokiak egindako *Euskadiko gazteak 2008* galdeketa gazteek familiarekin eta lagunekin zein hizkuntza erabiltzen duten adierazten digu. Euskaldun gazteen % 23k (behar bezala edo ondo egiten dute euskaraz) gehienbat euskara erabiltzen dute senideekin etxean (% 19k dena edo ia dena egiten dute euskaraz, eta gainerako % 4k gehiago euskaraz, gaztelaniaz baino); % 14k hein berean egiten dute euskaraz eta gaztelaniaz; eta % 62k gaztelaniaz egiten dute gehienbat (% 15ek gehiago gaztelaniaz, euskaraz baino, eta gainerako % 47k dena edo ia dena gaztelaniaz). Gazte euskaldunek etxean gehienbat euskara erabiltzeko joerak zertxobait behera egin zuen 2004tik (% 27) 2008ra (% 23) —ikus 22. taula—.

21. taula. 15 eta 29 urte bitarteko gazteen banaketa, euskararen ezagutzaren eta ama-hizkuntzaren arabera, EAEn 2006an: kopuru absolutuak, % bertikalak eta % horizontalak

Euskararen ezagutza		Ama-hizkuntza				
		Euskara	Gaztelania	Biak	Beste bat	Guztira
Kopuru absolutuak	Euskaldunak	59.692	133.185	20.813	5.389	219.079
	la euskaldunak	5.297	88.468	2.822	3.363	99.950
	Erdaldunak	2.231	56.426	1.009	4.450	64.116
	Guztira	67.220	278.079	24.644	13.202	383.145
% bertikalak	Euskaldunak	88,80	47,89	84,45	40,82	57,18
	la euskaldunak	7,88	31,81	11,45	25,47	26,09
	Erdaldunak	3,32	20,29	4,09	33,71	16,73
	Guztira	100,00	100,00	100,00	100,00	100,00
% horizontalak	Euskaldunak	27,25	60,79	9,50	2,46	100,00
	la euskaldunak	5,30	88,51	2,82	3,36	100,00
	Erdaldunak	3,48	88,01	1,57	6,94	100,00
	Guztira	17,54	72,58	6,43	3,45	100,00

Iturria: Gazteen Euskal Behatokia, Eustaten datuak oinarri hartuta.

Lagunekin euskara erabiltzeari dagokionez, % 23 dira lagunarteko harremanetan nagusiki euskaraz mintzatzen diren euskaldunak. % 22k euskaraz nahiz gaztelaniaz egiten dute, eta

% 53k gaztelaniaz batez ere. Kasu horretan ere, 2004tik 2008ra, beherakada txiki bat gertatu da euskaraz erlazionatzen diren euskaldun gazteen ehunekoan.

Lurralde historikoen arabera, familiarekin zein lagunekin, euskara gehiago erabiltzen da Gipuzkoan, Bizkaian baino; eta, aldi berean, gehiago Bizkaian, Araban baino.

22. taula. Gazte euskaldunen euskararen erabileraren bilakaera, familiarekin eta lagunekin, EAE eta lurralde historikoetan (2004-2008): portzentaje bertikalak

		Etxean		Lagunekin	
EAE eta lurralde historikoak		2004	2008	2004	2008
EAE	Euskaraz gehienbat	27	23	27	23
	Bi hizkuntzetan berdin	10	14	22	22
	Gaztelaniaz gehienbat	63	62	51	53
	Ed/Ee	0	1	0	1
Araba	Euskaraz gehienbat	7	6	4	3
	Bi hizkuntzetan berdin	5	2	16	15
	Gaztelaniaz gehienbat	87	92	79	81
	Ed/Ee	0	0	0	0
Bizkaia	Euskaraz gehienbat	19	15	21	14
	Bi hizkuntzetan berdin	11	14	24	20
	Gaztelaniaz gehienbat	70	69	57	65
	Ed/Ee	0	2	0	2
Gipuzkoa	Euskaraz gehienbat	39	34	38	36
	Bi hizkuntzetan berdin	11	16	21	27
	Gaztelaniaz gehienbat	50	48	40	36
	Ed/Ee	0	1	0	1

Iturria: Gazteen Euskal Behatokia, *Euskadiko gazteak 2008*.

3. Ondorioak

Hezkuntza

1996-1997 eta 2009-2010 ikasturteen arteko al-dian, atzerakada garrantzitsua izan da (–% 35,7) euskal hezkuntza-sisteman matrikulatutako gaz-teen artean, 80ko hamarkadaren erdialdetik aurre-
ra jaiotza-tasan izandako pixkanakako beheraka-
daren ondorioz.

Nolanahi ere, eskolatzetasak —ikasleen ehune-
koak erroldatutako gazte guztiei dagozkien—
handitu egin ziren urtez urte, 15 eta 29 urte arteko
taldearen ia adin guztietan. 2009-2010 ikasturtean,
eskolatzetasaren balioa murriztu egin zen adinak
gora egin ahala: 15 urterekin % 99,5ekoa izatetik
(Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza), 29 urterekin
% 5,2koa izatera pasatu zen, eta 24 urterekin
% 22,4kora (unibertsitate-hezkuntzako hirugarren
ziklorako sarbidea). Sexuari dagokionez, 2009-
2010 ikasturtean, gizonezkoen tasa gailentzen da
18 urtera arte; hortik aurrera, berriz, emaku-
mezkoena. Dirudienez, azken joeraren arabera,
gero eta gizonezko gehiago sartzen dira derrigo-
rrezkoaren ondoko hezkuntza mailetan; hala ere,
emakumezko gehiago daude goi mailako hezkun-
tzan. Eta, 23 urtetik aurrera, berdindu eta gaintitu
egiten dituzte gizonezkoen tasak (graduondoko
unibertsitate-ikasketak: masterra eta doktoretza).

Espainiarekin alderatuz gero, eta 2007-2008 ikas-
turteari dagokionez, 16 eta 24 urte artekoen esko-
latze-tasak handiagoak dira Euskadin. Era berean,
eskolako bizi-itxaropena, 6 urterekin, Espainiakoa
baino urtebete handiagoa da EAEn: 15,5 urteko
batez bestekoa, Espainiako 14,4 urteen aurrean,
aurreikus daitekeen 6 urtetik aurrerako Araubide
Orokorreko irakaskuntzetako eskolatzeari dago-
kionez.

Beste aldetik, unibertsitateaz kanpoko ikasketetan
matrikulatutako ikasle atzerritarrek askoz ere ehu-
neko txikiagoa adierazten dute EAEn, Espainia
osoarekin konparatuta: % 5, guztizkoaren % 8,9ren
aurrean, 2007-2008 ikasturtean.

Hezkuntza-sistemaren funtzionamenduaren kalita-
te globalari dagokionez, EAEn nabarmen hobetu
da 1996-1997 ikasturtetik 2009-2010 ikasturtera,
irakasle eta talde bakoitzeko ikasleen ratioei dago-
kionez. Zehazki, 2009-2010 ikasturterako, biga-
rren hezkuntzako batez bestekoa irakasleko 8,1
ikaslekoa da; 9,6 ikaslekoa dedikazio osoko irakas-
leko (DOB); eta 19,5 ikaslekoa hezkuntza taldeko.
Unibertsitate-ikasketetan, irakasle bakoitzeko 11
ikasleko eta dedikazio osoko irakasle bakoitzeko
13 ikasleko batez bestekoak daude. Hezkuntza-
zentroaren titulartasuna kontuan hartuz gero, eta

musika-ikasketen salbuespena alde batera utzita,
hala bigarren hezkuntzan nola unibertsitate mailan,
ratio publikoen balioek adierazten dute orokorrean
irakaskuntza pribatukoek baino kalitate hobean
funtzionatzen dutela. Espainiarekiko konparazioan,
2007-2008 ikasturtean, hezkuntza talde bakoitze-
ko ikasleen batez bestekoa, EAEn, txikiagoa da
aztertutako unibertsitateaz kanpoko lau mailetan,
eta DBHn dago alde handiena (19,7, talde bakoit-
tzeiko 24,4 ikasleren aurrean).

Hezkuntza-sistemaren emaitzen adierazleei dago-
kionez, Euskadiko datuak hobeak dira Espainiako
Estatukoak baino:

- Egokitasun-tasa (beren adinerako egokia den
ikasturte teorikoan matrikulatuta dauden ikas-
leen ehunekoa): 1997-1998 ikasturtetik 2009-
2010 ikasturtera, bi sexuetan handitu egin zen
balioa 15, 16 eta 17 urterako.
- Graduazio-tasa gordina (aztertutako hezkuntza
mailako graduatuen kopurua adierazten duen
portzentajezko erlazioa, adina alde batera utzita,
aipatutako ikasketen azken ikasturteko adin teo-
rikoa duen populazio osoari dagokionez): 1999-
2000 ikasturtetik 2008-2009 ikasturtera, handitu
egin zen haren balioa DBHn, teknikoan eta uni-

bertsitateaz kanpoko goi teknikoan, bai eta lehen zikloko unibertsitate-ikasketetan ere (Diplomatura, Arkitektura Teknikoa eta Ingeniaritza Teknikoa), eta zertxobait atzera egin zuen Batxilergoan. Estatuarekin konparatuta, Euskadin graduatutako ikasleriaren ehunekoak aise gainditzen ditu Espainiako ikasleenak, maila guztietan: adibidez, % 83,6 eta % 69,3 hurrenez hurren DBHn, eta % 26,5 eta % 18,2 hurrenez hurren Lizentziaturan, Arkitekturan eta Ingeniaritzan.

- Zientzietan, matematiketan eta teknologian graduatutakoak tasa gordina (Goi hezkuntzan —Goi Mailako lanbide-heziketa eta unibertsitate-ikasketak—, Zientzietan, matematiketan eta teknologian graduatutakoak kopurua, 20 eta 29 urte arteko 1.000 biztanleko): 2007-2008 ikasturterako, tasaren balioa nabarmen handiagoa da EAEn; batez, ere, goi Ikasketetan: EAEn % 24 eta Espainian % 11,6. Sexuaren arabera, eta 20-29 urte artekoetan, aldeak nabarmenagoak dira gizonezkoen artean (18 puntuko aldea EAEn eta Espainiaren artean), emakumezkoen artean baino (6,5 puntuko aldea).
- Unibertsitateaz kanpoko mailan gainditutakoak ehunekoak (ikasgai guztiak gainditu zituzten ikasleak, ikasturte/maila berean matrikulatutako pertsona guztiei dagokionez): 1999-2000 ikasturtetik 2008-2009 ikasturtera, bilakaera goranz-

koa izan da oro har, nahiz eta DBH 4ko (beherakada handiena) eta lanbide-heziketako (Erdi eta Goi Maila) salbuespenak izan diren. Bi sexuetarako, eta 2008-2009 ikasturtean, gainditutakoak DBHn matrikulatutakoak % 65 eta Batxilergoan matrikulatutakoak % 73 adierazten dute. LHn, aldiz, emaitzarik onenak lortu ziren: % 79 Erdi Mailan, eta % 84 Goi Mailako heziketa zikloetan matrikulatutakoak artean.

- Errepikatzaileen ehunekoa, unibertsitateaz kanpoko maila bakoitzeko (errepikatzen duen ikasleriaren ehunekoa, ikasturte/maila horretan matrikulatutako pertsonen guztizkoari dagokionez): 1999-2000 ikasturtetik 2008-2009 ikasturtera, adierazle negatibo horren balioa txikitu egin zen DBHn eta Batxilergoan matrikulatutako ikasleen artean, eta handitu Lanbide Heziketan. 2007-2008 ikasturterako, eta DBH mailan, Espainiako ikasleriaren errepikatzaile ehunekoak euskal ikasleriarenak bikoizten dituzte ia, DBHko lau ikasturteetan.
- Eskola garaia baino lehen uztearen ehunekoa (eskolatu gabeko eta, gehienez, DBH edo hezkuntza maila txikiagoa duten 18 eta 24 urte arteko pertsonak). EAEn, zertxobait txikitu egin da 2000 eta 2010 artean. Nolanahi ere, Espainiako ehunekoak bikoiztu egiten du Euskadikoa (% 28,4, % 12,6ren aurrean).

Euskara

1996 eta 2006 artean, talde gazteko gizabanakoen atzerakadako ingurune demografikoan, euskaldunen kopurua handitu egin zen (% 20,4), eta murriztu ia euskaldunen (–% 41,7) eta erdaldunen (–% 59) kasuetan. 2006rako portzentajezko banaketan, euskaldunen kopuruak 15 eta 29 urte arteko gazteen % 57,2 adierazten du, ia euskaldunenak % 26,1, eta erdaldunenak % 16,7. Hiru lurralde historikoetan, euskaldunak dira gehiengo. Gipuzkoako gazteen artean dute presentzia erlatibo handiena (% 68,8), eta Araban, berriz, txikiena (% 48,8).

Datu horiek ikusita, esan genezake nolabaiteko arrakasta izan dutela euskal gazteen artean euskararen zabalkundea eta ezagutza sustatzera zuzendutako hizkuntza-politikek zein neurri publiko nahiz sozialek.

Beste aldetik, ama-hizkuntza euskara izan denean, edo rol hori gaztelaniarekin partekatu denean (elebitasuna), gazteek nagusiki euskaldun izateko joera dute: % 88 eta % 84,5, hurrenez hurren, 2006an. Aldiz, ama-hizkuntza gaztelania soila izan dutenen artean, euskaldunen presentzia murriztu egiten da (% 47,9), eta areagotu ia euskaldunena (% 31,8) eta erdaldunena (% 20,3). Gazte gehienek gaztelania izan dute ama-hizkuntza (% 72,6), baina ezaugarri

hori ez da hain ohikoa euskaldunen kolektiboan (% 60,8).

Euskara eguneroko bizitzan erabiltzeari dagokionez, *Euskadiko gazteak 2008* ikerketako lagineko gazte euskaldunen % 23k adierazi dute familiarekin eta lagunekin euskaraz egiten dutela gehienbat. Gehien-goia dira, ordea, euskara ondo jakin arren, euren harremanetan gehienbat gaztelaniara jotzen duten gazteak.

Bibliografia

BILBAO GAZTAÑAGA, Miren: *Euskadiko gazteak 2008*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, 2008. Webgune honetan eskuragarri: http://www.gazteukera.euskadi.net/r58-7651x/eu/contenidos/informacion/gazteak_bilduma/eu_liburuak/adjuntos/Juventud_vasca_2008_e.pdf [Kontsulta data: 2012/05/25]

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA: *Unibertsitatez kanpoko irakaskuntza datuak Euskadin 2009-2010 ikasturtea*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritza, (2011 Webgune honetan eskuragarri: http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net/r43-573/eu/contenidos/informacion/dia4/eu_2025/adjuntos/09_10/folleto_estadistica_2009_2010_e.pdf [Kontsulta data: 2012/05/25]

INSTITUTO NACIONAL DE EVALUACIÓN EDUCATIVA. *Mapa de Indicadores 2010*. Madril: Hezkuntza Ministerioa, 2011. Webgune honetan eskuragarri: <http://www.educacion.gob.es/evaluacion/sistema-indicadores/mapa-indicadores/Mapa-de-indicadores-2010.html> [Kontsulta data: 2012/05/25]

ISEI-IVEI, IRAKAS SISTEMA EBALUATU ETA IKERTZEKO ERAKUNDEA. Webgune honetan eskuragarri: <http://www.isei-ivei.net/eusk/indexeusk.htm> [Kontsulta data: 2012/05/25]

GAZTEEN EUSKAL BEHATOKIA. Adierazle sistema. Webgune honetan eskuragarri: <http://www.gazteukera.euskadi.net/r58-7650x/eu/estadistikak/temasV1.apl?idioma=e&ambito=1> [Kontsulta data: 2012/05/25]



Gazteen adierazleak 2011

Jarduera, enplegua eta langabezia 09







Gazteen adierazleak 2011 dokumentuaren bedera-tzigarren atalean, 16 eta 29 urte arteko popula-zioaren jarduera-, enplegu- eta langabezia-tasen bilakaera aztertuko dugu (urteko batez bestekoak), 2006 eta 2011 artean. Aldi horretan, hain zuzen ere, garrantzizko aldaketak izan dira, nazioartean berriki zabaldutako higiezin-finantza krisiaren on-dorioz, eta eragin negatiboak izan ditu; besteak beste, lanpostuak desagertu egin dira, eta langa-beziak azkar batean gora egin du populazio akti-boaren artean. Horrek guztiak ondorio larriak izan ditu gazteentzat.

Euskadiren eta Espainiaren arteko lurralde-konpa-razioa egiteko, bigarren mailako bi iturritatik sortu-tako adierazle kuantitatiboetan oinarrituko gara: Euskadiren kasuan, Euskal Estatistika Erakundea-ren (EUSTAT) Biztanleria jardueraren arabera sail-katzeko inkesta (BJA) erabiliko dugu, eta, Espai-niari dagokionez, INEren Biztanleria aktiboaren inkesta (BAI). Inkesta biak jarraituak dira, eta hiru hilabeteen behin egiten dira. Euskadirako eta Es-painiarako tasek bi sexuak eta sexu bakoitza har-tuko dituzte barne, baina ez talde gazteko adin taldeak; laginketa-akats ugari daudenez, ez da egokia maila autonomikoan halako gurutzaketa

egitea. Lurralde historikoetan bizi diren gazteen ar-teko jarduera-, enplegu- eta langabezia-tasei da-gokienez (urteko batez bestekoak), Eustatek 2006-2011 aldirako egindako BJAko inkestaren datuak erabiliko ditugu. Hala ere, kasu honetan, bi sexuak aztertuko ditugu soilik; izan ere, aipatutako mo-duan, laginketa-akats ugari daudenez, ez da ko-meni datuak sexuka gurutzatzea, ia inolako adie-razgarritasun estatistikorik gabeko emaitzak lortuko genituzkeelako.

Beste aldetik, Euskadi eta Espainian erregistratu-tako gazte langabeak bereizterakoan, INJUVEko Espainiako Gazteen Behatokiak argitaratutako da-tuak erabiliko ditugu. Horiek Estatuko Enplegu Zer-bitzu Publikoaren (SEPE) Lan Eskatzaileen Estatis-tiketan oinarritzen dira, eta adierazleak 2011ko abenduan langabe gisa erregistratutako 16 eta 29 urte arteko pertsonen ingurukoak izango dira.

Era berean, epigrafe bat eskainiko diogu gazteen ekimenaren fenomenoari, ondoko inkestaren emai-tzetan oinarrituta: 2010eko abenduan, Gazteen Euskal Behatokiak 16 eta 34 urte arteko gazteei telefonoz egindako *Enpresagintza EAEko gazteen artean* inkestarenak.


1. Euskal Autonomia Erkidegoa eta Espainia

212

2006 eta 2011 artean, bi sexuatarako jarduera-tasak (urteko batez bestekoak), gazte aktiboen portzentajezko erlazioa 16 eta 29 urte arteko pertsona guztiei dagokienez, Espainian baino pixka bat gehiago murriztu ziren Euskadin: -5 puntu, -4,7 punturen aurrean (-% 8,4ko eta -% 7ko beherakada jarduera-tasetan, hurrenez hurren). Hurrengo grafikoan ikus dezakezue, tasen beherakada 2008 eta 2011 artean gertatu da gehienbat, Estatu osoan. Higiezin-finantza krisiak eta atzerapen ekonomikoak eragin handia izan dute horretan —ikus 1. grafikoa—.

Sexua kontuan hartuz gero, jarduera-tasaren beherakada orokorra izan da, baina indar handiagoz gertatu da gizonezkoen kasuan. Bilakaera horien ondoren, aztertutako aldian, gizonezkoen tasaren aldea desagertu egin da Euskadin; Espainian, aldiz, modu esanguratsuan txikitu da. 2011n, jarduera-tasak ehuneko bera izan du 16 eta 29 urte arteko gizonezkoen eta emakumezkoen artean Euskadin (% 54,2 eta % 54, hurrenez hurren). Estatuan, ordea, oraindik ere 4,4

1. grafikoa. 16 eta 29 urte bitarteko jarduera-tasak (urteko batez bestekoak)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia eta INJUVE.

puntuako ezberdintasuna dago, gizonezkoen alde (% 66,6 eta % 61,4, hurrenez hurren). Gainera, 16 eta 29 urte arteko euskal gizonezkoen eta emakumezkoen jarduera-tasa txikiagoa da Espainiakoarekin konparatuta; gizonezkoen artean, batez ere: -9,3 gizonezkoen kasuan, eta -5,2 puntu emakumezkoenean —ikus 1. taula—.

Hezkuntzari eta euskarari buruzko atalean ikusi dugunez, Euskadiko eskolatzetasek aise gainditzen

dituzte Espainiakoak 15 eta 24 urte artekoen taldean; horregatik dira Euskadiko gazteen jardueratasak txikiagoak. Era berean, badirudi gazteek Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza gainditu ondoren ikasten jarraitzearen aldeko joera indartu egin dela, egungo finantza-krisiarekin eta atzerapen ekonomikoarekin. Langabeziaren gorakada nabarmenak eta lan-merkatuetan gazteak hartzeko ekimenen murrizketak izan dute eraginik joera horretan; horregatik, lan-bazterketa horren ondorioz, *adore fal-*

taren eraginez, gazteen multzo batek hezkuntza-sisteman bilatzen du babes. Alde horretatik, eta Euskadiri dagokionez, 2007-2008 ikasturtetik 2009-2010 ikasturtera, 16 eta 17 urte artekoen eskolatzetasa garbia ia hamar puntu handitu da (% 87,1etik % 96,7ra), eta 18 eta 21 urte artekoak ia bi puntu gorakada izan du (% 64,1etik % 65,9ra). Eskolatzearen bi gorakada horiek gazteen jarduera ekonomikoaren beherakada paraleloa eragin dute.

1. taula. 16 eta 29 urte bitartekoak jarduera-tasak (JT*) (urteko batez bestekoak) EAE eta Espainian izandako bilakaera, sexuaren arabera (2006-2011)


Lurralde-esparrua eta sexua		2006	2008	2011	Aldea 2011–2006	Aldea 2011–2008
EAE	Gizonezkoak	61,0	59,7	54,2	-6,9	-5,5
	Emakumezkoak	57,2	54,5	54,0	-3,2	-0,5
	Aldea gizonezkoak – emakumezkoak	3,9	5,2	0,2		
Espainia	Gizonezkoak	71,8	71,3	63,5	-8,3	-7,8
	Emakumezkoak	62,4	63,2	59,1	-3,3	-4,1
	Aldea gizonezkoak – emakumezkoak	9,4	8,1	4,4		
Aldea EAE – Espainia	Gizonezkoak	-10,7	-11,6	-9,3		
	Emakumezkoak	-5,2	-8,7	-5,1		

(*) 16 eta 29 urte bitartekoak jarduera-tasa (JT) sexuaren arabera = aktiboen ehunekoa, adin talde (16-29 urte) eta sexu bereko biztanleria osoarekiko.

Iturria: a) EAEko datuak: Gazteen Euskal Behatokia, Eustatek emandako datuak, Biztanleria jardueraren arabera sailkatzeko inkesta (BJA); b) Espainia: Gazteen kopuruak, jarduera-, enplegu- eta langabezia-adierazleak, INJUVE; Populazio aktiboaren inkestaren arabera, INE.

Beste aldetik, enpleguak atzerantz egin du, higiezin-finantza krisi larriak baldintzatutako egoera ekonomikoan, higiezin eta burtsaren espekulazio handian oinarritutako hazkuntza kapitalistaren aurreko zikloa hautsi ondoren. 2007ko abuztuan AEBetan jazotako 'subprime hipoteken' krisia izan zen horren leherrarazlea. Gazteriari dagokionez, 16 eta 29 urte arteko taldearen enplegu-tasak (urteko batez bestekoak) negatiboki ahuldu dira bi sexuetan, 2006 eta 2011 artean; izan ere, landunen ehunekoek modu esanguratsuan egin zuten atzera, 16 eta 29 urte arteko populazioan: zehazki, -11,2 puntu Euskadin, eta -17,5 puntu Espainian (tasen -% 20,4ko eta -% 30,1eko beherakadak, hurrenez hurren). Nabarmentzekoa da 16 eta 29 urte arteko populazioan lana dutenen ehunekoen beherakada 2008 eta 2011 artean kontzentratzen dela: orduantxe hasi ziren zabalitzen egungo finantza-krisia eta atzeraldi ekonomikoa —ikus 2. grafikoa—.

Enplegu-tasen atzerakada biziagoa izan da gizonezkoen artean, emakumezkoen artean baino, eta, lurralde mailan, beherakada handiagoa izan da Espainiako gazteen artean, Euskadiko gazteen artean baino: Euskadin, -14 puntuko beherakada, -8,2 punturen aurrean (-% 24,6ko beherakadak, -% 15,5en aurrean); Espainian, gizonezkoen -22,8 puntuko atzerakada, emakumezkoen -12 puntuen aurrean (-% 35,7ko beherakadak, -% 23,1en aurrean). Dinamika erregresibo horien ondorioz, lehen txikiagoak ziren emakumezkoen eta gizonezkoen tasen balioak berdintzen joan dira pixkanaka, eta, Euskadin ere, inoiz ez bezala, gizonezkoen tasa ia 2 puntutan gainditzen dute, aztertutako aldiaren amaieran. Gainera, enplegu-tasen beherakada azkartu egin da 2008tik aurrera, finantza-krisia



areagotzearekin eta enpleguan izandako ondorio suntsitzailearekin bat. 2011n, Euskadin bizi ziren 16 eta 29 urte arteko gizonezkoen % 42,8k lana zuen; Estatuan baino ia bi puntu gehiago (% 41,1). Emakumezkoen artean, lana zuten euskaldunek ia bost puntuko aldea zuten Espainiakoen gainetik (euskaldunak % 44,7, Estatukoak %40) —ikus 2. taula—.

Jarraian, ikus dezagun langabezia-tasaren bilakera. Horren urteko batez bestekoa modu esanguratsuan handitu da 16 eta 29 urte arteko gazteen artean: 2006 eta 2011 artean, eta bi sexuetarako, langabeen ehunekoa 11,9 puntu handitu zen Euskadin, eta 21,5 puntu Espainian (% 163ko eta

% 158ko gehikuntzak, hurrenez hurren). 2011n, gazte aktiboen % 19,2 zeuden langabezian Euskadin, eta % 35,1 Estatuan. Hurrengo grafikoan, argi ikusten da langabezia-tasaren gorakada 2008tik aurrera gertatu dela, batez ere, Euskadin; orduantxe piztu ziren finantza-krisia eta atzeraldi ekonomikoa —ikus 3. grafikoa—.

Hain zuzen ere, langabeziaren fenomenoak modu esanguratsuan egin zuen aurrera bi lurraldeetako 16 eta 29 urte arteko populazioan, eta bi sexuetan handitu zen, intentsitatean alde nabarmena badute ere: gizonezkoen kasuan, askoz ere indartsuagoa izan zen (% 201eko gorakada Euskadin, eta % 227koa Estatuan), emakumezkoetan baino

2. taula. 16 eta 29 urte bitarteko enplegu-tasa (ET*) (urteko batez bestekoa) EAE eta Espainian izandako bilakaera, sexuaren arabera (2006-2011)


Lurralde-esparrua eta sexua		2006	2008	2011	Aldea 2011 – 2006	Aldea 2011 – 2008
EAE	Gizonezkoak	56,8	55	42,8	-14,0	-12,2
	Emakumezkoak	52,9	50,9	44,7	-8,2	-6,2
	Aldea gizonezkoak – emakumezkoak	3,9	4,1	-1,9		
Espainia	Gizonezkoak	63,9	58,5	41,1	-22,8	-17,4
	Emakumezkoak	52,0	51,3	40,0	-12,0	-11,3
	Aldea gizonezkoak – emakumezkoak	11,9	7,2	1,1		
Aldea EAE – Espainia	Gizonezkoak	-7,1	-3,5	1,7		
	Emakumezkoak	0,9	-0,4	4,7		

(*) 16 eta 29 urte bitarteko enplegu-tasa (ET), sexuaren arabera = lana dutenen ehunekoa, adin talde (16-29 urte) eta sexu bereko biztanleria osoarekiko.

Iturria: a) EAEko datuak: Gazteen Euskal Behatokia, Eustatek emandako datuak, Biztanleria jardueraren arabera sailkatzeko inkesta (BJA); b) Espainia: Gazteen kopuruak, jarduera-, enplegu- eta langabezia-adierazleak, INJUVE; Populazio aktiboaren inkestaren arabera, INE.

3. grafikoa.

16 eta 29 urte bitarteko langabezi-tasak
(urteko batez bestekoa)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia eta INJUVE.

Gazteen adierazleak 2011

(% 126 eta % 103, hurrenez hurren). Bada, generoaren arabera langabeziaren gorakadako diferentzial horren ondorioz, gizonezkoen tasa emakumezkoena baino hainbat puntu handiagoa izan zen 2011n: 3,9 puntu Euskadin (gizonezkoak % 21,1 eta emakumezkoak % 17,2), eta 2,6 puntu Estatuan (gizonezkoak % 36,3 eta emakumezkoak % 33,7). Lurraldeen ikuspegian sakonduz gero, EAEren eta Espainiaren arteko konparazioa eginez gero, Estatuaren aldeko desberdintasun sakonagoa ikusiko dugu langabezia-tasetan: 2006ko gailentasunetik, 2011ko *ezberdintasun izugarria*. Espainian askoz ere progresiboagoa izan den

goranzko bilakaerak Euskadiko gizonezko aktiboetan 15,2 puntu txikiagoa eta emakumezko aktiboetan 16,5 puntu txikiagoa den 30 urtetik behar-rako gazteen arteko langabeen ehunekoak ematen dizkigu 2011n —ikus 3. taula—.

Laburbil dezagun lehen atal hau, 2006 eta 2011 artean, Euskadiko gazteei dagozkien urteko jarduera-, enplegu- eta langabezia-tasen bilakaerak jasotzen dituen grafikoarekin: aktiboak eta landunen beheranzko joera argia ikusiko dugu bertan, eta langabeen ehunekoen gorakada; nagusiki, 2008 eta 2011 artean —ikus 4. grafikoa—.

Gazte landunen eta langabeen zenbait ezaugarri

Has gaitezen gazte landunekin, 16 eta 29 urte arteko soldatakoen tasa (urteko batez bestekoa) aztertuta, sexuaren arabera: 2006 eta 2011 artean, lana dutenen guztizkoari dagokionez, soldatakoen proportzioak gora egin zuen bi generoetan, baina gehiago Euskadin, Estatuan baino. Aipatzekoa da soldata-erlazioa ia orokortuta dagoela lana duten gazteen artean; izan ere, 16 eta 29 urte arteko landunen 10etik gutxienez 9 enplegatzan dira

3. taula. 16 eta 29 urte bitarteko langabezia-tasa (LT*) (urteko batez bestekoa) EAE eta Espainian izandako bilakaera, sexuaren arabera (2006-2011)

Lurralde-esparrua eta sexua		2006	2008	2011	Aldea 2011 – 2006	Aldea 2011 – 2008
EAE	Gizonezkoak	7,0	7,9	21,1	14,1	13,2
	Emakumezkoak	7,6	6,6	17,2	9,6	10,6
	Aldea gizonezkoak – emakumezkoak	-0,6	1,3	3,9		
Espainia	Gizonezkoak	11,1	18,0	36,3	25,2	18,3
	Emakumezkoak	16,6	18,9	33,7	17,1	14,8
	Aldea gizonezkoak – emakumezkoak	-5,5	-0,9	2,6		
Aldea EAE – Espainia	Gizonezkoak	-4,10	-10,10	-15,20		
	Emakumezkoak	-9,00	-12,30	-16,50		

(*) 16 eta 29 urte bitarteko langabezia-tasa (LT) sexuaren arabera = langabeen ehunekoak, adin talde (16-29 urte) eta sexu bereko biztanleria aktiboaren osoarekiko.

Iturria: a) EAEko datuak: Gazteen Euskal Behatokia, Eustatek emandako datuak, Biztanleria jardueraren arabera sailkatzeko inkesta (BJA); b) Espainia: Gazteen kopuruak, jarduera-, enplegu- eta langabezia-adierazleak, INJUVE; Populazio aktiboaren inkestaren arabera, INE.

modalitate horretan, EAEn zein Espainian. Nolanahi ere, *alokatze maila* handixeagoa dago Euskadin eta Espainian lana duten emakumezko gazteen artean, gizonezkoekin konparatuta. Era berean, lurraldeen arteko konparazioan, Euskadiko soldatakoen tasek, Espainiakoekin alderatuta, nagusitasun txiki bateranzko aldaketa iragartzen dute gizonezkoei dagokienez (2011n: % 92,1, % 90,2ren aurrean); segur aski, autoenplegua berpiztu egin delako Espainiako gazte landunen artean, finantza-krisiaren eta atzeraldi ekonomikoaren inpaktu handiagoa jasan dutelako, eta, ondorioz, soldatako gisa lana lortzeko zailtasun handiagoak izan dituztelako —ikus 4. taula—.

4. grafikoa. Jarduera-, enplegu- eta langabezia-tasak EAEn (urteko batez bestekoak)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia.

4. taula. 16 eta 29 urte bitarteko okupatuen soldatakoen tasek (ST*) (urteko batez bestekoa) EAEn eta Espainian izandako bilakaera, sexuaren arabera (2006-2011)

Lurralde-esparrua eta sexua		2006	2008	2011	Aldea 2011 – 2006	Aldea 2011 – 2008
EAE	Bi sexuak	90,7	91,8	93,2	2,5	1,4
	Gizonezkoak	89,9	90,4	92,2	2,3	1,8
	Emakumezkoak	91,7	93,6	94,3	2,6	0,7
	Aldea gizonezkoak – emakumezkoak	-1,8	-3,2	-2,1		
Espainia	Bi sexuak	91,2	91,5	92,2	1,0	0,7
	Gizonezkoak	89,3	89,4	90,2	0,9	0,8
	Emakumezkoak	93,7	93,9	94,3	0,6	0,4
	Aldea gizonezkoak – emakumezkoak	-4,4	-4,5	-4,1		
Aldea EAE – Espainia	Bi sexuak	-0,5	0,3	1,0		
	Gizonezkoak	0,6	1,0	2,0		
	Emakumezkoak	-2,0	-0,3	0,0		

(*) 16 eta 29 urte bitarteko okupatuen soldatakoen tasa (ST), sexuaren arabera = soldatakoen ehunekoa, adin talde (16-29 urte) eta sexu bereko biztanleria okupatuaren osoarekiko.

Iturria: a) EAEko datuak: Gazteen Euskal Behatokia, Eustatek emandako datuak, Biztanleria jardueraren arabera sailkatzeko inkesta (BJA); b) Espainia: Gazteen kopuruak, jarduera-, enplegu- eta langabezia-adierazleak, INJUVE; Populazio aktiboaren inkestaren arabera, INE.

Ikus ditzagun, orain, behin-behinekotasun tasa (urteko batez bestekoa), 16 eta 29 urte arteko talderako, sexuaren arabera: 2006 eta 2011 arteko aldian, behin-behinekotasunaren ehunekoaren beharakada orokorra izan da soldatapeko gazteen artean, Euskadin zein Espainian; apur bat handixeagoa Euskadin, gizonezkoen artean batez ere

(Euskadin $-18,7\%$ eta Espainian $-11,6\%$). Bilakaera negatibo horren ondoren, 2011n, emakumezkoen behin-behinekotasun tasak Espainiako gizonezkoena berdindu du (48%); aldiz, Euskadin, puntu bat handiagoa da ($45,6\%$ eta gizonezkoen $44,4\%$), nahiz eta, lehen, gizonezkoena zertxobait gailenagoa zen. Edozer kasutan, behin-behineko-

tasun balioak berdintzen hasiak dira, hala generoen, nola lurraldeen artean —ikus 5. taula—.

5. taulan ikus dezakegunez, behin-behineko soldatakoen ehunekoa (bi sexuak) txikitu egin zen 2006tik ($53,1\%$) 2008ra ($45,4\%$) bitartean, eta, ondoren, 2011n, eutsi egin dio EAEn bizi diren 16

5. taula. 16 eta 29 urte bitarteko soldatako biztanleria okupatuaren (kooperatibistak izan ezik) behin-behinekotasun tasa (BBT*) (urteko batez bestekoa) EAEn eta Espainian izandako bilakaera, sexuaren arabera (2006-2011)

Lurralde-esparrua eta sexua		2006	2008	2011	Aldea 2011 – 2006	Aldea 2011 – 2008
EAE	Bi sexuak	53,1	45,4	45,0	-8,1	-0,4
	Gizonezkoak	54,6	46,3	44,4	-10,2	-1,9
	Emakumezkoak	51,5	44,4	45,6	-5,9	1,2
	Aldea gizonezkoak – emakumezkoak	3,1	1,9	-1,2		
Espainia	Bi sexuak	54,8	48,8	47,9	-6,9	-0,9
	Gizonezkoak	54,3	48,6	48,0	-6,3	-0,6
	Emakumezkoak	55,4	49,1	47,8	-7,6	-1,3
	Aldea gizonezkoak – emakumezkoak	-1,1	-0,5	0,2		
Aldea EAE – Espainia	Bi sexuak	-1,7	-3,4	-2,9		
	Gizonezkoak	0,3	-2,3	-3,6		
	Emakumezkoak	-3,9	-4,7	-2,2		

(*) 16 eta 29 urte bitarteko soldatako biztanleria okupatuaren (kooperatibistak izan ezik) behin-behinekotasun tasa (BBT), sexuaren arabera = behin-behineko langileen ehunekoa, adin talde (16-29 urte) eta sexu bereko soldatako biztanleria osoarekiko.

Iturria: a) EAEko datuak: Gazteen Euskal Behatokia, Eustatek emandako datuak, Biztanleria jardueraren arabera sailkatzeko inkesta (BJA); b) Espainia: Gazteen kopuruak, jarduera-, enplegu- eta langabezia-adierazleak, INJUVE; Populazio aktiboaren inkestaren arabera, INE.

eta 29 urte arteko soldatako populazioaren artean (% 45).

Langabeei dagokienez, aurrera egin baino lehen, argi dezagun Euskadin bizi diren langabe gazteei buruzko azalpenek INJUVEko Espainiako Gazte-riaren Behatokiak argitaratutako datuak dituztela oinarri. Datu horiek Estatuko Enplegu Zerbitzu Pu-

blikoaren (SEPE) informazio estatistikoan dute jatorria. 2011ko abendua hartuko dugu ardatz, erregistratutako langabe gaztearen profil sozio-demografikoaren argazkia ateratzeko. Horrenbestez, 2011. urtea 16 eta 29 urte arteko 28.101 langabe erregistraturekin amaitu zen Euskadin: % 54 gizonezkoak, eta % 46 emakumezkoak; Espainiari dagokion banaketa baino pixka bat maskulinoa-


goa, beraz (% 52,4 eta % 47,6, hurrenez hurren). Kopuru horrek Espainian 30 urtetik behera erregistratutako langabe guztien % 2,9 adierazten du (16 eta 29 urte arteko 966.058 langabe), eta EAEn erregistratutako langabe guztien % 19,3 (145.394). Estatuko adierazle berarekin konparatuta (% 21,8), bi puntu txikiagoa da ehunekoa —ikus 6. taula—.

6. taula. Biztanleria osoko eta 16 eta 29 urte bitarteko langabe erregistratuak EAEn eta Espainian 2011ko abenduan, sexuaren arabera: kopuru absolutuak eta portzentajeak

Lurralde-esparrua eta sexua		Gazteak (abs.)	Biztanleria osoa (abs.)	Gazteak / biztanleria osoa (%)	Gazteak (sexuaren araberako %)	Biztanleria osoa (sexuaren araberako %)
EAE	Bi sexuak	28.101	145.394	19,3	100,0	100,0
	Gizonezkoak	15.172	71.255	21,3	54,0	49,0
	Emakumezkoak	12.929	74.139	17,4	46,0	51,0
	Aldea (%) gizonezkoak – emakumezkoak			3,9		
Espainia	Bi sexuak	966.058	4.422.359	21,8	100,0	100,0
	Gizonezkoak	506.050	2.209.738	22,9	52,4	50,0
	Emakumezkoak	460.008	2.212.621	20,8	47,6	50,0
	Aldea (%) gizonezkoak – emakumezkoak			2,1		
Aldea (%) EAE – Espainia	Bi sexuak			-2,52	0,00	0,00
	Gizonezkoak			-1,61	1,61	-0,96
	Emakumezkoak			-3,35	-1,61	0,96

Iturria: Erregistratutako langabezia, 16-29 urteko gazteak, 2011ko abendua. Cifras Jóvenes, Espainiako Gazteen Behatokia (INJUVE); Lan Eskatzaileen Estatistika, Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoa (SEPE).

5. grafikoa. 2011ko abenduan erregistratutako langabetuak



Iturria: INJUVE.

16 eta 29 urte arteko langabe erregistratuei dagokienez, bi adin talderen arabera kalkula dezakegu euren banaketa: 16 eta 24 urte artean, eta 25 eta 29 urte artean, bi sexuetan. Euskadin, 2011ko abenduan, 16 eta 24 urte arteko langabe erregistratuak 11.935 ziren, eta 25 eta 29 urte artekoak 16.166; hots, % 42,5 eta % 57,5 adierazten dute, 16 eta 29 urte arteko kolektibo osoari dagokionez. Espainiakoa baino banaketa helduagoa da, beraz: % 47,7 eta % 52,3, hurrenez hurren¹. Alde hori euskal gazteak lan-merkatuan beranduago sartzen direlako gertatu da beharbada; izan ere, proportzio handiagoak jarraitzen du ikasten, derrigorrezko hezkuntza amaitu arte —gogora dezagun eskolatzetarako handiagoak direla Euskadiko gazteen artean— (ikus 5. grafikoa).

Gazteen enpresagintza

2010eko abenduan, Gazteen Euskal Behatokiak telefono bidezko inkesta egin zien Euskadin bizi diren 16 eta 34 urte arteko 2.000 gazteri², euren esperientzia ekintzaileak, jarrerak, gizarte-profila eta enpresagintzarako baliabideak ezagutzeko. Jarraian, ikerketa kuantitatibo horren emaitza garrantzitsuenak jasoko ditugu —ikus 6. grafikoa—;

lehenik eta behin, euskal gazteriak gauzatutako esperientzia ekintzaileei buruzkoak:

- Elkarriketatutako 16 eta 34 urte arteko gazteen % 12k esperientzia du enpresagintzan, eta % 5ek negozio bat dute aktiboan; horiek lana duen populazio gaztearen % 9 adierazten dute. Enpresagintzan esperientzia duten gazteen artean, 'jakin-min pertsonala' izan da bultzatzaile nagusia (% 65), eta % 39k aholkularitza-zerbitzuetara jo zuten; orokorrean, herri-administrazioen menpe daudenetara (% 61).
- Enpresagintzarekiko jarrerari dagokienez, elkarriketatutako gazteen % 28k nahiago dute beren kontura lan egin, eta % 62k besteren kontura. Aldeko jarrera ohikoagoa da gizonezkoen artean (% 31, emakumezkoena % 25) eta, batez ere, enpresagintzan esperientzia dutenen artean (% 45). Nahiago dutenen artean, 'independentsia, nor bere nagusia izatea' gailentzen da norberaren konturako lana aukeratzeko zergati gisa (% 88). Ekiteko orduan aipatzen dituzten arriskuen artean, 'bankarota izateko aukera' (% 66) eta 'ondasunak galtzeko arriskua' (% 41) nabarmentzen dituzte. Gainera, 15 eta 34 urte artekoek gehienbat modu positiboan hautematen dituzte pertsona ekintzaileak: 'enplegua sortzen dute' (% 88) eta 'produktu eta zerbitzu berriak sortzen dituzte' (% 86). Oinordetzan 100.000

¹ Absolutuetan: 16 eta 24 urte arteko 460.561 langabe erregistratu, eta 25 eta 29 urte arteko 505.497 langabe erregistratu Espainian, 2011ko abenduan.

² GAZTEEN EUSKAL BEHATOKIA: *Enpresagintza EAEko gazteen artean*. 2010eko abenduan.

euro jasoz gero, elkarriketatuen % 19k 'negozio bat martxan jartzeko' erabiliko lituzkete. Erantzun hori ohikoagoa da gizonezkoen artean (% 22), emakumezkoen artean baino (% 16).

- Euskadiko gazteen enpresagintza-profilari dagokionez, % 59k 'profil sendoa' dute (nortasun ekintzailearen 7-8 ezaugarri betetzen ditu); horien artean, Bizkaian bizi diren (% 62) 20 eta 29 urte arteko (% 62) gizonezkoak (% 62) nabarmen direla: nahiago dute autoenplegua (% 66), eta esperientzia ekintzailea dute (% 69).
- Azkenik, enpresagintzarako baliabideei dagokienez, 15 eta 34 urte arteko elkarriketatuen % 68ren ustez, hezkuntzak 'ekintzaile-sena' eman die; % 55en iritzian, hezkuntzak 'negozioa aurrera eramateko gaitasunak eta ezagutza praktikoak eman dizkie', eta % 30ek enpresagintzari buruzko ikastaro eta jardueretan hartu dute parte. Ingurune sozioekonomikoan hautesmandako zailtasunen artean, hiru nabarmen dituzte: 'finantza-laguntzaren falta' (% 86), 'prozedura administratiboaren konplexutasuna' (% 66) eta 'informazio falta' (% 44). Azkenik, 15 eta 34 urte arteko elkarriketatutako pertsonen % 44k ezagutzen dituzte enpresagintza bultzatzen duten erakundeak; horietako % 42k herri-administrazioa aipatzen dute, eta % 28k finantza-erakundeak.

6. grafikoa. Gazteen enpresagintzaren aurkako eta aldeko faktoreak EAE



2. Lurralde historikoak

Jarraian aipatuko ditugun jarduera-, enplegu- eta langabezia-tasak, lurralde historikoetan bizi den gazterari buruzkoak, Estatistikaren Euskal Erakundeak (Eustat) sortu ditu Gazteen Euskal Behatokiarentzat, hiru hilabeteen behin egiten duen *Biztanleria jardueraren arabera sailkatzeko inkestaren* (BJA) emaitzetatik abiatuta. Hurrengo tauletan eta grafikoetan, 16 eta 29 urte arteko taldearen urteko batez besteko tasak jaso ditugu, bi sexuenak. Laginketa-akats handia dela-eta, ez ditugu sexuaren arabera aztertuko³. Azal-

pen metodologiko hori egin ondoren, ekin diezaiogun jarduera-tasen analisi deskribatzaile eta konparatiboari: 2006 eta 2011 arteko urteko batez bestekoek behera egin zuten hiru lurralde historikoetan bizi diren 16 eta 29 urte arteko gazteen artean; bereziki, Araban (–7 puntu) eta Gipuzkoan (–7,7 puntu). Nolanahi ere, finantza-krisiaren eta atzeraldi ekonomikoaren aldian (2008-2011), tasaren atzerakada handiagoa izan zen Gipuzkoako gazteen artean, eta, ondoren, Bizkaiko gazteen artean. Aldakuntza horien on-

doren, 2011n, Arabako gazteak nabarmentzen dira jarduera-tasan (% 55,3), Bizkaiko gazteak ez bezala, horiek hirugarren postura jaisten baitira (% 53,6). —ikus 7. taula—.

Enplegu-tasak (urteko batez bestekoak) nabarmen murriztu dira lurralde historikoetan bizi diren 30 urtetik beherako gazteen artean: horrela, 2006 eta 2011 artean, gehiago murriztu ziren Gipuzkoako gazteen artean (–12,4 puntu), eta lurralde hori ere nabarmentzen da krisi/

7. taula. 16 eta 29 urte bitarteko gazteen jarduera-tasa (urteko batez bestekoa), lurralde historikoetan izandako bilakaera (2006-2011)

Lurralde historikoak	2006	2008	2011	Aldea 2011 – 2006	Aldea 2011 – 2008
Araba	62,3	56,6	55,3	–7,0	–1,3
Bizkaia	56,7	56,7	53,6	–3,1	–3,1
Gipuzkoa	62,0	58,6	54,3	–7,7	–4,3

Iturria: Gazteen Euskal Behatokia, Eustatek emandako datuak oinarri hartuta, Biztanleria jardueraren arabera sailkatzeko inkesta (BJA).

³ Lurralde historikoetarako informazioak, sexuaren arabera gurutzatutakoak, oso laginketa-akats handia du (% 30etik gorakoa).

atzeraldia ekonomikoaren aldian (– 8,4 puntu, 2008 eta 2011 artean). Aztertutako aldiaren azken urtea kontuan hartuz gero, tasa handiena Arabako gazteriari dagokiola ikus daiteke (% 8); txikiena, berriz, Bizkaikoari (% 40,8). Bi lurraldeetan, alde nabarmena dago lana dutenen ehunekoen artean (7,2 puntu) —ikus 8. taula—.

Lanaren beherakada bat dator 16 eta 29 urte artekoen langabezia-fenomenoaren hazkunde nabarmenarekin: 2006 eta 2011 artean, gazteen langabezia-tasek (urteko batez bestekoak) 9,4 (Gipuzkoa) eta 14,9 (Bizkaia) puntu arteko gorakada izan zuten; ehunekoei dagokienez, tasaren gehikuntza % 114,5ekoa izan zen Araban, % 167,4koa Bizkaian, eta % 180,8koa Gipuzkoan.

Era berean, 2011n, gazteen langabeziak eragin desberdinak zituen lurralde historikoetan: demente handiagoa zen Bizkaian bizi diren 16 eta 29 urte arteko aktiboen artean (% 23,8), Gipuzkoan (% 14,6) eta Araban (% 13,3) baino; hain zuzen ere, hamar puntu eta erdiko aldea zegoen Bizkaiko eta Arabako tasen artean —ikus 9. taula—.

8. taula. 16 eta 29 urte bitarteko gazteen enplegu-tasa (urteko batez bestekoa) lurralde historikoetan izandako bilakaera (2006-2011)

Lurralde historikoak	2006	2008	2011	Aldea 2011 – 2006	Aldea 2011 – 2008
Araba	58,4	54,2	48,0	–10,4	–6,2
Bizkaia	51,6	51,8	40,8	–10,8	–11,0
Gipuzkoa	58,8	54,8	46,4	–12,4	–8,4

Iturria: Gazteen Euskal Behatokia, Eustatek emandako datuak, Biztanleria jardueraren arabera sailkatzeko inkesta (BJA).

9. taula. 16 eta 29 urte bitarteko gazteen langabezia-tasa (urteko batez bestekoa) lurralde historikoetan izandako bilakaera (2006-2011)

Lurralde historikoak	2006	2008	2011	Aldea 2011 – 2006	Aldea 2011 – 2008
Araba	6,2	4,3	13,3	7,1	9,0
Bizkaia	8,9	8,6	23,8	14,9	15,2
Gipuzkoa	5,2	6,6	14,6	9,4	8,0

Iturria: Gazteen Euskal Behatokia, Eustatek emandako datuak oinarri hartuta, Biztanleria jardueraren arabera sailkatzeko inkesta (BJA).

3. Ondorioak

Hazkunde ekonomiko kapitalistaren gorakada-fasea agortu ondoren (2007ko abuztuaren, AEBetako 'subprime hipoteken krisiak' eragindako *higiezin-finantza boomaren krakak* leherrarazi zuen hori), 2008an piztutako krisialdi edo atzeraldi ekonomikoak aldaketa garrantzitsuak eragin ditu Euskadiko zein Espainiako gazteen jardueran, enpleguan eta langabezian. Jarduera-tasari dagokionez (urteko batez bestekoa), 2006 eta 2011 artean, portzentajezko 5 puntuko beherakada izan du 16 eta 29 urte artekoen artean. Gizonezkoen kasuan handiagoa izan denez jaitsiera, genero biak parekatuta gelditu dira: 2011n, Euskadin, 54 aktibo izan dira 16 eta 29 urte arteko 100 gizoneko eta 100 emakume; lurraldeen arteko konparazioan, mantendu egin dira Espainiako gazteen aldeko desberdintasun kuantitatiboak (% 63,5 eta % 59,1). Beraz, datu horien arabera, egungo krisialdi edo atzeraldi ekonomikoa lehertu zenetik, Euskadiko zein Espainiako gazteriarren zati bat, *atsekabeak eraginda*, derrigorrezko hezkuntzaren osteko mailetara itzuli da, *babes-jardueraren* baten bila, gaur egun ahula baita gazte aktiboek duten enplegarritasuna, eta *ma-sako langabezia-egoeran* baitaude.

16 eta 29 urte arteko gazteen enplegu-tasak (urteko batez bestekoa) bilakaera negatiboa izan du 2006 eta 2011 artean, eta gehiago murriztu dira gizonezkoen artean, emakumezkoen artean baino. Era berean, beherakada handiagoa izan da Espainiako gazteen artean, Euskadiko gazteen artean baino. Seguruenik, krisialdiak edo atzerapen ekonomikoak batez ere eraikuntzari eta horrekin lotutako sektoreei eragin dielako, eta enpleguak arlo horietan desagertu direlako gertatu da hori; arlo horietan, gizonezkoak dira gehiengo, eta presentzia erlatibo handiagoa dute Espainiako egitura ekonomikoan. Litekeena da horregatik agertzea halako diferentziala sexuaren eta lurraldearen beherakadaren intentsitatean. Aztertutako aldian, gizonezkoen eta emakumezkoen tasen arteko aldea murrizteko joera agertu da; izan ere, Euskadin, lanean ari diren emakumezkoen ehunekoa gailendu egin da, aurrenekoz (2011: % 44,7 emakumezkoetan, % 42,8 gizonezkoetan). Era berean, euskal tasak handiagoak izan dira Espainiakoak baino (2011: % 40 emakumezkoetan, % 41,1 gizonezkoetan).

Lan-baldintzei dagokionez, lana duten 16 eta 29 urte arteko gazteen artean, soldata-harremana oso orokortua dago (lana duten 10etik 9), eta soldatuko tasak baliorik handiena lortu zuen 2011n: lana dutenen % 93,2ko urteko batez bestekoa Euskadin, eta % 92,2koa Estatuan. Urte bereko behin-behinekotasun tasari dagokionez, Euskadin lana duten 16 eta 29 urte arteko gazteen % 45ek behin-behineko kontratua du; Espainiako gazteriarri dagokion ehunekoa baino hiru puntu txikiagoa (% 47,9).

Langabezia-tasa (urteko batez bestekoa) modu esanguratsuan handitu da gazte aktiboaren artean, 16 eta 29 urte arteko talde beraren jardueraren eta enplegu-tasetan gertatu ez bezala: 2006 eta 2011 artean, eta bi sexuetan, 12 puntu handitu zen Euskadin. Dena den, hazkuntza ia bikoitza izan zen Espainiako gazte aktiboaren artean: +21,5 puntu. Aipatzekoa da bi sexuetan handitu zela, baina intentsitate handiagoarekin gizonezkoetan, emakumezkoetan baino: 2011n, gizonezkoen tasak 4 puntutan gailenditzen du emakumezkoena (% 21,1 gizonezko langabe, % 17,2 emakumezko langabe Euskadin). Espainian ere gizonezkoen ehunekoa

da nagusi (% 36,3 gizonetzkoetan, % 33,7 emakumetzkoetan). Era berean, Euskadiko langabezia-tasa 15,2 puntu txikiagoa da gizonetako aktiboen artean, eta 16,5 puntu txikiagoa emakumetako aktiboen artean, 16 eta 29 urte arteko Espainiako gazteekin konparatuta. Laburbilduz, beraz, egungo higiezin-finantza krisiarekin, eta horrek hainbat sektore ekonomikotan eragindako atzeraldiarekin eta herri-administrazioetan izandako defizit-krisi fiskalarekin, gazteen langabeziak 'masen langabeziaren' dimentsioa hartu du bi lurraldeetan; Estatuan, hala ere, indar handiagoarekin.

Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoan (SEPE) erregistratutako gazte langabeen kopuruari dagokionez, 2011ko abenduan, 16 eta 29 urte arteko 28.101 langabe zenbatu ziren Euskadin. Horietako % 54 gizonetakoak dira, eta % 46 emakumetakoak. Guztira, Espainian erregistratuta dauden 30 urtetik beherako guztien % 2,9 lirateke (966.058 gizabakoa), eta Euskadin erregistratutako guztizkoaren % 19,3, adina bereizi gabe.

Bibliografia

GAZTEEN EUSKAL BEHATOKIA:
Enpresagintza EAEko gazteen artean
(Euskadiko Gazteen Joeren Koadernoak). Bilbao: Gazteen Euskal Behatokia, 2011. Webgune honetan eskuragarri:
http://www.gazteaukera.euskadi.net/r58-7657/eu/contenidos/informacion/estudios_sociologicos/eu_liburuak/adjuntos/Emprendimiento_e.pdf
[Kontsulta data: 2012/5/7]

OBSERVATORIO DE LA JUVENTUD. Cifras Jóvenes - Indicadores de Actividad, Ocupación y Desempleo (Primer, segundo, tercero y cuarto trimestre de la EPA de 2006 y 2011). Madril: Instituto de la Juventud. Webgune honetan eskuragarri:
<http://www.injuve.es/contenidos.descargas.action?type=1296440931>
[Kontsulta data: 2012/5/7]

OBSERVATORIO DE LA JUVENTUD. Cifras Jóvenes - Paro registrado, Jóvenes de 16 a 29 años (Diciembre 2011). Madril: Instituto de la Juventud. Webgune honetan eskuragarri: <http://www.injuve.es/contenidos.item.action?id=1730438333&menuId=1708199857>
[Kontsulta data: 2012/5/7]

